

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastora. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisbourg*. Bahnar deitu salbaia. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpiera Lexardoarteren bizitza edo Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachiteguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*. Joakin Berminghamen solasak. 2020
32. *Emil Larre*. Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*. Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*. Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez, arrazoirik ez / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratxabal*. Blanca eta Viana. Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros* (1957-2021). Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022
39. *Henrike Knörr* (1947-2008). Idazlan hautatuak. Textos escogidos. 2022
40. *Adolfo Arjita*. Faktoriako geziak. Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman: hautuak eta arrazoiak. 2022
41. *Jose Maria Agirre Egaña*. Lizardi *Bibotz begietan* eta gainerako olerkiak. 2023
42. *Isabel Etxebarria*. Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549). 2023



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Laguntzailea

Euskararen  
erakunde  
publikoa  
Office public de  
la langue basque



*EUSKALTZAINAK* izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.

42

MARGARITA, NAFARROAKO ERREGINA (1492-1549)

IXABEL ETXEBERRIA



EUSKALTZAINDIA

IXABEL ETXEBERRIA

MARGARITA

Nafarroako erregina  
(1492-1549)

42

EUSKALTZAINAK BILDUMA



IXABEL ETXEBERRIA

Urruñan (Lapurdi) 1960an sortua, hiru haurren ama, euskal kazetaritzako kolaboratzailea izan da urteetan: *Argian*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Egimen*, *Garan*, *Kazeta infon* eta abar.

Euskara eta Euskal Literaturan doktoregoa lortu zuen Bordeleko Montaigne Unibertsitatean; Ipar Euskal Herriko bigarren gerla ondorengo antzerkigintzari buruzko ikerketa egin eta argitaratu zuen. Euskarako irakasle izan da Seaskan, eta erretiroa hartu ostean, antzerkigintza ikertzen jarraitzen du egun. Haurrentzako ipuin-liburuen sortzaile ere bada, antzerki-testuak idazten ditu eta Urruñako antzerki-eskolan plazaratzen.



EUSKALTZAINDIA





IXABEL ETXEBERRIA

MARGARITA, NAFARROAKO ERREGINA  
(1492-1549)

*Antzezlanak eta gutunak*



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren  
Azkue Bibliotekako katalogoan: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en  
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles  
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:  
[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,  
Royal Academy of the Basque Language: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Ixabel Etxeberria

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabeak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S. L.

ISBN: 978-84-126313-4-0

Lege gordailua: BI 009I4-2023

IXABEL ETXEBERRIA

MARGARITA,  
Nafarroako erregina  
(1492-1549)

*Antzezlanak eta gutunak*

EUSKALTZAINDIA

BILBO  
2023



## AURKIBIDEA

Atarikoak: .....	XI. or.
Sarrera: .....	XIII. or.

### I. PIZKUNDE GARAIKO HISTORIAKO PASARTEAK

<b>1</b>	<b>Indar handiko bi errege lehian</b> .....	3
1.1	Europako nagusia izateko borroka .....	3
1.2	Frantzia agintzen zuen erregea, Frantzisko I.a.....	9
1.3	<i>Charles Quint</i> , Karlos V.a, leinu handikoa .....	12
<b>2</b>	<b>Italiako gerlak, lehiaren muinean</b> .....	17
2.1	Erljio gerlak Frantzia .....	19
2.2	Nafarroako Erresuma, bi erraldoien artean kokatua .....	28
2.3	Nafarroako konkista .....	31
2.4	Nafarroako Henrike II.a, Frantziako I.aren kontseilaria.....	36
2.5	Lapurdin, Zuberoan, Nafarroa Beherean .....	40
2.6	Zuberoa eta Lapurdi, ekonomikoki desberdinak .....	44
<b>3</b>	<b>Kultura eta Erreforma</b> .....	53
3.1	Pizkundearen jatorria.....	53
3.2	Humanisten indarra handitzen joan zen .....	54
3.3	Alfabetatzea Erdia Aroaren bukaeran .....	56
3.4	Berrikuntzen garaia, laburbilduz .....	59
<b>4</b>	<b>Emazteak XVI. mendean</b> .....	60
4.1	XVI. mendeko emazteen egoera .....	60
4.2	Pizkundea eta XX. mendeko ikerketak.....	70
4.3	Lege salikoa .....	71



## II. MARGARITA, ERAGIN HANDIKO EMAZTEA

<b>1</b>	<b>Margarita, Nafarroako erregina politikan, literaturan aipatua</b> .....	76
1.1	Familiaren agindupean .....	77
1.2	Politika, diplomazia lanabes .....	84
<b>2</b>	<b>Erreformaren hastapenak Frantziako Erresuman</b> .....	110
2.1	Erreformari arreta eskaini zion .....	110
2.2	Erasmoren gutuna Margarita erreginari .....	120
<b>3</b>	<b>Nafarroako errege-erreginak Nérac herrian</b> .....	122
<b>4</b>	<b>Azken bidaia</b> .....	127
4.1	Margaritaren azken hilabeteak.....	127
4.2	Margaritaren eta Joanaren arteko azken gutunak, euskaratuak .....	128

## III. NAFARROAKO ERREGINA ANTZERKIAREN BIDEAN

<b>1</b>	<b>Antzerkia XVI. mendean</b> .....	145
1.1	Ahozkotik hasiz.....	146
1.2	Pizkundean, antzerki munduaren berrikuntzak.....	149
1.3	Misterioak .....	151
1.4	Debekuaren inguruan.....	157
1.5	Antzerki berria .....	160
<b>2</b>	<b>Emazteak eta XVI. mendeko antzerkia</b> .....	167
<b>3</b>	<b>Antzerkia, Margaritaren genero preziatua</b> .....	169
3.1	Testuingurua .....	170
3.2	Margarita eta antzerkia .....	173
3.3	Hiru antzerki nagusi .....	176
	- <i>ERIA</i> - Fartsa 1535 .....	179
	- <i>Maitale perfektuaren komedia</i> .....	196
	- <i>Erregearen heriotzari buruzko komedia</i> .....	206
	<b>Azken hitza</b> .....	229
	<b>Bibliografia</b> .....	233

## Atarikoa

# Margarita, Nafarroako erregina

[1492-1549]

*Antzezlanak eta gutunak*

Margarita Frantziako Valois leinuaren kideak toki berezia du Nafarroako historian, Nafarroako Henrike II.a erregearekin ezkondu baitzen. Europa mailan Margaritak erreinaldien arteko harremanetan ardura handia zuen, bere anaia Frantzisko I.aren zerbitzuan. Ez zen soilik politikan aritu, literaturarentzat grina berezia zuen, obra nabarmena utzi zuen eta XVI. mendeko literatura sortzaileen artean erreferente dugu gaur egun. Antzerkia izan zen bere gortean eta inguruan bultzatu zuen artea, eta hainbat estilotako antzezlanak idatzi zituen. Eremu oso zabala landu zuen politikan eta letretan, eta, horrez gain, Joana Albretekoa Nafarroako erreginaren ama izan zen.

Margarita frantses jauregi batean sortu zen. Erdi Aro bukaerako bazterreko aristokrazian, alegia errege eta erreginen egiteko ez den eremu batean, ezkontzak osatzeko baliatzen ziren aristokrata soiletako bat izateko etorri zen mundura. Hau zen berarentzat idatzia zen geroa.

Haatik, bestelako ingurua gertatu zitzaion, eta bizi osoa iragan zuen Frantziako botereko erdigunean. Bazterreko aristokraziatik, baina kultura handiko familia batetik heldu zen. Heziketa kultua, garai horretan gizonen prestatzen zieten hezkuntza bera ezagutu zuen, Frantziako liburutegi nagusiak zeuden bizi zen jauregietan.

Lege salikoak bihurtu zuen bere anaia Frantziako errege. Frantzisko I.ak agintea hartzean, bere inguruan kokatu zituen konfiantzazko pertsonak. Le-

henik, bere ama, Louise de Savoie, ondoan hartu zuen eta berak erresuma eraman zuen erregea gerlara joaten zelarik. Ondoren, bere arreba Margarita atxiki zuen Europako diplomazia eramateko. Margarita garai beltzetan ere anaiaren interesak defendatzen aritu zen. Lan diplomatikoa aitortua zitzaion Europa guztian.

Garai berriak ziren Margaritarentzat, bere anaiak ardura handia eman baitzion eta horrekin batera lurralde eta ondasun handiak lortu baitzituen. Garai-ko emazteen artean botere handiko emaztea zen.

Aldaketa handien garaia izan zen Pizkundea. Errege aldaketak izan ziren, baina Elizak iraultzak ezagutu zituen, gatazka berri bat abiatu baitzen Erreformaren lehen urratsekin. Elizak aldaketak behar zituela-eta ahots berriak entzuten hasi ziren, kritika askorekin. Elizak benetako testuak ez zituela jarraitzen entzuten hasi zen, eta Erreformak bere bidea egin zuen Europa guztian.

Margarita jainkotiar handia zen, Elizak, otoitzak toki handia zuten bere bizian, Elizaren mugimendu eta debateak hurbildik jarraitzen zituen eta elizgizonez inguratua zen. Erreformaren ideiak hedatzen hasi zirelarik, Margarita adi egon zen eta ideia berrien hedatzaileak entzun zituen eta askotan babestu ere egin zituen, Erreforma jarraitzen zutenak askotan zigortzen baitziren, batzuetan erretzen ere epaiketa handien ondotik, estatuak Eliza babesten baitzuen askotan.

Botere eremuetan, Margaritak Henrike ezagutu zuen, Nafarroako erregea. Bere anaiaren baimenarekin Margarita Henrikerekin ezkondu zen, eta horrela Nafarroako erregina bihurtu zen. Hortik landa, Nafarroako erregearen lurraldeak ezagutu zituen eta bikoteak alaba bat izan zuen, Joana, Nafarroako erregina eta Henrike IV.aren ama izan zena.

Hala ere, Margaritak anaiaren interesak defendatzen jarraitu zuen, eta Henrikeren lurraldeen eta Parisen arteko bidaiak egin zituen.

Politikak eta Erreformak osatzen zuten Margaritaren bizitza. Haatik, Margaritak interes handia zuen literaturarentzat.

Pizkundea, kultura munduan ere, sorkuntza, borroka eta lan itzeleko garaia izan zen. Letren munduan, gaur egun ere ezagutzen dugun kultura eremuko oinarriak jarri ziren. Frantses kulturak jauzi handia egin zuen. Horretan Margarita partaide izan zen, sortzaile gisa, emazteen artetik atera zen lehenbiko idazleatarikoa izan baitzen. Hainbat literatura generotan sortu, argitaratu eta antolatu ere egin zuen.

Hemen, bere obra nagusia, *Heptameron*a, ez dugu ia-ia aipatuko, hemen antzerki munduko aldaketak, eraikuntza berriak aipatuko ditugu, antzerkiaren munduak eredu berriak proposatu zituen eta bide horietan ere Margaritak parte hartu zuen. Hemen, Margaritak idatzi zituen antzerkien artean hiru hautatu, aurkeztu eta itzuli ditugu. Antzerki horiek erreginak idatzi zituen antzerkien artean esanguratsuenak dira, eta modernitate handia erakusten dute gaur ere.

Horrez gain, Margarita amaren eta Joana alabaren artean ibili ziren gutunak ere plazaratu ditugu, euskarara itzuliak.

Antzerki-lanen testuak, frantsesez, liburu honetatik hartu ditugu:

Marguerite de Navarre. 1946. *Théâtre profane*.

Edité par L. Saulnier. Librairie Droz. Paris.

Ixabel Etxeberria



## Sarrera

Pizkundearen garaia Europa guztiarentzat bihurgune sakon eta eraikitzailea izan zen. Orduan, ezagutzen zen mundu kristau garrantzitsuenarentzat aldaketa asko heldu ziren, gehienak garaiko eliteak bultzatu zituenak, baina herritar guztientzat ere eragina izan zuen. Eliza nagusiaren barnean eta inguruan debate asko sortu ziren; bestalde, alfabetatzeak jauzi handia egin zuen kontinente osoan eta teknika aldetik asmakuntza inportanteak egin ziren.

Baina politikak ere borroka itzelak ezagutu zituen, eta Europaren barnean gerla asko piztu ziren errege indartsuenen artean.

Pizkundearen garaia bihurgune gatazkatsua izan zen Nafarroako Erresumarentzat. Izan ere, bere gainbeheraren hastapena izan zen. Ordu arte, Nafarroako Erresumaren barnean indar-harremanen borrokak ezagutu baziren, hamaseigarren mendean konkistaren garaia bilakatu zen. Konkistari aurre egitea nafarrentzat lehentasuna izan bazen, gatazkaren irabazteko egoerarik ez zen izan.

Henrike II.a Albretekoa zen orduan Nafarroako erregea, eta borroka gogorak egin zituen Nafarroako lurraldea berreskuratzeko. Henrike Albretekoa Europa guztian gerlari bikain gisa ezagutua zen, eta Frantziako errege Frantzisko I.aren lagun mina zen, harekin gerlara joaten zen. Gerla eta gerlari mundu horren barnean, erdigunean emazte bat zegoen Margarita izena zuena. Margarita Frantziako erregearen arreba zen eta harentzat lan diplomatikoak egiten zituen. Boterearen erdigunean zegoen, bere eragina handia zen anaiarekin harreman estua baitzuen.

Zenbait urtez, Margaritaren diplomazia mailako lana kontatuko dugu, gerlak egiten zituen anaiaren ondoan lan bikaina egiten zuen. Baina Erresumak ideia berrien aurrean sekulako itsaskia bizi zuen. Lutero teologoaren testuek eta predikuek Elizaren nagusitasuna zalantzan jartzen zuten, gizarteak asko kritikatzeko Eliza agerian gelditzen ziren iruzurrengatik.

Margaritak debate horiek jarraitzen zituen, fede handiko emaztea zen, baina askotan anaiak hartzen zituen erabakiekin ez zegoen ados, eta Erreformaren

alde zeudenak babestu eta gordetzen zituen. Bera ere arrisku handien erdian aurkitu izan zen, berak plazaratutako idatziengatik, baina anaiaren babesak epaitegietako mehatxua ahuldu zuen.

Erreformaren alde agertu zen Margarita, baina Elizaren barnean jarraitu zuen. Ideia berriei irekia zen, baina Elizarekin ez zuen hausturarik eragin. Margarita ahaldunen artean kokatua zen eta horrelako zutabea botatzea ez zitekeen erraza. Horrela, Margarita bere idatziekin eragiten saiatzen bazen ere, ez zen Elizaren kontra zuzenean joateko gai sentitu. Oso ongi inguratua zen. Teologo handiek aholkatzen zuten, baina aholkulari horiek ere epaitegietako zigorrak sufritu zituzten batzuk hiltzera kondenatuak izan arte. Ez zuen ahalbiderik izan denak babesteko. Garai lerrakorrak ziren goi mailako jendearentzat ere.

Bestalde, lehen ezkontzaren ondotik Margarita alargun gelditu zen. Ez zuen haurrik, aberatsa zen eta boterea zuen. Letretan ere bere bidea egiten hasia zen.

Baina Margarita anaiaren beharrei erantzuten ohitua zen. Henrike II.a Albretekoa, Nafarroako erregea, gustukoa zuen anaiak eta harekin ezkontzea onartu zuen. Nafarroako erregearentzat Nafarroa berreskuratzeko aukera zitekeen, erregearen laguntza eskuratzeko ideia zukeen ezkontza onartzean.

Harreman ona zen hasieran, Joana alaba sortu zen eta Margaritarentzat argi handia izan zen. Beste zenbait haur ere izan zituzten, baina haurtzaroan zendu ziren.

Ezkontza horrek Nafarroako erregearen lurraldeetara eramane zuen Margarita. Harreman handia izan zuen herri horietako biztanleekin eta zuen indar ekonomikoarekin laguntzen aritu zen, komentuentzat indar berezia egiten bazuen ere.

Erregina bihurtu zen ezkontzaren ondorioz. Titulu nagusia Europa osoan ezagutzen zen erresumaren izenarekin. Baina erreginaren zeregina anaiaren ondoan kokatzen zen, eta joan-jin asko egin behar izan zituen Henrikeren lurraldeen eta Parisen artean anaiak eskatzen ziona betetzeko.

Betebehar horietan, Margaritak jasaten ahal zuen mugetaraino eramane zuen anaiak, Margaritaren alaba Frantziako Erresumaren interesen arabera erabili baitzuen eta bere alabaren defentsarako gauza gutxi egin ahal izan baitzuen.

Nekadura hurbildu zitzaion Margaritari. Anaiaren alde egin zezakeen lana ez zen hastapenekoa eta literaturari lotzen hasi zen gero eta gehiago. Dokumentu asko utzi zituen. Dokumentu horien artean, ama-alaben arteko gutunak daude, hemen aurkezten ditugunak, eta antzerkiak. *Heptameron*a ez dugu landu, hori baita Margaritaren lanen artean gehien landu dena.

Testu horiek Nafarroako erreginaren gogoeten zati bat kontatzen digute, hala nola garai horietan komunikatzeko eta garaiko kezkak aipatzeko zeuden bideak.

Distira handiko emaztea izan zen Margarita, Nafarroako Erresumari oso loturik egon zen eta Nafarroako azken erregina librearen, Joana Albretekoaren, ama izan zen.

Hauk dira liburu honek kontatzen dituenak, Nafarroako Erresumako historiaren zati bat, Europa osoko problematikaren erdian kokatua, eragiten saiatu zena ospe handiko Margarita erreginaren bitartez.

Ixabel Etxeberria





PIZKUNDE GARAIKO  
HISTORIAKO PASARTEAK

I



Nafarroako Erresumak gaur egun ere oihartzun handia du, Nafarroaren nortasunak indartsu jarraitzen baitu. Haatik, Erresuma osatzen zuten herri-tarrez gutxi dakigu. Nafarroako elitea nortzuk ziren eta zer-nolako ibilbidea egin zuten jarraitzeko tresnak falta zaizkigu.

Hemen hautatu dugu Europa osoan ezaguna zen, eta Nafarroako erregina izan zen Margarita. Margaritak, Europa osoan, Pizkunde garaian izan zuen eragina itzela izan zen.

## 1. INDAR HANDIKO BI ERREGE LEHIAN

Pizkundearen hastapenetan, Nafarroako Erresumak —Europako en- tean— ospea izan zuen. Ospea lehenagotik zetorkion, Nafarroatik heldu ziren printzeak eta printzesak errege familia desberdinetan ezkonduak ziren, errege familien arteko loturak ezkontzen bitartez eraikitzen baitziren. Nafarroa zen kontuan hartzen zen erresuma.

Nafarroako Erresuma zertan zegoen XVI. mendearen hastapen hauetan begiratu baino lehen, haren inguruan nor zebilen, zer erresuma zeuden eta haien agintean zeuden erregeak zehaztuko ditugu. XVI. mendea landuko dugu bereziki, mende eraginkorra izan baitzen libre bizi zen Nafarroako Erresuman. Garai hartan indar harremanak, eta politika nagusiak zeintzuk ziren landuz, Nafarroako Erresumak zituen lagun eta etsaiak agertuko zaizkigu. Baina Euro- pa osoa astindu zuen mendea zen XVI.a, dagoeneko XV. mendean ezagutzen hasi zen mugimendu kultural oso batengatik, Pizkundearengatik, alegia.

### 1.1 Europako nagusia izateko borroka

Larousse entziklopediaren arabera, Pizkundera kultura eta arte mugimendu berritzailea izan zen, XV. mendean Italian abiatu eta XVI.lean Europa osoan hedatu zena.

Gure helburua hemen ez da Pizkunde garaiak izan zituen une desberdinen zehaztea, baizik eta garaiko Frantziaren eta Italian zeuden mugimenduak ko- katzea eta azaltzea, izan ere Frantziaren eta Italiaren arteko harremanak oso handiak izan baitziren, bai kulturalak eta bai gerla desberdinei lotuak. Horrez gain, hemen interesatzen zaizkigun gertakarietan Nafarroako errege-familiak toki berezia izan zuen, eta horrek testuinguru oso bat ematen digu Margarita Angulemakoa eta Joana Albretakoa nortzuk ziren jakiteko eta utzi zizkiguten testuen ulertzeko.

Pizkundea kontzeptua da, berrikuntza heldu zen garaia. Italian sortu zen ideia bat, zirkulu soil batzuetan gertatuko zena, eta artistek bereganatuko zutena, baina herritik nahiko urrun. Iragan bat berriz bilatu, galdekatu, aztertu eta ezagutu zen. Ideia zen garai bateko Erroma gogoratzea, eremu oso zabala gobernatzen zuen garaia, eta latina, hizkuntza aitzinean ematearen nahikeria, latina hizkuntza, izan baitzen garai bateko botere baten eragina hedatzeko tresna.

Laburki aipatzeko, Pizkundea garai modernoaren aro bat da, literaturaren, filosofiaren eta zientzien aurkikuntza berri batena. Italiako Pizkundea izan zen lehena. XV. mendean, Pizkundea Italia osora hedatu zen. Ondoren, Espainiara, Flandriara, Alemaniara eta, noski, Frantziara zabaldu zen. Azkenik, XVI. mendean Europa osora hedatu zen.

Pizkunde artistikoa aipatzen da, sortu ziren obrak ez baitziren Erdi Aroan oinarritzen, kultura greko-erromatarretan baizik. Elizaren inguruko aldaketak ere heldu ziren. Merkataritza forma berriak ere heldu ziren, eta inprimategiaren garapenak informazioa eta testu berrien zabaltzeko aukera eman zuten. Aldaketak oso sakonak izan ziren.

Hemen egin nahi dugun garaiairen deskribapena ez da gure lanaren erdigunea, baina testuingurua ulertzeko gertakari eta berrikuntza batzuk gogoratuko ditugu. Margarita beste alderdi asko zituen idazle nagusi bat zen, Nafarroako erregina izan baino lehen. Nafarroako erregearekin ezkondu zelarik ardua berriak eskuratu zituen, ordura arte Frantziako Erresumaren alde aritu zen, eta lurralde berriak ezagutu zituen, helburu berriak.

XVI. mendea aldaketa handien garaia da, iraultza kulturala izan zen, Margaritari interes sakona sortu ziona letren munduan. Letren mundua erabili zuen aldaketa espiritualak nola ulertzen zituen ezagutarazteko, batzuetan kritikak eta epaiketak jasateko arriskuarekin.

Antzinaroari buruzko interes berri hau oso pixkanaka zabaldu zen. Mugimendua Italiatik heldu zen, XVI. mendea zeharkatu zuen Jean Delumeau frantses historialariaren ikerketek ere diotenez (Delumeau 1999), eta autore horrek proposatzen duen ikuspuntuaren arabera, Pizkundearen bukaera Henrike IV.aren amaitu zen.

Liburu horretan, idazleak haurren hezkuntzaren inguruko ideia berriak nabarmentzen ditu, baita emaztearen promozioa ere. Pizkundea garai historikoa da, ez soilik artearen eta literaturaren berrikuntza.

Garaia Petrarcarekin hasi zen (Francesco Petrarca 1304-1374), Florentziako notario baten semea zen, lehen humanista gisa aipatua izan da, Pizkundearen bultzatzailea eta italiara modernoaren sortzailea. Familiak erbesteratu behar

izan zuen Avignonera, petratar poeta autore klasikoen azterketa sakona eraman zuen eta bere sortzaile lanak, poeta gisa, bere fama zabaldu zuen.

Horrez gain, zabaltze garaia Ipar Afrikatik hasi zen, Portugalgo Joan I.a bertara joan zelarik 1415ean, aurkikuntza berrien bila. Gertakariak ondorio errealak izan zituen, eremu berrietara heldu baitziren Europako erregeak, Mundu Berrietara, garapen baten atzemateko nahikariarekin. Haustura gogorrik ez zen agian gertatu, baina aldaketa maila askotara heldu zen.

Delumeau historialaria ez da hausturaren ideia gainean tematzen, aldaketa mailakatuari ematen dio garrantzia. Pizkundearen bukaera, haatik, frantses autore askok Henrike IV.a Frantziako erregearen heriotzarekin lotzen dute, beste batzuek, berriz, 1610ean Cervantesen heriotzarekin eta Shakespeareren heriotzarekin, 1616an. Zernahi gertakari garrantzitsu iragan zen garaia izan zen.

Hastapenetan, oso zirkulu hertsietan aipatzen zen gaia zen. Noski, Erromatik beste hiri nagusietako beste zirkulu txikitara eraman zuen interesa zen, baina urraska hedatzen ari zen mugimendua eta XV. mendean zehar, kultura, zientziak, artea, eskaintza berriak ezagutzen ziren, gero eta gehiago. Antzinaroaren berpizteak, bisitatze berri hori ez zen herritar guztiengana heldu, baina urrats garrantzitsua izan zen gizarte osoarentzat.

Inprentaren sorkuntzak, Gutenberg-en eskutik, ideia berriak herritarrengana heltzen lagundu zuen. Horrez gain, asmakizun berri asko izan ziren: ordulari mekanikoa, berina zuria, optikaren garapena ahalbidetu zuena, mineralen atertzeko teknika berriak, ordu arte uraren eta airearen mugimendua kudeatzeko jakitaterik ez zen izan eta horrek mineralen ekoizpena trabatu zuen.

Arlo militarrean ere garai berriak izan ziren, tresnak sortu ziren, arkabuzak, baina artilleria osoa berritu zen, itsasontziak karabelaren modukoak, munduan zehar bidaia luzeak egitea ahalbidetu zutenak<sup>1</sup>.

Zibilizazioaren ideia berantago heldu zen, Mendebaldeko zibilizazioaren oinarri gisa ikusten dute XIX. mendeko historialariek. Alta, XXI. mendeko historialari batzuen arabera, Pizkundea ez da zibilizazioaren ideian kokatzen, Didier Le Fur historialariaren arabera (LE FUR 2018: 250), zibilizazioaren definizioa hau da: Zibilizazio desberdinen izendatzearekin, zibilizazio egiptoarra, indiarra... , baina ideia hau da, hala ere, baliatu izan zena, desberdinen arteko loturak sortzeko eta Frantziaren menpe zegoen eremua indartzeko. Alegia, zibilizazio berri baten erdian Frantzia kokatzeko.

<sup>1</sup> DELUMEAU 1999: 152.

Frantziak bere iragan ospetsua berreskuratu nahi zuen. Orduko Veneziako errepublika ospe handikoa zen, haren hedapenak eta indar ekonomikoak, itsasoetan zehar ere, gutizia sortu zuten. Horretarako, Italian gertatu zena bereganatzen ahalegindu zen, eta frantses kultura indartuz joan zen, betiko helburuei eutsiz, kultura erreferentea izatea alegia. Frantziak itsasargi izan nahi zuen ideien munduan, eta arteen munduan.

Bestalde, ideia berrien garaia zen, Elizaren inguruan egonezinak zeuden eta Erreforma garai horretan agertu zen, beraz Erreformaren ideiek oihartzun berezia izan zuten, aldaketaren beharra zegoen une horretan. Erromako Elizaren nagusitasuna zalantzan jarri zen Erreformarekin, barneko ustelkeria handia baitzen. Elizak kritikak jasotzen zituen, idatziak zabaltzen ziren, sakramentu edo barkamenen lortzeko erabiltzen ziren diru trukeak salatuz, ezinegona zegoen eliztiarren artean. Pixkanaka, Erreformaren lehen urratsak ematen hasi ziren, eta Erreforma eragiten hasi zen. Frantziako Erresuman ezinegona handitzen ari zen, baita elitearen barnean ere. Frantziako eliteak Frantzia beste herrien gainera kokatzen zuen noski, eta horretan ideia berriak ongi etorriak ziren, Erreformarenak ere bai hastapenean.

Frantzia, Elizaren alaba nagusia, aipatua zen zibilizazio berri honen argia izan nahi zuen. Frantziako erregetzaren zilegitasuna erregeak Jainkoarengandik zuzenean jasotzen zuen. Sagaratzean Jainkoaren presentzia funtsezkoa da, Jainkoak sagaratzen du erregea. Sagaratzearen bitartez erregea erresumako aita bihurtu zen. Jainkoaren indarra mundu horren guztiaren baitan, herritarrengan, baina elitearengan, aristokraziarengan banatua zen. Garai horretako imajinarioan Jainkoaren presentzia garrantzitsua da eta horrek baimendu zituen gerla asko eta jarrera nagusiak.

Denbora horretan erregeak toki nagusia zuen, politikan, kulturen, herritarren artean lehen tokia hartzen saiatu zen XVI. mende horretan, Frantzisko I.arentzat Frantziako Erresuma Europako erresumetan lehena izatea zuen helburutzat eta Europa horretan errege nagusia izan nahi zuen.

Frantzia hirurogeita hamar urte inguruko epean eraiki zen Erresuma da, berrogei urtez gerlak egin zituzten, eta berpizte eta indartzearen ideia nagusitu zen. Erresuma aberatsa zen, baina diru asko xahutu zuten gerlak egiten. Gerlak egin zituzten Erresuma handitzeko. Britainiaren konkistaren ondotik, Italiara abiatu ziren. Itxurakeria inperialista gerla horien bitartez eramane zuten.

Kristau munduaren batasunaren sentimendua handia zen, Europako nazioarteko harremanetan ideia garrantzitsua zen. Errege bakoitzak bere erresuman agintzen zuen, baina enperadoreak, Kristau munduan autoritate handiagoa

zuenak, erregeengan eragiten zuen. Erregeak Maximiliano enperadorearen inguruan biltzen ziren, bereziki Italiako erregeen aurka aritzeko. Azken enperadorearen ideia, mundua gidatuko zuena, erregeak Jainkoaren lurrera itzultzearen mistikarekin aitzinatu zen mendean zehar, Frantziako nagusigoaren lortzeko Europan. Horrek guztiak esplikatu zuen, justifikatu zuen Frantziako erregeek diplomazia, ekonomia, gerlaren egiteko dirua biltzeko sortu zuten kontaketa, zergen bilketa esplikatzeko, beste erresumekiko diplomazia.

Garai horretan, berrogei urtez gerla izan zen, gerla urteak izan ziren, eta Frantzia munduaren erdigune bihurtzeko nahikeria bultzatzailea izan zen, orduko Frantzia dirurik gabe utziz. Izan ere, gerlak eramateko nahikeria horrek Frantzia dirurik gabe utzi zuen, aberatsa zen estatua zen, baina, hala ere, nahiz eta Jainkoaren izenean gerlak egin muga batzuetara heldu zen Frantziako erregea; pausaldiak beharrezkoak ziren. Dirurik gabe gelditu eta, merkataritzari tokia egin zitzaion berriz ere aberasteko, beste gerla batzuetan sartu aitzin.

Italiako gerlak, hamaika izan ziren, eta XV. mendean hasi ziren. Italiara joaten ziren, Frantziako erregearen eskubide dinastikoak defendatzera Italiako lurraldeetan, alde batetik Napolesko Erresumaren gainean, eta, bestetik, Milango dukerriaren gainean. Inperialismoaren ideia hortik zihoan. Askotan, ezkontzak pentsatzen ziren eremuen irabazteko. Ondoren, horrela dinastia nagusiek lurraldeak berreskuratzen zituzten, eta lortzen ez bazuten, gerla egiten zuten. Obsesioa zuten Italiarekin, Italiako lurraldeak oso aberatsak baitziren. Frantziako erregeak zerga bereziak biltzen zituen gerla horiek ordaintzeko. Eskubide dinastikoak, koroari lotuak zirenak, ezkontzen bitartez lortuak zituzten. Frantziako koroari zegokionez, Siziliako lurrak Anjou familiari emanak izan ziren, Milan aldarrikatuz Frantzisko I.ak amatxiren eskubideak aldarrikatzen zituen. Frantzisko I.ak bere emaztearen eskubideak ere aldarrikatzen zituen, Luis XII.aren gandik heldu zitzaizkiolako. Eskubide horiek ez ziren bertan behera uzten.

Anbizio hori txikituz joan zen oso poliki. Izan ere, maila militarrean Frantziako armada Europako indartsuena zen, XVI. mendearen hasieran, Frantzia Erresuma aberatsa baitzen. Beraz, beldurrik gabe erregea bere eskubideen defendatzera zihoan, baina Frantzisko I.aren erregetza denboran Erresumaren hedatzeko nahikeria pixkanaka hasiko zen sufritzen, eta garaipenak ez ezik porrotak ere ezagutu zituen Frantziak.

Frantses armada indartsua izan zen, Karlos Va bere eskubideak defendatzen hasi zen arte, Milanen gaineko auzian, besteak beste, armada indartsua antolatu baitzuen. Karlos V.ak ere Italiako lurraldeak aldarrikatu zituen dinastiako esku-



bideak defendatzeko asmo berekin. Enperadore bihurtu zena arerio zaila izan zen Frantziako erregearentzat. Pixkanaka, liskarrez liskar, Napoles eta Milan bereganatzeko nahikeria erortzen joan zen, Italia hesten hasi zen Frantzisko I.aren armadarentzat.

Aitzineko mendeetatik heldu zen gaia. Karolus Magnus latinez, Karlomagno subiranoak, bere agintean jakintsu agintzen zuelarik, haren mugak debekatu zituen inbaditzaileen aurka, eta haren goratze moral, erlijioso eta intelektuala azkartu zen. Lehen enperadorearen izena, urteetan zabaldu zen narrazio eder bat lagundurik. Karlomagnok, Europako kristau munduko nagusia izan zen enperadoreak, narrazioa sortu zuen, kristau mundua pentsatzeko indartuz joan zen narrazioa. Karlomagno izan zen Europako kristautasuna bultzatzeko eragile nagusia, oinarrizko Frantzia, Europan zehar gudak eraman zituenak, sortu zuena, eremu desberdinak lotuz. Baina XII. mendetik Frantziako erregeek bereganatu zuten Karolus profetia, azken erregea, azken enperadorearen mitoa, Jainkoaren itzulera baino lehen, bakea ekarriko zuena. Karlomagno subiranoak, bere agintean jakintsu agintzen zuelarik, haren mugak debekatu zituen inbaditzaileen aurka, eta haren goratze moral, erlijioso eta intelektualari lagundu zion errege gisa gogoratzen zuten. Erdi Aroan Europa osoan bakea ekarriko zuen enperadorea izatea izan zen Frantziako errege guztien ametsa eta hedatzen zuten narrazioa gerlak abiatzen zituztelarik. Hau zen, kristauen artean, Elizak garraiatzen, hedatzen zuena, herritarrei amets gisa uzteko, gerlak egiteko behar zen dirua, etekinak biltzeko.

Frantziako erregeak, kondaira, profetia, mito horretan legitimitate gehiago lortzeko murgildu ziren. Profetia baliatu zuten, haien gerlak eta zergen bilketak justifikatzeko. Beste helburu handiago bat ematen zitzaion horrela erregeari, bakearen zabaltzeko helburuari lotuz. Gerla egin behar zen bakea azkartzeko. Erregea, Jainkoaren babesean kokatzen baitzen, Jainkoak eskatzen zion ideia inperialisten bultzatzea. Beste erregeei ematen ziena baino azkarragoa zen Jainkoak Frantziako erregeari ematen zion babesa, hori zen kontaketa mamian aurki zitekeena.

Karolus testua, Anjouko Karlosek proposatu zuen, eta ondorengoek ere baliatu zuten, jarraitu zioten. XII. mendetik heldu zen narrazioan, Frantziako erregea kristau munduaren eramaile gisa aurkezten zen, hark zituen herritar guztiak kristau mundura ekarriko zituen eta, horrez gain, bakea ekarriko zuena guztientzat. Kondaira izan zen, Karlos izena zeukaten errege guztientzat tresna bat, beren ideologia indartzeko eta sinesteak zabaltzeko. Karlomagnoaren

ondorengoak ziren, Karlos izena ohorezkoa zen, karolusaren ametsak aurrera jarraitu zuen, beste izen batekin Frantzisko I.a bide beretik joan zelarik.

Musulmanak ere Frantziako Erresumatik hurbilduko ziren. Baina lehen gurutzada arte ez zen mundu musulmana ezagutu. Kristau munduak ez zituen musulmanak gurutzatu, Frantziako Erresuma gehiengoan, baina denborarekin mundu horren irabazteko proiektua ere garatu zen. Penintsulako lurraldeetan musulmanekin harreman estuak izan zituzten, baina Frantziako Erresuman berantago gertatu zen. Beti, munduan zehar, kristautasunaren azkartzeko nahiarekin eta horren defentsan aritzen zen Frantziako erregea.

Toulon herriraino hurbildu ziren musulmanak, Hungariara sartu ziren, baita Italian ere. XVI. mendea arte, erregeek musulmanak arrisku gisa ikusi zituzten, baina haien ezagutzen joan ziren eta haien kontra gerla gogorrak egin zituzten.

Haatik, XVI. mendean arazo asko zituen Frantziak, Italiako gerlak egin nahi zituen, musulmanek sortu zuten beste frontea, eta, bestalde, Karlos I.aren agertzea eszena politikoa. Karlos I.ak bere eskubideak defendatu zituen Italian eta horrek arazo asko sortu zizkion Frantziako erregeari. Ondorioz, musulmanek sortu zituzten arazoak bigarren mailan gelditu ziren. Frantziako erregeak, nagusiki, Karlos I.aren aurka gerla egin zuen.

## 1.2 Frantzian agintzen zuen erregea, Frantzisko I.a

Jainkoaren izenean Frantzisko I.a saiatu zen Frantziako Erresumari toki garrantzitsua ematen European, dena esperantza batekin Jainkoaren itzuleraren sinestean (LE FUR 2018). Borroka azkarra izan zen bi erregeren artean.

Cognac herrian sortu zen Frantzisko I. a (1494-1547). Angulemako Karlos, Orléanseko kondea (1460-1496), valoistarra eta Savoia Luisaren (1476-1531) semea zen. Errege izateko aukera gutxi zuen, bera baino lehen beste batzuk baitzeuden, baina lege salikoak agintzen zuen, eta horren arabera erregea hiltzen zelarik, erregeak, koroa, seme bati utzi behar zion, ez zion alabari uzten ahal. Horrela, semea zuena Angulemako Karlos zen, eta horrenbestez, Angulemako Frantzisko I.a Frantziako Erresumako errege bilakatu zen, Karlos VIII.aren heriotzaren ondoren.

Frantzisko I.ak hogeitau urte zituen errege bihurtu zelarik. Kapet-tarren leinukoa, 1515ean Reimseko katedralean errege egin zuten, eta hil arte hala izan zen. Gerlaz jositako erregealdia izan zen, eta Karlos V.aren arerio handia izan zen.

Maximiliano enperadorearen oinordetzarentzat biak, Frantzisko I.a eta Karlos V.a, lehiatu ziren. Auzi baten ondotik, non enperadorea hautatu behar zen, Karlosek lortu zuen hautaketa inperiala, haren alde jarri ziren indar ekonomikoak handiagoak izan baitziren.

Frantzisko I.aren erregetzaren denboran Erreforma ezarri zen Europan. Kristau onaren eta kristau txarraren arteko lehia piztu zen, era oso bortitzean zenbait garaitan.

Elizaren erreformatzeko beharra oso zaharra zen. Karolusen kondairaren barnean ere Eliza bide onetik eramatearen ideia zegoen, eta aita saindu ezegokien baztertzeko helburua ere aipatzen zen. Aitzineko mendeetan erlijioaren inguruko nahi desberdinak agertu ziren, errepresio gogorrek bizi ere, Kataroen garaian<sup>2</sup>, adibidez. Errepresio gogorra zabaldu zen.

Ondotik, geroago, XV. mendean hasi eta, Luteroren ideiak zabaltzen hasi ziren eta erreformen beharra aldarrikatu bazen ere, zirkulu hetsietan gertatu zen. Herritarrengana pixkanaka hedatu zen. Baina herriarengana hurbildu bazen, ez zuen sustraitzea lortu nahiz eta borroka luze eta latzak eragin.

Frantziako erregearentzat, Erreformaren ideiak interesa piztu zion, eta nolabait bereganatzeko urratsak egin zituen. Errege gisa, kondairari jarraikiz, erreformak ekarri behar zituen eta Elizari onurak ekarri. Erasmo ezagutzen zuen, Luteroren izena entzuten hasia zen. Erreforma interesatzen zitzaion noski, berak bideratzen bazuen. Onurak ekartzeko helburuarekin lotu zen Erreformari, maila batean. Dagoeneko, Italiatik ekarri zituen ideiak gustukoak zituelako, Frantzia kulturaren erdigunean kokatzeko, eta ez inondik ere ordura artekoarekin, Eliza tradizionalarekin hausteko.

*Pragmatic Sanction* agindua 1438koa zen, Karlos VII.ak hartua, Elizaren eta Erregearen arteko harremana finkatzeko. Frantzisko I.ak erabaki hau alde batera utzi zuen 1516an, Boloniako konkordatuaren izenpetu zuelarik, Leon XI.a aita santuarekin. Konkordatuak erregea ezagutzen zuen Frantziako Elizaren buru gisa.

Martin Luteroren izena, 1483an Eisleben sortua, eta 1546an herri berean zendua, ondoko urteetan entzuten hasi zen, Alemanian bere fama handitzen zelarik.

Luterok ikusi zuen merkataritza bat zegoela zeruaren irabazteko, dirutan eramaten zen esperantza. Horren salaketa, Elizari kritikak eginez, testuak idazten eta zabaltzen hasi zen Lutero. Testuak idazten hasi zen eta horiek za-

<sup>2</sup> Elizak heretikotzat joa, Elizarekiko kritiko zen kataro-doktrinaren errepresio odoltsua jasan zuen XIII. mendean Frantziako hego-mendebaldean.

baltzen, inprimategiaren teknika berriak baliatuz.

Erreforma Biblia tokiko hizkuntzetan itzultzen hasi zen eta horrek arrakasta handia izan zuen irakurtzen zekitenen artean. Itzulpenaren ideia ederki ulertu zen herritarren artean, bereziki nolabaiteko elite baten baitan, eta denboraren poderioz, irakurtzen zekitenen artean.

Luterok defendatzen zituen ideiak European zehar hedatzen ari zirelarik, la-guntza politikoak eta ekonomikoak ere lortu zituen Luterok, baina Frantzian Erreformaren ideiak sustraitzeak traba asko ezagutu zituen. Izan ere, Frantzisko I.ak erreformatzeko ideia bere egiten zuen, baina Erreforma bera jarraitzeko ez zuen interesik, beste kezka batzuk agertu baitzitzaizkion, bereziki Karlos V.a enperadore bihurtu zen puntutik.

Frantzisko I.ak Erreforma jarraitu zuen, baina herriak begi onez ikusten zuen mugimendua ezin zuen kontrolatu. Alfabetatzea, Alemaniatik abiatua, ezagutza berriak zabaltzen ari zen, eta testu zaharrak denen esku, edo bederen irakurtzen zekitenen eskura ziren. Giro eta aldarrikapen berriak hedatzen ari ziren, baina aldaketen mugak ez zituen ikusten erregeak. Kezkak hasi ziren.

Laster, izendatua izan ondoren, enperadore berriak, Karlos V.ak, 1519ko ekainaren 28an, Frantzisko I.ak, doi-doi lau urte zeramalarik tronuan, itzal egin zion Frantziako erregeari. Frantziako erregeari gelditzen zitzaion aukera bakarra erlijio arloan, eta garaiko munduan eragiteko, hutsik gabekoa gelditzea zen, Elizaren arduradun nagusi gisa, erlijio katolikoaren defentsa sutsua egiten zuela frogak erakutsi behar zituen. Horretarako hainbat bide erabili zituen, horien artean errepresioa ere erabili zuen, legeak idatzi zituen, liburuak debekatu. Gerlak hor ziren, bakearen eta erlijioaren aldeko diskurtsoak izan ziren herritarren konbentzitzeko gerlak behar zirela, horrela, kontaketa horri esker, dirua eta soldaduak lortu zituen, zergak bildu ahal izan zituen gerla egiteko.

Kalbinorekin, gauzak desberdinak izan ziren (GARRISON 2002: 301). Erreformak beste urrats bat egin zuen Joan Kalbinoren lanen ondorioz. Kalbino, 1509an sortua Noyon herrian (Pikardia) eta 1564an Genevan zendua, ez zen apeza, jurista baizik. Luterok hasi zuen Erreformarekin ados zen. Erreforma Frantzian hedatzen aritu zen. Laster arazoak izan zituen Frantzian, eta erbeste-ratu zen Genevan non artzainak formatu zituen, gero Frantziara joan zitezen herritarren konbentzitzera eta kultu berriaren praktikatzera.

1562an, Sens herrian, erailketa masiboa gertatu zen, protestanteen kontra. Protestanteak eragin handia lortzen ari ziren eta ez zen katolikoek gustukoa, nahiz eta erregeak izenpetutako akordioa izan, Tolerantziaren Ediktua alegia. Edik-

tu horren ondorioz, protestanteen kultuak askatasun gehiagorekin egin ziren.

Frantzisko I.ak Erreformaren ideiak baliatu zituen Erresuman aldaketak egiteko. Christophe Lavalie-k erakusten du (LAVIALLE 2009) Kalbinoren teoriak ekonomiaren moldaketaren barnean eragina izan zutela, edo bultzada berria argudiatzen lagundu zutela. Lavaliek esplikatzen du Kalbinok proposatzen zuela begirada berri bateko ekonomia hunkitzen zituzten eremuen begiratzea. Lanaren inguruak, munduak baloratzen zituen eta aberastasunen metatzeko nahiaren neurriak baloratu behar ziren.

Baina beste proiektu batzuk zituen Frantziako erregeak, enperadore eta Elizaren seme nagusia izatea. Lorpen horrekin, bakea ekarriko zuela agindu zuen, orduko zen kristau guztien munduan eta horretarako zergak igo zituen eta armada handiak antolatu zituen. Frantzia, orduan, erresuma aberatsa zen eta bere armada garaiko indartsuena zen. Bakea ekartzeko nahiaren ideiarri lotuz, Italiako gerlak egin eta garaipenak lortu zituen. Gerla horiek egin zituen aitzineko frantses erregeen politikari jarraikiz.

Mundu katolikoan azken enperadorearen izateko, lehia handia izan zen, Maximiliano I.aren heriotzaren ondotik. Espainiako errege bihurtu zen Karlos gaztea zen, baina aukera handia zuen ere lehian parte hartuz gero. Habsburgen ondorengoa Frantzisko I.ak bezala hautaketan parte hartu zuen. Karolus kondairak zioen bezala, jokoan zen, azken enperadorea izateko aukera, Jesu Kristoren itzulera aitzin. Egoera horrek izugarritzko larritasuna sortu zuen eta hautatua izango zenak Jainkoaren laguntza zeukan, kristau mundu osoaren hautatua zen. Lehia horretatik garaile ateratzen zenak hartzen zituen erabakiak, edozein erabaki izanik ere, Jainkoaren erabakiekin bat zetozen.

Europan bi errege nagusi zeuden, Frantzisko I.a eta Espainiako Karlos I.a Espainiakoa eta Karlos V.a Germaniako Erromatar Inperio Santukoa, “el Emperador” edo “el César” goitizenez ezaguna.

### 1.3 *Charles Quint*<sup>3</sup>, Karlos V.a, leinu handikoa

Hogeita hamazazpi urtez, Germaniako Erromatar Inperioa, Karlos V.aren agintearen garaian, 1519tik 1556a arte, Europako Pizkundearen mapa sakonki aldatu zen.

---

<sup>3</sup> CROUZET 2016: 670.

Karlos I.a zen Errege-erregina Katolikoan ondorengoa ere, eta aitzinekoengandik zenbait erresuma jaso zituen, horien artean Nafarroakoa (ESCAMILA eta CHAUNU 2020: I.184). Izan ere, Nafarroa konkistatzea lortu zuen Gaztela eta Aragoiko Fernandok, Albako Dukearen eskutik. Aspaldiko nahia 1512an lortu zuten. Iruñea garaitu zuten eta ondoren gainerako herriak, Donibane Garaziraino.

Karlos V.a 1517an heldu zen Espainiako lurraldera. Ez zuen ezagutzen eta erabakiak laster hartu behar zituen lurraldea eskutan hartzeko. Horrela, heldu eta berehala, bere inguruko konfiantzazko gizonak jarri zituen penintsulako eremuetan ardura handieneko postuetan.

Baina lurralde asko zituen meneko eta dinastiatik heldu zitzaizkion lurraldeak aldarrikatu zituen, eta, horretarako gerla egin behar zituen. Horrenbestez, dirua behar zuen, eta zergak bildu eta Mundu Berritik zetozen altxorrak baliatu zituen.

Heldu zitzaion lehen urrats nagusia Habsburgoko etxekoek zuten inperioaren koroa jasotzea izan zen, Maximiliano I.a hil zelarrik, 1519an.

Karlos V.a Germaniako Erromatar Inperioko buru izateko borrokatu zen. Fortunak xahutu zituen kristautasunaren agintean izateko, kristau munduaren batasuna egiteko. Bakezale gisa ikusten zuen bere burua, baina gerlaz gerla joan zen. Horretarako, Ameriketako urrea erabili zuen. Erlijioaren batasunaren alde egin zuen, baina Alemaniako apez bat aurrean jarri zitzaion.

Maximiliano I.a, Karlos V.aren aitatxi, zendu zen. Nork hartuko zuen bere segida? Nork hartuko zuen Germaniako Erromatar Inperio Santuko tronua, eta nor zen Karlomagnoren aulkian eseriko?

Ondorengo naturala Habsburgoko etxeko Karlos zen, erregea eta Borgoinako Herbehereetako subiranoa ere bazen, 19 urte zituen. Bere aitaxiren tokia hartzeko, beste zazpi subiranoen oniritzia lortu behar zuen eta aurkariak bazituen, horrela hautatzen baitzen Germaniako Erromatar Inperioko koroa. Hautaketa egiten zen, hautatzaileen artean Elizako gizonak zeuden, baita laikoak ere, eta gehienak Ipar Europako aristokratik ziren. Dirua zen laguntzaile hoberena. Kasu horretan, Maximilianoren oinordekoaren hautatzeko, Karlos V.aren aurkari nagusia Frantzisko I.a, Frantziako erregea zen.

Karlos V.a, Karlomagnoren ondoren, Maximiliano I.aren ondoren, Germaniako Erromatar Inperio Santuko borzgarren enperadorea zen. 1500ean sortu zen Gante herrian (Flandria), eta 1558an zendu.

Hurtzaroa Flandrian iragan zuen, burasoak Gaztelara joan zirelako. Aita Felipe Ederra, Herbehereetako erregea eta Borgoinako dukea, eta ama Joana

Gaztelakoa, Gaztelako koroa eskuratzera joan ziren, Joana koroa horren jabe baitzen Errege-erregina Katolikoen alaba gisa.

Karlosen heziketaz aitaren arreba arduratu zen, Austriako Margarita. Aita 1506an galdu zuen. Laster, oso gazte, errege izan zen bere amarekin batera, baina Gaztelako Joana I.a ama Gaztelako erregina agintetik baztertu zuten. Oso gazte izendatu zuten errege, eta zenbait lurralde batu zituen penintsulan, Gaztela, eta Aragoi.

Horrez gain, Habsburgoko etxeko Maximilianoren eta Borgoinako Maria-  
ren ondorengo ere bazen, eta herentzian lurralde horien jabetza lortu zuen denborarekin. Horrela, Austriako lurraldeak ere bildu zituen. Errege-erregina Katolikoengandik konkistatutako Indietako lurrak bereganatu zituen, Napoles eta Siziliakoak bezala. Hamazazpi koroa zituen buruan.

Hots, Karlos V.ak enperadore izateko nahiko indar zeukan Maximiliano enperadorearen oinordetza hartzeko unean. Maximiliano bere aitaxi zen, ondorengo naturala. Haatik, urrats asko egin behar izan zituen, diru asko bildu behar izan zuen enperadore izateko lehian, eta boz emailleek, Europako beste zazpi subiranok, enperadore berriaren aukeratzeko boto eskubidea zeukatenez, ez zuten kitorik eman botoa.

Alemaniko bankuek lagundu zuten eta behar zituen zazpi boto lortu zituen. Amerikatik heldu ziren aberastasunek interesa sortu zuten bankuetako jabeentzat, eta horrek atek zabaltu zizkion Habsburgoko Karlosi.

Parean, lehian, Frantzisko I.a, Frantziako erregea, zeukan. Baina bozketan Karlosek askoz ere diru gehiago jarri zuen mahai gainean. 1520ko urriaren 26an Akisgran herrian, enperadorearen koroa, Karlomagnoren koroa jarri zioten buruan. Lurrean luzatu eta gero, Karlomagnoren aulkian eseri ondoren kristautasunaren enperadore izendatu zuten. Ardura handia zen, aita santuarekin batera kristautasunaren defentsa egin behar zuen, eta katolizismoa hobesten ibili behar zuen hain zabala zen bere inperioan. Hamar urte luze joan ziren aita santuaren aurrean koroatzea iragan baino lehen. Bolonia hirian gertatu zen 1530eko otsailaren 26an, Klemente VII.a aita santuaren aurrean.

Hogeita bederatzi urte zituen Karlos I.ak, Bolonian, Klemente VII.a aita santuak jarri ziolarik koroa, bere laguntzaile bihurtu zena. Katolizismoaren defentsa agindu zuen eta kristau munduan, zeuden errege guztiei bere autoritatearen nagusitasuna gogoratu zien. Unibertsaltasun mezu hori Frantzisko I.ak zalantzan jarri zuen, baina aitortu zuen lehian galdu zuela, agerian baitzegoen. Haatik, gerlak laster hasi ziren inperioan buruzagi horien artean.

Karlos V.aren Erreformaren irakurketa, Frantzisko I.ak egiten zuenarekin parekatuz, ezberdina izan zen. Harentzat Erreforma heresia zen, itxuragabekeria. Alta, Erreformak ukitu zuen bere inperioaren zati handi bat, eta Lutero bere aurrean aurkeztu zen bere ideien defendatzeko.

Karlos V.aren ardura kristau guztien batasuna egitea zen, Jesu Kristoren etorrera prestatzeko, azken enperadore gisa, harentzat erlijio, fede bakarra kato-lizismoa zen.

Artxiboetan, Erasmoren eta Karlos V.aren arteko gutuna dago, 1527koa, bi pertsonalitate nagusien arteko harremanaren oihartzuna erakusten diguna. Karlos V.a ongi hezitako eta kultura handiko erregea zen, bere izeba arduratu zen bere heziketaz.

Gutun horretan erregeak adeitasunez idatzi zion Erasmori. Ideia berriak ezagutzen zituen, eta ez zen aurkari bortitza gisa agertzen Erasmoren kontra, honek bere idatzietan Erreformari ate batzuk irekitzen zizkiolarik, baina Karlos V.aren aholkularia ere bazen, humanismoak bere bidea egin baitzuen ere penintsulan barna.

Karlos V.ak haurtzaro guztia Flandrian iragan zuen bere aitaren arreba Austriako Margaritaren ardurapean, hori zelarik Herbehereetako erregentea. Borgoinako duke bihurtu zen Karlos, sei urterekin, bere aita Habsburgoko etxeko Filipe hil zelarik.

Flandriako mundua ez zen penintsulan aurkitu zuena, zailtasunak izan zituen hastapenetik bertako hizkuntza ez baitzuen ongi menperatzen. Aldiz, Flandriatik humanismoaren ezagutza ekarri zuen, Erasmorenganako harremana gorde zuen, harenganako interesa gorde zuen. Baina, nahiz eta ortodoxiari men egin, Erasmo ez zen Espainian Elizak zeraman erreformaren kontrako politikaz, susmoez babestua. Horregatik, bere liburuak aztertu zituzten eta Elizaren presioaren aurrean Karlos V.a kristautasunaren defentsan ari zen.

Humanismoa zabaldu zen, Espainian Alcalá de Henaresko Unibertsitatea zen ideia berrien kokagunea, eta Habsburgoko Karlosen sostengua lortu zuen 1515-1517an.

Baina bere lurraldearen zati handi bat Erreformaren alde jarria zen. Lutero fraidea Elizaren aurkako mezuak zabaltzen hasi zen, Alemaniatik hasiz. Luteroren diskurtsoak, Elizaren barneko ustelkeria salatzen zuen. Eliza he-rritarrengandik urrundu zela zioen. Kristau munduaren aldaketa handia zen. 1520an, Leon X.ak Lutero Elizatik bota zuen. Karlos V. ak deitu zuen Wormseko Dietaren aurrera.



Luterok Erasmori eskatu zion kanpo gelditzea, baina erantzun gisa *Borondate askeko ituna* (1524) idatzi zuen, gizakia berez ona zela erranez, eta testu horren bitartez Luterorekiko lotura hautsiz. Bi gizonak bide desberdinak hartu zituzten eta Erreformak aitzina jarraitu zuen.

Karlos V.arentzat zailtasun handiak zeuden, huts egiteko aukera handia zegoen. Hastapenean, bere ideien azaltzeko aukera eskaini zion Karlos V.ak Luterok fraideari. Uste izan zuen ere gibelera joko zuela, baina ez zen horrela gertatu, Luterok idatzi zituenak aldarrikatu zituen. Karlos V.ak ez zuen hil nahi izan, eta joaten utzi zuen, baina baztertu ere egin zuen. Fraidea Hanburgoko jauregira abiatu zen Saxoniako Frederiko III.a prestuaren babespean egoteko, 1522a arte. Epe horretan, han Biblia osoa germanikora itzuli zuen, eta hori izan zen hizkuntzaren modernizatzeko ere egin zen urrats nagusi bat.

Erljioen arteko elkarrizketak babestu zituen Karlos V.ak, konkordia nahi zuen, baina denek huts egin zuten. Indar handia zuen eta ofentsiba militarri lotzea nahiago zuen. Fede bakarra zen harentzat, Habsburgokoa, Borgoinakoa eta Gaztelakoa. Lerro berean jarraitu nahi zuen, aldaketak onartuz gero aitzinekoen bertutea galtzeko arriskua ikusten baitzuen, baina bere lurraldeetako zenbait goi mailako aristokratik Erreformaren alde jartzen zirela ere ikusi zuen.

Valladoliden debateak egin ziren Erasmoren idatzien inguruan (1527). Debate horiek egiten ari zirela, ordea, izurritea abiatu zen eta erregeak alde egin behar izan zuen. Baldintza horietan idatzi zion 1527ko gutuna Karlos V.ak Erasmori. Erregearen idazkaria, Valdés, debateen antolatzailea izan zen. Erasmo arriskupean baldin bazen, eraso saihestu zuen, momentu horretan.

Aldiz, Erasmok ez zuen enperadorearen nahikeria inperialistekin bat egiten. Espainiako politikatik baztertu zuten. Horrez gain, nahiz eta Erasmoren ideiak nahiko zabalduak izan 1532 arte, erlijioen inguruko aldaketak heldu ziren penintsulara. Inkisizioaren auziak emendatzen ari ziren, musulmanekiko eta juduekiko jarrerak aldatzen ari ziren, Elizak auziak zabaltzen zituen. Luteroren ideiak ere Gaztelan eta Aragoian sartzen hasiak ziren, Elizak ez zuen gehiago onartzen ahal eta pixkanaka errepresioa indartuz joan zen 1532tik goiti.

Karlos V.ak kontzilio berri bat eskatu zuen, Erreformak hartzen zuen bidea ikusiz. Trentoko kontzilioan, 1545ean apezpiku talde baten Kontrarreforma abiatu zuen, Eliza katolikoaren printzipio eta diziplina berresteko.

Karlos V.ak, 1546an, armada prestatu zuen Erreformaren kontra, aita santuaren laguntzarekin, Ligen laguntzarekin eta indar handiagorekin. Karlos ez

zen militar azkarra, baina lortu zuen Erreforma zapaltzea. Erreforma buruzagirik gabe gelditu zen. Jainkoak garaipena Karlos V.ari eman zionaren ideia zabaldu zen, eta ondorioz herrialdeetako buruzagiak heldu ziren men egitera Karlos V.aren aitzinean, Jainkoaren erabakia baitzen.

Elizak berriz sagaratuak ziren. Aitzineko ordrea itzuli zen, baina bidaiariek aipatzen dutenez, Karlosen inperio aldatu horretan, jende gutxi zebilen eliza katolikoetan.

## 2. ITALIAKO GERLAK, LEHIAREN MUINEAN

Italiako gerlen garrantzia azpimarratzekoa da aztertzen ari garen gaian. Europako bi erresuma nagusi etengabe gerlan ari ziren. Alegia, Nafarroari ematen zioten garrantzia eta arreta bigarren mailakoa zen. Erran nahi baitu Europako erregetzak lehian ari baziren, indartsuenen artean gerlak bazeuden, herri txikiek haien arteko bortizkerien ondorioak eta erabakiak jasatea baino ez zitzaien gelditzen. Nafarroa, bakoitzaren eragina indartzeko. Bi erraldioen arteko gatazka gogorra zen. Eraikitzen zituzten estrategiek interes politiko argiak zituzten, erresuma ahulagoak bereganatzen zituzten edo lehertzen. Nafarroa bi erresuma nagusi horien artean kokatua zen, ez zen estrategia horietan baliorik zuen erresuma. Hala ere, Nafarroa saiatu zen Europako mapan eragiten, eta diplomazia horretan Margaritak kokaleku egokia zuen. Nafarroaren alde zenbatetaraino eragiten aritu zen oraindik ez da argitu. Utzi dituen idatzietan aipamen zehatzik ez dago.

Orduan ere erresuma txikiek handien babesa bilatzen zuten, aliantzak egin behar zituzten eta askotan amore ere eman zuten aldarrien aurrean.

Frantzisko I.aren eta Karlos V.aren artean sortu zen indar harremana, ondorengo arteko gerla, kristau munduaren gidatzeko aitortza, zeuden jokoan. Biek katoliko eredugarriak izan nahi zuten, eredu nagusia izan nahi zuten. Jainkoaren eskutik. Gerla horien berri izateko xehetasun batzuk emanen ditugu.

Italiako gerlak ezagunak dira Frantziako estatuan, Frantzisko I.ak Marignanen (1515) suitzarren kontra, mertzenarioak zirenak, irabazi zuen gudua-rengatik (HEERS 2009: 206). Gudua Milandik 15 kilometrotara iragan zen, bertan suitzarrek Milango dukerria defendatu zuten eta Frantzia veneziarren laguntzarekin erasora atera zen.

Milango dukerria germaniar inperioaren eskutan zegoen, baina Frantziak artilleria eraman zuen eta horrek eragin handia izan zuen garaitzeko. Fran-

tziako armada indar handikoa zen eta oso modernoa. Frantzisko I.a gazteak berreskuratu nahi zuen dukerria.

Suitzarrak garaitu ondoren Frantziako erregearentzat Milango bidea irekia zen, eta Milango dukerria eskuratu zuen, adostutako dirutza baten truke, ondoren aita santuak, Leon X.a aita santuak, Parma eta Piacenza utzi zizkion eta 1516an suitzarrekin bakea adostu zuen (Friburgon hitzarmena izenpetu zuen Frantziak suitzarrekin. Suitzarrek onartu zuten ez zutela gehiago Frantzia erasotuko, hori zen 1516ko azaroaren 26an izenpetu zen *Betirako bakea* deitutako akordioa). Italiako iparraldea Frantziakoen menpera pasatu zen. Aita santuak, Frantzisko I.a Milango duke gisa ezagutu zuen. Garaipen honek ospe handia eman zion errege gazteari eta hori Paviako gudua arte. Ordutik denak beldurtzen ziren Frantziaren indarraren aurrean.

Baina Karlos V.a agintera heldu zelarik 1519an, kristau munduaren buruzagitza hedatu eta Italiako eremua bereganatu nahi izan zuen. Gaztelako erregea ere dinastien eskubideen gerlen lerroan kokatu zen. Bestalde, kristautasunaren defentsarako enperadore bihurtu zenetik 1519an, legitimitate handiagoa zuen bere gobernatzeko era, eta agintea inposatzeko. Karlosek aliantza sortu zuen Veneziarekin eta pixkanaka Frantzisko I.aren jarrera Italian gero eta zailagoa bihurtu zen. Pavia herrian iragan zen Frantziako erregearentzat umiliazio nagusia, 1525ean Pavia herrian Frantzisko I.a atxilotu baitzuten.

Porrotaren, atxiloketaren eta espetxeratzearen ondorioz, Frantzisko I.ak Madrildigo tratatua izenpetu behar izan zuen. Karlos V.a nagusi gelditu zen Italian.

Frantzisko I.a presondegian sartu eta, beste saiakera bat egin zuen Italian sartzeko, aliantza bat eginez Soliman (1520-1566) sultan otomandarrarekin (GARNIER 2008: 300). 200 urte zeramatzaten otomandarrek eremua irabazten eta Mediterraneoan zegoen merkataritzan eragiten. 1536an akordioa izenpetu zuten Solimanek eta Frantzisko I.ak. Akordioak Europako bidea irekitzen zion otomandarrari. Mediterraneo itsasoa eremu zentrala zen oraindik, Europako herri nagusientzat aberasten jarraitzeko. Akordio hori garrantzitsua zen Frantziarentzat.

Andrea Doriak, (1466-1560) marinel apartak, kultuak, genevarrak, Genevaren interesak defendatu zituen eta Genevako errepublikako erreforma politikoa eramanez. Frantziako armadako buruzagia izan zen, baina Frantziako erregeak ez zion almirante titulua aitortu, ez eta erregeak Genevari buruz egin zuena ez zuen begi onez ikusi, ondorioz Doria Karlos V.aren lehera pasatu zen, eta almirantea titulua lortu zuen. Garaipen txiki bat izan zen Karlos V.arentzat,

armadaren gidaritzan marinel handia edukitzea, zentzu askotan emankorra. Andrea Doriak gerla egin zuen Mediterraneoan Frederiko Bizargorriaren kontra, azken hori Solimanen pirata zelarik. Baina gudak oso gogorak ziren Mediterraneoan, oso garestiak ziren Karlos V.arentzat, dirutan eta armadak kosten zainketarako zuen zama handia. Aliantzak saiakera estrategikoa izan nahi zuen, Frantziaren aldetik eta Konstantinoplaren aldetik. Baina bi mundu horiek oso desberdinak ziren eta aliantza oso poliki aitzinatzen zen eta ez bazen merkataritzarako, garaipen militar gutxi eman zuen. Aliantza horrek ez zuen Karlos V.a Italiatik kanporatzea lortu. Errekonkistaren ondotik eremu oso zabalak zituen kontrolatzeko eta dirutan garestia zen Karlos V.arentzat. Ameriketako konkista erabili zuen Europan eraman zituen guduen ordaintzeko.

Berantago, Italiako gerlak bukatzeko, Cateau-Cambresis-eko hitzarmenak Frantziako erregearen zabaltze nahikeriari bukaera eman zion, eta ituna Frantziaren, Espainiaren eta Germaniako Erromatar Inperioaren artean izenpetu zen. Italiako gerlen bukaera finkatu zen han. Henrike II.ak, Frantzisko I.aren semeak, izenpetu zuen 1559ko apirilaren 3an, alde batetik, eta Filipe II.ak bestetik. Frantzisko I.a eta Karlos V.a zenduak ziren.

Gerla horietan nafarrek izan zuten tokia ez da agertzen. Hala ere, erran behar da Nafarroako erregea Frantziako erregearen ondoan egon zela Paviako guduan eta Nafarroako erregea preso eraman zutela Frantziako erregearekin batera. Nafarrak ihes egitea lortu zuen berantago. Haatik, nahiz eta Nafarroako erregearen leialtasuna zintzoa izan zen Frantziako erregearekiko, Karlos V.aren atzaparretatik askatzeko, diru bilketan garrantzitsua izan baitzen ere, Frantziako erregeak Madrilgo akordioa izenpetu zuen, non agintzen zuen ez zuela Nafarroa lagunduko 1512 aitzineko mugak eskuratzen.

## 2.1 Erljio gerlak Frantzian

Hogeita hamasei urte iraun zuten erlijio gerlek Frantziako Erresuman, eta hainbat buruzagiren artean izugarriko tentsioak eragin zituen.

Hainbat errege aritu ziren gerla eta bake uneen artean, elkarbizitza bultzatzen, baina odol asko isuri zen Erresuma osoan.

Borroka horretan Joana Albreteko buruzagi gisa ezaguna zen. Nafarroako erregina, Erreformaren alde kokatu zen eta Erreforma antolatu bere lurretan. Hemen laburbilduko ditugu hirurogei urtez Frantziak eraman zuen politika erlijio gerletan (KENZ eta GANTET 2003: 182).

Bi konfesioren presentzia erresuman oso gaizki bizi zen, gehiengoa konfessio katolikoari leiala gelditu zen, baina populazioaren zati handia jarri zen Erreformaren alde. Aristokraten artean, Erreformari lotu zirenak, beste herri-tarrekina parekatuz, kopuru handiagotan erakutsi zuten interesa oraindik, bereziki 1520. urteen inguruan. Horien artean, Guillerma Karel teologoa eta Enaquesa Reflex d'Étaples, Biblia frantsesera itzuli zuena, 1530ean argitaratu zena. Hau, Nérac herrian zendu zen Nafarroako erreginarene babespean. Katoliko gelditu zen.

Ordu arte katolikoek eta erreformisten artean ez zen konfrontaziorik ageri. Erreformaren hastapenak ziren, Erreformaren ideiak entzungarri ziren oraindik, Margarita Nafarroakoa erregearen arrebak babespean ematen zien. Ideia horiek hedatzen ari ziren.

Europak aldaketa asko ezagutu zituen arlo kulturalen, zientifikoan, erlijio-soan, XVI. mendearen lehen zatian. Jakintsuek gizakiaren inguruko ikuspuntu berri bat proposatzen zuten, humanistek uste zuten gizakia aurrera joaten ahal zela ezagutzari esker. Pentsamendu intelektual berri hau arte munduan abiatu zen, eta Italiako Iparraldean sortu zen, Erroma, Venezia eta Florentzia herrietan. Ondoren Frantzia aldera hedatu zen, Loira ibaiaren aldean eta gero inperio germanikoan ere.

Mugimendu berri hau Pizkundearen garaian heldu zen. Greziar, erromatar kulturak berrirakurtzen hasi zen garaian hedatu zen. Aldaketa handiak, berrikuntzak zabaltzen ziren urteak ziren. Eraikin handiak eraiki ziren, Michelangelo eta Rafael izan ziren garai horretako artista nagusiak eta, aita sainduak, erregeak, merkatarik aberatsek eskatzen eta ordaintzen zituzten obra nagusi berri horiek, haien boteraren adierazgarri.

Artista horiek Kristoren irudia aldatu zuten, gizakiarengandik hurbilago marraztu zuten; gizakiaren handitasuna eta argitasuna berretsi zuten.

Aurrerakuntzak medikuntzan, anatomiaren ezagutzan ere gertatu ziren. Astronomia izan zen gakoa mundua beste modu batean ulertzeko eta horretan Galileok (1564-1642) toki nagusia hartu zuen begi astronomikoa asmatuz. Baina erresistentzia handiak zeuden aitzinatze horien aurrean eta horrela, Elizak Galileo zigortu zuen 1632an, *Dialogues*<sup>4</sup> liburua argitaratu ondoren, eta fede katolikoa zalantzan jartzea leporatu zion.

Ezagutza zientifikoaren aurrerapenak Elizaren barnean tentsioak ekarri zituzten. Horrez gain, Elizaren barnean zegoen ustelkeria Erreformari ateak ireki

<sup>4</sup> *Dialogo sopra i due massimi sistemi del mondo.*

zizkion. Humanista kristauen artean, Erasmok elizgizonen formakuntza hobetuz eta Bibliaren itzulpenen bitartez, Elizaren barneko aldaketak aldarrikatu zituen. Haatik, Aita santuaren autoritatea ez zuen zalantzan jartzen.

Aldaketen beharra indartuz joan zen, horrela, 1517an, Lutero fraideak perdonantzak salatu zituen, barkamenak, eta aita santuaren autoritatea ez zuen onartzen. 1720an aita santuak, Leon X.ak, Lutero Elizatik kanporatu zuen. Ondoko urteetan, Luteroren ideiak Europa osoan hedatu ziren.

Baina 1534an gertakari batek aldaketa ekarri zuen; *l'affaire des placards* deitu zen. 1534ko urriaren 18ko gauean, erreformistek mezaren kontrako testuak jarri zituzten ate askoren gainean, baita Frantzisko I.a garaiko erregearen gelako atearen gainean ere. Erregearen jarrera aldatu egin zen. Ordu arte, Erreformaren ideien aurrean, erregeak tolerantzia nahiago izan bazuen, gertakari horretatik goiti, probokazio gisa hartu zuen ekintzarenatik, eta beste politika bat eraman zuen. Ondorioz, sei erreformista erre zituzten. Beste askok erbestera joatea erabaki zuten. Elite baten ihesaldia izan zen, jende ikasiarena, eta asko Ingalaterrara joan ziren. Ondoko urteak sarraski urteak izan ziren.

Berantago, eta bereziki 1559tik goiti, egongaiztasun handia hasi zen Erresuma osoan. Frantzisko I.a eta Henrike II.a zenduak ziren. Haiiek zituzten Erreformaren lehen urteak kudeatu, esku desberdinekin, eta errepresioa eta akordioak erabaki zituzten. Haien ondorengoa, Karlos IX.a errege izendatu zuten 1560an, hamar urte zituelarik, baina bere adinarengatik, bere ama izan zen errejidore, Katalina Medici. Erreforma garai hoberenean zegoen, eta Erresuma bi zatitan banatua zen. 1562ko ediktua plazaratu zen, eta itunak erreformistei elkartzeko eskubidea ezagutzen, aitortzen zien, haien kultuen praktikatzeko eskubidea, hirietatik kanpo bazen ere. Ediktu hori Parisko Parlamentuak izenpetu zuen 1562ko martxoaren 6an. Tolerantziarako ediktua zen, baina Guiseko François kondeak ez zituen gauzak berdin ikusten. Guiseko kondea katolikoa zen eta Elizaren defendatzaile sutsua. Wassyn, erreformistak biltzen dituen herrian, 1562ko martxoaren lehenean, egin zuen sarraskiak, laurogeiren bat hildako eragin zituenak, Luis II.a Borboi-Condékoaren haserrea ekarri zuen. Horrek, ondoren, erreformistak gerlara eraman zituen. Ediktu berriak tolerantzia bultzatu nahi zuen, baina ezinezkoa izan zen.

Ediktua izenpetu zen garaia zen, 1562ko martxoa, eta Guiseko dukeak, katolikoa bera, aurkitu zuen erreformisten elkartze bat soto batean. Elkartzea debekatua zela iritziz, ediktua bali ez zela oraindik erabakiz, alegia, elkartutakoak eraso zituzten eta laurogei bat persona erail zituzten. Hori izan zen Wassyko sarraskia.

Ondorioz, Luis II.a Borboi-Condékoaren gidaritzapean, erreformistek armak hartu zituzten. Bi armadak, katolikoa bata eta Erreformaren aldekoa, bestea, elkarren kontra borrokan aritu ziren Dreux herrian. Erreformaren aldekoek guda galdu zuten.

Ondorioz, 1563an, Amboise herrian, Pazifikazio Ediktua izenpetu zuten, erlijio gerrak bukatu zirelako esperantzarekin.

Baina 1567an higanotek erregea eta bere ama bahitzea erabaki zuten, katolikoan eragina txikitu nahian, eta Meauxko sorpresa gisa ezagutu zen ekintza (DAUSSY 2014: 888). Huts egin zuten eta, horren ondorioz, armada katolikoa altxatu zen hainbat herritan. Zenbait egunetan sarraskiak gertatu ziren Erresuma osoan, eta Saint-Denis herrian katolikoek irabazi zuten. Gatazka ez zen amaitu, ediktua izenpetuta ere, tentsio giroa handia zen. Erreformak bere lekua egin nahi zuen, baina katolikoan indarra ez zen txikitzen eta nobleziaren zati indartsua zuen alde.

Ondoko urtean, 1568ko martxoaren 23an, Lonjumeauko Ediktua plazaratu zuten, baina bost hilabeteren buruan gerla berriz abiatu zen. Baketzerako lortzen zen adostasuna arina izaten zen, ez zuten lortzen iragankortzea. Erreformistek Ingalaterra eta Orangeko printzearen laguntza lortu zuten eta katolikoek Espainiakoa eta aita santuarena. Bi aldeek ahaleginak egiten zituzten norberak berea indartzeko. Bertako indarrak ez zirelarik nahiko, kanpoko laguntzen bila joaten ziren.

Azken gatazken ondoren, Jarnac eta Montcontour herrietan, katolikoak garaile atera ziren, eta Coligny almirantea zauritu zuten. Hala ere, almiranteak iparraldera jarraitu zuen eta Arnay-le-Duc-en beste gudu bat eraman zuen eta irabazi. Saint-Germaingo Ediktua 1570eko agorrilaren 8an izenpetu zuten.

Horrez gain, bi urterako lau babesleku lortu zituzten erreformistek, Cognac, Arroxela, Montauban eta La Charité-sur-Loire. Bakea itzuli zen.

Nafarroako Henrike, erreformista, Margarita Valoiskoarekin ezkondu zen 1572an, Karlos IX.a erregearen arrebarekin. Lau egun berantago, Coligny almirantearen kontrako atentatua gertatu zen. Agorrilaren 23tik 24rako gauetan, San Bartolome egunarekin, Karlos IX. erregearen kontseiluaren bilera egin zuten. Bilera horretan, ezteietara etorri ziren higanoten buruzagien hiltzea erabaki zuten. Buruzagiak hil zituzten, baina haiekin batera milaka herritar ere. Sarraskiak 29a arte iraun zuen, eta Parisen lau mila hildako eragin zituen. Ondotik, beste lurraldeetan ere sarraskiak jarraitu zuen eta orotara hamar mila hildako izan zirela diote.

Tentsio une gogorak bizi izan ziren, baina gune aske batzuk bazeuden eta erreformako kideak hara joan ziren. Herri horietan ere ordea, arazoak hasi ziren. Higanotek ez zuten indar gehiago lortzen, eta asko ihesi joan ziren egoera larritzen ari zelako. Arroxela herria katolikoek inguratzen zuten. Setioa 1573ko uztailaren 6an altxatu zuten. Erregeak Boulogneko Ediktua proposatu zien erreformistei, baketze ediktua. Kultu askatasuna lortu zuten hiru herritan erreformistek, Arroxela, Montauban eta Nimes herrietan.

1575ean Karlos IX.a hil zen, eta koroa bere anaiari, Henrike III.ari, utzi zion.

Ondoko urtean, 1576an Beaulieuoko Ediktuak protestanteen kultura praktikatzea baimentzen zuen Erresuma guztian, salbu Parisen eta bere inguruan. Ediktua oso zaila zen aplikatzea eta Blois herrian, Estatu orokorrak bildu ziren, baina erreformisten alde ez zen agertzen ari. Kultu erreformistaren praktika mugatu zen. Gatazkek jarraitzen zuten, Nafarroako Henrike III.ak ere parte hartzen zuen gudu horietan. 1577an Bergerac herrian akordio batera heldu baldin baziren bi urte berantago armak entzun ziren berriz ere. Akordioz akordio joaten ziren, liga katolikoaren aurka erreformaren aldekoak.

1584an aldaketarako aukera zabaldu zen. Izan ere, Frantziako Henrike III.a erregearen azken anaia, François Alençonekoa, hil zen. Erregearen ondorengo legitimoa hil zen, Valoistarren leinua itzalia zen eta Frantziako koroa Henrike Borboiarentzat izan zen, Erreformaren aldekoa zena. Nafarroako Henrike ondorengo legitimoa bilakatu zen, lege salikoaren arabera.

Esperantza izpi bat ikusi zuten Nafarroako Henrike errege bihurtzarekin. Bere ama, Joana Albretekoa ez al zen erreformisten buruzagia izan? Baina Henrike politikaren beharrei erantzuteko katoliko bilakatu zen.

Aukera horrek katolikoaren liga baten sortzea eragin zuen, Guiseko dukea horren buru jarri zelarik. Horrek erregea bultzatu zuen Neymour-eko tratatua sinatzera, 1585eko uztailan. Tratatu horrek tolerantzia zibilaren ukapena ekarri zuen. Horren arabera higanotek sei hilabete zeukaten bi erlijioen artean hautatzeko. Erlijio katolikoa ez bazuten aukeratzeko, erbestera joan behar zuten. Bestalde, babesleku ziren herriak itzuli behar zituzten eta artzainak debekatu zituzten.

Ondorioz, erreformisten kopurua jautsi zen biziki, errepresio maila handia baitzen. Herritar arruntentzat kanpora joatea ez zen erraza, baina aukera gutxi zegoen erasoak saihesteko. Ihesaldi uneak izan ziren berriz ere askorentzat, bereziki kanpora joanez aterabidea ikusten zutenentzat, ikasiak zirenentzat.



1587an, Nafarroako Henrike garaile atera zen Courtras herrian katolikoek kontrako gudan. Gerla ez baitzen bukatzen. Hegoaldeko herrien kontrola zeukan oraindik. Ligak, aldiz, Frantziako iparraldeko herrien kontrola zeukan. Parisen beste liga bat sortu zen liga katolikoari lotu zena. Paris altxatu zen maiatzaren 12an, eta barrikaden eguna bezala gogoratzen da.

Henrike III.ak, Frantziako erregeak, ihes egin behar izan zuen Blois herrira eta negoziatzen hasi zen ligekin. Baina Guiseko familiak botere handia hartu zuen, dukeak San Bartolome eguneko sarraskian parte hartu zuen eta arriskutsu bihurtzen ari zen Frantziako erregearentzat, eta erregea kezkatu zuen. Henrike erregeak dukea hiltzea agindu zuen. Horrela gertatu zen 1588ko abenduaren 23an. Lorenako Henrike, Guiseko hirugarren Dukearen eta Liga Katolikoaren buruzagiaren hilketak gertatu zen, Bloisko jauregian. Henrike III.a Frantziako erregeak eragin handiegia zuela uste zuen eta 1588-1589ko Estatu Nagusietara deituta, Guiseko Henrike konspirazio batean erori zen eta erregearen berrogeita bostek, errege guardia pertsonalek, exekutatu zuten. Bere anaia, Luis II.a Lorenako kardinala, erail zuten aldi berean. Heriotzek zeharka erregearen hilketak eragin zuten hurrengo urtean.

Horrela, 1589ko agorrilaren 2an, Henrike III.a erail zuten. Nahiz eta mundu katolikoa oso kezkatua egon, hautatua zen ondorengoa higanotekin lotzen baitzen, Nafarroako Henrike Frantziako errege bilakatu zen.

Baina Paris Ligen eskuetan zegoen eta Henrike IV.ak bere herria konbentzitu behar zuen.

1590eko martxoan, Ivryko gudua Parisko atea iretzeko bidea abiatu zuen erregeak. Urtebeteko setioaren ondotik, nahiz eta erregearen armada Ligakoek baino ahulagoa izan kopuruan, arkabuzak erabiliz eta gosea eraginez, erregea Parisa sartzeko aukera ikusten hasi zen.

Hiru urteren buruan Henrike IV.ak Erreforma arnegatu zuen, eta fede katolikoaren jakitatea bereganatzeko nahia aitortu zuen. 1594ko Chartresko katedralean egin zen koroatzea behar izan zen gogo guztien konbentzitzeko.

Erresumako gehiengo katolikoak sekula ez zuela protestante subirano bat onartuko ulertuta, zilegi izan arren, Henrike IV.ak onartu zuen fede katolikora bihurtzea. Katoliko moderatuek gerraren nekea eta konpromisoa lortzeko nahia adierazi zuten orduan.

1594ko otsailaren 27an, Henrike IV.a Chartresen koroatu zuten, koroatzeen toki tradizionalan, Reims herrian, ezin izan baitzuen joan Ligaren eskuetan zegoelako.

Koroatzearen ondoren, errege berriaren tropek, Paris setiatuta hainbat urtez zutenek, hamar eguneko tregoa ematen zieten biztanleei. Landa-ihesaldien zoriona dastatzeko aprobetxatzen zuten eta bakearen aldeko nahia are handiagoa izan zen paristarren artean.

Azkenean, ezkutuko negoziazioen ondoren eta promesa zorrotz eta estropezueta oinarrituta, erregeak Charles de Cossé Brissaceko kondea Paris hiriko gobernadorearen laguntzarekin hiriburuko ateak irekitzea lortu zuen.

Martxoaren 21etik 22rako gauean ate nagusiak askatu zituzten eta horrela erregearen tropek sartu ahal izan zuten Parisa. Erregea ospitalera joan zen, tradizio kapetarra errespetatuz. Guztira ehunka! Erritu horrek bere zilegitasuna indartzen lagundu zuen.

Arratsalde berean, Espainiako Filipe II.a erregearen 4.000 mertzenarioak, Liga Katolikoei laguntza ekartzera etorriak, itzuli ziren.

Erregearen eskuzabaltasuna eta bere dirulaguntza oparoak bultzaturik, etsaiak zailtasun handirik gabe bildu ziren. Charles de Brissac kondeari Mariskalaren titulua eman zion errege berriak<sup>5</sup>.

1598an Nantes herrian ediktua izenpetu zuten erlijio gerren bukaera iragarriz. Ediktua hau osatuagoa zen, erreformaren kultura baimentzen zuen herrialde eta toki guztietan. Ediktu horrek 1685 arte balio izan zuen. Luis XIV.ak ezeztatu zuen protestante askoren erbesteratzea eraginez.

Frantziako herritarren arteko borroka zen, protestanteak herritarren % 10 osatzen zuten. Gehiengo handia katolikoa zen. Protestanteek kultuaren eta kontzientziaren askatasuna eskatzen zituzten, baina katolikoek ez zuten inondik ere onartzen.

Bien artean erregea zegoen, eta ez zuen parte izan nahi. Erregeak katolizismoa errespetarazi behar zuen estatuko erlijioa baitzen. Baina bake zibilaren ardura zuen eta beraz toki zailean kokatua zen erregea. Protestanteek erregeak eramaten zuen politika epelegia atzematen zuten eta gehiegizkoa zen katolikoentzat. Egoera konplexu horren aitzinean jarrera argi eta irmoa beharko zen, egoera korapilatsuaren aurrean epaitzeko gaitasuna zukeen errege batek erresuma gidatzeko beharrezkoa zen.

Baina, Henrike II.a hil zelarik, 1559ko uztailearen 10ean, bi mutikori utzi zien koroa, Frantzisko II.ari eta Karlos IX.ari, errege izan zirenak, baina gobernatu gabe. Haien adinarengatik Katalina Medici gobernuburu gisa aritu izan zen. Haren inguruan printzeak zeuden, katolikoak eta protestanteak. Henrike

<sup>5</sup> [https://www.herodote.net/22\\_mars\\_1594-evenement-15940322.php](https://www.herodote.net/22_mars_1594-evenement-15940322.php)

III.ak koroa hartu zuelarik errege nahiko tiranikoa izan zen eta Henrike IV.a koroara hurbiltzen ari zelarik katolikoak kexu agertzen ziren protestante bat agintean heltzen ari zelako 1584an (CARPI 2012: 720).

Erreformaren garaia benetako iraultza izan zen. Bizi guztia erlijio katolikoaren inguruan antolatua zen eta erlijio honen enbor beretik mugimendu berria azaldu zen, indartsu. Benetako aldaketa sakona gertatu zen baita eguneroko bizian ere. Erlijio berriak astinaldi izugarria ekarri zuen, zeren boterean Jainkoarengandik ez bazen heldu, zein zen bere legitimitatea?

Erlijio gerrak Albreteko familia bera sakonki hunkitu zuen, alde batetik Joana protestanteen buru baitzen alde batetik, eta bestetik, aldiz, bere senarra, zalantza askoren ondotik, katolikoaren alde bukatu baitzuen. Joanak asko sufritu zuen bere senarra ez baitzen batere formala, bidegabekerietan ibiltzen baitzen, erlijioaren inguruko zalantza asko erakutsi baitzituen, eta bestalde bizi pribatuan erakusten zuen portaerak kritikak jasotzen baitzituen.

Europa mundua zen garaian, herritarren erlijioa erregearena zen. Joanak erlijioz aldatu zuelarik, Erreformaren alde jarri zelarik, dena aldatu zen, Bearnon legea aldatu zen denetan, beraz egoera berria zen, alegia bi erlijio egotea erresuma berean. Bestalde, Joana Albretekoak erlijioz aldatu zuenez denek behar zuten aldatu. XVI. mendeak horrela agintzen zuelako.

San Bartolome eguna gogoratzen da, sarraski itzela izan baitzen, epe oso laburrean herritar asko hil baitzituzten. San Bartolome deitzen den gatazkak bi zati ditu. Higanoten printze eta buruzagien erailketa erabaki zen, botereak, erregeak bakea jartzeko bidea bultzatzen baitzuen. Horretarako buruzagien hilketa mugimenduaren eramaileen desagerrarazte oinarrizko politika baitzen, indarra, dirua, maila intelektuala baitzuten gobernantza katolikoari aurre egiteko. Buruak moztu nahi izan zituzten.

Ondoan, herritarren aldetik, hauek, nagusi katolikoek printzeekin egin zutena ikusirik, baimentze seinale gisa ulertu zuten eta protestanteen erailketa hasi zuten, ulertuz hau zela erregearen eta Jainkoaren nahia.

Nafarroako erregea, 1572an egun batzuk lehenago errege bihurtua, Joana Albretekoaren heriotzaren ondotik, protestantea zen. Urte berean, Valois etxe-ko Margarita, Karlos IX.a Frantziako erregearen arreba katolikoarekin ezkondu zen. Nafarroako errege berriak Frantziako errege bihurtzeko aukerak zituen, eta hau ezin onetsia zen katolikoentzat.

Nafarroako erregea ezkondu zen egunean, eta ondotik, ezagunak ziren higanot guztiak hil zituzten. Atzeman zituzten higanotak hil zituzten.



Iturria: <https://histoire-image.org/etudes/saint-barthelemy-24-aout-1572>

Frantziako erregea parte izan zen San Bartolome eguneko sarraskiaren erabakian, bereziki erregearen orde zuzen zuten Katalina Medicik. Ondorio beldurgarriak izan zituen gertakariak. De Coligny almirantearen kontrako erasoarekin hasi zen sarraskia; Nafarroako Henrikeren kontseilaria zen. Ondotik, hogeita hamar mila jende inguru hil zirela diote historialariek. Laugarren erlijio gerra abiatu zen, beste higanot askoren erbesteratzearekin. Nafarroako erregea ez zuten hil, bera higanota zelarik, alta, Frantziako ondoko erregea izateko aukerak hor zeuden, Valoisko etxea itzali zelarik. Valoistar baten ondotik, borboi bat heldu zen.

Liga katolikoak alderdia zen, politiko militarra, bertan muturreko katolikoak biltzen ziren; haien buruzagia Lorrenako etxeari lotua zen. Mistikoak ziren eta haien arima eta besteenak ere salbatu nahi zituzten. Horretan tematuak ziren. Haientzat protestanteek ez zuten lekuri Frantzian, heretikoak ziren eta desagerrarazi behar ziren edo erbestera bidea hartu behar zuten ez baziren konbertitzen. Horrez gain, Henrike III.aren politikaren kontra aritu ziren, Erreformarekiko erakusten zuten tolerantzia ez baitzuten onartzen. Armak hartu zituzten, eta herri handiak bereganatu zituzten, bereziki Paris.

Bestalde, horrenbeste mindu zuten Henrike III.aren kontrako giroa, pentsa daitekeela eragina izan zutela Henrike III.aren hilketan, ez baziren zuzenean horretan lotuak. Haientzat, erlijio bakarrarentzat tokia zegoen Erresuman. Aginte bakarra behar zen politika eta erlijioa biltzen zituena, eta erlijio bakarra zen onargarri. Hori zen Liga katolikoaren proiektua.

Bearnon, Albreteko familiaren eremuan, Nantesko Ediktuaren ondotik, Erreforma izan zen estatuko erlijioa, katolikoei kultura praktikatzeke baimenarekin.

Erljio gerrak 1562an abiatu ziren. Italiako gerrak bukatu zirelarik, erlijio gerrak hasi ziren eta 1598an bukatu ziren. Zortzi gerra izan ziren, ediktu desberdinak izenpetu ziren eta horrek ekarri zuen higanot askoren erbesteratzea. Gero eta protestante gutxiago gertatzen ari ziren Frantziako Erresuman, alta mendea bukatu zen higanota zen erresuma batetik heldu zen errege batekin. Nafarroako erregea Frantziako Erresumaren buru bilakatu zen.

## 2.2 Nafarroako Erresuma, bi erraldoien artean kokatua

Nafarroako Erresumaren inguruan zeuden indar eta erregeen mugimenduak zein ziren, errege indartsuenak zein ziren, Europan zehar egiten ziren gerlak eta bereziki Nafarroako Erresumarentzat horien ondorioak aztertu behar ditugu.

XVI. mendearen hasiera arte, Nafarroako Erresuma burujabea izan zen. Herri txikia, eremu mugatua, bi erraldoien artean, apetitu handiko bi potentziaren artean, baina Europa osoan Erresuma beregain, independente gisa ezaguna zena. Arazo askoren artean, Katalina Nafarroakoak eta Joan I.ak Erresuma kudeatzen zuten. Ardura horrek eraman zituen lurralde osoko nobleak biltzeko proiektua bultzatzera. Hegoaldetik erasorako prest zeuden Gaztelako eta Aragoiko buruzagiak. Granada konkistatu ondotik, errekonkista lortu eta, beste herrien garrantzera abiatzeko nahiko indar sentitzen zuten. Nafarroako Erresuma zuten helburutzat, penintsulan zeukaten eraginaren indartzeko.

Botere politikoa indartzeko nahikeria horren baitan monarka eta historian sartuko ziren figura desberdinak zeuden, horien artean garrantzi handiko emazteak. Horiek dira gure estudioaren oinarri, figura historiko gisa eta bereziki le-tren aldetik utzi dizkiguten aztarnengatik.

Testu honen helburua ez da Nafarroako historiaren azterketa zehatza egitea. Haatik, Margaritaren bizia ezagutzeko Nafarroako Erresumak ezagutu zituen gertakariak eta oztopoak aipatuko ditugu. Nafarroako erreginak, paper politikoa atetik at, letretan aditua zen, Pizkundearen garaian kulturari atxikia zen; parte hartzen zuen letren munduak plazaratzen zituen testuak idatziz. Utzi zituen idatzien bitartean, garai horren isla, oihartzuna gelditu ziren. Testuinguruan kokatuko ditugu.

José María Jimeno Juriok Erdi Aroa landu du obra zabal batean (JIMENO JURIO 2006). Nafarroako azken erregeak aipatzen dizkigu. Harentzat XV. mendeko Nafarroan iragan zen krisia buruzagiengatik sortu zen. Joan II.a Aragoiarrak



Iturria: Wikipedia

(1398-1479) bere menpe atxiki zuen Nafarroa 36 urtez, usurpazioaren bitartez. Bere andrea Nafarroako Zuria I.a zen, Nafarroako erregina. Erresuman anarkia sortu zuen agaramontarren alde jarriz, beaumontarren aurka joz, horiek Vianako printzearen zilegitasuna defendatzen zutelarik. Albretarrek, garai luze horrek utzi zituen ondorioak, bi bandoen artean bultzatutako gerlak, ez zituzten gainditu. Bestalde, Albretarrek Frantziako erregetzarekin zuten loturarengatik ez zuten ere gaitasunik izan erresuma babesteko Gaztelatik eta Frantziatik heldu ziren inbasio nahikeriengandik.

Erregetzaren ondasunak banatzen joan ziren barneko gatazketan onuren lortzeko, ondasunak baliatzen ziren, eta horrela, lur asko tokiko jauntxoek eta nobleen eskuetan geldituz joan ziren. Goi mailako aristokratek bide hori lagundu zuten. Horrela errentak, irabaziak ez ziren gehiago Nafarroako Erresumaren esku gelditzen.

Zuria I.a erregina (1385-1441) hil ondotik, bere seme Karlosek (1421-1461) hartu behar zuen koroa, baina bere aita ados ez zenez, gatazka sortu zen. Koroaren usurpazioarengatik bi talde osatu ziren, batek printzearen legitimitatea defendatzen zuena, haren buru printzearen kontseilari zen Juan Beaumontekoa, Donibaneko ordrearen burua, Luis Beaumontekoa Leringo kondea, bestaldetik Aragoiko aristokraten aldekoak, agaramontarrak, Nafarroako Petri mariskala horien artean, besteak beste. Urte luzeak izan ziren gatazka urte horiek. Mende erdia iragan zen, norberak hautatu zuen defendatuko zuen oinorde legitimoa, horrela, bi aldeak aurrez aurre, bi aldeak elkarren kontra borrokatu ziren, koroa bat zen jomugan.

Izan ere, gatazka gogorrek eta oinordekoen arteko gerlek ez zuten aterabiderik, zailtasun handiak zeuden bai iparraldetik bai hegoaldetik Nafarroaz jabetzeko nahikeriak ez baitziren leuntzen. Horrela joan zen XV. mendea.

XVI. mendearen hastapenetan, arazo politiko militarrek areagotzen ari ziren Italia aldean. Frantzia Italiatik botatzeko nahia indartu zen. Frantziako erregea, Luis XII.a, Milango dukea zen eta Venezia aldean hedatzeko nahia agertu zuen. Julio II.a aita santuak koalizio bat, Liga Santua deitu zena, sortu zuen Luis XII.aren aurka. Liga 1511ko urriaren 4an sortu zen. Han parte hartu zuten aita santuak, eta Aragoiko koroako Fernando II.ak, horrek ere ondasunak baitzituen Italian. Berantago, azaroaren 13an Henrike VIII.a Tudor lotu zen koalizioari, eta bukatzeko Maximiliano enperadorea 1512ko maiatzaren 17an.

Koalizio horrek Frantzia nahiko baztertuta utzi zuen. Haatik, ez zuen horrek Frantziako erregeak Italian mantentzeko nahikeria indargabetu.

Nafarroako errege-erreginek gatazkatik kanpo gelditu nahi izan zuten, 1512ko uztailaren 18an Bloisko ituna izenpetu zuten Luis XII.arekin, baina Luis XII.ak, Nafarroako errege-erreginek zuten lotura aitzakiatzat hartuz, erabaki zuen aita santuak bulda bat plazaratzea, zeinak eskumikatzen zituen Luis XII.aren laguntzaileak. Horren argudiatzeko, erlijio okerra eramatea leporatu zitzaie. Ondoko urtean, Nafarroako konkistaren ondoko urtean, aita santuak beste bula bat plazaratu zuen, *Exigit Contumacium*, 1513ko otsailean, non Nafarroako Erresuma albertarrei kendu zien eta, nafarrei, haien erregeekiko leialtasunaren betebeharra bertan behera uzteko eskubidea aitortu zien.

Bi buldek ez zuten Nafarroako errege-erreginen izenak ematen, soilik he-rejeak, zismatikoak, haustura eragile izatea leporatzen zirenak zituen aipatzen (BOISSONADE 1893: 184-280). Horrela albertarrak eta Nafarroako Erresuma babesik gabe gelditu ziren. Bulda horiek plazaratu aitzin Fernandok Nafarroako Erresuma erasotu eta okupatu zuen.

Garai horretatik landa, Nafarroa berreskuratzeko ahaleginak izan ziren, baina Katalina Albretekoa zendu zen, Frantziatik garaipenik lortu gabe.

Ondoko urteak oso gogorrak izan ziren. Gaztelatik etorritako erasoak Nafarroako iparralderaino heldu zen. Gaztelakoak urteak gelditu ziren Nafarroa osoa okupatzen, Donapaleuraino. Garai beltzak ziren, Gaztelako armada indartsua zen eta aurre egiteko ez zen indar asko zilegi ziren nafarren aldean.

Baina Europatik beste mugimenduak abiatu ziren, Erreformak gero eta eragin handiagoa zuen Europa osoan. Horren oihartzuna Nafarroaraino heldu zen. Karlos V.aren aholkularien artean Erasmo izan zen, baina enperadoreak Eliza katolikoaren defentsa zuen gogoan. Ondorioz, Nafarroa Beheretik Gaztelako tropek alde egin zuten Karlos V.ak hala erabaki eta, Pirinioek nolabait muga jar zezaten. Erreforma indartzen ari zen aurrean, okupazioa Nafarroa hegoaldean mugatzea erabaki zuen etor zitezkeen erasoek aurre egiteko.

Horretatik landa, Albreteko etxeak Nafarroa Behereko eremua berreskuratu zuen, nahiz eta eremu nagusia okupatuta egon. Ez zen errekonkista bat izan, Karlos V.aren erabaki estrategiko bat bere eremu nagusia babesteko. Horrela, 1789ko Frantziako iraultza arte, Nafarroak erresuma izaten jarraitu zuen eta titulua Katalina Foixkoaren ondorengoek eraman zuten. Haatik, Nafarroako Erresumak izan zuen indarra eta eragina erabat aldatzen ari zen Europan, erabat ahuldurik gelditu zen.

Katalina Nafarroakoa (1468-1517) Joan Albretekoarekin (1469-1516) ezkondu ondoren Orthezen 1484an, bereziki Nafarroaren kontrako erasoaren ondotik, Pirinioetako iparraldean jasotako ondasunak gordetzeko, eta galdutakoak berreskuratzeko esperantza atxiki nahi bazuten, behar beharrezkoa zuten Frantziako erregearekin harreman onak edukitzea. Luis XI.aren alegia. Oso egoera zaila zen Katalina Foixkoarentzat, hegoaldeetik hedatzeko heldu ziren Aragoiko eta Gaztelako erregeak, azken urteetako politikek eta garaipenek, Gaztelako erregearen nahikeria gero eta harrotuagoa baitzen.

Nafarroako errege-erreginak lurraldea berreskuratzeko nahikeriari eusten saiatu ziren, baina Nafarroa barneko gatazkak elikatzen jarraitu zen Luis Beaumontekoaren bitartez, eraso militarra prestatuz. Bakean jarraitzeko asmoa ezabatzen joan zen, baina urte berean, Albako Dukeak eraso abiatu zuen.

### 2.3 Nafarroako konkista

Hamarkadak joan ziren azpijokoen artean, Frantziako Luis XII.aren eta Aragoiko eta Gaztelako Fernandoren arteko jukutriak nagusi ziren. Artean Al-



breteko familia, jokoan Nafarroako Erresuma zegoen, baina bi erraldoi horien artean bigarren mailako tokia zuen, handien apetitua aseezina baitzen.

Leringo kondea aspalditik prest zegoen, erasoaldia legearen pean egoteko, aita santuari beharrezkoak ziren buldak eskatuak ziren, baita Ingalaterraren laguntza ere. Italiako gerla hor zegoen, Frantziaren aurka, Luis XII.aren aurka orduan Milango dukea, Liga sortu zuen aita santuak Fernandoren laguntzarekin. Julio II.a aita santuak sortutako ligak bereganatu zituen Aragoiko Fernando, Napolesen, Venezian eta Suitzan zituen ondasunak berreskuratzeko ideiarekin, Ingalaterrako Henrike VIII.a (Ligari lotu zen 1511ko azaroan) eta Maximiliano enperadorea (1512ko maiatzean lotu zen).

Liga sortu zen, hasteko, frantziarrak Napolestik urruntzeko 1495ean. Baina Fernandok beste ideia ere bazuen, Nafarroaren aurka abiatu nahi zuen martxa. Frantziaren aurkako eraso gisa aurkeztu zuen, aita santuaren harremanak Frantziarekin oso txarrak zirelarik, nazioarte ederki landua zuen Fernandok bere proiektu erasotzailea martxan emateko. Fernandorentzat helburu bakarra zen penintsula indartzea eta horretarako Nafarroako erresuma nahi zuen eta lortu zuen. Albako dukea Nafarroan sartzeko baimena goaitatzen ari zen, eta 1512ko ekainaren 13an Gasteizen gelditu zen zain. Gipuzkoa aldetik ingelesak prest ziren Frantziatik etor zitekeen laguntza trabatzeko, oztopoak jartzeko.

Etengabe Nafarroatik mezulariak igortzen zituzten Fernando erregearekin negoziatzen saiatzeko, horien artean Joan Jatsukoa eta Petri Nafarroako mariskala. Fernandok zioen Erresuma zeharkatuko zuela soilik, alegia okupazio helbururik ez zegoela. Ezin onartua zen Nafarroako errege-erreginentzat, ez zuten konfiantzarik.

Azalpen hori, aitzakia hutsa zena, nahikoa izan zen Fernando erregearentzat, Liga Katolikoaren burua izanez, legitimitatea indartsua zeukan, Liga bere alde jartzeko eta Nafarroako errege-erreginen borondateari aurre egiteko.

Pixkanaka, 1512ko uztailaren 19an abiatutako inbasioa aurrera joan zen, herrialde guztiak joan ziren erortzen. Estatu independente librea menpeko bihurtu zen. Bitartean, indarberritzeko asmoz, laguntzaileak bilatzeko, Nafarroako Joan erregea babestera joan zen, kontraeraso bat prestatu nahian. Historialari batzuek ihesaldi hau traizio moduan aurkeztu izan dute, baina Katalinak eta Joanek alde egin bazuten itzultzea prestatzeko izan zen. Bertan gelditu ziren artean batzuek nagusi berriari men egitea erabaki zuten. Taldean men egitea hautatu zuten, ez baitzen beste biderik sarraski handiagoa sailhesteko. Ez zen denen hautua izan. Beste batzuek borrokan jarraitu zuten, horien artean 1522an Amaiurko gaztelua bukaera arte defendatzen gelditu zirenak.

Buldak baliatuak izan ziren, Aragoiko eta Gaztelako erregearen interesen alde (AZCONA 2013: 285). Julio II.a aita santuak igorri zuen lehen buldak 1512ko uztailearen 21eko data du, eta Fernando Katolikoak abuztuaren 21ean eskuratu zuen. Ondokoa, 1513ko otsailean heldu zen, frogatuz bi bulda horiek Nafarroako inbasioaren ondotik heldu zirela, alegia lehenagotik Fernandok inbasioa erabaki zuela beste arrazoiengatik. Mintzoa argitaletxeak<sup>6</sup> egindako ikerketei esker, bulda horiek aztertu dira eta testuek adierazten zutena ezagutzea lortu da. Buldak Simancasko Artxibo Orokorretan aurkitu zituzten. Artxibo hori Karlos I.ak sortu zuen 1540an eta bertan Gaztelako Erresumako artxibo nagusiak biltzen hasi ziren.

Fernando Katolikoa, orduko Julio II.a aita santua, Julio II.aren laguntzarekin, Nafarroako Erresumaren jabe egin zen. Bloisko itunarekin, jarrera neutroa irabazi nahian, Nafarroako errege-erreginak Frantziako interesei atxikiak gelditu ziren. Aita santuak Frantziarekiko gatazka irekia zuelarik, Fernandorekin, Germaniako Erromatar Inperioarekin eta Ingalaterrarekin fronte bat antolatu zuen, Liga. Buldak Nafarroako Erresuma Katalina eta Joan errege-erreginari kendu zizkien, haiei eta haien ondorengoei ere bai. Europa mailan, erabaki horrek zer balio zuen ez da argi, denbora beharko zen horren argitzeko, gaur egun oraindik ere. Zer puntutarraino aita santuak zuen eskubidea erresumak hartzeko eta kentzeko? Garai horretan, behintzat, Fernandok legitimitatea edukitzeko, bulda baliatu zuen bere proiektua osatzeko, eraso abiatzeko, konkista martxan emateko eta libre zen Erresuma menperatzeko.

Erasoa Nafarroa Behererraino heldu zen, zenbait urtez, okupazio militarra mantendu zen. Urte batzuen buruan Karlos I.ak, Eliza katolikoaren babesleak, atzera jo zuen eta Nafarroa Beherea libratu zuen okupaziotik. Ondoren, Albretoko etxeak berriz ere eremua bere gain hartu zuen. Nafarroa Behereak bere instituzioei eutsi zien Frantziako Iraultza arte pribilegioen legea bozkatu zen arte, 1789ko abuztuaren 4ra arte<sup>7</sup>.

Nafarroako Erresumak oinordetzen legea eraman zuen, lege salikoa jarraitu

<sup>6</sup> <https://www.editorialmintzoa.com/2017/12/12/bula-para-invadir-navarra-1513/>

<sup>7</sup> 1789ko abuztuaren 4ko gaua, edo abuztuaren 4ko gaua besterik ez, Konstituzio Batzorde Nazionalaren bilkura da, eta bertan bozkatu zen pribilegio feudalak kentzea. Asteartean hasi zen, 1789ko abuztuaren 4an, arratsaldeko zazpitan, eta goizeko ordu biak arte luzatu zen. Frantziako Iraultzaren funtsezko gertaera zen, zeren eta, orduan egindako bilkuran, Asanblea Konstituziogileak sistema feudalarri amaiera ematen baitzion. Eskubide eta pribilegio feudal guztiak eta klase, probintzia, hiri eta korporazioen pribilegio guztiak ezabatu ziren, Club bretoiaren ekimenez, “Jakobinoen kluba” izango zena. Berezitasunen, artean ez zen desberdintasunik egin, denak maila berean jarri ziren eta aitortzak ezabatu. Frantziaren barnean Nafarroak zuen berezitasun aitortza bukatutzat eman zen Parisen.

gabe, eta ezkontzen bitartez aliantzak eraiki. Lege salikoa ez zen aplikatzen Nafarroan, baina alabak ezkontzen ziren Erresumarentzat segurtasuna bermatzeko. Horretaz, François Olivier-Martin (1879-1952) historialaria eta jurista aritu zen. 1512an, Luis XII.a Frantziako erregea, orduko Italiako gerletan zebilena, Nafarroako erregea, Joan Albretakoa berarekin zeraman guda horretara. Blois herriko ituna Frantziako erregearekin izenpetu ondoren, Nafarroako errege-erreginak Frantziaren eta Espainiaren arteko lehiatik kanpo gelditzea nahi zuten. Baina urte berean, Gaztelako erregeak Albako dukeari Nafarroa erasotzea agindu zion. Nafarroa inbaditzeko erabakia hartu zuen Karlos V.ak, Nafarroako okupazioa mantentzen zuen, baina beti Frantziako erregearekin zuen gatazkaren ondorio zela irakurtzen zen horretan, alde batetik, Frantziarekin Italian zituen gerlengatik, eta, bestetik, Erreformaren uhina gelditu nahi zuelako Pirinioetan (BOISSONNADE 1893).

Horretarako, Nafarroa menperatzea proiektu estrategikoa zen Fernandoren politikan, alde batetik, Frantziako erregea laguntzailerik gabe uztea zen ideia, eta, bestetik, maila askotan aberatsa zen Nafarroako Erresuma bereganatzea. Arazoa izan zen, Nafarroak gaztelarrek espero zuketean baino erresistentzia handiagoa erakutsi zuela. Burujabetzari eusten zioten Nafarroan. Determinazio horri guda egile kopuru handiarekin eta armamentu modernoarekin aurre egin zion Fernandok.

Nafarroako Erresuma bere burujabetza babesten aritu zen, baina Frantziako erregeak Nafarroa Beherea eta Bearno eskuratzeko ahaleginetan zebiltzan. Erresistentziak luze jo zuen. Olivier-Martinek panfleto bat aipatzen digu, 1617koa, Pauen inprimatua, non nafar batek Nafarroa eta Bearno Frantziako koroari lotzeko nahia salatzen duen (OLIVIER-MARTIN 1932: 249-289).

Ondoko urteetan gatazka franko egon ziren, Frantziako erregeak helburu horretan aritu ziren. Frantziako eremuan zeuden Nafarroa eta Bearno, bi lurraldeek zituzten legediak eta eskumenak txikitzen aritu ziren, Henrike IV.a (1553-1610) Frantziako errege bihurtu eta gero.

Urteak joan ziren, XVI. mendea bukatu zen eta errege berria heldu zen, Nafarroako Erresumaren historia estaliz agindu zuen. Bestelako gatazkeei aurre egin zien, Erreformaren inguruko gerlak krudelak izan ziren, Erreformaren alde zeudenak, asko, Frantziatik joan ziren eta higanoten kopurua gutxitzen joan zen Erresuman. Ondoko urteetan, errege aldetarekin, beste belaunaldi bat agertu zen eta Luis XIII.a erregearen erresuman Eliza katolikoa nagusitu zen, eta Frantziako errege berriaren proiektu politikoa izan zen, Frantziako ba-

tasuna indartzea eta Erresuma lurralde osora hedatzea, Bearno barne, Henrike IV.aren politika aldatu zuen.

Helburu horretan, Luis XIII.a, Henrike IV.aren semea, Pauera itzuli zen 1620an, Batasunaren Ediktuaren proiektuarekin. Paueko ediktu horretan 1620ko urrian, Nafarroa, Bearno, Andorra eta Donezan<sup>8</sup> lotu zitzaizkion Frantziako koroari<sup>9</sup>. Lurralde horietako herritarrak izanen dira: “ de même nation, qualité et condition que les autres membres de notre royaume ”.

Ediktuak eskubide bereziak ezagutzen zituen eta justizia epaitegia lotzen zuen Paueko Kontseiluari. Bide beretik Zuberoa lotu zuten Paueko Kontseiluari, Bordeleketik askatuz. Ediktua urriaren 30ean aurkeztu zuten Estatuetako sindikatuaren aurrean, baina horrek ez zuen onarpenik eman. Ondoko egunetan, Nafarroako Estatuak ediktuaren atzera botatzea eskatzen zioten erregeari. Epaitegien antolaketa salatzen zuten bereziki, Frantziako Erresumari lotua izatea baino.

Zenbait autorek aipatzen dute ediktua, Galland-ek, Isamberg-ek. Jean-Pierre Domecq-ek erakusten digu Bearnon ere zailtasunak izan zituela Luis XIII.ak. Bordeletik heldu zen eta Bearnon soldaduz inguratua sartu zen. La Force markesak, Bearnoko gobernadore zenak, ez zion aurre egin. Horrela, Luis XIII.aren autoritatea onartu zen eta kultu katolikoari lehentasuna eman zitzaion. Autoritateak katolikoek esku utzi zituzten nahiz eta herritarren gehiengoa Bearnon Erreformaren aldekoa zen (DOMEQ 2017: 334).

Ediktuak mugak jarri zizkion Nafarroako Erresumari burujabetzari eta baita erlijioari lotuak ziren arlo guztietan ere. Ordu arte Erreformari buruz tolerantzia handia izan bazen, Henrike IV.aren jatorriarengatik, bere semearekin, Luis XIII.arekin, gauzak erabat aldatu ziren, kultu katolikoa berreskuratzen aritu zen, eta Nafarroan eta Bearno osoan inposatu zuen.

---

<sup>8</sup> Donezan (okzitanieraz Donasan eta katalanez Donasà), edo Donnezan, Ariejako eskualde naturala da, Foix konderrian zegoena.

<sup>9</sup> J. L. DAVANT. <https://www.enbata.info/articles/ledit-dunion-de-1620>

## 2.4 Nafarroako Henrike II.a Frantzisko I.aren kontseilaria

Katalina Foixkoa erreginak koroa eta erresuma galdu zituen eta Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu eta menpe atxiki zuen (REID 2011: 439-442). Katalinaren semeak, Henrike II.ak, seigarren merindadea 1530ean berreskuratu zuen, Espainiako erregeak atzera egitea erabaki baitzuen eta seigarren merindadea, Ultrapuertos edo Nafarroa Beherea, Katalinaren ondorengoaren eskura itzuli zen, baina gehiagorik ez. Nafarroa Garaia Gaztelako eta ondoren Karlos V.a enperadorearen menpeko gelditu zen.

Hauk ziren Katalinaren eskuetan zeuden lurraldeak<sup>10</sup>. 1512an Nafarroa Garaia galdu egin zuen, baina ez beste lurraldeak. Henrike II.ak Nafarroa Beherea berreskuratu zuen Karlos V.ak erabaki zuelarik mendien alde batera bere indarrak eramatea.

Katalina I.a, Nafarroako erregina, Mont-de-Marsan herrian hil zen 1517ko otsailaren 12an. Lescar herrian lurperatu zuten bere ondasunen zati bat baitzen. Henrike II.a Nafarroako errege bihurtu zen, Foixko eta Bigorrako kondea eta Bearnoko bizkondea. Nafarroako Henrike II.a Zangozan sortu zen 1503an.


Bere erregealdia 1517an hasi zen, Katalina zendu zelarik. 1512an Aragoiko Fernando erregeak Nafarroa konkistatu zuen. Lapurtutako Erresuma berreskuratzea izan zen Henrike II.aren bizi osoko anbizioa. Erresuma berreskuratzen aritu zen, guduak eginez, diplomaziatik eraginez.

Nafarroako Henrike Frantzisko I.aren basailu indartsuena zen, gainera borrokarako grina zuen eta helburu politiko militar azkarra. Frantzisko I.ak nahiago zuen basailu indartsu hori bere ondoan izatea, bereziki bere gaztetasuna ikusiz.

Nafarroako Henrike II.a Frantzisko I.aren lehenaren kontseilari bihurtu zen 1523tik goiti, eta hogeitazero zituen. Frantzisko I.ak Italiako gerla jarraitzen zituen, Karlos V.aren kontra, Fernando erregearen seme txikia, Europako errege indartsuaren kontra. 1515ean Marignango garaipenak oso indartsu sentiarazi zuen Frantziako erregea, garaitu ezina izan balitz bezala.

Baina ondoko urteetako Italiako kanpainak oso gogorak izan ziren Frantziako erregearentzat. Horrela, 1525ean, Pavia herrian, Frantziako erregea preso altxatu zuten Karlos V.aren gudariak, bere laguntzaile eta hurbileko aholkulari eta militarrekin, horien artean Nafarroako Henrike II.a Albretetako. Frantziako erregea, Pavia herritik Madrileraino eramane zuten eta diru zama handia eskatu zuten bere askatasunaren truke. Henrike II.a ibili zen diru hori

<sup>10</sup> <http://www.lebrelblanco.com/anexosa/0516.htm>



Iturria: <http://www.lebréblanco.com/portada.htm>

biltzen Erresuma guztian barna. Erregeari zion leialtasuna itzulia izanen zitzaiola esperantzarekin, bere Erresuma berreskuratzeko ahaleginetan.

Izan ere, Henrike II.a ere atxilotu zuten Pavia herrian, baina hurrengo egunetan ihes egitea lortu zuen. Sekulako sinpatia lortu zuen nafarrak, erresuma osoan, eta baita ere Frantziako I.aren errespetua. Frantziako erregea Madrilen hamahiru hilabete egon zen preso, eta ahalegin handiak egin behar izan zituzten Frantziatik erregea askatzeko. Bertatik askatu zuten eta trukean Frantziako I.ak akordio oso gogorra izenpetu behar izan zuen. Baldintza gogorren artean, Frantziako erregearen bi semeak bahitu gisa atxiki zituzten Madrileren igozki behar ziren aitaren ordean, ituna errespetatua izan zedin segurtatzeko. Bi semeek urte batzuk pasa zituzten preso, oso gazteak zirelarik.

Pavian bere tropen garaipen suntsitzailearen ondoren, Karlos V.ak, Espainiako errege eta enperadore germaniarrak, une batez gogoetatu zuen Frantzia zatikatzeko aukera. Hala ere, Henrike VIII.a Ingalaterrako erregeak eta Europako beste subirano batzuen mesfidantza handiak geldiarazi zuten.

Preso ospetsua Madrileren eraman zuten, Karlos V.ak baitzuen Frantziako erregearekin zer egin erabakitzen. Bertan Frantziako I.a eritu zen eta egoera larriagotzen joan zen.

Frantziako erregearen egoerak Karlos V.ari kezka handia sortu zion eta arrebaren bisita onartzera eraman. Frantziako erregea bere onera itzuli zen, arreba, Angulemakoa Margarita kementsu eta maitagarriari esker, Madrileraino bisitatzen joan zitzaiolako, bidaia luze batean.

Bien bitartean, bien ama, Savoia-ko Luisa kementsua, erresuma gobernatzen gelditu zen erregeorde gisa.

Zailtasun handiz, herritarren erresuminei aurre egin behar zion. Urrezko prezioan negoziatu zuen Ingalaterrako Henrike VIII.a erregearen neutraltasuna eta bake-baldintzak lotzea.

1526ko urtarrilaren 14an, Frantziako errege Frantzisko I.a Madrilen preso zegoen, eta egun horretan, Madrilgo ituna deituko zen akordioa izenpetu eta bakea lortu zuen Karlos V.ak.

Karlos V.arekin izenpetutako Madrilgo itunean baldintza berezia zegoen, hau da Frantziako erregeak Nafarroako erregeagandik lortu behar zuela Nafarroako Erresuma berreskuratzeko nahia bertan behera uztea.

Baldintza horiek onartu eta, Hondarribitik pasatu eta, Bidasoa zeharkatuz, Frantziako erregea Frantziako Erresumara itzuli zen. Bidasoa zeharkatzean, bere bi semeak gurutzatu zituen Espainiako bidea hartzen.

1526ko martxoaren 17an Savoia-ko Luisak, erregea, Bordelen, errezibitu zuen.

Noski, Frantziara itzuli bezain fite Frantziako erregeak izenpetutako itunaren balioa ukatu zuen.

Frantzisko I.a Frantziara itzuli zen eta betiko usaiak berreskuratu zituen. Berta handiak ematen ziren Frantziako gortean, kultura ekintzak ere antolatzen ziren, eta bereziki Italiako gerlak jarraitzeko proiektua ez zuen baztertu, nahiz eta zafraldiak jasan. Horrez gain, adiskidetasun handia zuen Nafarroako Henrikekin. Kontseilari hurbila zuen, konfiantza handia zuen harekin, baina leial atxiki nahi zuen. Madrilen izenpetu zuen itunarekin nafarrak garrantzitsuak zela Europako diplomazian ulertu zuen. Karlos V.a Nafarroan zuen interesaz jabetu zen. Baina Nafarra gaztea zen eta Frantziako erregearen interesen kontra jo zezakeen Nafarroako interesak hobesteko aukera ikusten bazuen. Henrike II.ak indarra zuen, ondasun asko eta borrokatzeko kemena. Frantziako erregeak aterabide bat behar zuen nafarraren erremina itzaltzeko. Erregeak aukera ikusi zuen lotura trinkatzeko ezkontza baten bitartez. Bere arreba Margarita Angulemakoa alarguna zen, gaztea oraindik (1492-1549). Erregeak eta Margaritak harreman oso hurbila zuten, arreba laguntza handia zen

erregearentzat, ezkontza horrekin proiektu pertsonala ere bultzatzen baitzuen erregeak. Henrike II.a Margarita Angulemakoarekin ezkondu zen, Frantziako Frantzisko I.a erregearen arreba nagusiarekin 1517ko urtarrilean. Margarita Angulemakoa, Nafarroako erregina bihurtu zen, Idazle eta jakintsu handia izan zen, eta intelektual askoren laguntzaile. Ezkontza horretatik Joana Albretakoa sortu zen. Frantziako erregearen nahiak betetzen ari ziren, beraz, opariak handiak ziren. Ezkondu berriei erregeak eskaini zizkien Armagnac, Rodez, eta Fézensquet-eko konderriak. 1428an Guienako almirante izendatu zuen Henrike Albretakoa, Akitaniako kostaldeko kontrola bere esku emanaz. Urte baten buruan ardurak kendu zion (DE RUBLE 1877: 25). Erresumako pare ere izendatu zuen. Ohore handiak ziren, boterea ere bai, eta dirutza bestalde, baina Nafarroako Henrike II.aren helburua bestelakoa zen, Nafarroako Erresuma berreskuratu nahi zuen, eta Frantziako erregeak ez zion bide horretatik luzaz lagundu.

Henrike II.ak egin zituen guduen artean, garrantzitsuak izan ziren bere erresuma berreskuratzeko egin zituenak. Donibane Garazin iragan zena aipatuko dugu. 1517tik Nafarroako erregea zen eta Karlos V.ak Nafarroa okupatu zuen. Frantziako laguntzarekin Erresuma berreskuratzeko ahaleginetan ibili zen. Hiru eguneko inguratzearen ondotik, hamabi mila gerlarirekin Donibane Garazi askatu zuen, eta Karlos V.aren indarrak Pirinioetatik at bultzatu zituzten.

Henrike II.ak Gaztelako erregearen kontra gerla egitera behartua zen bere erresuma berreskuratu nahi bazuen. Horretarako Frantziako erregearen laguntza behar zuen, baina laguntza hori ez zuen segurua ikusten.

Ondorioz, nahiz eta Frantzisko I.aren laguntza eskatu, fidagarria ez zenez, diplomazia egiten jarraitu zuen, Karlos V.arekin harreman diplomatikoak atxiki zituen, baina alde horretatik ere lorpen gutxi izan zuen.

Henrike II.aren egoera politiko eta diplomatikoa zaila zen. Frantziako erregearen menpekota zen, agintzen ziona onartzera behartua sentitzen zen, toki politiko nagusia zuen bere andreak anaiaren ondoan. Nafarroako erregearen helburu politikoak ez ziren jarraitu Europako beste erregeengandik. Zilegitasuna zeukan, baina ez zuen jarraitzailerik. Alaba bazuen, eta aukera ikusten zuen haren ezkontzaren bitartez Nafarroa berreskuratzeko, baina Frantziako erregeak ez zuen horrelako ezkontzarik onartu. Arriskua saihesteko bere alaba Joana Frantzisko I.ak gortera ekarri zuen. Ezkontza prestatu zuen. Ezkontza antolatu zuen Clèvesko dukearekin, garai horretako gerletan laguntzaile gisa eraman nahi zuen buruzagia. Clèvesko dukea Karlos V.aren etsaia zen, hau zen mezua. Henrike II.ak zuen proiektu gordea, Joana Karlos V.aren ondorengo



batekin ezkontzea, Frantziako erregeak zapuztu zuen. Horrela, Frantzisko I.ak bere diplomaziaren aldeko ezkontza inposatu zuen.

Ezkontza onartzeagatik, 1543an, Frantzisko I.ak Paris hegoalde osoko ardua utzi zion Henrike Albretokoari.

Ezkontza egunetan, 1541eko ekainean, ezohiko jaiak antolatu zituzten. Clèvesko dukearen eta Frantziako erregearen arteko akordioa zen, Italiako gerletan jarraitzeko. Joana ezkontza hori bortxaz ezarri zitzaioela erakusten zituzten frogak metatzen joan zen, etengabe errefusatu zuen, kontratua betezea ukatu zuen. Bestalde, Clèvesko dukeak Frantzisko I.a erregearekin zuen aliantzari amaiera eman zion Venloko ituna<sup>11</sup> sinatu zuenean, azken horrek txartel zuria utzi zion neskari, Paulo III.a aita santuari ezkontza baliogabetzeko. 1545eko urriaren 12an, aita santuak egindako laburpen baten bidez, ezkontza baliogabetzeko bere argudioak onartu zituen.

1545era heldu zen Joana Albretokoaren ezkontza aita santuak desegin zuen larrik. Henrike II.ak esperantza gordetzen zuen bere alaba Karlos V.aren semearekin ezkontzeko, baina Frantzisko I.ak Joana frantses gortean gorde zuen. Nafarroako Erresumak ez zuen bere askatasuna lortzen. Frantziako interesak lehenesten ziren, Nafarroa menpekotasunean atxiki nahi zuten.

Albretoko etxea Frantziako koroari lotu zen, Frantziako erregearen laguntzarekin, eta Nafarroako Erresumaren berreskuratzeko nahia ahulduz joan zen.

## 2.5 Lapurdin, Zuberoan, Nafarroa Beherean

XII. mendean Lapurdi eta Zuberoa Akitaniako Leonor eta Henrike II.a Plantageneten menpe zeuden. Azken hori Ingalaterrako errege bihurtu zen eta ingeles menpe bizi izan ziren. Baina Ingalaterra oso urrun zegoen, eta bi herrialdeek beren instituzioak kudeatzen jarraitu zuten, nahiz eta erregearen ordezkaria bertan egon (FOURCADE 1999).

Baina berantago Frantziako Erresuma Karlos VII.aren menpe zegoelarik, agintea atxiki zuen 1422tik 1441 arte, eta bere agintea ingelesek zalantza jarri zuten. Gerla egoera zeukan Erresuman, baina Frantziako Elizaren eskubideak babestu zituen, *Pragmatique Sanction de Bourges*<sup>12</sup> 1438 bitartean.

<sup>11</sup> 1543ko irailaren 7ko Venloko Itunak amaiera ematen die Gueldoko Gerlei, 1502an hasi baitziren, lehenik Karlos Gueldrakoarekin eta geroago Guillaume Clevesko jaunarekin, frantsesek Karlos V.a enperadorearen aurka bultzaturik.

<sup>12</sup> Mendebaldeko Schismo Handiaren probaren ondoren (1378 – 1417), eliza katolikoak ez zuen agintea berreskuratu. Bourgesko Zigor Pragmatikoa Bourgeseko Kapera Santuaren kapituluan eztabaidatu zen eta 1438ko uztailaren 7an Karlos VII. a Frantziako erregeak agindu zuen, Bourgesen

Gaston IV.a, Foixkoa Nafarroako Leonorrekin ezkondu zen 1434an.

1443an, Guienako teniente jenerala izendatu zuen Karlos VII.ak, 1449an bere aginteak baimentzen baitzion eta erregeak hala agindu baitzion, Gixune eta Maule inguratu zituen bi herriak mendean hartu arte<sup>13</sup>. Ondoren, 1452an, Baiona ere Karlos VII.aren mendean jarri zuen. Horrela, gaur egun den Akitaniatik ingelesak kanporatu zituzten (LESEUR eta COURTEAULT 1893). Akordioak izenpetuak izan ziren (LESEUR 1896). Akordioak ordu arteko eskubideak hobetsi zituen. Maite Lafourcade zuzenbide irakasleak honela adierazi du (LAFOURCADE 2013: 86-110):

Ces deux provinces furent conquises par les troupes de Charles VII respectivement en 1449 et 1451 et définitivement intégrées dans le royaume de France, mais tout en conservant leurs privilèges, au sens étymologique du terme *privata lex* : loi propre en latin, ce qui a le même sens qu'«autonomie» : *auto nomos* en grec.

1455ean Leonor Nafarroako erregina bilakatu zen. Urte hartan, Vianako printzea Nafarroa Beheretik kanporatu zuten eta Eleonor erreginarekin agindupean ezarri zuten, Frantziako erregearen baimenarekin. Dagoeneko Frantziako koroak eragin handia zuen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. José María Lacarra historialariaren arabera, gatazka ez omen zen oso bortitza izan.

Maite Lafourcadek bere azalpenetan irakasten digu herriko familia bakoitzetik, etxe bakoitzetik herriko biltzarrean ordezkari batek parte hartzen zuela, gehienetan familiako buruak, igandeko mezaren ondotik. Herriko arazoak aipatzen ziren bertan (LAFOURCADE 2011: 175). Urtean behin auzapeza hautatzen zuten eta herriko biltzarrean egoteko auzo bakoitzetik ordezkaria zegoen.

Parrokien erregistroetan horren froga atzematen da, erregistro zaharrenak XVI. mendekoak baldin badira ere. Erregearen presentzia ahula zen, baina ordezkaria zegoen Lapurdin eta Zuberoan. Baina ondoko Nafarroako Erresumaren eragina handia zen, harreman handia zegoelako herrialdeen artean. Bestalde, Baiona itsasorako bidea zen Nafarroarentzat, ekonomiari lotutako harremana zen bi herrialdeen artean.

---

bildutako elizgizonen adostasunez. Erregeak zioen Frantziako Elizaren eskubideen zaindari dela.

<sup>13</sup> Ehun Urteko Gerra probintzia asko suntsitu zituena, Zuberoa azken urteetan baizik ez zen hunkitua izan. 1449an, Gaston IV.a Foix-Bearnokoa buru zuen milaka laguneko armada bat gazteluaren jabe egin zen Frantziako erregearen izenean. Bukatu zen ingelesen presentzia Zuberoan.

1451n Lapurdi Frantziako Erresumari lotu zen<sup>14</sup>. Ingalaterraren menpe hiru mende iragan ondoren, Lapurdi Frantziaren eskuetara erori zen borroka baten ondoren. Armak Dunois jeneralari entregatu zituzten. Dunois zen Gaston Foix-Bearnokoaren eta Albreteko jaunaren laguntzailea. Baiona erori zen. Lapurdik beste eraso batzuk ezagutu zituen, 1558an besteak beste, Ingalaterra, Frantzia eta Gaztelaren arteko gerlen garaia zen, Ehun Urteko Gerra. Horien inguruan zeuden laguntzaileen arteko gerlak ere, Aragoi, Gaztela, Eskozia, Herbehereetako printzeak eta Alemania. Urte luzez, tropa askok Baiona eta Bidasoaren arteko lurraldea zeharkatuko zuten, erasoak izan ziren, herriak erreak. Zaila da lerro bakar batzuetan bi mendeetan gertatutakoa aipatzea. Kontuan hartuko dugu estatu nagusi bihurtzen ari zirenen artean tentsio handiak zeudela eta Lapurdik tentsio horiek jasaten zituela.

Bitartean itsasoari lotua zen Lapurdi mundu zabaleko merkataritzan sartua zen eta arrantza izan zen bere indarra.

Euskaldunak, Erdi Arotik, Euskal Herritik urruneko itsasoetara abiatu ziren. Bikingoen eremua zena euskaldunena ere bihurtu zen, Eskozia aldetik hasieran. 1354an Ingalaterrako erregearen eta Gaztelako erregearen artean, hau Bizkaiko konderrria zelarik akordioa izenpetu zuten arrantzarako bideak erraztuz. Lapurdi, orduan, Ingalaterraren pean zegoen eta beraz Ingalaterrako kostaldera ere arrantzara joateko eskubidea zeukan. Pentsa daiteke iparreko bide horiek jarraituz beste bide batzuk ezagutzeko aukera izan zutela eta horrela Ameriketako iparraldeko kostaldera heltzeko gaitasuna lortu zutela.

Horrela, nabigatzeko teknologia guztiak goi-mailan garatu ziren gure kostaldeetan, eta garapen ekonomikoa ekarri zuten. Bailearen eta ondoren bakailaoaren arrantza oso garatuak zeuden Euskal Herriko kostaldeetan. Ipar Amerikako herritarrekin harreman handia zen, eta Pierre de Lancre-k berak aipatzen zuen 1590ean bertako herritarrekin egiten zen merkataritza euskaraz egiten zela.

Marie-Claude Berger-ek, Artearen historian doktoreak, honela adierazten du XVI. mendeko Ipar Euskal Herria (BERGER 1998: 221-230):

XVI. mendea garai txarra da Iparraldeko euskal probintzientzat: inbasio eta erlijio gerrek suntsipen eta suteak eragiten dituzte. Italiako Bepizkundeko korronte humanista literaturazale eta artistikoa ez da bertako gizartera iristen. Aitonon semeen familia gehienek, aberastasunez urri, nahikoa izango dute beren oinetxea konpontzeko, edota, gehienez ere, zabaltzeko lanak egitea. Bepizkundeko programa zabala abiarazi zuen eraikuntza bakarra,

<sup>14</sup> Ehun Urteko Gerran, Lapurdiko eta Zuberoako euskaldunak frantsesen aurka lehiatu ziren. 1449an, beraz, Gaston Foixkoari, Bearnoko bizkondeari, aurre egin zioten. Nafarroako erregeak,

zoritxarrez hondatua gaur egun, Bidaxuneko gaztelua da.

XVI. mendean aldaketak heldu ziren. Pirinioek gero eta lotura handiago zuten frantses gortearekin. Gaston IV.a Foixkoa eta Bearnoko kondea erregearen aholkularia zen. Beraz, Lapurdin bertan horrek alegazioa sortu zuen eta Nafarroako Erresuman ere bai.

Luis XI.ak (1423-1483), Karlos VIII.ak (1483-1498) eta Luis XII.ak (1498-1515) bakea lortu zuen herri aberats batean agintzen zuten. Beste gerla batzuetan parte hartzea abiatu ziren, Italiako gerletara. Pizkundea sortu zen, arte eta zientzia berriak ezagutu zituzten eta handik Frantziako Erresumara ekarri.

XVI. mendean, Zuberoa Frantziako Erresumaren menpe jarri zen. Gaztelako erregea seigarren merindadetik atera zelarik, Zuberoa Nafarroako erreginarene menpe gelditu zen 1512an, eta ondoren Nafarroako Erresuma Frantziako erregearen menpe gelditu eta Zuberoa Frantziako lurralde bihurtuko zen. Hala ere, Zinbideta, herrietako biltzarra, instituzio tradizionala, martxan gelditu zen<sup>15</sup>. Berezitasuna bukatu zen Frantziako iraultzarekin.

Marie-Claude Bergerentzat, XVI. mendea Ipar Euskal Herriko herrialdeentzat garai zaila izan zen, aldaketa handien garaia baitzen. Gaston IV.aren mugimenduek Frantziarekiko menpekotasuna indartu zuten eta Hegoaldeko Nafarroarekin harremana ez zen beti erraza. Izan ere, Leonor Nafarroako erregina bihurtu bazen, Vianako printzea hor zegoen eta kanporatu behar izan zuten. Tentsioak hor zeuden. Garai horretan Luis XI.ak, etxe noble batzuk, bere alde jarri zituen, Lapurdira egin zuen bidaia batean, Gaztela eta Aragoiren arteko tentsioen apaltzeko. Urtubiak Urruñan, Caupenne d'Amouk, Garro familiak ardurak jaso zituzten erregearengandik.

Aitzol Altuna Enzunzak honela aipatzen du garai hori (ALTUNA 2020):

Las tropas del ejército francés de Carlos VII encabezadas por el vizconde del Beárn, Gastón de Foix, tomaron en 1449 Zuberoa y su castillo de

---

Mauleko gazteluko nagusiak eta Gaston Foixkoaren suhiak, negoziatu eta Zuberoa Bearnoko eremuan lotu zuten. 1450ean, Gaston Foixkoak Lapurdi eraso zuen eta Gixuneko eta Senpereko borroak irabazi zituen. Azkenean, Lapurdik bakea egin zuen Frantziako erregearekin Aiherrako Itunean: Frantziako Erresumari lotu zen, baina bere foroak gordetzen zituen. 1451n, Dunoisek eta Gaston Foixkoak Baiona setiatu zuten, eta azkenean udal frankiziak mantentzearen truke Baionak amore eman zuen. 1510ean, Zuberoa Frantziako koroari lotu zitzaion.

<sup>15</sup> Zuberoak bere instituzioak eta ohiturak gorde ditu Antzinako Erregimenaren amaiera arte bi pribilegio garrantzitsuren artean: zuzeneko zergarik eza eta armak eramateko eskubidea. Zuberoako estatu orokorrek, Zinbideta, herri-biltzar tradizionala zen eta Gorputz Handia (Grand Corps) elizgizonak eta noblezia ordezkatzeko zituzten. Bi instituzioak, bakoitza bere aldetik biltzen ziren.

Maule, en 1450 Lapurdi y un año después Baiona. Gastón de Foix era un vizconde independiente en su Estado del Beárn desde el siglo XIII, pero rendía vasallaje al rey francés por otras posesiones<sup>16</sup>.

Gainera, dio ikerlariak, bearnesa Leonorrekina ezkondua zegoela, hau da, Nafarroako erreginaren eta Joan Aragoikoaren alaba zena, eta, beraz, nafarren laguntza izan zuen Mauleko gaztelua hartzean, Gastonek Nafarroako erregeak ere basailutzen zituen, Frantziako erregearen aurkako gerra batean ez bazen. Joan Aragoikoa hil zenean, Gaston Foixkoa izan zen Nafarroako errege ezkontide berria.

Hala ere, erran behar da, Nafarroako errege-erreginen kezka, Nafarroa errekupearekin kezka, lehen lehen gelditu zela arlo diplomatikoan. Izan ere, Henri Courtault-ek Foix-Bearnoko kondearen bi gutun argitaratu zituen, 1462koak, non kondeak Luis XI.ari Nafarroako gaia aipatzen zion<sup>17</sup>.

## 2.6 Zuberoa eta Lapurdi, ekonomikoki oso desberdinak

XVI. mendea garapen ekonomiko baten garaia da Lapurdirako. 1932an, Y. Deler-en lanari toki bat egin zioten *La revue géographique des Pyrénées* aldizkarian. Honela aipatzen du Y. Deler-ek arrantzaren historia Donibane Lohizunen:

Dès que l'histoire peut saisir, à partir de 1100 environ, les agglomérations actuelles de la côte basque, elle montre sans peine quel rôle essentiel y jouait la pêche. Biarritz, Bidart, Guéthary i, Hendaye furent d'abord des villages de pêcheurs. Sans doute les agglomérations primitives se formèrent-elles, autour de l'église, à une certaine distance de la côte : simple besoin de défense contre les éléments, et aussi les hommes ! Mais la pêche, non moins que la chasse, jouait un rôle important dans la vie humaine au Moyen Age; les conditions sociales, d'autre part, assuraient amplement le recrutement de la main-d'œuvre nécessaire<sup>18</sup>.

Balearen arrantzak arrakasta lortu zuen, eta balea euskal kostaldetik urrundu zen heinean euskal arrantzaleak ere gero eta urrunago abiatu ziren. Baina balearen arrantza ere murrizten ari zen, harrapaketa itzelak egin baitziren ha-

<sup>16</sup> <https://lehoinabarra.blogspot.com/2019/06/el-euskera-del-ducado-de-baskonia.htm>

<sup>17</sup> Luis XI.ari Foixko konde zen Gaston IV.aren bi gutun Nafarroako aipamena egiten (1462ko martxoa) H. Courteaultk argitaratua *Histoire de Gaston IV, comte de Foix, par Guillaume Leseur*, II, 355-357, liburuaren argitaratu ondotik. Collections numériques de la Sorbonne. 1904.

<sup>18</sup> R. CUZACQ. "La pêche à Saint-Jean-de-Luz". In: *Revue géographique des Pyrénées et du Sud-Ouest*, tome 4, fascicule 2, 1933. pp. 287-296.

markadetan. Horrela, begiak beste eremuetara eramán behar izan zituzten eta bakailaoa atzeman zuten. XV. mendetik, bakailaoaren arrantzak arrakasta izan zuen eta lan horietan murgildu ziren euskaldunak.

Avec le XIV<sup>e</sup> siècle, la baleine, trop pourchassée, déserta le Golfe de Gascogne. Marins landais et basques se lancèrent sur ses traces. Dès le XV<sup>e</sup> siècle, l'Islande était atteinte; sans doute aussi en fut-il de même des côtes brumeuses de la future Amérique : épisodes sans grande importance, qui n'enlèvent rien au rôle immense de Colomb. Du coup, dans les parages de Terre-Neuve, les marins du Golfe découvrirent un poisson inconnu du Moyen Age, la morue ! Dès l'aube du XV<sup>e</sup> siècle, la pêche à Terre-Neuve prend son essor à Saint-Jean-de-Luz et à Bayonne<sup>19</sup>.

Zuberoak ez zuen egoera hori ezagutzen. Arrantzaren aberastasunak kostaldean edo Lapurdi barnealdean gelditu ziren<sup>20</sup>.

*Ikerzaleak* elkarteak honela azaltzen du garaia:

A la suite de péripéties complexes, la Soule est définitivement réunie au domaine du roi de France en 1512. C'est la plus petite province du royaume, la plus éloignée du centre du pouvoir. Elle est entourée du royaume de Navarre et du Béarn qui étaient alors indépendants. Bien qu'elle comporte plus de cinquante villages et bourgs, elle reste faiblement peuplée: pas plus de 4000 habitants. La seule ville de la vallée, Mauléon, ne dépasse pas 350 habitants. Les famines et les épidémies frappent régulièrement. Au milieu du XVI<sup>e</sup> siècle, on se souvenait encore de la peste qui avait ravagé Mauléon et ses environs en 1463<sup>21</sup>.

*Ikerzaleak* elkarteak Zuberoak bizi izan zituen erasoak aipatzen ditu, eremu oso mugitua izan baitzen XVI. mendean. Nafarroako Erresuma oraindik eragina mantentzen saiatzen ari zen eta guden erdigunean zegoen Zuberoa.

La Soule province frontière, subit les contrecoups de tous les conflits qui agitent le nord de l'Espagne et le sud de la France pendant plus d'un siècle. Les luttes entre les clans nobiliaires du royaume de Navarre à la fin du XV<sup>e</sup> siècle entraînent un certain nombre de violences. La chanson et la stèle de Berterreche en sont aujourd'hui encore d'émouvants témoignages. Mauléon et la Soule sont envahis à la fin de l'année 1523 par une puissante armée espagnole. Le roi de France et la famille d'Albret propriétaire de la couronne

<sup>19</sup> R. CUZACQ. "La pêche à Saint-Jean-de-Luz". In: *Revue géographique des Pyrénées et du Sud-Ouest*, tome 4, fascicule 2, 1933. 287-296.

<sup>20</sup> [https://ikerzaleak.org/ikerzaleak\\_soule\\_histoire/soule\\_francaise/\\*](https://ikerzaleak.org/ikerzaleak_soule_histoire/soule_francaise/*)

<sup>21</sup> [https://ikerzaleak.org/ikerzaleak\\_soule\\_histoire/soule\\_francaise/\\*](https://ikerzaleak.org/ikerzaleak_soule_histoire/soule_francaise/*)

de Navarre et du Béarn s'affrontaient alors l'Espagne<sup>22</sup>.

Anne Zinc irakasleak, Frantziako Iraultza baino lehenagoko historian adituak, Oihenarten mundua aztertzen duelarik<sup>23</sup>, zuberotarren bizimodua konstatzen digu. XVII. mendea hastekotan zelarrik, xehetasun gehiago eskaintzen ditu, baina, XVI. mendean ere hitz egiten digu. Funtsezko aldaketa gutxi izan zitekeen hamarkada batetik bestera ibar baztertu haietan. Honela aipatzen digu Anne Zincek Zuberoa, Euskaltzaindiak argitaratutako artikuluan.

La vie sociale dans les pays basques du nord, à l'époque moderne, est régie par les coutumes rédigées au XVIème ou au XVIIèmesiècle. Même dans le cas de la Navarre...

Ohiturak jarraitzen ziren, martxan zen ekonomia jarraitzen zen. Izan ere, hor agertzen baitziren herrialdeak zeuzkan aberastasunak.

La Soule, à travers sa coutume confirmée par les actes notariés, nous apparait donc dans un premier temps comme un petit monde clos, pastoral, rustique, démocratique et plein de détails charmants. Son originalité le protège des influences extérieures et sa législation qui combine une logique implacable à quelques dérogations qui permettent à une réserve d'hommes de rechange de se constituer, assure dans tous les cas le maintien de l'équilibre traditionnel.

Herrialdean, laborariak zituzten ondasunak, haur bakar baten esku uzten zituzten. Gainerateko haurrek kanpora joan behar zuten, edo etxean gelditzen ziren ondasunik gabe. Gehienaren legea zen jarraitzen. Foruan edo Kostüman, ohiturak azaltzen ziren testuan, herriak zituen bizitzeko ohiturak, eta Anne Zinc irakasleak azpimarratzen du artikuluek bizimodua erakusten dutela:

Trente-sept articles dans la coutume de Labourd et quarante-trois dans celle de Navarre, soit respectivement 16,6% et 10,0% du total, concernent l'élevage. En Soule, le même comptage donne soixante-treize articles soit 21,1 % du total. L'originalité de la Soule est encore plus visible quand on défalque l'élevage porcin pratiqué dans les bois de chênes des barthes qui

<sup>22</sup> [https://ikerzaleak.org/ikerzaleak\\_soule\\_histoire/soule\\_francaise/\\*](https://ikerzaleak.org/ikerzaleak_soule_histoire/soule_francaise/*)

<sup>23</sup> <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/31730.pdf>

longent les rivières quand elles approchent de leur niveau de base, c'est-à-dire dans les parties les plus basses du piémont. L'élevage bovin et ovin n'occupe que 9% et 12% des articles en Navarre et en Labourd, alors qu'en Soule sa place monte encore à 19,4%. Ainsi, même si la Soule se prolonge davantage vers le piémont que d'autres grandes vallées pyrénéenne, elle est encore montagnarde et pastorale<sup>24</sup>.

Hazkuntzak garrantzi handia zuen, kabalek laborari etxeak inguratzen zituzten. Baina hazkuntzak indar gehien zuen eremua Zuberoa zen. Beste herrialdeek beste errekurtsio batzuk zituzten. Notarioen etxeetan egin ikerketak erakusten du diru beharretan ibiltzen dena laboraria dela, eta dirua mailegatzeko duena aldiz noblea edo merkataria dela. Noski, denak ez ziren aberats gelditzen, batzuentzat mailegua miseriaren lehen atea gerta zitekeen.

Aldiz, zuberotarrek diru pixka bat egin nahi zutelarik, joaten ziren, bereziki Espainia aldera:

Quand les habitants de Soule veulent gagner de l'argent et rapporter ce numéraire qui manque dans la vallée, ils vont en Espagne. Ils partent y gagner leur vie 66, y vendre des marchandises, du tabac ou des clochettes 68. Avant de partir, ils laissent une procuration à leur épouse ou à celui de leurs parents qui veillera à leurs intérêts, ou ils acceptent au contraire de se charger d'une procuration pour récupérer les biens d'un voisin mort en Espagne. On parle souvent d'Espagne tout court; dans un cas, il est question de Saragosse et trois fois du royaume de Grenade, ce qui n'est pas la porte à côté. On pan même, quand on a un métier et un peu de bien, et certains y restent sans doute plusieurs années<sup>25</sup>.

Beraz, lehenago ikusi dugun bezala emazteak familiaren ardura osoarekin gelditzen ziren, senarra arrantzara joaten zelarik eta hilabeteak kanpoan pasatzen zituelarik. Bestalde, Zuberoatik Espainia aldera senarra joaten zelarik ere gauza bera gertatzen zen. Ondoriozta dezakegu emaztearen papera, noblea ez bazen ere, etxe handikoa ez bazen ere, herrian, laborari etxean, merkataritzan, ardura asko emazteen ardurapean gelditzen zirela. Pizkunde garaian, Euskal Herriak, ekonomiaren alderdirik zabalenera emazteei esker eusten zion, herrialdea gizonik gabe gelditzen baitzen urtearen zati luzean.

<sup>24</sup> <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/31730.pdf>

<sup>25</sup> <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/31730.pdf>



Pizkundearen garaia Euskal Herrian ezagutzeko beste aukera bat dugu André Navagero Veneziako enbaxadorearen lekukotasuna<sup>26</sup>. Lekukotasuna italiaraz idatzia izan zen eta frantsesera itzulua, 1718an, M.H. O'Shearen eskutik. 1528an, Andrea Navagerok bidaia egin zuen Frantziara, Espainia eta Euskal Herria zeharkatu zuen:

Nous n'entrâmes pas à Fontarabie, où se croisèrent ce même jour les ambassadeurs français avec ceux de l'empereur. Nous passâmes I: rivièrèa Hendaye et, après avoir ainsi débarqué en France, nous nous rendimes à St-Jean-de-Luz, 2 lieues, et puis à Bayonne, 3 lieues.

NOTE Ici finit le voyage en Espagne et commence le voyage en France<sup>27</sup>.

Ohargarri da bidaiariak muga markatu zuela Hondarribitik Hendaia pasatu zelarik. Gipuzkoa eta Lapurdi erresuma desberdinetan kokatu zituen.

Donibane Lohizuneri buruz ez zuen azalpen asko eman. Seguruenik, denbora gutxi pasa zuen hor, eta bidaia Baionaraino segitu zuen.

La ville de St-Jean-de-Luz est sur l'Océan. elle n'est pas grande, mais, en temps de guerre, sa situation près de la mer la rendrait importante. C'était, il y a quelque temps encore, l'entrepôt du commerce lyonnais entre la France et l'Espagne, ce qui était une source de prospérité pour la ville. Ce commerce n'a pas disparu. Pour entrer dans la ville il faut passer une rivière en barque. Cette rivière est plutôt un bras de mer. De St-Jean-de-Luz à Bayonne, 3 lieues. Le 30 mai 1528, nous arrivâmes à Bayonne.

Baionari buruz xehetasun gehiago eman zituen, garaia ezagutzen laguntzen dutenak baina ez gara hemen xehetasun horietan guztietan sartzen.

Diplomazialaria zen bidaiaria. Ofizios agintean zeudenekin harremanetan egotea zuen ohitura. Garai haietan, ikusi dugun bezala, lehia handia zegoen Pirinioen bi aldeetan zeuden erregeen artean. Gainera, Nafarroaren auzia ez zen bukatua, Nafarroaren askatasunaren defendatzeko nahikeria erdian zegoen, baina horretaz ez da deus irakurtzen bidaiariak utzi testuetan. Ondorioz, André Navagero jaunak Euskal Herriko hainbat herri zeharkatu zituelarik, erresuma nagusiak zituen buruan eta Espainia eta Frantzia aipatzeko erraztasuna. Hondarribia eta Hendaia artean zegoen muga zenba-

<sup>26</sup> NAVAGERO Andrea. (1483-1529) veneziar diplomatikoa izan zen, enbaxadore izendatua, lehenengo Madrilen eta gero Parisen. Euskal Herria zeharkatu zuen, 1528an, eta bere bidaia kontatu zuen *Il viaggio fatto in Spagna et in Francia*, Venezian argitaratu zena hil eta gero, 1563an.

<sup>27</sup> NAVAGERO, Andrea (1483-1529). Auteur du texte. *Bayonne et le Pays Basque en 1528* : (extrait du voyage d'un Ambassadeur vénitien en France et en Espagne) / trad. de l'italien (éd. De 1718) par M. H. O'Shea. 1886 . Source gallica.bnf.fr / Bibliothèque nationale de France.

tetaraino zehaztua eta markatua zegoen ez dakigu.

Jean-Baptiste Orpustan<sup>28</sup> irakasleak goresten du P. Esarte Muniainek egindako lana (ESARTE 2001), Nafarroako konkistaz egiten duen kontakizuna. Izan ere, ia-ia egunez egun kontaktzen baitu Nafarroan gertatutakoa. Artikulu batean J.-B. Orpustanek Esarte Muniainen lanaren laburpena eskaintzen digu frantsesez<sup>29</sup>.

Nafarroa Beherea gatazka eremu izan zen urte luzeetan, XVI. mendean zehar. Hiru herrialdeen artean, interes handiena zuena herrialdea zen Nafarroa Beherea. Lapurdik eta Zuberoak jasan behar izan zituzten, bereziki Zuberoak, hirugarren herrialdeak sufritzen zituen erasoak.

J.-B. Orpustanek eskaintzen duen laburpenean ezaguna den 1512ko gertaldi ezaguna aipatzen digu:

«... jusqu'à cette année 1512 où les armées de Ferdinand d'Aragon et de Castille (par son mariage avec Isabelle héritière de Castille sa première femme) dit " le Catholique " s'emparèrent de la Navarre, obligeant les rois héritiers légitimes du trône de Pampelune, Jean d'Albret et Catherine de Foix-Béarn, à se retirer avec leurs partisans dans leur seigneurie " indépendante " et ancienne vicomté de Béarn. Par leurs héritages les rois de Navarre avaient d'autres importantes seigneuries dans l'ancienne Gascogne et le royaume de France»<sup>30</sup>. Aitzineko urteetan Fernando Katolikoa Nafarroaren kontrako erasoak prestatzen aritu zen. 1512. urtea izan zen data. Eraso horrek errege eta erregina Erresumatik alde egitera eramane zituen. Frantzia aldera joan ziren bertan ondasunak zeuzkatelako. Noski XV. eta XVI. mendearen has-tapenetan, errege familien arteko lehia handiak zeuden, lehia handia zen ondasunen eta tituluen lortzeko. Gehienetan lehia horiek ezkontzen bitartez konpontzen ziren, edo beste lehia batzuk sortzen. Horrela gerlak ere sortzen ziren, dinastiak gailentzeko zuten nahikerien erantzunak emateko. Gerla horiek ez zituzten herrien eta herritarren interesak kontuan hartzen.

Ordurako, 1488an, Errege-erregina Katolikoak eta Nafarroakoek ituna izenpetu zuten, Nafarroa babespean emateko eta merkataritza ahalbidetzeko. Baina Katalinaren koroa zalantzan emana zenez, nahiz eta babes berri bat lortu, ez zen Nafarroa arriskutik atera (ORPUSTAN 2008: 2)<sup>31</sup>. Horrela, *de facto* Gaztelako

<sup>28</sup> J.-B. Orpustan Michel de Montaigne-Bordeaux III unibertsitateetako ohorezko irakaslea da, lexikografian, hizkuntzalaritza historikoan, literaturan eta onomastikan espezialista.

<sup>29</sup> <https://www.terresdenavarre.fr/la-basse-navarre-en-pays-basque/histoire-et-patrimoine/histoire/> Bi artikulutan J.-B. Orpustanek Esarte Muniainek konkistari buruz idatzitako azalpena egiten du.

<sup>30</sup> J.-B. ORPUSTAN. *Idem*. 2.o.

<sup>31</sup> Valentziako ituna 1488ko martxoan Valentziako hirian sinatutako nazioarteko itun bat izan

presentzia militarra nabarmentzen zen 1495etik goiti eta hau bost urtez.

Bost urteren buruan, 1500ean, Sevillako itunak agintzen zuen Nafarroa askatuko zutela Gaztelako presentziaz. Hau ere Errege-erregina Katolikoekiko ituna izan zen.

1511 In Liga Santua antolatu zuten Fernando Katolikoak, Maximiliano enperadoreak eta Ingalaterrako erregeak aita santuarekin, Frantziaren kontra. Nafarroako erregeak Frantziarekin identifikatu zituzten. Erlijioaren kontrakotzat jo zituzten.

Nafarroako errege-erreginek Luis XII. arekin Bloisko ituna izenpetu zuten uztailaren 18an. Eraso eraman ondoren, Fernandok Inkisizioaren auzitegia jarri zuen Iruñean.

Ondoko urteak, gerla urteak izan ziren Nafarroa osoan, baita Zuberoan eta Lapurdin ere. Gerlarien pasabide eta guda eremu bihurtu ziren mendi eta haranak.

1516an Fernando zendu zen eta Karlos V.ak, ondoko urteetan enperadore izendatuko zutenak, Nafarroaren kontrako erasoarekin jarraitu zuen.

Bitartean, Nafarroako koroa Katalinaren eskutik Henrike II.aren eskura pasa zen.

Joan III.a Albretekoak, ihes egin ondoren, gudariak bildu eta kontraerasoa antolatu zuen urte berean, baina huts egin zuten. Ondoko urtean, nahiz eta Luis XII.ak Bloisko ituna izenpetu Nafarroako errege-erreginarekin, Liga Santua babesteko, Luis XII.ak berak Fernandorekin, 1513an Urtubiako ituna izenpetu zuen, Nafarroari bere laguntza kendu zion ituna izan zen. Nafarroako gerlaren inguruko gertakariak eta ondorioak 1539a arte iraun zuten. Nafarroaren gainetik Karlos V.aren eta Luis XII.aren eta Frantzisko I.aren artean itun nagusiak izenpetu zituzten eta bi erresumen arteko gatazkak baretu zituzten. Bi erresuma handien alderdiak hobestu zituzten eta Nafarroa Beherea gelditu zen errege-erreginen menpe.

Nafarroa Garaia Espainiaren menpeko eremua bihurtu zen. Bere askatasunaren aipatzea ere arriskutsu bihurtu zen.

J.-B. Orpustanek Pedro Esarte Muniainen lanaz egin duen itzulpenean aipatzen du Albako dukea Nafarroa Beheretik pasatu zelarik, gotorlekuak botatzen zituela, abereak eramaten eta janaria lapurtzen ziela bertan bizi ziren

zen, Nafarroako errege-erreginek, Katalina Foixkoak eta Joan III.a Albretekoak Errege-erregina Katolikoekin, Fernando II.a Aragoikoarekin eta Isabel I.a Gaztelakoarekin, Gaztelako koroak ezarritako errepresaliak kentzeko eta merkataritzari mugak irekitzeko. Itun honetan Errege-erregina Katolikoek uko egin zioten Katalinak Nafarroako tronurako zituen eskubideak onartzeari.

1822



*Tableau du temps*

*Henri d'Albret, II<sup>e</sup> du nom,  
Roi de Navarre 1555*

herritarrei. Horiek Nafarroako errege-erreginei men egiten zietenak ziren. Espainolen presentziarekin, Fernandoren agindua onartu behar izan zuten eta Espainiako erregeari men egin.

Tokiko herritarrek ez zuten espainolen presentzia onartzen eta matxinadak askotan gertatzen ziren. Ondorioz, Nafarroa Behereko okupazioa gero eta kezka handiagoa bihurtuz joan zen Karlos V.arentzat. Izan ere, Karlos V.ak bere gerla eremuak baitzituen, eta, denborarekin, Nafarroa Garaia okupazioarekin nahiko zuela erabaki zuen. Ia-ia hogeituroko gerla izan zen, eremu okupatua izan zen Nafarroa Beherekoa, Nafarroa Garaia bezala.

Nafarroaren aldetik, belaunaldi berria heldu zen, Henrike II.arentzat, errege bihurtu zena bere ama Katalina hil ondoren 1517an, Nafarroa berriz konkistatzea helburu izan zen. Erasoan ibili zen, baina Nafarroa Beherea berreskuratu eta, ahaleginek ez zuten beste emaitzarik ekarri. Nafarroa Garaia Karlos V.aren menpe gelditu zen. Ametsak jarraitu zuen 1539a arte. Frantzisko I.arekin guda asko egin zituen, nahiz eta Nafarroa zen bere kezka nagusia. Frantzisko Ia lagunduz ametsa beteko zela esperantza atxiki zuen. Ondorengo urteetan, Frantziako gortetik urrundu zen. Edo urrundu zuten. Nafarroako erregearen indarra ez zen batere mehatxu Frantziako erregearentzat. Errege-erreginak zituzten jabegoetara joan ziren, gortetik urrutiratu ziren. Nafarroako errege-erreginak haien gordea sortu zuten, inguratzen zituztenekin, ospe handiko gordea zen non kulturak garrantzia zuen. Haien gordea, nahiz eta bigarren mailakoa gelditu, kultur munduan hedadura zeukan, artista nagusi batzuek aterpe aurkitu zuten.

Nafarroako erregea 1555ean zendu zen bere erresuma eskuratu gabe, nahiz eta Karlos V.aren testamentuan enperadoreak zalantzan eman zuen konkistaren zuzentasuna.

### 3. KULTURA ETA ERREFORMA

#### 3.1 Pizkundearen jatorria

Bizantziar Inperioa aspalditik eroria zen. Krisialdi honen hasiera gurutzadek 1204an Konstantinopla hiria hartu zutelarik gertatu zen. Pixkanaka hiria dena galtzen joan zen, baita enperadorearen indarra ere, bere inperioaren babesteko gaitasuna galtzen joan zen, eta turkoak herria mehatxatzen hasi ziren.

Urte batzuk berantago Mendebaldeko errege kristauak Ekialdeko inperioa erortzen utzi zuten, baina Konstantinoplaren erorketak Europaraino eragin zuen. Artista eta zientzialari askok Ekialdetik Europarako bidea hartu zuten eta asko Italiara hurbildu ziren, eta zituzten ezagutza eta dokumentu zahar asko ekarri zituzten.

Bizantziar Inperioaren erorketak Europako berpizkundea azkartu zuen.

Erdi Aroko ametsak ere itzaltzen ari ziren, fede bakarrarena batua zen Europa batean, hizkuntza handi batekin, latina. Dinastia berriak indartzen ari ziren, eta nazionalismo berriak ere agertzen. Eliza bera heresia, zatiketa, aita santuen arteko gatazketan murgildua zen, krisialdi gogorren garaia heldu zen. Hizkuntzen inguruan aldaketak heldu ziren, latina izan zen Erdi Aroan hobesten zen hizkuntza eliteen artean. Kulturaren ere aldaketak hurbiltzen ari ziren. Estatu modernoaren sortzearen bezperan zegoen eta gaur nazionalismoak deitzen ditugunak eraikitzen hasi ziren.

Asmakari handiak egin ziren XV. mendean, eta horien artean inprentarena, gurean euskarazko lehen liburuaren plazaratzea ekarri zuena. Baina une historikoak ere azpimarratzekoak dira, alegia penintsula batzeko nahikeria ezkontzen bitartez. Fernando Aragoikoa Isabel Gaztelakoarekin ezkondu zen 1479an.

Iraultza kulturala gertatzen ari zen, gizon ospetsuak ez ziren gehiago gertuariak, merkatariak edo zaldunak, gizon ospetsuak kultura mundukoak ziren, hizkuntza desberdinak ezagutzen zituztenak, zientzialariak. Errege-erreginek gizon ospetsu horiek heien ondoan nahi zituzten eta horrela Italiako kanpainen ondotik, gerlak egin eta Frantzisko I.ak bere ondora ekarri zituen margolari handiak, baita poetak ere. Printzeen heziketa adituen eskuetan uzten zen. Kulturaren berpizte honekin mundua pentsatzeko beste era sortu zen eta eragin berriak sortu ziren, haien artean Erasmorena (1469-1536).

### 3.2 Humanisten indarra handitzen joan zen

Erdi Aroaren kultura teologikoa Jainkoaren eta gizonaren arteko harremanean kokatzen zen. Erlijioa pentsamenduaren erdian zegoen, baina, XVI. mendeak aldaketa handiak ekarri zituen Elizaren barnean.

Sukar berri honek eremu zabalak hunkitu zituen: literatura, arteak baita ere, arkitektura teknika berriak, matematika, fisika, botanika, geometria... Dena mugitu zen, jakintza zaharrak liburutegietatik eta monasterioetatik ateratzen hasi ziren eta hegaldi berria ezagutzen hasi ziren. Europako ekonomia kementsua zen, dirua behar zen artisten ordaintzeko. Hastapen batean Italiak ekonomia indartsua ezagutu bazuen, ondoren Flandriak, Alemaniak, Ingalaterrak lekukoa hartu zuten. Mundu Berrietatik ekartzen ziren aberastasun guztiek garapen ekonomikoa lagundu zuten, bereziki Espainiako koroan. Gisa guztiz, horrek eragina Mendebaldeko Europa osoan izan zuen.

Merkataritza eremuak zabaltu ziren, eta kapital handiak behar ziren komertzio berri horren garatzeko. Beste komertzio mota bat sortu zen: nazioarteko enpresa handiak.

Teknikak, erran bezala, tresna berriak ekarri zituen, asmakari nagusien artean Gutenberg-en inprenta izan zen, 1453an. Bernat Etxepareren liburua berantago heldu zen, baina konturatzen gara epe nahiko laburra izan zela nagusia ez zen hizkuntzarentzat, euskararentzat alegia, inprimatua izateko. Haatik, erran genezake, Germaniako Erromatar Inperiotik Euskal Herriraino heltzeko epe nahiko motza izan zela. 1545ean inprimatu zen *Kontrapas*. Ordu arte, *skriptoriumetan*<sup>32</sup>, apezek, fraideek zituzten kopiatzen testuak, profanoak edo laikoak bazterrean utziz, erlijioari toki zabalena eginez. XIII. mendetik goiti elizgizonak ziren liburuak kopiatzen zituztenak, idazkeraren teknikak ezagutzen zituztelako. Eskuizkribuak latinez ziren eta ezagutza unibertsitateen bitartez zabaltzen zen. Hauek ziren unibertsitate nagusiak: Bolonia, Paris, Salamanca, Oxford eta Cambridge, eta erreferenteak ziren jakintza eremuan. Zuzenbidea zen gai nagusia eta urgazleak ziren ezagutza horietara heltzeko gaitasuna zutenak. Inprentarekin ezagutzen zabaltzeko aukera handitu egin zen, zirkulu berri batzuetara hedatzeko aukera izan zen. Egoera erabat aldatzen joan zen. Pierre Ally-k *Imago mundi* 1410ean idatzi zuen, eta 1478an inprimatu zen. Munduaren geografiari buruzko ezagutzen oinarrien finkatzeko obra zen, Kristobal Kolonek erabili zuena eta garaiko nabigatzaile handiek ere.

<sup>32</sup> Scriptorium hitza izkribatzaile, "Idatzi" aditzetik eratorritako latinezko hitz bat da. Izen honek monje kopistek eskuz kopiatutako liburuak egiten zituzten tailerra adierazten du, Mendebaldean inprenta sartu aurretik.

Liburuen inprimaketak mugimenduak sortu zituen ezagutzen garapenetan, jakintza zabaltzen eta garatzen zen forma desberdinetan, gailentzen ziren unibertsitateek lehia berriak zituzten. Bestalde, Frantziako erregeak liburutegiak eraikitzen hasi ziren eta unibertsitate berriak sortu zituzten.

Nikolas Koperniko astronomo poloniarrek 1543an liburu bat argitaratu zuen, hil zen urtean. Bere teoria, heliozentrismoa, aitzineko idazle eta zientzialarien lanetan oinarritzen zen. Haatik, uholde handiak sortu zituen Kopernikoren lanak, baita Elizaren haserrea ere. Dena den ikerketa eta ideia berrien aukera izan zen. Eremita zientifikoan, Kopernikoren proposamen zientifikoak gailendu ziren Elizaren iritzien gainetik, eta dizipulu asko sortu ziren. Galileok luneta astronomikoa hobetu zuen eta planeten ikerketa ere garatu zen.

Berrikuntzen garaia zen, baita armen eremuan ere, bolboraren asmakaria Asiatik heldu zen, Txinan asmatua VI. mendean, eta Europaraino iritsi zen musulmanen eskutik. Lehen kanoiak eraiki ziren XIV. mendearen erditsuan, arkabuza XVI. mendearen hastapenean sortzen dute, baina infanteriaren garapena Luis XIII.aren heldu zen. Bitartean, gerlarako teknika berriak sortu ziren, setioak erraztu zituztenak. Lehergailuen eraginez gazteluen paretek ez zuten irauten, eraso jasateko azpiegiturek ez zuten gehiago balio. Beraz, ondorioz, eraikuntzak ere berriz pentsatu behar izan ziren.

Kirurgiak ere hobekuntzak ezagutu zituen Ambroise Paréri esker. Hark arterien lotzeko teknika sortu zuen, baita kirurgiarako instrumentu berriak ere, eta hainbat erregeren zirujaua izan zen, besteak beste Henrike III.arena.

XVI. mendearekin frantses hizkuntzaren berrikuntza heldu zen, Frantzisko I.aren laguntzarekin. Erregeak Villers-Cotterêts-eko ediktua (1539<sup>33</sup> argitaratu zuen, eta frantsesa hizkuntza ofiziala bihurtu zuen erresuma osoan, Erresumako administraziorako hizkuntza bilakatuz. Latinaren erabilpena pixkanaka jausten hasi zen, nahiz eta tokiko hizkuntzak biztanle gehienek erabiltzen zituzten).

Didier Le Fur historialariaren arabera (LE FUR 2011: 87), ez zuen Frantzisko I.ak, bereziki agindurik eman frantses hizkuntzari lehentasuna emateko. Izan ere, gogoratzen du dagoeneko 1490ean Moulins herrian Karlos VIII.ak ordenantza bat idatzi zuela frantsesaren alde okzitaniera erabiltzen zen eremuetan. Ondoren, 1510ean Luis XII.ak auzi kriminaletan, epaiak frantsesaz idatzi behar zirela agindu zuen, alegia, Loira aldeko herrietan, latina frantse-

<sup>33</sup> “Guillemine Ordenantza” izenez ezagutzen da, eta Frantziako errege Frantzisko I.ak 1539ko abuztuaren 10etik 25era bitartean Villers-Cotterêtsen (gaur egungo Aisne departamenduan) idatzitako lege-testua da, 1539ko irailaren 6an Parisko Parlamentuan argitaratua. Ordenantza hau Frantzian oraindik indarrean dagoen lege-testurik zaharrena da, I10. eta III. artikulua (frantses hizkuntzari buruzkoak) inoiz indargabetu ez direnak.



sarekin ordezkatu behar zela epaien idazteko agindu zuen monarkak, latinari eremua jenez.

Literatura munduan ere Erdi Aroko literaturarekin haustura handitu zen, eta forma poetiko berriak sortu ziren. Poeta nagusiak, Guillaume Bude, Frantziako Kolegioa (*Collège de France*) sortu zuena, Frantzisko I.ak hala eskaturik. Horrez gain François Rabelais, eta Michel de Montaigne. *La Pleiade* sortu zuten, Ronsart eta Du Bellay-rekin<sup>34</sup>.

Margolaritzan, biluziak agertzen dira, espresio estetiko bilakatzen dira. Iru-di biblikoak eta katolikoak mantentzen dira, noski, Flandriako eskola agertzen den garaia da, eta potreten moda, *La Joconde* arte lanarekin, hau delarik adibide nagusia.

### 3.3 Alfabetatzea Erdi Aroaren bukaeran

Notario laguntzaileak, elizgizonak, jakintsuak, idatziaren balorazioaren lehen artisauak izan ziren. Gehienek idatziaren aurrean errespetua zuten, beldurra ez bazen. Etxe batean liburu bakarra baldin bazen egoera ohargarria izaten zen (LEROY LADURIE 1976). Irakurtzeko gaitasuna zutenak haien jakintza herritarren esku uzten zuten irakurketa publikoen bitartez, gehienetan elizgizonak edo legegizonak ziren. Irakurketa tokiko hizkuntzan egiten zen, era ulergarrian, eta, horrela, ideia berrien hedatzeko bide berria irekitzen zen. Baina eremu mugikorra zen, apezek zuten eragina aldatzen hasi zen lehenik irakurtzen zekitenen artean, testu sakratuak ulertzeko gai zirelako. Irakurtzen zutenak gaitasuna hedatzen hasi ziren, ideien partekatzeko aukera zegoen, baina zalantzak sortzen hasi ziren eta hori ez zen denen gustukoa. Elizak denbora behar izan zuen tokiko hizkuntza eta paperean, inprentari esker hedatzen ziren testuak beste era batera ere aipatzen zirela ulertzean.

Ordu arte sinestek jakintza zutenek ahoz aipatu zituzten, hori aldatzen hasi zen. Eta herritar guztien artean ez, baina alfabetatzeak urrats handiak egin zituen eta biztanle gehiago irakurtzen hasi ziren.

<sup>34</sup> *Pleiade* literaturari lotu mugimendua, XVI. mendeko zazpi poeta frantsesek osatzen dute, Pierre de Ronsard, Joachim Du Bellay, Étienne Jodelle, Rémy Belleau, Jean-Antoine de Baif, Jacques Peletier eta Pontus de Tyard. Beren literatura lan eta testu teorikoen bidez, frantses hizkuntza berritu eta hobetu nahi zuten, latinaren mailara eramanez. Helburu politikoa Frantziak hizkuntza nagusiaren bidez erresuma bateratzeko lanetan parte hartzea zen.

Baina hastapen horietan ahozko eta idatzien arteko muga ez zen hain garbia. Inprentak egoera erabat aldatu zuen XV. mendetik goiti. Liburuen ekoizpena handitu zen, baina irakurleen kopurua ez zen oraindik egokitu kantitateari. Liburuen ekoizpenarekin haien kopuru biderkatuarekin, jakitatearen euskarriak, memoriaren inguruko ariketak, hizkuntzaren lanketa eta pentsatzeko formak ere aldatzen joan ziren (GOODY 1979). Iraultza mentala sortu zen ahozkotasunetik idatzira pasatuz, ordu arte erabili ziren tresnak, idatzirako ere aldatu egin ziren. Inprimatuz biderkatzeko gaitasunak liburuaren indar handia ematen zion. Gai desberdinetan ideia desberdinen arteko debateen sortzeko aukera sortu zuen. Ideia desberdinen defendatzeko, erantzuteko, urrunago joateko, idatzitik abiatuta. Batasunen eta estandarren sortzeko bideak zabaldu ziren, baina eremu eta zientzia berrien garapena ere.

Inprimatzeak tokiko hizkuntzen mantentzeko aukera ere izan zen. Baina eremu zabalagoetan estandarizatuko ziren hizkuntzen indartzea ere ekarri zuen. Frantsesa normalizatu bat hedatzen hasi zen. Gramatika eta hiztegi berriak sortu ziren.

Liburuen biderkatzeak aldaketa handiak ekarri zituen. Horien artean, irakurketa zabaltzen lagundu zuen, taldean, jendaurrean, norbera bere etxean, familian, testuen erabilpena, hedapena erraztu zuen, eta testuen lanketa ekarpen berriak garatu ziren. Testu mota desberdinak gehiagoren artean banatu ziren, mapak, grafikoak, marrazkiak eskuragarri bihurtu ziren eta liburuen prezioa ere jaitsi zen. Noski, hasiera batean elite baten erdian mugitzen ziren urratsak egin ziren. Hiriak izan ziren hasiera batean liburuen garapena ezagutu zuten eremua, laborarien mundura heltzeko denbora gehiago behar izan zen, baina XV. eta XVI. mendeetan abiadura handian zabaldu zen liburua (ZEMON DAVIS 1975). 1560an Parisko liburutegien % 10 artisauenak eta merkatarienak ziren (QUENIART 1984: II-35).

Ahozkotasuna indartsu zegoen eskualdeetan, liburuetara hurbiltzea zailagoa izan zen, bereziki tokiko hizkuntza erabiltzen zelarik. Paristik urrun ziren eremuetan latina desagertu bazen, Paristik heldu zen hizkuntza ez zen oraindik instalatua bazterretako herrietan. Horrela, ahozkotasunak beste transmisio mota bat segurtatzen zuen. Testu berriak, bereziki erlijio testuak irakurketen bidez zabaltzen ziren, erlijioen arteko lehia handia zelarik.

Zaila da alfabetatzea deitzea hastapen horietan gertatu zenari. Elite batek bizi zuena ez zen irakurtzeko gaitasunik ez zutenen artean gertatu. Aldiz, Bibliatik ateratako testuen irakurketak erlijioarekin harreman berria sortu zuen, eta Erreformak hedatzen zituen liburuak erlijio katolikoarekin zen harremana

aldatu egin zuten. Ez du horrek erran nahi Eliza katolikoak indarra galdu zuenik, baizik eta erlijioen arteko tentsio horretan tresna handia izan zela liburua.

Herritarren alfabetatzea, ahozketasunetik idatzira pasatzea, elementu historiko nabarmena izan zen. Gizarte desberdinentzat modernitateara pasatzeko garaian tresna inportantea izan zen. Europako historian azpimarratu behar den ibilbidea da. Ibilbide horretan ohartu behar gara horren iraupenean, eta eskualdeen artean desberdintasunak egon zirela. Erreformak bultzada bat eman zion alfabetatzeari, baina herrialde batzuek denbora gehiago izan behar zuten beste batzuek baino jauzi kualitatibo baten lortzeko. E. Todden arabera, Suediaren alfabetatze prozesua, alegia 20 eta 25 urteko gizonen % 50aren kopurua gaintitua delarik, Suediako erregistroetan ikertua izan denaren arabera, hori gertatzen da XIX. mendean sartu aitzin. Gure herrialdeetan XVIII. mendean bukaera goaitatu beharko da maila berera heltzeko (TODD 1990: 174). Horrela, gizartearen aitzinamendua neurtzeko tresna berria daukagu. Hau ez da urteen igarotze zuzenari lotua, gizartearen denbora erreala baizik, aitzinamendu kulturalari atxikia.

Alfabetatze tasak ez gaitu gizarte desberdinen arteko konparazioaren egitera eramaten, baizik eta ulertzera testu idatziak eskuratu zirela, baina alfabetatzea ez zela gizarte osoan hedatu. Gizarte bakoitzak bere erritmoa izan zuen modernitatean sartzeko, edo bederen herritar guztiak alfabetatzeko, batzuek lehenago egin zuten urratsa. Baina interesatzen zaiguna da egin ziren hautuen eta haien ibilbidea ulertzea.

Hastapenean alfabetatzea erlijioari lotua zen. Idatzia apezarena izaten zen, egitura teokratikora eramaten gaitu, eta apezak autoritate moral handia izaten zuen, zalantzan ematen ez zena, inguruan gerlari analfabetoak zirelarik. Elizak bakarrik zuen ideologia azkar bat edukitzeko gaitasuna, herritarren batzeko jakitatea.

Alfabetatzearen ibilbidean, urrats garrantzitsuak eman ziren. Hasteko, liburuak, idatziak emendatuz joan ziren eta hor zeuden herritarren artean, pixkanaka idatziari hurbiltzen zirenen artean. Gerlak, borrokak izan ziren gizarte desberdinetan eta interesatzen zaigun garai eta eremuan, erlijioaren inguruko gerla bortitzak izan ziren. Autoritateak zalantzan emanak ziren, mentalitateak aldatzeko ari ziren eta boterea ere eskuz aldatzen joaten zen. Gogoan hartuko dugu beste garai batzuentzat Lawrence Stonek bere ikerketetan lotura egiten duela alfabetatze eta iraultza desberdinen artean. Izan ere, ohartzen da gizonen % 50 baino gehiago alfabetatuak direla, ingeles, frantses eta errusiar iraultzen

bezperan. Modernitatearen eta iraultzen artean lotura dagoela ulertzen du (STONE 1969).

Luteroren Erreforma munduak ezagutzen zuen aldaketa handien garaian heldu zen. Luteroren ideiak inprentari esker hedatu ziren. Haatik, ideia berri horiekin, edo haien ondorioz gerla asko piztu ziren Europa osoan.

Erreformak eragina izan zuen Euskal Herrian, Nafarroako erresuman eta bereziki Nafarroako erreginen munduan. Erreforma aipatzen delarik, Nafarroako erreginen aipamena dago, irudi eta ekintzaile gisa ezagunak dira, haien dirdira oso zabala da. Letrak eta Erreforma Nafarroako erreginen bidea gurutzatzen dute, Europa osoan ospe handikoak ziren.

### 3.4 Berrikuntzen garaia, laburbilduz

XVI. mendea, Pizkundea, Frantzisko I.aren agintearen pean, kultura zale-tasuna hedatua zen Frantziako gortean eta erregea mezenas handia izan zen kulturgintzako sortzaileentzat.

Humanismoa zen literatura lerro edo korrente nagusia. Testu zaharretara itzultzeko grina, latinez, grezieraz idatzitakoak, eta ezagutza berrien bilaketa zen hedatu.

Poesiagintzan autore nagusiak ziren Marot, Jean de Sponde, Agrippa d'Aubigné, eta Pléiade deitutako eskola sortu zen non Ronsard, Du Bellay kide ziren. Frantses hizkuntzari bultzada emateko nahikeriatik heldu zen mugimendua zegoen.

Eleberri nagusiak Rabelais-enak eta Margarita Nafarroakoarenak ziren ziren. Montaigne zen filosofo nagusia.

Orduko ideia nagusi guztiak zalantzan jarri ziren, Ambroise Paré medikuntzan Nikolas Koperniko astronomian, Ramus logikan, eta mundu zabalean barna antolatu ziren esplorazioak ere kontuan hartu behar dira, Mundua ulertzeko bide asko ireki ziren. Italiako Pizkundeak, noski, eragin handia izan zuen. Baina aldaketa handia inprentaren garapenarekin gertatu zen, inprentak testuen zabalkundea baimentzen baitzuen, eta noski Bibliaren oinarrizko testuek hedapena auzo guztietara heltzeko aukera izan zuten.

## 4. EMAZTEAK XVI. MENDEAN

### 4.1 XVI. mendeko emazteen egoera

XVI. mendean herriko emazteentzat Pizkundea ez zuen deus berririk ekarri, ez eguneroko bizian ez eta ere haien estatutuan ere. Aitzineko mendetik heldu ziren indar kontserbatzaileek hobesten zuten emazteen azpiko izaera. Aldiz berritzaileek ezagutzarako eta bizi intelektualerako eskubidea aitortzen diete emazteei, aitorten horien artean Rabelais frantses idazlea aipa daiteke. Emazteen aldarrikapenak emazteen testuetan agertzen dira, baina nobleziako eta burgesiako zirkuluetan gelditzen dira; oihartzun politiko edo sozialik ez dago.

Ezkontzari toki handiagoa ematen zaio, eta ezkontza horren barnean emazteen lekua definituago gelditzen da gizonaren menpe, sexuen arteko hierarkia errespetatuz andere eta ama gisa, familiari egonkortasuna emanaz, horiek denak gizartea mantentzeko, estatuak beharrezkoak dituen oinarriak.

Annie Rouquier-ek *Histoire des femmes/Femmes dans l'histoire* titulupean<sup>35</sup> plazaratu zuen liburuan, historian zehar, gizartean emazteek izan duten tokia, eta mezezi duten ezagutza agerian utzi du. Gaia Erdi Arotik hasiz jorratzen du.

Interesatzen zaigun arora pasatuz, alegia XVI. mendera, Annie Rouquierek gogoratzen du, Pizkundearen garaian, printzesak (Margarita Nafarroakoa, Valoisko Margarita adibidez) ikasiak zirela (hizkuntza zaharren ezagutza beharrezkoa zen frantses gortean, arte eta zientziei eskaintzen zitzaaien arreta berezia), jakintsuak eta poetak laguntzen zituztela, neska aipatuak bultzatzen zituztela. Jakintsu horien goraiatzearekin, garai berezi bat argitzen dugu, garai bat, European, goiztiarra gizartean garapenean, noiz emazteak ere jakintsu ziren. Zibilizazioaren aitzinpausoen ulertzeko, ideia baten izateko balio digu, emazteak adituak ziren garai batena. Noski, Margarita Nafarroakoa mundu horretan ikurra zen, goi mailako aristokraziako kidea baitzen, eta idatzi nagusi batzuk utzi baitzituen. Garaia baten lekukotasuna utziz, lekukotasun partziala noski, baina gelditu dena eta garaia aztertzeko aukera eskaintzen duena.

Madeleine Lazard-ek, XVI. mendeko literaturaren espezialistak, bere liburuan adierazten du XVI. mendeko idatzietan sortu ziren polemiketan, emazteak goraiatuak edo gutxietsiak izaten zirela (LAZARD 2001: 437). Idatzi asko daude eta horrek frogatzen du gaia oso garaikidea zela. Luzaz, gizon idazleen ahotsa bakarra izan zen, Pizkundearen hasierarekin, emazteen idatziak loratu ziren, horiek hasi ziren gizonen idatzien ondoan jartzen.

<sup>35</sup> [http://blog.ac-versailles.fr/lelu/public/Femmes/documents\\_pour\\_une\\_hist\\_des\\_femmes.pdf](http://blog.ac-versailles.fr/lelu/public/Femmes/documents_pour_une_hist_des_femmes.pdf)

Madeleine Lazard saiatzen da gogoratzen bere liburuan emazteen tokia eta papera XVI. mendeko gizartean, noblezia eta goi mailako burgesiako emazteak kontuan hartuz, eraman behar izan zituzten borrokak, ezagutzaren, esku-bideen lortzeko, fedea defendatzeko edo agintean egoteko. Borroka horietan «kontzientzia feminista» baten espresioa suma daiteke.

Emazteen egoeraren ideia baten izateko emaztearen zer irudi izaten zuen XVI. mendeko irudimenean, imajinarioan, ulertu behar dugu. Teologiak, zuzenbideak, medikuntzak, literaturak ikuspuntu tradizionalak berreskuratu zituzten, denboran urrundik helduak, emazteen gutxiagotasuna frogatzeko. Bigarren mailako izaera zuen, hau zen emazte teorikoa, abstraktua, gizonen idatzietatik sortua. Madeleine Lazardek emaztea horrela definitzen du.

XVI. mendean, emaztearen problematika bi generoen arteko harremanari lotua zen. Ezkontza, ekintza sozial nagusia, ezkongabetasuna, maitasuna, gozamina denen kontua zen. Zer ekartzen diote emazteari? Hau aztertu du Madeleine Lazardek eta baita ere emazteen aldarrikapenak, garaipenak eta porrotak, ezagutzara eta boterera heltzeko eman zituzten pausoak.

Elizaren ikuspuntuak, iritzi orokorra egiten zuenak, irudi zehatza zuen emaztearen tokiaz, emaztearen gizonarekiko menpeko zen, bekatuaren aitzinekoa zenaren ideian. Hala bizi zen emaztea, Erreformaren hasiera baino lehen. Gutxika, inprenta hedatzearekin, testu berrien zabaltzearekin, iritzi hori pixkanaka zalantzan ematen hasi zen.

Menot, De Maillard eta De Glapion XV. eta XVI. mendeetako idazleen lanetan, sermoietan, kalaka arinak, hutsalkeria, kritikaria, emazteen ekintza gisa ikusiak zirenak, salatzen zituzten. Apezek erraten zituzten predikuek, forma eta zabaltze handiagoak ezagutu zituzten, bi erreformen ondotik, ideien bideak handitu ziren, anitzagoak bihurtu ziren, iritzi nagusiak joan ziren aldatzen.

Zibilizazio giristinoak, Pizkundeko irudi mentalean eta sozialean eragiten zuenak, emazte tentatzailearen eta zikintzailearen irudia zabaltzen zuen. Emaztearen errola egonkor atxikitzeko ideiak ziren.

Erdi Arotik, intelektualak eta idazleak ezkongabeko elizgizonak ziren, emazteenganako mespretxua eta beldurra baizik sentitzen ez zutenak, batzuetan herra sentitzeraino.

Literatura satirikoak, monasterioetako literaturek, horren frogak utzi dizkigute. Erligioren dogmak zalantza emateko, ezkontzaren kontra aritzeko, erabiltzeko nahia handia zen. Ordu arte sexu femeninoaren gutxiagotasuna justifikatzeko literatura osoa zegoen, horrekin hausteko nahia zegoen.

Erreformak emazteei irakurtzeko eta Bibliaren komentatzeko baimena eman zielarik teologo katolikoak sumindu ziren. Paul santuak errana zuen emazteak elizan isildu behar zirela. Erreformako artzainek adierazpen bera baliatu zuten emazteei debekatzeko sermoiak egitea, edo konsistorioko<sup>36</sup> gauzez arduratu nahi zutelarik. Uste zuten, Florimond de Raemond legegizonak bezala, lege naturalen kontrakoa zela ez baitzien emazteei adimen aski eman mintzo santuaren ulertzeko.

Erreformako artzainak apezzen ezkongabetasunaren kontra zeuden, eta horrek ezkontzaren aldeko jarrerak bultzatu zituen, gizonen eta emaztearen arteko berdintasunaren alderat. Baina ez Luterok ez Kalbinok, ez zuten emaztearen menpekotasuna zalantzan jarri. Hots, emazteentzat Erreformak zabaldu zuen atea, jakitatea emazteen esku uztea alegia. Halere erran behar da ez zela lorez betetako bidea izan, doktrina irakurtzeko eta zabaltzeko gaitasunak zailtasunak ezagutu zituen, nahiz eta bi Erreformatan debateen bultzatzeko garaia izan.

Erreformaren ondotik, Kontrarreforma edo Erreforma katolikoa<sup>37</sup> abiatu zen eta emazteen egoera ez zen hobetuz joan. Doktrina biek ez zuten begi onez ikusi nahi emazteen presentzia eta tokia indartzen.

XVI. mendean, Elizak emaztearen aurka zuen jarrerak, hedatua zenak, aitzina jo zuen, Benedictiren<sup>38</sup> *La Somme des péchés* obran agertzen den bezala (BENEDICTI 1588: 876). Benedicti jakintsu handia zen, asko bidaiatu zuena eta ardura garrantzitsuak izan zituena frantziskanoen artean. Bere obra irakurria eta goraiapatua izan zen XVI. mendean eta bekatuak eta penitentziak zorrotasun handiarekin deskribatuak zituen. Eliza katolikoaren oinarrizko testuen arabera pentsatutako lana izan zen. Beste bat ere, lerro beretik joan zen, Charles Borromée santuaren<sup>39</sup> *Instructions aux Confesseurs* obra bezala, emaztearen irudi susmagarria hedatzen duena.

Lucie Humeau<sup>40</sup> bere masterrean Benedictiren obra aztertzen du, Philippe

<sup>36</sup> Protestante edo israeldar kultuko ministroen biltzarra.

<sup>37</sup> Kontrarreforma edo Erreforma katolikoarekin, XV. mendetik, Elizak eraberritze eta berritze erlijiosoa nahi du. Hein batean, Eliza Katolikoaren helburuei erantzuten die, protestantismoa atzera botatzeko eta desagertzeko asmoz. Eliza katolikoa tresna espiritual eta materialez hornitzea ahalbidetzen du, Eliza protestanteen artean lortutako eskualdeen errekonkista partziala egiteko eta erlijio-berpizkundera sendotzeko.

<sup>38</sup> XVI. mendeko teologo frantsesa, frantziskanoa.

<sup>39</sup> Trentoko kontzilioak nahi zuen Erreforma katolikoaren artisau handia bere elizbarrutian, apezpiku post-tridentin eredutzat hartzen da. 1610etik aurrera Paulo V.a aita santuak kanonizatu zuen.

<sup>40</sup> L. HUMEAU. *Le regard porté sur les femmes par le franciscain Jean Benedicti à travers son manuel de confession La somme des pechez et le remede d'icevxx... (1595, rééd.).* Master I CEI | mémoire de maîtrise | juin

Martin Historia Modernoaren Lyon IIko irakaslearen ardurapean, eta besteak beste, hitz hauek azpimarratzen eta hautatzen du Benedictiren testuetatik, ideia orokorraren azaltzeko:

fille ou femme laquelle s'habille pompeusement, soit en allant à l'Eglise, aux compagnies ou ailleurs, pour complaire charnelleme[n]t à d'autresqu'à son mary, nonobstant que l'effect ne s'ensuyue, peche mortellement pour ce que sonintention est sinistre & peruerse.

Benedictik birjinaren defentsa egiten zuen, ardurak eta erantzukizunak deklinatzen zituen. Izan ere, Erreforma katolikoarekin, ordu arte doktrina zena, debekatze eta agindu soziala, Elizak eta bere baitan ziren apezek eta erlijioek zainduko zuten debekatze eta kontrol sistema gisa. Familia eramateko manera, sexualitatea Elizaren eta elizgizonen kontrolpean jarri ziren, Eliza bere autoritatea berriz plantan emateko prest zen, bereziki ezkontzari doakionez.

Pizkunde garaiko medikuek giro hori guztia astindu zuten, nahi gabe, emaztearen irudi tradizionala zalantzan eman baitzuten. Noski, erreferentzia den gorputza gizonarena da. Baina orduko medikuak anatomiaren ezagutza sakontzen aritu ziren, emaztearen anatomia ere zehazki aztertzen hasiak ziren.

Emaztearen anatomiaren hobeki ezagutzeak, emaztearen organo genitalen berezitasuna, zientzialarien hitzetan, argira ekartzeak, emaztearen izaerari buruzko teoria ofizialetan, pentsaeretan ñabardurak ekarri zituen. Desberdintasunak plazaratzearekin, gutxiagotasunaren iritzia indarra galtzen hasi zen. Emaztearen estatutuaren hobetze bidean, bere garrantzia izan zuen.

Ambroise Paré<sup>41</sup> ikuspuntu berriak ekarri zituen, eta emaztearen gozamina aipatu zuen. Amboise Paré, Frantziako Henrike II.a erregearen mediku bihurtu baino lehen, Antonio Borboikoa Nafarroako erregearena izan zen. Medikuen iritzi tradizionalak zentsuratu zituzten medikuak, Ambrose Paréri, haragikeria bultzatzea leporatu zioten eta Laurent Joubert-<sup>42</sup> liburu batzuetan lizunkeria neskei

---

2013. <https://www.enssib.fr/bibliotheque-numerique/documents/64684-le-regard-porte-sur-les-femmes-par-le-franciscain-jean-benedicti-a-travers-son-manuel-de-confession-la-somme-des-pechez-et-le-remede-d-icevx-1595-reed.pdf>

<sup>41</sup> Ambroise Paré, 1510ean sortua (edo 1509an, iturrien arabera) Bourg-Hersent herrian, Laval herriaren ondoan, 1590eko abenduaren 20an Parisen hila, kirurgialaria eta anatomista frantsesa. Erregearen kirurgialaria izan zen, guda eremuetan. Kirurgia modernoaren aitatzat hartzen da.

<sup>42</sup> Laurent Joubert (1529-1583), mediku eta zirujau frantsesa, Valence herrian sortua eta Lombers herrian hila. Nafarroako Henrike III.aren lehen medikua izan zen. Louis Mainard, *Drôme*, Paris, Currel, Cougis & Cie, coll. « Galerie Française », 1894, 72 or., 45.-46. orrialdean, argazkietan agertzen den bezala.



erakustea. Liburu horiek frantsesez idatziak ziren, eta neskentzat eskuragarriak, irakurgarriak bilakatu ziren, irakurketa gaitasuna, nesken artean ere, azkartu zen urteetan. Inprentak eta alfabetatze prozesua hedatu ziren urteak ziren.

Besteak beste, Ambroise Paréren lanei esker medikuntzak aitortu zuen emazteak anatomia independentea, desberdina zuela.

Errenazimentuan, eta garai hura baino lehen ere, sendagileek uste zuten emakumearen patologia umetokitik zetorrela, eta horrek gizonaren azpitik jartzen zuen. Orduan, amaitu gabeko arra bezala deskribatzen zuten emakumea, ilargiaren eraginpean eta animalia beldurgarri baten menpe bizi zena: bere umetokia (GUAY 2013).

Ideietan, aurkikuntzetan, aurrerapausoak zeuden, baina eguneroko bizian, alaba baten sortzea etsipena izaten zen. Neska baten sortzeak, emazteak gizartean zuen estatutuarengatik egiten zuen familiako ondasunak murriztuko zirela, ezkontzeko unean, alabari dotea eman behar zitzaiolako. Emaztearen aldeko legerik ez zegoen, ondasunen jabe izateko eskubiderik ez zuen. Neskarentzat, ezkontza bidea baztertzeko bazen, komentua baino ezer ez zegoen. Hedatua zen irudia zen nesken osasuna ahula zela eta zaindu behar zela, haien espiritua arina zela, haien garbitasuna babestu behar zela, beste gizon batek bere gain hartu arte. Horiek guztiak arazo gisa bizi ziren. Norma sozial horiek guztiak neska gehienek jasan behar zituzten.

Obstetriziako liburuen kopuruak erakusten zuen bezala, emaztea, nahiz eta ezkondu, ez zen ikusten pertsona gisa. Medikuntzat ere emaztea zen lehenago ama eta gizonaren emaztea. Horrela, humanistek urte hauetan, ezkontzaren balorizazioa bultzatu zuten, ezkontzaren helburua seme-alabak sortzea zelarrik. Emaztearen bizitzaren irudia oso finkatua zen. Hortik heldu da emaztearen pertsonalitatearen errespetua, nahiko ahula, eraso erraza ikusten zutela. Haatik, eta hau irekitze gisa ikus daiteke, pentsatzen zuten harmonia sexuala beharrezkoa zela seme-alaben sortzeko. Emaztearen funtsa ezkontzaren barnean kokatzen zuten. Emaztearen funtzioa umeen sortzea zen, baina umeen sortzeko, sexualitatean, emazteak ongizate bat sentitzea beharrezkoa zela, onartzen zuten medikuek.

Garai horretako medikuen artean, Jean Huarte, Nafarroa Behereko medikua aipatuko dugu. Uharte Garazin sortu zen 1529an eta Linaresen hil 1588an. Sortu zen garaian Nafarroa Beherea Karlos V.aren menpe zegoen. Baina 1530ean Nafarroa Beherea utzi zuen eta harekin batera Huarte familiak. Familia Andaluzian kokatu zen. Alcalá de Henaresko Unibertsitatean Juan Huartek mediku diploma jaso zuen.

*Examen de ingenios para las ciencias* idatzi zuen ikerlana 1575ean, non fisiologiaren eta psikologiaren arteko loturak esplikatzen zituen. Ikerketa horrek ospe handia ekarri zion Europan zehar. Iruñean argitaratu zuen 1575ean eta Inkisizioaren arreta erakarri zuen. Inkisizioak liburua debekatu zuen, eta moldaketak egiteko eskatu zuen, berriz plazaratu baino lehen.

Ikerketa horretan Jean Huartek gizonen eta emazteen gorputzen arteko diferentziak landu zituen. Horrez gain, hiru emazte mota sailkatu zituen, eta zein emazte zein gizonekin ezkondu behar zen gizartearen onerako. Bukatzeko seme-alaba jakintsuen sortzeko sei aholku eskaini zituen.

Europan medikuntzak zituen kezkak eta grinak jarraitu zituen Uharte Garaziko medikuak. Ezkontzari lehentasuna eman zion, eta ezkontzaren helburuak aintzat hartu zituen. Emaztea aztertu zuen pertsonatzat hartuz, nahiz eta bere eginkizun nagusia seme-alabak sortzea aldarrikatu.

Legearen aldetik, frantses zuzenbidearen arabera, emazteak ez zuen izaera juridiko berezirik. Hierarkia sozialean, bere egoera legala aitaren eta senarraren arabera eraikia da. Alaba lehenik, gero emazte, gizonaren menpekotasuna nagusia da. Izan ere, legegizonek, juristek, teologoek bezala aurreiritziak dauzkate eta emaztearen gutxiagotasuna baieztatzen dute. Emaztearen psikologia fisiologiak egiten du, intelektualki eta fisikoki ere ahulak dira, beraz haurra eta eroa bezala arduragabe gisa ikusia da, ezin da gizonaren berdina izan.

Emazte ezkonduaren estatutu legala mailaz apaldu zen XIV. eta XVI. mendeen artean. Erdi Aroan, senarraren autoritatea azkarrena zen familiaren ongi-zatearen aldera. Gutxika, ezkontza instituzio politiko bihurtu zela adierazten digu Madeleine Lazard-ek (LAZARD 2001: 437), menpekotasuna gizona emaztearen jabea bilakatzeraino jarri zen, iraultzaren bezpera arte. Molièrek azalpen hau hautatu zuen bere hitzen froga gisa:

Bien qu'on soit deux moitiés de la société Ces deux moitiés pourtant n'ont point d'égalité ! L'une est moitié suprême et l'autre subalterne L'une en tout est soumise à l'autre qui gouverne<sup>43</sup>.

<sup>43</sup> MOLIERE. *L'école des femmes*. Déclaration d'Arnolphe.

Pizkundea hasi zen aurreiritzi eta estereotipo horiekin guzkiekin. Idatzietan ageri zen nola herritarren sentimenduetan, inprentak ideia horien hedatzea lagundu zuen. Haatik, kontzientzia kolektiboan baziren, egunerokoan ez zituzten egoera hain errazak sortzen. Eguneroko bizian emazteak ardurak asko izaten jarraitzen du, ardurak ditu familiaren barnean eta erabaki asko hartu behar ditu bizitzaren gorabeheren, gertaeren erantzuteko. Izan ere, emazteek bizi ekonomikoan parte hartzen zuten, edo bederen askotan senarra laguntzen zuten. Bigarren mailako izaera juridiko horren aurrean trabak agertzen ziren auzitegietan emazteen lekukotasunak onartuak zirelarik, sorginkeriaren kontrako epaiketetan adibidez, emazteen lekukotasunak onartzen baitziren. Testamentuetan ere emazte baten idatzia onartzen zen, alargun bihurtzen zelarik emazteak bere gain hartzen ahal zituen bere haurrak. Alargunak legitimitate erreala zeukan gizartean, eta emazteak senarra salatzen bazuen, aldiz, ez zuen auzitegietan ezkontzaren desegitea lortzen.

Obra metafisiko batek markatu zuen garaia. Antoine Héroët (1492-1567) poetaren eta elizgizonaren *Parfaicte Amye*<sup>44</sup>, obrak eta emazte baten bakarkako solasaldiaren bitartez, maitasun garbiaren goraiipamena egiten zuen. Autorearen arabera, maitasunak sekulako zoriona eskaintzen du, baina heriotzaren ondotik lor daitekeena da, munduko presondegiaren arima askatuen elkartzean, Jainkoaren edertasunean. Obra metafisikoa da, baita ere garaikidea, emaztearen tokiari eta bere jarrerari buruzko orduko debate batean kokatzen baita.

Clément Marot-en laguna (1496-1544) zen Héroët, Marot poeta Frantziako gortearen poeta ofiziala zelarik, Frantzisko I.aren garaian, Héroëtek arrakasta handia izan zuen, eta bere lana hogeitabat aldiz argitaratua izan zen. Margarita Nafarroakoaren ingurukoa zen. Obra honetako protagonista ez zen gorteko emazte bat. Autoreak maitasunak maite duenari sortzen dizkion sentimenduak aztertzen zituen, maitasuna bi sexuen arteko aliantza gisa erakusten zuen, maitasunaren filosofia agertuz, edertasun, gozamen eta plazeraren desioa zutenak aipatzen zituen, Jainkoaren maitasunera eramaten zuen filosofia.

*Parfaicte Amye* aipatuz, Amyes-en borroka aipatu behar da. Borroka hau, feminismoaren historialarien arabera, aristokraziaren eta burgesiaren arteko lehia gisa ulertu behar da.

Hiru lagun daude: lehena, gorteko laguna nobleziako emaztea da, jakintsua, gizonarekiko esklabotzatik askatzea erabaki duena; bigarrena, aurkako laguna, burges oldartua, eskandalu eta gorteko xahutzeengatik, eta hirugarrena, beneta-

<sup>44</sup> Antoine Héroët (1492-1567) frantses poeta eta Clément Marot poetaren laguna.

ko laguna, bere nagusitasunaz harro. Horietako inork ez duelarik aldarrikapen feministarik egiten, bederen gaur egun ulertuko genukeen gisan, hiru emazteren figurak daude, eta garaiko ezinegonak, gatazkak, jorratzen ziren testu horretan.

Gatazka hori, Erdi Arotik heldu zena eta emaztearen tokia eta rola galdekatzen zuena, Pizkunde garaian areagotu zen, emazteen idatzien biderkatzearengatik. Margarita Nafarroakoa horren erdigunean kokatzen zen, garaiko idazle nagusietako bat baitzen. Horrez gain, intelektual askoren defendatzaile, babesle eta aterpe-emaile ere izan zen.

Marguerite Briet, Hélienne de Crenne goitizenez ezaguna, 1510. urte inguruan sortu zen, Abbeville herrian, eta 1560 inguruan hil zen. Frantses idazlea eta itzultzailea izan zen. Ahantzia, eta gero berriz ezagutua XIX. mendearen bukaeran. Hélienne de Crenne jakintsu gisa ezagutua izan da geroztik, Pizkunde garaiko tradizio humanistan, jakintsu, eleberri sentimentalean, psikologikoan aurrekaria eta feminismoaren aitzindari.

*Les Angoisses douloureuses qui procèdent d'amour* (1538) eleberrian, idazleak emazteen aldarrikapenari hitza eman zion. Bere buruari erreferentzia eginez, noble batekin neska gaztetxoaren ezkontza kontatzen du, andregaiak gizongaia ezagutzen ez zuen garaietan. Eleberrian, autoreak emaztearen ezintasuna kontatzen du, senarraren eta maitalearen artean urratua, senarraren jeloskeria eta maitalearen hutsak. Senarrak jotzen du. Baztertua bukatzen du. Autoreak adulterioarekin bizi den pasioa plazaratzen du, bere hutsa aitortuz, gizonen traizioa gogoratu eta ezkontza presondegi gisa bizi duten emazteen egoera salatuz.

Idea berriak azaltzen ari ziren, ideia horietatik hurbil sentitzen zen Margarita. Ingurumen egokia bilatu zuen ideia horietaz hitz egiteko, irekitzen ari zen mundu horretaz hitz egiteko, mundu horretaz interesa zuten beste batzuekin. Noski zirkulu mugatua izan zen, hastapen horietan oso eremu zehatzetako aipagaiak ziren. Aurkitu zuen eremu hori Meauxko zirkulua izan zen.

Meauxko zirkulua aipatzen delarik, Nafarroako erregina zen Margaritaren babespean biltzen ziren intelektualak aipatzen dira. Izan ere, Erreformarekin heldu zen iraultza bultzatu gabe Luterok erraten zuenarekin ados ziren. Hau da, Luterok salatzen zuelarik Elizaren barnean zegoen iruzurra, eta autoritarismoarekin ados ez zirenak, oinarrizko ebanjeliora itzuli behar zela pentsatzen zutenak, Guillaume Briçonnet apezpikuaren inguruan biltzen ziren, Meaux herrian, Margaritaren ondasunetan alegia.

Margarita ez zen soilik babesle, idazle ere bazen, eta testu preziatuak idatzi zituen.

*L'Heptaméron*, Margarita Nafarroakoak idatzia, testu garrantzitsua izan zen. Aldarrikapen testua zen. Nobleziako mundura eramaten gaitu, orain arte aipatu ditugun idatzietatik desberdina, noblezia egoera desberdinean bizi baitzen. Mundu horretan kezkek desberdinak ziren, ez ziren burgesian zituztenak, baina emazteen sufrimendua azpimarratzen da.

Lan hori hirurogeita hamabi eleberri laburrek osatzen dute, zortzi egunetan banatuak. Bertan, ezkontzaren barnean emaztearen egoeraren azterketa zorrotza egiten da, nobleen artean, inkesta zabal baten bitartez, senar eta emazteen arteko harremanetan sortzen ziren arazoak jorratzen dira.

*Heptameronak* bilduma nahiko ezkorra egiten du egoeraz. Historiak, benetakoak askotan, gizarteko goi mailako hizlarien bitartez egiten dira bi multzotan antolatuak, alde batetik gizonenak, emazteak maite ez dituztenak, tradizionalisten ondorengoak, eta haientzat emaztea plazeraren objektua izaten da, bestetik emazteena da, non gizonen bortizkeria eta emazteei jartzen zaizkien zepoak kontatzen diren. Protagonistarentzat, emaztea delarik, zorientasunaren atea hesten direla askotan erakusten da.

Margarita, Frantzisko I.aren arreba, estatu arrazoiengatik bi aldiz ezkondu zen. Instituzioak dituen inperatibo sozialen aurrean oso triste gelditzen da, eta ezkontzak senar eta emazteen artean sortzen duen harremana hitsa da askotan. Maitasunik gabeko ezkontzak izaten dira askotan, beste lehentasun sozialei lekua eginez. Maite denarekin ezkontzea ez da usaiakoa.

Idazleak ez du gizonen nagusitasun soziala, ez eta nagusitasun intelektuala zalantzan ematen. Hala ere, bederen ezkontzaren barnean, senar eta emazteentzat, eskubide eta betebeharren berdintasuna aldarrikatzen du. Aristokraziaren munduan, protagonista gehienak mundu horretakoak baitira, ezkontza, familia edo arduradunen eskutik antolatuak izaten ziren, ezkongaien iritziak kontuan hartu gabe. Hortik datoz Margaritak aipatzen dituen ondorio txar guztiak, haurtzarotik ateratzen diren gazteen ezkontzak, elkar ezagutzen ez zutenen artekoak askotan, adin desberdinen arteko ezkontzak, neska gazteak zahar aberats batzuekin, azken kasu hori oso maiz antolatzen da. Eleberri labur eta komediak salaketa horien ingurukoak dira. Antolaketa horiek saihestea oso zaila izan zen mende osoan.

Zoriona baldintza horietan aurkitzea oso zaila izaten zen, baina erreginak erakutsi nahi duena da hertsapen horiek gogorrakoak direla emazteentzat senarrentzat baino. Bestalde, gizarteak errazago salatzen du emaztea gizona baino, eta neurri desberdinekin begiratzen dira bien jarrerak eta jokamoldeak.

Pizkondeak esperantza berriak sortu zituen emazteentzat. Horrela agertzen hasi zen plazaratzen zituzten testuetan, garai berritzaile horietan. Gorputzaren askatzea eta espirituaren garatzearen aldera idatzi zuten, baina Pizkondeak aldaketa sakonik ez zuten ekarri emazteentzat. XVI. mendearen bigarren zatian aurreiritzien itzulera izan zen nagusi, paper tradizionaletara itzultzeko beharra. Joana Albretekoa ez zen sartu paper horretan, baina gehiengo handiarentzat iraganeko ideia kontserbadoreak itzuli ziren.

Dagoeneko, 70eko hamarkadan, Joan Kelly<sup>45</sup> Italiako Pizkundeko espezialistak galdetzen zuen ea emazteentzat pizkunderik egon ote zen. Ezkorra agertzen da erantzuna ematerakoan.

Nicole Dufournaud-ek idatzi zuen tesian<sup>46</sup>, non Frantzia mendebaldeko XVI. mendeko emazteen bizia aztertzen duen, erakusten du emazteek bizi ekonomikoan toki handia zeukatela, eta haien eragina zabaltzen ari zela, nahiz eta traba asko izan. Haatik, bizitzeko aterabideak bilatzen jarraitzen zuten eta aurkitzen. Gizonek eramaten ahal ez zituzten lanbideetan kokatzen ari ziren, hiri askotan.

Tesi horren berezitasuna eta interesa honetan datza, noblezia ez dela soilik ikerketaren oinarria, bertan herriko emazteen bizitza aztertzen baitu.

Noski, nobleziako emazteen papera agertzen da, erlijio gerlen garaian bereziki, emazteek babestu behar baitituzte familiako ondasunak, gizonak gerlara joanak direlarik.

Erran genezake, bada, aldaketa eta mugimendu handiak zeudela gizartean Pizkunde garaian. Gizartea plurala zen, eta aniztasun horretan emazteek ere egoera arrunt desberdinak bizi zituzten eta aurrera joateko hainbat aterabide jorratzen zituzten. Esperientzia horietatik guztietatik, bai legeen aldetik, bai jarreraren aldetik urrats berriak heldu ziren, literaturan ere egin zirenak autore berri asko agertu baitziren.

---

<sup>45</sup> Joan Kelly (1928-1982) estatubatuar historialaria izan zen. Bere lanik ezagunenen artean, 1977an argitaratu zen "Emakumeak Errenazimendua izan al zuen?" saiakera da. Artikuluak Errenazimenduaren historiografia garaikidea desafiitzen zuen, emakumei botorea hasierako aro modernoan uko egiten ziotela argudiatuz.

<sup>46</sup> DUFOURNAUD, Nicole, «Nicole Dufournaud, *Rôles et pouvoirs des femmes au XVI<sup>e</sup> siècle dans la France de l'Ouest*», *Genre & Histoire* [sarean], 2007 ko azaroaren 20an sarean ezarria, 2020ko martxoaren 8an kontsultatua. URL: <http://journals.openedition.org/genrehistoire/208>

## 4.2 Pizkundea eta XX. mendeko ikerketak

Aitzinako Erregimeneko emakumeei buruzko ikasketen multzoan, Errenazimentuak, dirudienez, estatus pribilegiatu bat du, seguru asko, femeninoaren idazkeraren garai sortzaile bat delako J.-P. Beaulieu eta Diane Desrosiers-Bonin ikerlarien arabera (BEAULIEU eta DESROSIERS-BONIN 2011). Erdi Aroko emakumeei buruz egin diren lanek erakusten duten bezala, kulturaren eta letren munduan emazteek duten lekua ukazina izatetik urrun badago ere, gero eta froga gehiago dago hau erreala izan zela hizkuntza frantsesaren literaturari dagokionez behintzat, Errenazimentua aurrerapen handia izan zen sortze lanak ugariak zirelako, zenbaki esponentzialetan, egile estatusaren bila ibili ziren emakumeen kopurua handia izan zen. Ez da harritzekoa, beraz, garai horrek, zenbait arlotatik, gogoeta kuantitatibo bat sortu izana. Emakumeen testuak genero ikuspuntutik ez dira beti aztertzen, baina arlo horrek ere gero eta interes handiagoa sortzen duela diote ikerlariak.

Eliane Viennot Pizkunde garaiko ikerlariak galdera egiten du. Pizkundeko garaian bizi ziren emazteen inguruko ikerketek merezi ote dute? (VIENNOT 2000)<sup>47</sup>.

Pizkundea oso garai interesgarria izan zela, nabarmentzeko, hori agertzeko, bi sexuak manera berean begiratu behar direla eta hori ez dela egiten defendatzen du Viennot ikerlariak. Herritarren erdia ez dela kontuan hartzen gogoratzen du. Era berean, garai horretan, emazte asko boterean, agintean egon zirela, errege baten ordezkoko batzuetan, azpimarratzen du eta zerrenda ematen: Elisabet Bavariakoa, Ana Frantziakoa, Ana Britainiakoa, Luisa Savoiakoa, Katalina Medici, Marie Medici. Haien ondoan, Elisabet Gaztelakoa, Margarita Austriakoa, Mari Hungariakoa, Maria Tudor, Elisabet Ingalaterrakoa, Margarita Nafarroakoa, Joana Albretakoa, Katalina Nafarroakoa. Erregeen maitaleak, instituzio bihurtu zirenak: Agnès Sorel, Châteaubriant-eko Françoise, Anne Pisseleu-ko Anne, Diana Poitierskoa, Estrées-ko Gabrielle.

Zerrenda luza daiteke, baina gerla eta gatazka luzeak egiten ziren garai horretan. Emazteen tokia, bai gatazka politikoan bai ondasunen zaintzeko oso inportantea izan zela dio Viennotek.

<sup>47</sup> E. VIENNOT. Les femmes de la Renaissance, objets d'études au XXème siècle Artikulua Tourseko kolokioako aktekin plazaratu behar zen: *La Renaissance au XXe siècle, Perspectives historiographiques* (2000ko 3-7 uztailan, CESR, G. Chaix & M. Simoninen zuzendaritza pean). Michel Simoninen heriotzarekin ematen du argitalpenaren proiektua bertan behera utzia izan dela.

Évelyne Berriot-en tesian *Les Femmes dans la société française de la Renaissance* (BERRIOT 1990), 1497 eta 1626 arteko 40 emazte idazle, aipatzen ditu. Idazle horien artean printzesak daude eta horien lanak gehienetan argitaratuak izan dira, baina burgesiako batzuk ere badaude eta baita humanismoari lotutako emazteen lanak ere.

Erreformaren garaian emazteek toki berezia izan zuten, eta Kontrarreformatan ere bai. Zenbait kasutan erreformaren buru izan ziren eta Erreformaren eragina indartzen saiatu ziren zituzten lurraldeetan. Hori izan zen Joana Albretekoaren kasua. Gutunen bidez garai horren berri izan dugu. Praktika epistolarrak garrantzi handia izan zuen eta gure lanean horren berri izanen dugu, Margarita eta Joana ama-alabek gutunen idazteko ohitura handia izan baitzuten.

Literaturan ezagutu ziren berritzaileek ez dute jakintza ukatzen emazteentzat, baina gizonen mundutzat hartzen zuten (LAZARD 1985). Ideia kontserbatzaileak berrindartzen joan ziren mendeak aurrera egin ahala eta emaztearen tokia, familiaren barnean, bere betiko ardurekin jarraitu zuen. Emaztea gizonaren aurrean gutxiago zelako ideia, indartsua zen, autore berriek beste ikuspuntua eman nahi bazuten, ez zuen horrek oihartzun erraza. Emaztea senarraren mirailaren ideia gero eta indartsua izan zen XVI. mendean zehar, nahiz eta autore gehiago horren kontra egin.

Dena den, Pizkunde garaiko autoreak aztertzen direlarik gaur egun, autore bat nabarmentzen da, idatzien kalitateagatik, gai ei doakienez eta genero guztietan idatzi baitzuen. Hori da Margarita Nafarroakoa, garaiko autoreen artean saihetsezina. Errealitate horrek frogatzen du literaturan ere emazteek lan itzela egin zutela eta lan horiek aztertzeko eta plazatzeko asko dagoela egiteko oraindik.

### 4.3 Lege salikoa

Nobleziako emazteek ere XIV. mendetik gizonetikiko menpekotasuna jasan zuten. Asmatua izan zen lege salikoak erregetza, koroaren agintea ukatzen zien. Eliane Viennot-k ederki azaltzen du<sup>48</sup>.

Inprentak legearen zabaltzea erraztu zuen. Lege gisa babesten zuten nahiz eta emazte bat agintera heldu zen.

1488 : gouvernement d'Anne de France, fille de Louis XI. Le grand traité est imprimé (l'imprimerie vient d'être inventée) avec le titre La loi salique, première loi des Français. Il sera réimprimé, avec ce même titre, l'année où

<sup>48</sup> É. VIENNOT, *La France, les femmes et le pouvoir. L'invention de la loi salique (ve–xive siècle)*. 2008.I.vol.



Louis XII envisage les modalités d'une régence confiée à son épouse et à Louise de Savoie (1507), puis sous le «règne» de Louise de Savoie (1522), puis au temps de la plus grande puissance de la duchesse d'Étampes (1541), puis à celui de Diane de Poitiers (1557)<sup>49</sup>.

Lege horrek ondorioak zituen, zuzenbide erromatarra lehenetsiz. Nafarroako Erresuman legea ez zen onetsi.

*La nouvelle loi salique a été popularisée comme loi successorale, mais elle est muette sur la régence et le gouvernement des femmes. Or les reines, régentes, maîtresses royales et autres «gouvernantes» se succèdent au pouvoir durant quasiment un siècle, seules ou en association avec un roi. Leurs opposants allèguent donc la loi salique, comme principe politique exigeant d'être étendu à tous les aspects de l'exercice du pouvoir. Durant cette période, toutefois, les intérêts de ces femmes sont défendus par les équipes au pouvoir et des hommes d'État, parce qu'elles l'incarnent<sup>50</sup>.*

Egoeraren jokoengatik, emazteak agintetik baztertuak ziren, eta hori 1316an hasi zen. Baina hori lege bihurtu zuten, XIV. mendearen erditsuan lege salikoa agertu zelarik (BOUSMAR, DUMONT eta bertze batzuk 2012). Bazterketa horrek emazteekiko aurreiritziak indartzen ditu eta benetako trabak dira emazteentzat agintera heltzeko. Lan mardul honetan Eric Bousmar, Jonathan Dumont, Alain Marchandise et Bertrand Schnerb ikertzaileek erakusten dute, hala ere, nola emazte asko agintean ez bada inguruan zeuden, gehienetan senarraren itzalpean. Hala ere, ikusten dugu erregetza guztiek ez zutela lege salikoa onartu, hala nola Nafarroako Erresumak. Frantziako Erresumak, aldiz, emazteak baztertu zituen.

Funtsean ezagutzaren inguruko bihurtu zen XVI. mendea. Emaztearen irudia aldatzen ari zen eta emazteak ezagutzaren aldeko jarrera ere aldatzea aldarrikatzen hasi ziren, gero eta emazte gehiago jakintzaren eta hezkuntzaren alde agertzen ari baitziren. Horrela adierazten du M. Lazardek erraten duelarik berritzaileek ezjakintasunaren arriskuak ez dituztela ukatzen. Emakumeei hezkuntzarako eta bizitza intelektualerako eskubidea aitortzen zietela dio. Baina, hala eta guztiz ere, jakintza gizonen kontua zen. Emakumeei emandako leku literarioak kontu handiz zeuden mugatuak, kontrolatuak.

Familian moral maskulinoaren aginduak ezartzen zituen oraindik. Iraganeko indar kontserbadoreak nagusi ziren. Emakumezkoen gutxiagotasunaren iritzia hedatua zen eta sexuen arteko berdintasuna ez zen mahaigaineratzen. Errenazimentuan paradoxa izaten jarraitzen du.

<sup>49</sup> <http://www.elianeviennot.fr/FFP-loi-salique.html>

<sup>50</sup> <http://www.elianeviennot.fr/FFP-loi-salique.html>

MARGARITA, ERAGIN  
HANDIKO EMAZTEA

II





Iturria: <https://www.google.com>

Erdi Aroaren bukaeran eta Pizkundean, Nafarroako historian izena duten hiru emazte ditugu: Katalina Foixkoa, Margarita Angulemakoa eta Joana Albretekoa. Hirurek idatziak utzi dizkigute, eta horiek zaizkigu interesatzen.

Hemen, bi emakume esanguratsuren figura landuko dugu. Alde batetik, Margarita Angulemakoaen lanak ikusiko ditugu, bereziki sortu zituen lanen artean antzerkiak aztertuko ditugu, garai hartako antzerkia nola sortzen zen, antzerkiek zer zioten, zein ziren garatzen zituzten gaiak, eta haien erretorika zein zen. Nafarroako erreginarene obran antzerkiaren eremua argitzen saiatuko gara, bere obraren zati bat baizik ez baitzen, baina garai horretan berrikuntza handia izan zuena. Ez dugu ahantziko, garai hartako intelektualen artean, Margaritak goi mailako obra sortu zuela, eta, horrez gain, kultura munduko orduko eragileentzat sostengu morala eta materiala izan zela. Bestaldetik, Margaritaren alaba izan zen Joana Albretekoaren gutuna, ama-alaben arteko harreman hurbil horren lekuko.

Bi emazteek, Erreformaren bidean eta horrek European zehar ekarri zituen aldaketa, iraultzak eta berrikuntzetan toki garrantzitsua izan zuten, eta aldaketen alde jarri ziren biak. Mendean zehar iragan ziren auzi, baztertze eta kanporatzeetan, gerlak piztu arte, erlijioa erdian zegoela, haien hitzak eta erabakiak eraginkorrak izan ziren. Gure lurraldean ere Erreformak, Kontrarreformak bezala ondorioak izan zituzten.

Bestalde, bi emazteek Nafarroako Erresumaren erregina titulua izan zuten, eta saiatuko gara ikusten zer toki utzi zioten Nafarroari eraman zuten ibilbide politiko, literario eta historikoan.

Bi figura horiek, orduko Nafarroak ezagutu zituen aldaketa historikoetan, paper nagusia izan zuten, Nafarroako Erresumaren agintean egon zirelako, baina Frantziaren mendekotasunak eragina zuen haien politikan eta erabakietan, eta bi erresumen arteko lehiaren barnean erosotasun gutxi bizi izan zuten.

Idatziak utzi zituzten, eta idatzi horiek, garaiari dagokionez, XVI. mendeari buruzko argibideak ematen dituzte, eta horren lekukotasuna utzi zuten. Idatzien bitartez, bi emazteak letretako figurak izan ziren. Ereku politikoan garrantzi handiko papera izan zuten, gerlak kudeatu zituzten, diplomazia izan zen joko edo harreman sarea, baina literatura jorratu zuten, asko edo gutxi, gutunak eta erabili zituzten amaren eta alabaren arteko lotura zaintzeko.

Hasteko, bi emazte horiek Nafarroako Erresumarekin zuten lotura ikusiko dugu, baita Nafarroako monarken leinuan zeukaten tokia ere. Izan zuten jardunbidean, nolako ezkontzak eta bore harremanak bizi izan zituzten ulertzeak orduko Nafarroaren ibilbidea ezagutzeko parada ematen digu. Margaritak utzi dizkigun funtsezko lanak literaturan, eta hemen horiek ikertuko ditugu. Baina hasteko, erregina izan zen emaztearen bizitza aztertuko dugu.

## 1. MARGARITA, NAFARROAKO ERREGINA, POLITIKAN, LITERATURAN AIPATUA

Margarita Angulemakoren bizia eta eragina handia izan ziren. Luisa Savoiakoa eta Orléanseko Karlos Angulemako kondearen alaba, Margarita 1492ko apirilaren 11n, Angulema hirian sortu zen. Sortu zen garaia aldaketen garaia zen. Erdi Aroaren bukaera eta Pizkundea deituko zen denbora abiatu zen. Horrez gain, kulturazaleen familia batean heldu zen, eta heziketa oso ona eta aberatsa jaso zuen, ama kulturzalea baitzen. Bere anaiak jaso zuen heziketa bera izan zuen Margaritak. Angulema, Cognac eta Amboiseko liburutegietako funtsa zabala eskura zuten, Parisko, Fontainebleauko eta Bloisko erregetzaren liburutegiak eskura zituzten bezala. Kultura eremu horietan hazi zen, eta bere bizi kulturala eta intelektuala han bertan hasi zuen.



Iturria: <https://www.google.com>

## 1.1 Familiaren agindupean

Margarita, alabaren bizi intelektuala, erlijio, eta estetiken aldaketa nagusien garaian bizi izan zen. Bere amaren erabakia izan zen hezkuntza aberatsa izatea, eta txikitatik, kultura munduan murgilduta bizi izan zen. Horri esker, heldutasunean, sorkuntza eremu oso zabala eskaini zuen, eta literatura genero desberdinen distira handia erakutsi zuen.

Margaritaren amari, Luisa Savoiaikoari, buruz egin ikerketan, Pascal Brioist, Laure Fagnart et Cédric Michon ikerlariek Margaritaren heziketa aipatzen dute:

Au xve siècle, l'étude des lettres était cependant normalement réservée aux garçons ; l'éducation des filles visait plutôt le mariage, la maternité et les travaux ménagers. Marguerite n'est mentionnée que deux fois dans le Journal de sa mère alors que son jeune frère y figure à chaque page. L'on pourrait donc croire que l'éducation de Marguerite a reçu moins d'attention que celle de François. Mais cela ne semble pas avoir été le cas. Élevée parmi les livres, Marguerite est devenue l'une des femmes les mieux lettrées de son temps (BERIOT-SALVADORE 1990: 391-394 eta 406). Son grand-père, Jean d'Angoulême, avait fondé une excellente bibliothèque à Cognac que son fils avait agrandie. Lorsque Louise et ses enfants sont venus à la cour de France, ils ont pu sans doute accéder à l'excellente bibliothèque royale de Blois (BRIOIST, FAGNART eta MICHON 2018: 99).

Margaritaren heziketa Chatillon andereak eraman zuen, eta kultura handiko anderea zen. Pierre Jourdak (1898-1978), Margaritaren biografia idatzi zuelarik, zioen Margaritak jaso zuen heziketa, garaian, salbuespena zela (JOURDA 1930: 27).

Margaritak harreman oso estua zuen anaiarekin. Ideia oso altua zuen anaiaz eta honela agertzen da bien arteko gutun trukaketan:

« Monseigneur I, [...] plus que jamais je desire vous faire voir que je n'ay ny ne saurois avoir aultre desir que vous obéir et suivre entièrement ce que je pense estre vostre intencion<sup>1</sup>. » Marguerite de Navarre à François I<sup>er</sup>, [vers juillet 1534]. « Votre petite main [Marguerite de Navarre] [...] va suplyer Celluy qui a coumande à saint Francoys d'aler reparer son esglize destruite vous donner grace d'estre celluy par quy y parfera son euvre au bien de tous le[s] cristiens. » Marguerite de Navarre à François I<sup>er</sup>, [4 octobre 1525], jour de la Saint-François<sup>2</sup>.


Margarita Amboise eta Blois herrietan hazi zen. Erregearengandik urrun batzuetan, baina haren zaintzapean. Noblezia txikikoa zen Margarita, baina hala ere diplomaziaren zerbitzurako ezkontzen sarean zegoen. Horrela, oso gaztea zelarik oraindik, 1509ko abenduaren 2an, Alençon herrira, bere familiarengandik urrundu zuten, Alençongo Karlos dukearekin ezkontzeko. Ezkondu baino lehen ez zuen bere ezkongaiatza ezagutzen, orduko usaiako kasuetan bezala.

Alençongo Valoistarra zen. 1507an, Italiako Frantziaren gerletan parte hartzen hasi zen Luis XII.aren agindupean. Margaritaren leinukoek bien arteko ezkontza egokia zitekeela erabaki zuten. Horrela gertatu zen, eta oso gazterik Frantziako gortetik urrun gelditu zen Margarita, bera baino zaharragoa zen senarrarekin, kultura mundutik baztertua. Ez zen amestu zuen egoera baina Margaritak bere leinukoen erabakia onartu behar zuen. Bere bizitzako lehen erabaki garrantzitsua izan zen.

Ondoko urteetan, errege aldaketak ondorio zuzena izan zuen Margaritaren bizitzan. Izan ere, 1515ean, Luis XII.a zendu zen ondorengorik utzi gabe, erregetza bere gain hartzeko semerik utzi gabe, lege salikoak agintzen zuen moduan. Frantziako erregetzak onartzen zuen legearen arabera lege salikoa nagusitzen zen, Nafarroako Erresumak inoiz jarraitu ez zuen eredia, emazteen

<sup>1</sup> *Nouvelles lettres de la reine de Navarre, adressées au roi François I<sup>er</sup>, son frère*, François Génin (éd.), Paris, Renouard, 1942, 38.z., 81.o.; P. JOURDA, *Répertoire analytique et chronologique de la correspondance de Marguerite de Navarre d'Angoulême, duchesse d'Alençon, reine de Navarre, 1492-1549*, Paris, Honoré Champion, 1930.

<sup>2</sup> *Lettres de Marguerite de Navarre de Valois-Angoulême*, Raymond Ritter Editore, Paris, Édouard Champion, 1927.



Iturria: Ixabel Etxeberria

lerroa kontuan hartzen zuela erakutsiz. Erregea zendu zen, haren oinordeko hurbilena Margaritaren anaia zen, Frantzisko I.a izanzen zena.

Erregetzaren lehen lerroan kokatzea aldaketa handia zen Margaritarentzat noski, baina bere anaia erronka handien aurrean kokatzen zuen, lehenik bere leinuaren ondasunen berreskuratzeko, sekulako gerletan murgiltzeraino.

Errege berriaren lehen urratsetan, gerla gertakari nagusi batek zabaldu zion bidea, Marignango garaipenak alegia. Gudu horren ondotik, errege berriak itzal handia hartu zuen Frantziako Erresuman. Erresuma bere gain hartu orduko, Frantziari garaipen handi bat ekarri zion, Europa guztiaren begiradapean. Gerlari gisa frogatzen zuen harekin Frantziaren indarra mehatxu ere izan zitekeela.

Aski fite, erregeak bere ama eta bere arreba gortera deitu zituen. Ondoan atxiki nahi zituen. 1515ean Frantzisko I. ak, errege bihurtu bezain laster, ama, Luisa Savoiakoa, eta arreba, Margarita, boteretsu bihurtu zituen. Haren oparietan zeuden titulu, lurralde, eskubide eta pentsioak, bere basailurik ahaltsuenari, Karlos Borboikoa kondestableari, edo beste edozein kortesanori eman zizkienak baino garrantzitsuagoak izan ziren, urrundik. Frantzisko I.ak bere familiako emakumeak laguntzen zituen bere dinastia berriaren zutabe nagusia izan zitezen. Beren betebeharrak eta lankidetzaren hurbiltasunaz oharturik, erregea, arreba eta bien ama, "Hirutasun Erregea" bihurtu ziren (MICHON 2011: 419).

Hamar urtez, Margaritak erreginaren papera izan zuen. Egiazko erregina,



Klaudia Frantziakoa, Britainiako dukesa, aitzineko erregearen alaba, 1514an, hamasei urterekin, Frantzisko I.arekin ezkondu zen, baina paper ofizialetan, publikoetan, ez zuen agertzeko interesik erakusten. Urte bakar batzuen ondotik, 24 urte zituelarik, zendu zen, zazpi haur erditu ondotik, bizi sufrutua izan zen, askotan eri baitzen. Erreginaren papera eramateko zailtasunak izan zituen.

Anaiaren ondoan, beraz, Margaritak erreginaren tokia hartu zuen Frantziako protokoloan, erregearen haurren zainketan, eta horrez gain politika hunkitzen zuen eremuan ere paper desberdinak izan zituen. Erregearekin harreman estua zuen, anai-arreben artean benetako maitasuna zegoen.

Horrela, Margarita anaiaren ondoan egon zen. Noski erregearen amak ere, Luisak, toki hobetsia zuen erregearen ondoan, baina Margaritak toki berezia zuen gortean. Margaritak dinastiaren eraikuntzan parte hartu zuen, diplomazia lanetan ibiliz bereziki. Erregearen konfiantza zeukan, eta Europa guztiak zekien hori, Margaritaren arreta lortzea erregearena lortzea bezalakoa zen.

Diplomazia lana zen Margaritaren ardura, Europako ordezkari guztiak ezagutzen zituen eta haiekin maila guztietako gaiak aipatzen zituen. Nola-bait anaiari lana errazten saiatzen zen, diplomazia eremu zabala izanik, konplexutasun horretan bideak zabaldu behar zizkion anaiari eta erabakien hartzeko unean konfiantzako informazioa eskaintzen zion. Hau zen Margaritaren benetako ardura, Frantziako erregeak agintzen ziona betetzea, Erresumaren interesak zaintzea eta defendatzea. Horrela hezia izan zen eta anaia errege bihurtu zelarik hogeita bi urte zituen, bere bizia erregeak agintzen zionari begira gelditu zen hortik goiti. Baina gortean zuen arduraren ondoan, kezka pribatuagoa, intimoagoa zeukan. Elizaren baitan ikusten zuen aldaketen beharra, hori benetako kezka, grina bilakatu zen printzesarentzat. Ideia berriei irekiak ziren apezak gaztetatik ezagutu zituen, eta horiei sinesgarritasuna ematen zien. Horretaz ere hitz egin nahi zion erregeari, baina erregeak beste interes batzuk zituen, Erresumaren mugak zabaltzea zuen gogoan, Frantziako aitzineko erregeak bezala, Italiara gerlak eramatera joan nahi zuen, bere eskubide dinastikoen defendatzera. Horrek, helburu horrek, sekulako tentsioak sortu zituen maila askotan, dirua behar baitzen gerlen ordaintzeko. Erregearen arreta herriaren beharrez urruntzen zuen, eta erabakien hartzeko orduan gorabeherak zeuden, Erreforma urrundik begiratzen zuen. Gertakariak ikusten zituen, baina Elizarekiko harremana zaindu nahi zuen, beraz, indar harremana gogorregia zelarik, atzera egiten zuen. Beste kezka batek ere asetzen zuen Frantziaren erregearen gogoia, eta hori zen Frantziako eta Gaztelako erre-

gearen arteko lehia, Karlos V.arenkin. Biak orduko Europako nagusiak bihurtzeko lehian zeuden.

Giro horretan ibili zen Margarita, anaiaren ondoan, erregetzaren interesak defendatzen.

Sei urte zeraman ezkontuta Margaritak bere anaia errege bihurtu zelarik. Ezkontu zenetik senarraren eremuetan bizi zen, bazter batean, gortetik urrun, kultura eremutik aparte. Luis XII.a zendu eta gero, Alençonetik itzultzeko aukera izan zuen, bere anaiak bere ondora deitu zuelako. Bere ezkontzak zorion gutxi ekarri zion Margaritari. Ez zen maitasun historiarik sortu ezkontza horretatik, ez eta ondorengorik ere. Hala eta guztiz ere, harremanak iraun zuen. Aldaketa, errege aldaketa izan zelarik heldu zen, Erresuma kudeatzeko Margarita printzesari erregeak, anaiak laguntzeko egin zion galdearekin. Gortera abiatu zen Margarita, eta han benetako tokia egin zitzaion. Gorteko bizia ederra izan zen Margaritarentzat, gobernatzen zuen pertsonalitate nagusietarik izan zen. Baina, noski, erregearen erabakien menpe zegoen, maila guztietako erabakien menpe. Bere bizitzaz, ordea, erabaki gutxi hartu zituen, lehenesten zituen anaiaren beharrak eta helburu politikoak, beti bezala.

Haatik, Erreformaren ideiek beste eremu batzuetara eramane zuten. Frantziako I.aren jarrera tinkatu zen, eta gero eta gogorragoa izan zen Erreforma defendatzen zutenekin. Erresumaren interesen alde, erregeak Eliza tradizionalarekin zuen harremana azkartu nahi izan zuen.

Après sa mort, Marguerite disait qu'elle et lui avaient formé « un corps, un cœur, une volonté et un seul désir ». À la veille de sa propre mort, Marguerite disait qu'une lettre de son frère lui rendrait la vie. Elle gardait auprès d'elle comme une relique la dernière lettre qu'elle avait reçue de lui<sup>40</sup>. Cependant, François ne lui a pas toujours rendu sa dévotion. (BRIOST, FAGNART eta MICHON 2018: I02).

Erreforma heldu zen, baina Frantziako erregearen kezka Italian zegoen. Pavia jarri zitzaion muga, preso hartu zutelako bertan, Frantziako armada garaitzen ari zelarik, Frantziako I.a atxilotu zuten Karlos V.aren gerlariek. Frantziako erregearen ondoan, Nafarroako erregea zegoen, bera ere preso eramane zuten.

Paviako porrotaren ondotik, Frantziako I.a Madrilen preso zegoelarik, amaren ondoan gelditu zen Margarita, Luisa Savoiaiko laguntzen, erresuma kudeatzen.

La seconde régence commence en 1524, à la descente du roi en Italie et se

poursuit, après la défaite de François à Pavie en 1525, lors de sa captivité. En son absence, Louise gouverne le royaume avec l'aide d'un conseil présidé par Duprat. Toujours en guerre, la France se trouve menacée par une invasion de l'étranger. Les survivants de son armée, largement décimée à Pavie, reviennent en France dépenaillés et non payés. (BRIOIST, FAGNART eta MICHON 2018: 100).

Baina anaia Madrildik ekarri nahi zuen. Margarita anaiaren ondoan, diplomazia lanetan aritu zen. Ordurako Margarita alarguna zen, eta Karlos V.aren ezkontza ere aipatu zen. Diplomazia bere eremua zenez, anaiaren askapena negoziatzeko gai sentitzen zen. Izan ere, berri oso txarrak heldu ziren Madrildik, Frantziako erregearen osasuna okertu egin zen, Erresuma erregerik gabe gelditu zen eta etorkizunari begira ez zen erabakirik hartzen. Gerenteak, erregearen amak, Luisa Savoia-koak, zuen ardura, semeak gerlara joatean utzi zion ardura, baina denbora aitzina zihoan eta agian beste errege bat hautatu beharko zen, Frantzisko I.a ez bazen itzultzen.

Karlos V.a, bestalde, nardatua zen hain indartsu izan zen errege horrekin, ez zekien zer egin harekin, preso atxikitzeak ez baitzuen oihartzun ona Europako beste erregetzeen artean. Horrela, aterabidea bilatu nahian, Margarita Madrila joan zen. Horrekin, printzesaren indarra eta garrantzia nabarmentzen da, Erresuma osoaren geroa bere esku zegoen momentu horretan.

Elle entreprit un voyage hasardeux en Espagne en 1525 afin d'obtenir la libération de François après sa défaite à Pavie et son emprisonnement par l'empereur. En arrivant à Madrid, elle le trouva gravement malade, et il est probable que sa présence ait largement contribué à sa guérison. (BRIOIST, FAGNART eta MICHON 2018: 102).

Anaiaren preso sartzeari gertakari latza izan zen Margaritarentzat, bere mundu nagusia, bere intimitateraino hunkitua baitzen. Haatik, beste maila batean ere egoerak harrapatu zuen. Izan ere, ezkontzak aliantza diplomatikoen oinarria ziren denbora horretan, Margarita 1509an Alençongo dukearekin ezkondu zen anaiaren beharrezko aliantzei bide egiteko. Orduan, dukeak Frantziako erregearen guda guztietan parte hartu zuen, aliantza horrek indar gehiago ematen zion Frantziako armadari, Paviako gudua gertatu arte.

Marignano gudua garaipena izan zen bezala Frantzisko I. arentzat, Pavia-koa porrota izan zen. Porrota gordina zeren, gutxitan gertatu izan zen gisan, Frantziako erregea atxilotu baitzuten. Frantzisko I.a bere lehiakide, arerio nagusiaren preso geratu zen. Karlos V.aren aurka Italian egiten ari ziren gerla



Iturria: Wikipedia

horretan, erregea preso gelditu zen. Nola gertatu zen? Segurki erregearen harrokeriarengatik. Izan ere, Frantziako armada gudua irabazten ari zelarik, erregea lehen lerrora abiatu zen, zaldiaren gainean, ezpata eskuan, etsaiari aurre egiten eta aurrean jarriak zeuden kanoi guztiak trabatuz. Sinestezina gertatu zen, enperadoreak ez zuen hori espero (LE GALL 2008: 297-314).

Atxiloketa, Margarita eta bere amarentzat, berri gogorra izan zen, baina, Margaritarentzat lazgarriagoa, bere senarra atxiloketaz libratu baitzen, eta leporatu baitzitzaien ihes egitea, erregea preso hartzen utziz. Bederatzi urte berantago, François Rabelais idazleak ondoko testua idatzi zuen nobleen ihesaldiaz hitz eginez, erregea bakarrik utzi zutela salatuz. *Gargantua* testuan, Margaritaren senarraren ekintza lotsagarria izan zela azpimarratu zuen. Margaritarentzat oso une latza izan zitekeen. (RABELAIS eta CALDER 1970: 225).

Je hay plus que poison un homme qui fuyt quand il faut jouer des cou-  
teaulx. Hon, que je ne suys roy de France pour quatre vingtz ou cent ans!  
Par Dieu je vous mettroys en chien courtault les fuyards de Pavye! Leur  
fièvre cartaine! Pourquoi ne mouraoient ilz là plus tost que laisser leur bon  
prince en ceste nécessité? N'est il pas meilleur et plus honorable mourir  
vertueusement bataillant que vivre fuyant villainement.

Alençongo Karlos IV.a oso hunkitua gelditu zen gertakari horien ondotik, eritu zen, eta urte berean zendu zen. Margaritak senarraren ondasun guztiak eskuratu zituen, eta senarraren bi arrebak deus gabe utzi zituen. Pentsa zitekeen senarraren gainean eroritako erregearen haserrearen isla zitekeela, Margaritaren alde. Gertakari horren ondotik ez zen, alta, erregearen lotsarik, ez eta errurik edo ardurarik aipatzen, porrotaren ardura maila batean bederen, historialarien arabera, berea zelarik.

Senarra hil ondoren, garaiko emazte batentzat, Margaritak askatasun handia lortu zuen, alargun estatutuak presio soziala txikitzen baitzuen. Baina anaiaren helburuak nagusitu ziren Madrildik itzulita, eta anaiaren ondoan zituen ardurak berriz hartu zituen Margaritak. Frantzisko I.a Madrildik itzulia zen. Madrilen, askatasunaren berreskuratzeko izenpetu zuen akordioa ukatu zuen Frantziako erregeak, eta atxiloketa baino lehenagoko anbizio berarekin jarraitu zuen, noski, Karlos V.a beste begi batekin zainduz.

## 1.2 Politika, diplomazia lanabes

Txikitatik Margaritak harreman estuak izan zituen bere anaiarekin. Elkar maite zuten. Horregatik Frantzisko I.a, 1515ean, Frantziako errege izatera heldu eta gero, Margaritak lan politikoak eraman zituen bere anaiaren interesen alde.

Pierre Jourda historialariak Margaritaren biografia osatuena, zehatzena, idatzi zuen. Liburu bat baino entziklopedikoa dirudi lanak. Horrela, 1932an, *Temps et visage* aldizkarian, bigarren biografia idatzi zuen Jourdak, Margaritaren biziaren laburtzeko eta orenen eskuetan uzteko<sup>3</sup>.

Jourdaren azalpenetan, Frantzisko I.aren erregetza garai oso baikorra zen, hastapen batean. Izan ere, hasten zituen gerlak irabazten zituen eta Italiatik ekartzen zuen berpizte kulturalak hedapen handia zuen, bai gortearen bitartez, bai herritarren artean. Bloisko eta Amboiseko gazteluak handitu zituen eta Chamborg-eko jauregiaren eraikuntza agindu zuen. Orotara, zazpi jauregi handitu eta eraiki zituen erregeak. Gerla asko, gazteluak, horrek diru asko eskatzen zuen, baina arazo horri ez zion lehentasuna ematen erregeak. Frantzia, erresuma aberatsa zen, eta lehentasuna zen Frantziako erresumari ospe eta handitasuna ematea. Erregeak kristau munduko lehen lerroan paratu nahi zuen erresuma.

Klaudia erregina, aldiz, desberdina zen, eta ospea, argiak, handikeriak ez

<sup>3</sup> P. JOURDA. *Une princesse de la Renaissance. Marguerite d'Angoulême, reine de Navarre (1492-1549)*. Paris, Desclée et de Brouwer, 1932. (*Temps et Visages* bilduma).

zituen gustuko. Haurdunaldi jarraikiek ez zioten osasunaren aldetik asko la-  
gundu, eta, horregatik, harrera zeremoniak eta bere karguari lotutako ekintze-  
tan parte hartzea zaila zitzaion. Haren orde, erregeak bere arreba jarri zuen.  
Honela adierazten du Pierre Jourdak:

C'est à la duchesse d'Alençon qu'échoit, pour quinze ans, sinon le titre et  
les prérogatives, au moins le rôle de la Reine. Elle le remplit avec tact, dé-  
ployant, pour servir son frère, toutes les ressources de sa grâce, de sa bonté,  
de son esprit. (JOURDA 1932: 227).

Frantziako erregeak, aginte makila hartu orduko, Milango lurraldeak be-  
rreskuratzeko proiektuari ekin zion. Karlos VIII.ak eta Luis XII.ak izan zuten  
proiektua bere egin zuen eta gerla prestatzen hasi zen.

Agintea hasi zuen, bere inguruko edo bere familiako andreak bilduz, “trini-  
tatea” osatuz, Jehan Marot poetak deitu zituen gisan.

Urte horietan bidaia asko egin zituen Margaritak bere anaia segituz. Inguru-  
ko gorteetan ez zuen Frantziako gorreak ospe ona, eta askotan Frantziako gorrea  
bideetan zebilela zioten, ibiltaritzat hartzen zuten. Izan ere, gorrea herriz herri  
ibiltzen baitzen. Gortean zegoen giroaz, Brantôme<sup>4</sup>, Pierre de Bourdeilles-ek  
(1537 inguru-1614) ohitura arinak kontatu zituen eta Pierre Jourdaren arabera  
ez zitzaion arrazoirik falta. Horrela, Jourdak kontatzen zuen Margaritaren  
anaiaren inguruan bestak eta jolasak antolatzen zirelarik, gortearentzat, Margarita  
elizak bisitatzen, pobrengana joaten, komentuen beharrak begiratzen ibiltzen  
zela. Bidaia horietako batean, poeta baten lerro batzuk helarazi zizkieten.  
Lerro horiek Clément Marot poetarenak ziren, eta horrela hasi zen haren lana  
ezagutzen. Horretatik abiatu zen artistei ekarriko zien laguntza.

Baina bidaietan bestak baziren eta amodio kontuak ere bai, nahiz eta erregea-  
ren arreba izan. Egun batez, erregeak Bonnivet-eko jauregian gelditzea erabaki  
zuen, eta harrera ezin hobea izan zuten. Baina jauregiko jauna, Margarita gustukoa  
izan, eta gauaz bere logelara hurbildu eta bere ohera sartzen saiatu zen. Mar-  
garita horretaz ohartu zen eta borroka egin zuen erasotzaileak ihes egin zuen arte.  
Gertakizuna salatzea pentsatu zuen Margaritak, baina haren inguruak proposatu  
zion gertakaria isiltzea, esamesik egon ez zedin. Biharamun goizean, abiatzeko  
tenorean, jauregiko jauna, ezinegona adierazi zuen bere gomituak ez agurtzeko.

<sup>4</sup> Pierre de Bourdeillek Angulemakoa Margaritaren gortean eman zuen bere haurtzaroa. Bere ga-  
raiko pertsonaia handiez asko idatzi zuen. XVI. mendeko bere kronikek garaiko ikuspegi bizia  
ematen dute.

Margaritak bere anaiak erabakitzen zituen urratsak jarraitzen zituen. Anaiaren sostengua zen eta laguntzailea. Gerlara joaten zelarik, erresuma Luisa Savoiakoa, erregearen amaren, bereziki, eta Margaritaren gain gelditzen zen. Frantzisko I.aren haurrak Margaritaren ardurapean gelditzen ziren eta haiekiko zuen maitasuna handia zen. Hautatutako laguntzaileak zituen eta denbora gehiago pasatzen zuen otoitzetan eta bere karguko lanetan. Horrela, Europan zehar, mundu diplomatikoan, bazekiten Frantziako erregea Margaritaren erranei adi egoten zela. Beraz, diplomazialari eta enbaxadore asko errezibitzen zituen, hauek gai bat edo beste defendatzeko haren laguntza eskatzen zuten.

Hamar urte zeraman erregearen ondoan, enbaxadoreak errezibitzen, herri-tarren kezkak entzuten, entzuten zuena, ikusten zuena, anaiari kontatzen eta eragiten saiatzen, gortean zegoelarik, gerlak uzten zituelarik. Baina gerla zen Frantzisko I.aren kezka nagusietako bat.

Azken urteetan antolatutako erasoaldiak Milango lurraldeak berreskuratzeko ez zioten garaipenik eman Frantziako erregeari. Halere, helburuari eutsi nahi zion eta, berriz ere, 1525eko urtarrilean Italia aldera abiatu zen. Guda horri Italiako seigarren gerla erranen zaio. Paviaraino heldu zen Frantzisko I.a non erresistentzia gogor bat atzeman zen. 40.000 gerlarirekin heldu zen erregea, Napolesera hamar mila igorri zituen eta Paviaren inguratzea antolatu zuten<sup>5</sup>. Baina setiatuak borrokara atera ziren eta bertan 10.000 soldadu frantses hil ziren, haiekin gradu altukoak: Jacques de La Palice, Louis II de la Trémoille, Guillaume Gouffier de Bonnivet, Richard de la Pole... Ez zuten erasoaldia espero eta egoera larrian gelditu ziren. Horrez gain, usaiakoa ez zen gertakaria izan zen. Erregeak ez zuen parte hartzerik borrokatan, baina urtarrilaren 25 horretan Frantzisko I.a borrokatu zen bere soldaduekin. Borroka ez zen joan bere aldera, eta preso altxatua izan zen. Ironia handia izan zen bere aurka ari zirenen artean frantses bat baitzegoen, aristokrata handia, Karlos V.aren zerbitzuan ari zena, Karlos III.a Borboikoa. Hark zituen ondasun guztiak Luisa Savoiakoari, erregearen amari, utzi behar izan zizkion, Parisko epaitegiaren erabaki baten ondorik. Senide arteko gatazka baten ondorioz, buruzagi feudal handienetarikoa, Frantzisko I.aren parekoa, ondasunik gabe gelditu zen, eta, ondorioz, Karlos V.aren armadan sartu zen, eta Italiako gerletan Frantziako erregearen aurka borrokatu.

<sup>5</sup> Marignan et Pavie, deux batailles chevaleresques à la Renaissance. [https://multimedia.ext.bnf.fr/pdf/FP\\_Marignan.pdf](https://multimedia.ext.bnf.fr/pdf/FP_Marignan.pdf)

Pavia herrian Frantziako erregea atxilotu zuten urtarrilaren 24an, eraso sorpresa batean. (LE GALI 2015: 595).

Erregea atxilotua zelako berria kolpe handia izan zen Luisa Savoiaikoarentzat eta Margaritarentzat. Aitzineko urteetan, Frantzisko I.a gerlara joaten zelarik, erresumaren ardura, bere amaren esku uzten zuen, erregeordetza berari uzten zion. 1521ean gauza bera egin nahi izan zuen, baina Luisa Savoiaikoaren osasuna ez zen beti oso ona, hezueriaz sufritzen baitzuen. Emazte baten esku uzten zen Europako erresuma handienetarikoa bat, ez bazen indartsuena, emazteei ardura ematen zitzaizkien frogak, titulua ez bazitzaien ematen ere. Luisa Savoiaikoa, historian zehar, ardura handia izan duten emazteen artean da.

Paviako porrotaren ondotik, halere, ez zen beste aukerarik eta, Luisa Savoiaikoaren, erregearen amaren, esku gelditu zen Frantzia. Berrien eskuratzeko, guda eremuetatik hurbilago egoteko, Lyon hirian kokatu zuen gobernu Luisak Savoiaikoak.

Margaritaren gogoa, noski, bere anaiari buruz itzulia zen, baina erlijioak garrantzi handia zuen bere bizian. Senarrarekin zuen harremana urrundua zen eta haurrik ez zuen. Erlijioak bere arreta betetzen zuen.

Anaia preso eta senarra ihes egin zuena erregea preso eraman zuten guduan. Senarrari gerlari askoren heriotza leporatu zioten ihes egin zuelako.

Alençongo Karlos, Italiatik itzuli eta berehala gaixotu zen. Ohorea galdua, gaixotasuna eramaten ari zen. Margarita haren ondoan gelditu zen heriotza heldu arte.

Laster, Luisa Savoiaikoak erregearen askatasuna negoziatzea helburutzat izan zuen. Hori izan zen Margaritak eraman behar zuen diplomazia lana, bizi-zitzan izan zuen ardura politiko nagusia.

Ekainean, erregea, Bartzelonatik pasatu ondoren, Madrilera eraman zuten. Hastapen batean harrera ona egin zioten. Erregeak ez zuen ohorea galtzearen sentimendurik, baina preso zegoen eta egoera zaila zitzaion, luze egiten zitzaion eta gaixotu zen. Enperadoreak jarrera zorrotza hartu zuen, Borgoina eskuratu nahi zuen, eta bi agintarien arteko lehiak jarraitzen zuen, bakoitzak bere armak erabiliz. Kasu horretan, Frantziako erregeak ez zuen tokirik indartsuena. Karlos V.ak Frantzisko I.ari ez zion bisitarik egiten.

Erregea gaixorik, Margaritak gobernu lanetan Luisa Savoiaikoa laguntzen zuen. Anaiari idazten zion eta gobernu gaiez hitz egiten zion, animoak ere igortzen zizkion. Haren haurren berri ematen zion eta lasaitasun hitzak zituen harentzat, kezkek urrundu nahian. Harengandik urrun sentitzen zen.



Luisa Savoiakoak elkarrizketak abiatu zituen erregearen askatasuna lortzeko, eta François de Tournon, Jean de Selve eta Toledon, akordioa prestatzen ari ziren. Montmorency, Jean de La Barre, Brion, Madril eta Lyon hirien arteko bidaiak egiten zituzten. Margaritaren ametsa zen Madrila joatea anaiaren ikustera, baina Karlos V.ak ez zuen horrelako bidaiarik baimentzen. Ez zen prest oraindik Frantziako erregearen askatasuna negoziatzeko.

Hala ere, Margaritak Lyon uztea erabaki zuen, Luisa Savoiakoa erresumaren agintean bakarrik utzi. Erresuma gobernatzen laguntzen zion amari, baina hori ederki inguratua zen, gortea bazuen, eta berez gobernatzeko gaitasuna bazekuan. Ez zuen erregina titulua, baina gaitasuna aitortzen zioten. Bestalde, bi emazteentzat erregea askatzea lehentasuna zen. Erregeak bere semeari koroa uzteko aukera zegoen, baina horretarako erregearen erabakia behar zen. Karlos V.arentzat benetako arriskua zen aukera hori egotea, Espainiako presondegian errege bat edukitzea inongo ondorio politikorik gabe, arriskugarria zen enperadorearentzat, bere irudiarentzat. Errukirik gabeko monarka izateak, kristau munduaren aurrean bere aurkaria preso atxikiz, irudi gogor bat hedatzen zuen. Frantziako erregea gero eta egoera txarragoan zegoela, osasunez gaizki zegoela bazekien, eta nahiago zuen negoziazioaren aukera hautatu.

Margaritak Lyon utzi eta Aigues-Mortes herrira abiatu zen, handik Espainiako bidea hartzeko esperantzan. Pierre Jourda historialariak dukesaren pazientziarik eza aipatzen zuen, anaiaren ondora joateko nahikeria handia azpimarratzen zuen, ezinegona, ez baitzekien zuzen zer aldartetan zegoen, zehazki zein zen bere osasun egoera, eta horren jakiteko arrisku guztien gainditzeko prest zegoen.

Agorrilaren 28an, Margarita Bartzelonara abiatu zen, Karlos V.aren erresuman sartzeko baimena heldu zen. Karlos V.ak, «bakoitzak berea dena lortzeko bakea» erran zion negoziazio horri. Margarita abiatu zen hirurehun laguntzaile zituela berarekin, eta haien artean Frantziako Erresumako lehen lerroko pertsona, Montmorency, hainbatetan bere arerio izan zena, eta politikako pertsonalitateak eta kultur mundukoak ere, horien artean Luigi Alamanni poeta.

Kataluniara, Bartzelonara heldu zelarik enperadorearen ordezkariak, Ugo de Moncadak hartu zituen. Margarita presatua zen Madrilerantz heldzeko, zaldiz abiatu zen, eta berehala gutunak igorri zizkion anaiari hurbiltzen ari zela errateko. Gutunak gurutzatzen ziren erregeak igortzen zizkionekin. Horrela, jakin zen, Madrildik heldu zitzaizkion gutunen bitartez, erregea gaixotu zela, desesperatzen zela. Horrek kezka handia sortu zion Margaritari, beldur zen



Iturria: Wikipedia

berandu helduko ote zen. Beraz, bidaiaren abiadura azkartu zuen, eta irailaren 19an helmugara heldu zen. Hogeita bat eguneko bidaia egin zuen Aigues-Mortes utzi zuenetik. Ausardia, kuraia, adorea erakutsi zuen bidaia osoan. Denbora gutxi zen senarra galdu zuela, ez zuen beste premiarik, eta sekulako grina sortu zitzaion anaiarengana heltzeko. Anaiarekiko zituen sentimenduak azkarrak, sakonak, paregabeak, bereziak ziren. Trinitatearen balore guztia agerian gelditu zen. Erregeak, bere aldetik, bazekien «bere emazteek» ahalegin guztiak egin zituztela bere alde.

Sukarrez blai aurkitu zuen anaia, oso gaizki, baina ezin zuen negarrik egin, anaia salbatu behar zuen. Pierre Jourda historialariak zioen erregeak arrebaren ez zuela ezagutu. Ondorioztatu daiteke, ordurako oso gaizki zegoela. Irailaren 22an ez zen erregearen egoera hobetu, eta medikuak etsita zeuden. Orduan, Margaritak, otoitzak antolatu zituen erregearen gelan, eta meza ematen zen. Giro espiritual horretan, arrebaren laguntzari esker, sukarra erori zen, erregea berpizten hasi zen.

Ondoko asteetan, errekuperatzeari atxiki zitzaizkion. Erregea hurbildik zaindua zen, soldaduz eta guardiaz inguratua zen, eta gelan zaindari bat zegoen. Indarrak berreskuratu zituen.

Karlos V.a beldurtu zen, gupidarik gabeko monarka gisa aritu zen, bere arerioa ia-ia hiltzen utzi baitzuen. Erregea bere onera itzuli zen eta negoziatzeko prest zen enperadorea, baina inondik inora ere ez bere interesak saltzeko.

Margarita anaiaren ondoan egon zen, hobetze bidean, baina bere helburua anaia askatzea izan zen hastapenetik. Gaixotasunetik atera zuen, eta garaia zen elkarrizketak berriz abiatzeko. Horretarako, Toledora abiatu zen. Urriaren 4an, Karlos V.arekin elkartu zen, lehen elkartzea izan zen.

Frantzisko I.a Karlos V.arekin, bakarrik, aritu zen hitz egiten, arreta handia erakutsi zion eta hastapen batean sinetsi zuen ongi abiatu zela, norabide berean zeudela. Orenak pasa zituen enperadorearekin, esperantzaz betetzen ari zen, eta Karlos V.aren arrebarekin, Eleonorrekin, elkartu zen. Azken hori Frantzisko I.arekin ezkontzea aipatzen zen, Frantziaren eta Espainiaren arteko lehia konpontzeko bidea ere zitekeen. Bi emazteak ongi konpontzen zirela ohartuz, Karlos V.ak bere arreba urrundu zuen eta elkarrizketek enperadorea, Erasmo zalea zen Gattinara kanzillerrarekin, eta beste diplomazialariek jarraitu zuten.

Konferentzia bat bestearen ondotik heldu zen, gauero errandakoa bere kontseilariek aztertzen zuten Margaritak eta ohartzen zen ez zela deus aitzinatzen. Enperadoreak ez zuen ezertan amore ematen.

Umiliazio horren aurrean, bere duintasuna babestu nahian, elkarrizketak bertan behera utzi zituen, eta komentuak eta elizak bisitatzera abiatu zen, baina leku horiek ere ez zituzten bere kezkek lasaitzen. Enperadorearen bisitek ere, protokoloari lotuak, erakusten zioten bere bidaiak ez zuela helburua lortzen, anaiaren askatasunaren lorpena urrun zegoela oraindik. Toledon egotearekin ez zuen deus aitzinatzen, alderantziz arriskuak hartzen zituen, enperadorearen umorea alda zitekeen, aldarrikatzen baitzuen Borgoinaren lurraldearen inguruan ez zela deus izenpeturik oraindik, eta hori baitzen Karlos V.aren helburua, Borgoina berreskuratzea. Erregearen osasunak kezkek sortu zizkion noski, hori hobetzen ari zen, eta jasan behar zuen presioa Europako beste erresumetatik heldu zen, preso hartze hori ez baitzuten beste erresumetan begi onez ikusi. Horrez gain, enperadoreak Margarita atxilotzea erabaki zezakeen edozein momentutan.

Anaiaren osasuna egonkor zegoen, enperadoreari ez zion deus agindu, baina Madrilen egoteak ez zituen negoziazioak laguntzen. Margaritak Frantziara itzultzea erabaki zuen, negoziazioaren lekukoa enbaxadorei utziz.

Poz handia sentitu zuen anaia sendatzen ikusiz, baina aste gogorrak iragan zituen osasuna berreskuratu zuen arte. Sentimenduak idatzi zituen, eta hona hemen Frantzisko I.aren eritasunaz idatzi zuen testua. Idatzia baitzen, Margaritarentzat, errealitate gordinari, eta bere sufrimenduari, ihesbidea emateko aukera.



Iturria: Wikipedia

## SUR LA MALADIE DE FRANÇOIS I.

Rendez tout un peuple content,  
Ô vous, notre seule espérance,  
Dieu ! celui que vous aimez tant,  
Est en maladie et souffrance.  
En vous seul il a sa fiance.  
Hélas ! c'est votre vrai David ;  
Car de vous a vraie science :  
Vous vivez en lui, tant qu'il vit.

De toutes ses graces et dons  
À vous seul a rendu la gloire ;  
Par quoi les mains à vous tendons,  
Afin qu'ayez de lui mémoire.

Puisqu'il vous plaist lui faire boire  
Votre calice de douleur,  
Donnez à nature victoire  
Sur son mal, et notre malheur.  
Le désir du bien que j'attends,  
Me donne de travail matière.  
Une heure me dure cent ans ;  
Et me semble que ma litière  
Ne bouge ou retourne en arrière ;  
Tant j'ai de m'avancer désir !  
Ô qu'elle est longue la carrière  
Où la fin gist mon plaisir !

Je regarde de tout costé,  
Pour voir s'il n'arrive personne ;  
Priant la céleste bonté  
Que la santé à mon roi donne ;  
Quand nul ne vois, l'œil j'abandonne  
A pleurer, puis sur le papier  
Un peu de ma douleur j'ordonne :  
Voilà mon douloureux métier.

Ô qu'il sera le bien venu,  
 Celui qui, frappant à ma porte,  
 Dira : Le roi est revenu  
 En sa santé très bonne et forte :  
 Alors sa sœur, plus mal que morte,  
 Courra baiser le messager  
 Qui telles nouvelles apporte,  
 Que son frère est hors de danger.

### FRANTZISKO I.AREN ERITASUNARI BURUZ

Herri oso bat egizu pozik  
 Oi zu, gure esperantza bakarra  
 Jainkoa! Hainbeste maite duzun hura  
 Eri dago eta sufritzen ari.  
 Zure baitan soilik du konfiantza  
 Tamalez! Zure egiazko David bera da  
 Zeren zutaz benetako zientzia:  
 Bere baitan bizi zara, bizi den bitartean.  
 Bere grazia eta dohain guzietan  
 Zuri soilik gloria eman dizu  
 Horregatik zuregana gure eskuak luzatzen ditugu  
 Hartaz gogora zaitezten

Gustukoa duzunez edan araztea  
 Zure oinazearen kalitza  
 Emaiozu naturari garaipena  
 Bere mina eta gure zoritxarraren gainean.

Espero dudan ongiaren desira,  
 Lanaren materia ematen dit.  
 Oren batek ehun urte irauten dit;  
 Eta ene ohantzeak irudi zait  
 Ez mugitzen edo gibelerara doala;  
 Antzina joateko horrenbeste desiratzen dudan!  
 Oi zer luze da bidea  
 Non azkenean ene plazera dagoen!

Alde guzietara begiratzen dut,  
 Norbait datorren ikusteko;  
 Zeruko ondasunari otoitz eginez  
 Ene erregeari osasuna eman diezaion;  
 Inork ez duelarik begiratzen ene begia abandonatzen dut  
 Negarrari, gero paperaren gainean  
 Ene oinazea antolatzen dut:  
 Hau da ene ofizio mingarria.

Oi zein ongi etorria izanen den,  
 Ene atera joko duena,  
 Erranen duena: Erregea itzuli da  
 Bere osasun azkar eta onera:  
 Orduan bere arreba, hila baino okerrago,  
 Lasterka mezularia besarkatzera joanen da  
 Horrelako berria dakarrena  
 Bere anaia arriskutik kanpo dagoela.

Madriila itzuli zen lehenik, anaiari azken bisita egiteko. Frantzia aldera abiatu baino lehen, erregearentzat ihesaldia prestatu zuen, baina proiektua ez zen bururaino joan, enperadorea abisatua izan baitzen. Enperadoreak aukera zuen dukesa preso sartzeko, eta alde egitea erabaki zuen.

Triste, bidea hartu zuen, berriz Kataluniatik pasatuz. Bere gutunek melankolia adierazten dute, anaiaren uztearen melankolia. Abendu erditsutan, Pirinioak pasatu zituen. Dena ongi joan zen, Lyon aldera abiatu zen. Bidaian istripu bat izan zuen, zalditik eroriz, baina ez zuen gelditu nahi, Luisa Savoiakoa gaixorik baitzen eta baita erregearen semeak ere. Margarita beti besteen zerbitzurako bizi zen, bere ingurukoak zituen gogoan, eta diplomazia lana zerman, garrantzi handiko erabakietan parte hartzen zuen, baina bere baitan bere hurbilenen egoeraz arduratu nahi zuen.

Bidaia Margaritarentzat ez zen arrakastatsua izan, erregea askatzea ez baitzuen lortu, baina eritasunetik atera zuen, bizia salbatu zion eta hori Europa guztian bazekiten. Bidaian zehar harrera bikaina izan zuen, herritarren aldetik eta nobleziaren, goi karguen aldetik ere.

Margaritaren ospea handia zen, hirukotean, “trinitatean”, toki garrantzitsua zuen, eta erresuma laguntzen jarraitu zuen.

Frantziako erregearen askatzeko beste elkarrizketa batzuk abiatu ziren. 1526ko otsailean Frantziako erregea askatu zuten, Madrilgo ituna izenpetu ondoren.

Parisa itzultzean, Frantzisko I.ak agintea berreskuratu zuen eta ondoan Henrike II.a Albretetkoa zeukan. Pavia herrian Frantziako erregearekin batera atxilotu zuten nafarra. Gerlariak fama handia zeukan erresuma osoan, erregeak ez bezala, ihes egitea lortu zuelako. Horrela, Frantzisko I.ak, arreba, harekin ezkontzea erabaki zuen. Bestalde, eta hori garrantzitsua zen, bere erresuma zabaltzea baino beste helbururik ez zuen monarkarentzat. Albretetako etxearen eragina txikitzeko bidea zen.

Nafarroako Henrike II.a, Pavis-eko guduaren ondotik, Frantzisko I.arekin zegoelarik atxilotu zuten Karlos V.aren gerlariak. Baina zenbait egunen buruan ihes egin zuen, izigarriko fama lortuz Frantzia osoan. Oso printze inportantea zen Henrike (LE GALL 2008: 297-314). Horren isla dugu Frantziaren eta Austriaren artean XVI. mendearen hasierako negoziazio diplomatikoetan agertzen dena. Printzeak ez zuen amore ematen bere Erresuma berreskuratzeko nahiri, dokumentu honetan adierazten den bezala. Hemen agertzen dira diplomazian zeuden kezkak, M. Le Glayk plazaratu zituen dokumentuetan eta Frantziako liburutegiak eskaintzen dituenetan. Hauek Nafarroako erregea trukatzeko aukera aipatzen dute:

Négociations diplomatiques entre la France et l'Autriche

Quant au fait de monsieur le prince, et l'échange de Monsieur d'Albret, madame la régente a envoyé devers moi son chancelleir et d'aultres du conseil dudit seigneur, lezquels m'ont fait plusieurs remonstrations touchent le droit que ledit de Labret a au royaume de Navarre; aussi que nulz royaulmes ne peullent renoncer et que ores qu'il eult fait ladite renonciation, si seroit-elle de nulle valeur et contrainte, et du moing ne seraient tenus ses frères maisnés à l'entretenir, et plusieurs aultres propoz sur lesquelz je répliquais en brief ce que sembloit servir a votre droit; mais la parfin fust telle que volontierz ilz avertiroient le roi de Navarre de ladite renonciation, croyant néantmoings fermement qu'il ayeroit trop mieulx morir en prison que de faire telle honte à tout son lignage; qui fust le département d'entre eulx et moi<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Négociations diplomatiques entre la France et l'Autriche durant les trente premières années du XVI<sup>ème</sup> siècle publiées par M. Le Glay 1845 Paris Imprimerie royale. T.II . 635-636.o.<https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k54074935/f20.item.texteImage#>



Nafarroako errege izanik, bere Erresumari itzal egiteko arriskua ikusten zuen erregeak, Frantziako gortean nafarra preziatua zen, nafar asko hezi ziren Frantziako gortearen ondoan. Frantzisko I.ak bere arrebarekin ezkontzea proposatu zuen, itzal hura menpe atxikitzeko. Haien bizi osoa kontrolatu zuen, ezkondu zirenetik eta bizitzan eman zituzten urrats guztietan.

Ezkontza horrek ondorengoa ere eman zien Nafarroako errege-erreginei. Margaritak 1528ko azaroaren 16an, Saint-Germain-en-Lay herrian alaba izan zuen Henrike II. arekin, Joana.

Frantzisko I.ak, Joana iloba, Parisko gortera eraman zuen, eta bere eraginpean atxiki. Horrela, Joana gaztearen lehen ezkontza erabaki zuen. Ezkontza 1541ean iragan zen Clèves-eko dukearekin. Margaritak ez zuen ezkontza onartu eta horrek Frantzisko I.aren eta Margaritaren arteko harremana zaildu zuen.

La naissance de Jeanne d'Albret, la fille de Marguerite, en novembre 1528, fut une autre cause de tension entre Marguerite et François. Comme toutes les princesses de son temps, Jeanne d'Albret, dès son plus jeune âge, devint un pion matrimonial sur l'échiquier de la diplomatie internationale. Épérant, peut-être, avancer les intérêts de son mari, Marguerite voulait que sa fille épouse Philippe, le fils de Charles Quint, mais François, qui venait de rompre à nouveau avec lui, cherchait à renouer son alliance avec les princes protestants d'Allemagne. Il offrit la main de Jeanne à Guillaume duc de Clèves. Marguerite s'opposa à ce mariage mais dut comme toujours se plier à la volonté de son frère. (BRIOIST, FAGNART, MICHON 2018: 103)

Madrildik itzultzean, Nafarroako Henrike II. arekin Frantziako erregeak zuen adiskidetasuna estua bazen, horrek bazekien Nafarroako erregeak ez zituela bere ondasunak berreskuratzeko nahiak itzali. Bazekien, era berean, egoera larrian Henrikek erakutsi zion atxikimenduak zorretan uzten zuela eta ordaina eskatuko ziola. Baina Frantziako politika, diplomazia, eta, finean, interesak ez zituen Frantzisko I.ak zorpetu nahi, hurbil nahi zuen Nafarroako erregea, begipean, eta bere alde zuen indarra baliatuz. Nafarroako interesak hobestea eskatzen bazion, laguntza ematera behartua sentitu ez zuen nahi, ez zituen Frantziako interesak arriskutan ikusi nahi. Frantziako erregeak bazekien Nafarroako erregearen indarrak eta determinazioak soka luzea ekar zezaketela.

Madrilgo ituna izenpetu zuelarik, Frantziako erregeak onartu zuen Karlos V.aren aurrean ez zuela Nafarroako erregea lagunduko bere Erresuma berreskuratzen. Ez zen hori traba handia Frantziako erregearentzat, askatu eta bere Erresumara itzuli orduko, ituna salatu baitzuen, bortxaz izenpetzera

eramana izan zelakoan bere askatasuna berreskuratzeko. Alegia, plazaratu zuen akordioa ez zuela errespetatuko. Hala ere, nahiz eta errege indartsua izan, Karlos V.aren ahalak handiak ziren eta bere aberastasunik ez zuten mugarik, Ameriketatik ekartzen zituzten altxor guztiak zirela eta. Horretaz jabetua zen Frantziako erregea. Joko gaizto horretan, Nafarroak pisu gutxi zeukan. Frantziako erregearentzat eginen zituen urrats guztietan begi bat atxiki zuen albertarraren gainean. Betiere arerioa Karlos V.a zela jakinez, nafarra erabili zuen, enperadoreari trabak ezartzeko, segur izateko Henrike II.ak ez zuela harremanik hurbilduko enperadorearekin.

Haatik, Karlos V.aren indarra handia zen, Frantziako erregeak hortaz ez zuen zalantzarik. Horregatik Karlos V.arekin harremana zainduz, Frantzisko I.ak beste akordio batzuk bideratu zituen enperadoreari aurre egiteko. Italiako eremuen berreskuratzeko zituen nahikeriak ez zituen oraindik bertan behera utzi.

Martxoaren 18an, Frantziako erregea, Madrildik itzultzean, Baionan, amarekin, Luisa Savoiaikoarekin eta Margaritarekin elkartu zen. Luisa Savoiakoa erregearen semeak, printzeak, lagundu zituen Gaztelako bidean. Ondoko egunak besta egunak izan ziren. Urraska Paris aldera abiatu ziren eta bide osoan Frantzisko I.ak opariz estali zuen arreba, egindako diplomazia lana eskertzeko.

Urte bat lehenago, Frantziako erregina, Klaudia zendu zen 24 urte zitularik, zazpi printze gazte utziz. Gaixotasun larri batzuen ondorioz, besteak beste senarrak segurki kutsatutako sifilisetik, oso nekaturik zendu zen. Frantziako erregeak, beste ezkontza baten bitartez, berriz ere aliantza berriak espero zituzkeen.

Erresuma kudeatzera itzuli zen, eta Luisa Savoiakoak egindako lana eskertu zion.

Margaritak Nafarroako Henrike bidaia horretan ezagutu zuela diote. Margarita Nafarroako erregea baino zaharragoa zen, baina harremana sortu zen bien artean. Henrikek ospe handia zeukan Paviako atxiloketaren ondotik, ihes egiteko erakutsi zuen balentriarengatik. Bestalde, Margarita ere garai indartsuan zegoen, bere anaia askatzeko eraman zuen lanarengatik. Pariserako bidaia elkarrekin egin zuten. Horrela, Margaritaren bigarren ezkontzaren ideiak bere bidea egin zuen.

Frantziako erregeak gainetik kendu nahi zuen berari nolabaiteko traba egiten zion errege bat, fama handia zeukana eta aldarri jarraikia zeukana. Nafarroako Henrike II.a, Nafarroa askatzeko nahikeria segitzen zuena, eta, horretarako Frantziako erregearen laguntza eskatzen zuena, bazter batera urrundu nahi zuen. Hautatu zuen bidea izan zen bere arrebaren eskuetan uztea, arrebarekin

konfiantza handia baitzuen, horrela, bada, arazorik ez zitzaion etorriko. Margaritak haurrik ez zuen, eta 33 urterekin Nafarroako Henrike II. arekin ezkondu zen 1527ko urtarrilaren 24an, Saint-Germain-en-Laye herriko gazteluan.

Ezkontzeko gonbita egin ziolarik arrebari, Margaritak ongi hartu zuen. Izan ere, Nafarroako Henrike gizon gazte eta ederra zen, ospe handia zuen militarra, bere ibilbidea ederra, zuzena baitzen. Bestalde, erregearen lagun mina zen eta Madrildik etorri zenetik erregeari ez zion Margaritak deus ukatzen. Anaia maite zuen eta ezkongaien artean harreman ona sortu zuen.

Margaritak beste bizi bat hasi zuen Nafarroako Henrike II. arekin ezkondu zelarik. Hogeita hamahiru urte zituen, eta oraindik bere anaiak erabakitzen zuenari men egiten zion. Baina Henrike gustukoa izan zuen, Henrikerekin ezkondu zen eta Nafarroako erregina bihurtu zen. Ez zen titulu eskasian, bere lehen senarrarengandik eskuratu titulu eta ondasun franko zeuzkan Rodez eta Armagnac-eko konderria, Alençoneko dukerria. Nafarroako erregina bihurtu zen, erregina titulua goiko aristokrazian kokatzen zuen. Nafarroari buruz idatzirik ez zaio ezagutzen Margarita erreginari, bere senarraren kezkaz ere ez, erresuma zaharrari zati handi bat falta bazitzaion ere. Ez zitekeen beti eroso Margaritarentzat, Frantziako erresumaren alde aritu beharra, eta ondoan senarra ikustea bere erresuma ezin berreskuratuz zebilela. Anaiaren laguntzarekin Nafarroa berreskuratzeko ametsa posible zela bazekien. Horrek, gortetik urrundu zituen, bizi berria zen Margaritarentzat.

Ezkontzaren ondotik bere senarraren ondasunen ezagutzera abiatu zen, baina ez zen prest Frantziako gorrea erabat uzteko. Gortera itzuli zen, politika jarraitzeko gogoia zeukan oraindik. Baina berri handia heldu zen, Margarita haurdun zen, lehen senarrarekin ez zeukan haurrik, eta esperantza piztu zitzaion. 1528ko azaroaren 16an bostak aldean, Jourda historialariaren arabera, alaba sortu zen, Joana Albretekoa, Nafarroako erregina izanen zena. Ondoan, Henrike senarra, ama eta Frantzisko I.a anaia zituen. Egun handia izan zen, Nafarroako erregeak ondorengoa zeukan, horren berri zabaldu zen bere erresuma osoan.

Politika lasaiagoa zen, anaiaren ondoan jarraitzen zuen, baina enperadorearekiko talka lasaiagoa zen. Frantzisko I.ak Karlos V.aren arrebarekiko ezkontza adostu zuen. Frantziako erregeak bere bi semeen itzulera ere adostua zuen, 1530ean ezkongaiaren eta semeen bila abiatu zen erregea. Margarita bere alabaz eta ilobez arduratzen zen. Blois aldera joan zen; haurdun zen berriz. Uztailean, Jean semea sortu zen, baina bost hilabeteren buruan zendu zen.

Ondoko urtean, 1531n, Luisa Savoiakoa zendu zen. Azken hilabeteetan, Margarita, amaren ondoan gelditu zen. Gertakariak aldaketa handia ekarri zuen Margaritarentzat, hain aipatua zen trinitatea, ama eta anaiarekin osatzen zuten trinitatea, bukatu baitzen. Erregearekiko harremanek aldaketa sakona ezagutu zuten ondoren.

Zapi urtez Margarita anaiaren ondoan jarraitu zuen, diplomazia lanak eginez, anaiaren politikak defendatzen. Baina, denboraren poderioz, eta Henrike senarraren kezkek, bere lurraldeen berreskuratzeko zituen proiektuak, urruntze bidea ireki zuten anaia-arreben artean.

Amodiozko ezkontza izan zen Margaritaren eta Henrikeren artekoa, baina politikak bere eragina eta interesak izan zituen.

Hala ere, Henrikek esperantzari eutsi zion. Frantziako erregeak, Pikardiara eramane zuen gerlaria. Nafarrak erregea laguntzen zuen bere guduetan, baina erregeak ez zion esperantza handirik ematen berea zen helburuan. Ahaleginak egiten zituen Henrikek Frantziako erregea laguntzeko, gaztetatik ezagutzen zuen adiskidea laguntzeko, baina hari ez zion interesik ikusten bere baitan laguntza hori eskertzeko. Henrikek kezka handia zuen, denbora aurrera zihoan eta bere erresuma ezin berreskuratuz zebilen.

Ondorioz, bere interesen defendatze aldera, enperadorearekin harremanetan, edo bederen hari batzuen lotzeko bidea hartu zuten. Pierre Jourdak dioenez, 1536an Juan Martinez Descurra errezibitu zuen bitartekari lana egiteko. Gutun trukaketak egon ziren, baina Frantziako erregea elkarrizketa horietaz jakinaren gainean egon zitekeela pentsa daiteke, zalantzarik gabe, Margarita boterearen erdiguneko pertsonalitatea baitzen, bere joan-etorriak zainduak izan zitezkeen, bere gutunak bezala. Bestalde, harreman berri horretan enperadoreak zukeen asmoa nahiko susmagarria da, ez bazen arerioa ilusio batean atxikitzea. Izan ere, garaiko bi ahaldun nagusien artean, Nafarroako erregeak askatasun gutxi izango zuen. Bi ahaldunen artean elkar babesteko interes komun handiagoa izango lukete.

“Andereen Bakea” deitutako ituna 1529an izenpetu zuten, Frantzisko I.aren eta Karlos V.aren arteko lehiarekin bukatzeko asmoz. Frantzisko I.ak, Madrildik itzulua, bertako ituna izenpetu ondoren, itun berri horrekin Flandria eta Artois eskualdea Karlos V.aren esku uztea onartu zuen. Baina itunak ez zuen iraun, Artois eskualdea sutan jarri zen eta 1537an Nafarroako erregeak eskualdearen zati baten berreskuratzeko borrokan parte hartu zuen, Hesdin herria berreskuratuz, 25.000 gerlarirekin batera (MANNIER 1880).

Guda horretatik itzultzean, Henrikek eta Margaritak gortetik urruntzea eta beren ondasunetara itzultzea erabaki zuten, Karlos V.arekin hasi zituzten elkarriketak aitzinera eramateko asmoz. Erabaki horren aurrean, frantses erregea kezkatzen hasi zen, eta bat-batean itzultzeko mezua igorri zien. Henrike erregeari Frantziako erregeak bere tropak eskaini zizkion Nafarroa Garaia berreskuratzeko. Henrikek zalantzak zituen, esperantza zeukan hasitako negoziazioek etekina ekarriko zutela. Margarita, aldiz, prest zen anaiaren proposamena onartzeko, Karlos V.a hurbildik ezagutu zuen anaiaren askatasunaren bila joan zelarrik, eta bazekien Karlos V.a oso maltzurra izan zitekeela.

Bestalde, anaiaren konfiantza atxikitzea hobesten zuen, gerorako.

Henrikek Margaritaren argudioak entzun zituen, eta Frantziako erregearengana itzuli zen, bere armada zegoen tokietara, Italiako lurraldeetara. Margarita Bloisko eta Tourseko jauregietan gelditu zen, ez zuen baimenik erregearengana joateko. Beraz, Elisabet Albretekoarengana abiatu zen, Henrikeren arreba laguntzera, Britainiara. Bestalde, ilobez eta alabaz arduratu zen. Baina erregeak deitu bezain laster abiatu zen Limoges aldera non Henrike senarra atzeman zuen. Senarrarekin kezkatzen hasiak ziren. 1537an eman hitzak ez zuen ondoriorik. Leucateko elkarrizketek, Nizekoak eta ondotik Aigues-Morteskoek, non bertan Frantzisko I.a, Karlos V.a eta aita santua elkartu ziren, horiek denek Nafarroari ez zioten deus ekarri. Ez zuten esperantzarik sortzen. Ahaltsuenen interesek garaitzen zuten. Nafarroako erregeak aldarrikatzen zuenak ez zuen erantzunik, hilabeteetako elkarrizketen ondotik. Bestak, zereemoniak, kontseilu, kardinalak, ehunka jauntxok inguratu zituzten elkarrizketa horiek, gorteko munduko giroa zegoen, baina Henrike eta Margarita ez ziren gustura atera bide luze horretatik.

Albreteko etxearen interesak alde batera utzi zituzten. Hori ikusita, Henrike Karlos V.arekin harremana berriz lotzen hasi zen, Margaritari porrotaren ardua leporatuz bere anaiarengana itzultzea konbentzitu baitzuen. Urrats berri horretaz jakinaren gainean jarri zuten frantses erregea, erabaki bortitza hartu baitzuen, arrebarekin zuen harreman hurbila hondatu zuena. 1538ko udan, Joana Albretekoa, Plessis-Lèz-Tours jauregira eramatea agindu zuen. Han Frantziako erregearen ardurapean gelditu zen. Joana Frantziako erregearen interes diplomatikoen zerbitzurako erabiltzea pentsatu zuen erregeak. Hamar urteko alaba galdu zuen Margaritak. Alaba jauregitik ez zen gehiago urruntzen ahal. Zauri larria izan zen Margaritarentzat, horren arduraduna anaia baitzen, konfiantza ezaren froga. Konpentsatzeko, erregeak Alençoneko gatz bilketen

etekinak eskaini zizkion arrebari. Baina, nahiz eta opari seinalagarria izan, ez zituen albrearren Nafarroa Garaiko lurraldeak ordezkatzen.

Margaritak eta Henrikek alabaren bahiketa onartu behar izan zuten. Noski, Frantziako erregeak aurreikusi zuen Albreteko etxearen nahia, alabaren bitartez martxan jar zitekeena. Albreteko etxeak, Karlos V.aren harremanak berriz hartuz, ezkontza zuten gogoan.

Bere aldetik, Karlos V.ak, Nafarroako erregearen urratsak zaintzen zituen, ez zen fidatzen, behin baino gehiagotan Henrikek gudariak altxatu zituen bere ondasunak berreskuratzeko eta Karlosek ez zuen inongo intentziorik lurraldea askatzeko.

Bestelako guduak zituen Karlos V.ak. 1539an matxinada abiatu zen Gante herrian, Karlos V.aren ardurapean zegoen eskualdean, eta matxinatuek Frantzisko I.aren menpe jarri nahi izan zuten. Herbehereetako lau probintzietatik, Gante izan zen zerga berriak baztertu zituen bakarra. Beste probintziek Gante lagundu nahi ez zuten, Gantek bere leialtasuna eskaintzen zion Frantzisko I.aren erregeari Karlos V.aren enperadorearen aurkako babesaren truke. Frantzisko I.ak baztertu egin zuen Ganten eskaria, zeren Karlos V.ak garbi adierazi baitzion Milango eskualdea utziko ziola abdikatu zuen zuelarik (eta hori ez da gertatu), eta Frantziako erregeak enperadorearen harremana zaindu nahi zuenez momentu horretan, Gante eskualdea laguntzarik gabe utzi zuen.

Frantzisko I.ari egin deia alboratu zuen erregeak. Aitzitik, Karlos V.ari Frantziatik pasaia onartu zion, Gante hiriraino joateko. Itsasotik bidaiatzea baino, Frantzia zeharkatzea onartu zion. Hiru hilabete pasa zituen Karlos V.ak Frantzia zeharkatzeko.

Gante hirira heldu zelarik, Karlosek oldartzearen errepresio gogorra agindu zuen, eta berak parte hartu nahi izan zuen zuzenean, pertsonalki zapaltze horretan. Buruak moztu, agintariak umiliatu, herri osoaren antolaketa berrikusi, arauak aldatu lurralde horretan, erabaki bortitzak hartu zituen enperadoreak.

Uler daiteke une horretan Frantziako eta Espainiako agintarien arteko harremana nahiko ona zela. Hiru hilabete horietan, besta, oturuntzak iragan ziren. Margaritak eta Henrike Albretekoak horretan aukera ikusten zuten negoziazioak berriz abiatzeko, zuzenean eta Karlos V.ak berak aipatu zuen bere semea Filipe eta Joana Albretekoaren arteko ezkontza bideratzeko.

Karlos V.ak eta Frantzisko I.ak, biek nafarraren nahiak ezagutzen zituzten, bazekiten ez zuela gaia alde batera utziko eta biek aterabide bat bilatzen zuten. Karlos V.ak egin proposamena Nafarroako erregeari interesatzen zitzaion, baina Frantzisko I.ari ez, hark bahitua zuen iloba.

Hiru hilabete horietan Margaritak ez zituen elkarrizketak aitzinatzen ikusi, eta desesperatzen hasia zen.

Desesperazioa indartu zen alaba eritu zela jakin zuelarik. Besta giroa bertan behera utzi zuen, alta anaiaren ondoan bere presentziak bere garrantzia bazuen. Baina kezka handia sortu zen Margaritarengan, berehala alabarengana abiatu zen. Otoitz batean sartu zen Plessy jauregian. Egun batzuen buruan Joanaren osasuna hobetu zen, eta Margaritaren ikara lasaituz joan zen. Semearen galtzeak Margaritaren bihotza hunkitua utzi zion, alabarengatik sentitzen zuen maitasuna indartuta zegoen une gogor horien ondotik.

Albretoko etxearentzat, enperadorearen presentziak ez zuen deus ekarri. Esperantza atxikitzen zuten, baina enperadoreak ez zuen urratsik egiten, erregeak aldiz, enperadoreari harrera bikaina egitean, benetako helburua gordetzen ari zen. Enperadorearen kontrako aliantza berria sortzen ari zen, eta Montmorency kontseilaria horren alde zen, Ingalaterrako erregearekin eta Alemaniako protestanteekin. Horretarako Clevesko dukearen laguntza behar zuen.

Izan ere, Frantzisko I.a, bere semeak bere ondora itzuli zituen momentutik, askatu zituztenetik, enperadorearekiko harremana lantzen hasi zen. Harreman ona lortu nahi zuen, itxurazko harremana indartu nahi zuen, Madrilgo itunarekin eremu asko galdu baitzituen. Bestalde, Italiako eremuak ere gogoan zituen oraindik Frantziako erregeak. Beraz, enperadoreak Frantziako lurretatik pasatu behar zuen denbora guztia baliatu zuen erakusteko dena konpondu zela enperadorearekin.

Frantziako erregea Europako monarkarik indartsuenetakoa zen, Europan ospe handikoa zen eta diplomaziaren bitartez, ahal bazen, eragiten zuen. Orduan, Ingalaterrarekin, eta Alemaniako protestanteekin eragiten zuen, baina aita santuarekin eta enperadorearekin negoziatzen jarduten zuen denbora berean. Diplomaziaren denbora zen, erregearentzat, ez zen enperadorearekin gertu piztekoa.

Uler daiteke, denbora horretan, Margaritaren eta Nafarroako erregearen kezkek ez zutela eraginik, Frantziako erregeak zituen proiektu horietan. Nafarroako erregeak bere lurren berreskuratzeko zuen helburua bigarren mailara eroria zen. Gainera, Frantziako erregeak arrebarekiko zuen lotura ahultzen ari zen, albretarrak ez zituen arriskugarri ikusten, gortetik urruntzen hasiak ziren, eta haien alaba bere eraginpean zegoen, beraz, Nafarroako etxearen indarrak ez ziren gehiago oztupo Frantziako interesen aurrean.

I540ko ekainean, erregeak erabaki zuen Joana Clevesko dukearekin ezkontzea. Albretarren lasaitasuna eta adostasuna lortze aldera, Bizkaitik abiatuko zen ofentsiba proposatu zion Nafarroako erregeari. Horrek baietz erantzun zion, kementsu baina Margaritak ez zuen horrelako baikortasunik erakutsi. Bere alabaren ezkontzarekin ez zuen bere alabarentzat, bere familiarentzat interes handirik ikusten. Cleves-ko dukea ez zen lehen lerroko aristokrata, eta bestelako esperantza zuen bere alabarentzat. Urteak Plessis-Lèz-Tourseko jauregian pasa ondoren, ezkontza horrek alaba urrun eramane zuen. Bere lehen ezkontza zuen gogoan, bazterrean kokatutako bizi bat, argirik gabeko familia baten erdian. Filipe infantearekiko ezkontza hobeki ikus zezakeen, Madrilen, Vienan edo Bruselan ikus zezakeen alaba. Margaritak bere burua lehen mailako aristokratatzat zeukan, eta maila bereko ezkontza bat zukeen gogoan alabarentzat.

Baina anaiak agintzen zuen, ez zen aurka joan. Uztailaren 16an kontratua izenpetu zuten.

Nafarroako erregeak Frantzisko I.aren laguntza ontzat emana zuen, eta azken saiakera egin zuen enperadorearekin negoziatzeko alabaren ezkontza infantearekin, Nafarroa Garaia berreskuratzearan truke. Negoziatzeko, beste argudiorik ez zeukan, alabaren eskua eta zuzentasuna baino. Hori ez zen aski enperadorearen gogoarentzat. Bertan behera erori ziren diplomaziaren bitartez gatazka konpontzeko asmoak, eta Nafarroako erregearen esperantzak pixkanaka erortzen joan ziren. Margaritak, ezkontza horrekin, anaiarengan zeukan eragina ahultzen ari zela ohartzen hasi zen. Montmorency kontseilariaren eragina aldiz handitzen ari zen, bien arteko harremana oso txarra zelarik, Montmorencyk heretiko gisa agertu nahi zuen Margarita, bien arteko lehia gaiztotzen ari zen.

Urte hartan, dena ez zen galdua Margaritarentzat, enbaxadoreek harengana jotzen jarraitzen zuten, Henrike VIII.ak bere potreta igorri zion, aita santuak Paulo III.ak laguntza eskatu zion, bere ilobaz arduratzea eskatu zion Frantzian egiten zituen lehen urratsetan, bestalde, D' Etampes andrea<sup>7</sup>, Frantzisko I.aren maitalea, aliatu handia zuen Margaritak.

Erregearen borondatea, Clevesko dukearen sostengua lortzearena alegia, bururaino joan zen. Ekainean Joanaren ezkontza iragan zen. Haatik, Joana bera, hamahiru urte zituela, gogor jarri zen ezkontza horren kontra. Ezkontzaren bezperan eta egunean bertan, gutunak izenpetu zituen ezkontzak baliorik ez zuela idatziz, bere borondatearen aurka egiten zela adieraziz. Diplomazia

<sup>7</sup> Anne de Pisseleu, Etampesko dukesa, 1508-1580, Francois I.aren kuttuna izan zen, erregea hil zen arte.



gutunen bitartez ere eramaten zen.

Margaritak bere aldetik, gutunak igorri zizkion anaiari alabaren jarrera ez zela bere eraginez sortu esanez. Noski, Joana gazteak nortasun handikoa zela sinets daiteke, baina zaila da pentsatzea bere burasoek ez zuketela deus ikus-tekoric alabaren urratsetan. Ezkontza horrek ez zuen, ez maila politikoan, ez afektiboan, deus ekartzen, ez Joana berarentzat, eta ez albretarrentzat ere. Ezkontza hori Margaritarentzat, senarrarentzat bezala porrota zen. Margaritaren, senarraren eta anaiaren artean zeuden interes antagonikoak argi ziren, Margaritarentzat egoera kontraesan sortzailea zenko, leialtasuna non kokatu jakitea zaila zen, ama gisa eta botere emazte gisa alabarentzat zituen ametsak ihes egiten ikusten zituen. Noski, kontuan hartu behar da garai hartan ezkontza bizitza oso baten bihurtzea zela, ezkontzen zenarentzat, bere familia osoarentzat bezala. Erabaki guneetako pertsonalitatea zen Margarita, alabaren alde ez zuen eragiten lortu, albretarren alde ere ez. Porrot handia zen. Ezkontzaren inguruko bestak ez ziren bereak. Ezkontzako kontratua ez zen bete, eta horrek geroari begira, ate irekia utzi zuen.

Margaritak ezkontza onartua zuenez, anaiak bere albora ekarri zuen, eta konfiantzazko harremana zabaldu zion, Etampes anderearen eraginez agian, baina berriz ere, Margarita politikaren erdigunean zegoen, 1544an. Henrike VIII.aren harremanak indartsuak ziren, eta erlijioaren inguruan ere adostasuna zegoen haien artean.

Baina erregearen eta enperadorearen arteko harremanak berriz ere mindu ziren, Italiako lurraldeen inguruko gatazka ez zen bukatua. Milango dukerrian oraindik gatazka diplomatikoa zen, gerla hotsak hurbiltzen ari ziren. Rincon eta Fregoso<sup>8</sup>, erregearen enbaxadoreak, enperadoreak hil zituen (ZELLER 1880).

Gerla abiatu zen Katalunia aldean baina hutsa izan zen Frantziako erregearentzat. 1542ko urte hartan Margarita senarrarengana itzuli zen, honek hegoaldeko mugak zaintzen zituelarik, enperadorearekin ireki zuen elkarrizketarako bidea hetsi ondoren. Elkarrizketa horiek ez zuten Frantziako erregea lasai utzi. Frantziako gortearrekiko harremana gazi-gozo gelditu zen. Mugetan konfiantzazko zaindari bat behar zuen, ordu arte Henrike leiala izan zen, eta berriz ere postu ospetsua eskainiz menean atxikitzen zuen.

Margaritaren sentimenduek anaiari atxikiak jarraitzen zuten. Ordainetan senarra eta alaba hor zituen, baina anaiarengana joaten ziren bere gogoeta ge-

<sup>8</sup> Ustez Karlos V.aren zerbitzura zeuden gizon batzuek Frantziako erregearen bi enbaxadoreren hilketa burutu zuten 1541eko udan, Frantziako erregeak Veneziara eta Konstantinoplara bidali zituena. L. BÉLY, G. POUMARÈDE. *L'Incident diplomatique (XVIe-XVIIIe siècle)*. Ed. A. Pedone. Paris. 2009.

hienak. Noski, ordainean anaiak arreba babespean gordetzen zuen. Margarita arrebari alabaren ezkontza onartu izana eskertzen zion, Clevesko dukearen laguntza ezinbestekoa ikusten zuen unean, enperadorearen kontra aritzeko. Margaritak ez zituen orduan une pertsonal errazak bizi. Senarrarekin zituen harremanak, asko maitatu zuen senarra, hoztuz joan ziren. Bidaia asko egiten zituen Nafarroako erregeak eta zurrumurru gaiztoak heldu ziren Margaritarenganaino. Senarraren leialtasuna zalantzan jartzeko arrazoiak zituen. Bestalde, anaia Margaritaren ongizateaz arduratzen zen eta ez zitzaion deus falta Margaritari, materialetik ez zuen deus falta.

Clevesko dukearen, ordu arte erregeari sostengua ekarri zionaren, Joana gaztearen ezkontza ekarri zuenaren ituna, bertan behera gelditu zen. Baina Habsburgo etxearen kontrako guduak jarraitzen zuen. Margaritak alabaren ezkontza askotan desegitea eskatu baldin bazuen, inongo arazorik gabe gauzatzeko ahal zen, erregearen eta Cleveseko dukean arteko lotura hautsi baitzen.

Orduan, Landrecies herrian zeuden Frantzisko I.aren eta enperadorearen arteko gudak. Baina anaiarengandik urrun gelditzeak on egin zion Margaritari, Margaritak Nafarroan pasatu zituen hilabeteak onak izan ziren eta hango lasaitasuna, herritarrekiko bizipenak gustukoak izan zituen.

Gortetik urruntzen zelarik, Margarita Paueko edo Néraceko jauregietan egoten zen. Néracekoa modernoagoa zen eta bertara Parisko berriak laster-rrago heltzen ziren, beraz, Margaritak Néracen egotea nahiago zuen. Han oso babestua zegoen, bere lagunak zituen, Bourdeilles anderea, eta bere alaba, Saint-Pather de Caumont, de Clermont andereak, bere idazkariak, medikuak, bere senarra, anaiaren ordezkariak eta bere saloietatik pasatzen ziren bisitariak.

Landrecies-ko berriak, Frantziako gortearen berriak, nazioarteko gertakariak dena heldu zen Margaritaren etxeraino, gortetik urrun egonik ere, mundu zabaleko oihartzuna zeukan, eta bere saloian iritziak partekatzeko, eztabaidatzeko aukera. Hortik laster ere, Katalina Medicik, hurrengo erregea izanen zenaren emazteak, seme bat izan zuelako berria ere heldu zen. Margaritak ikusten zuen bere anaiaren oinordea segurtatua zela. Poz handiz hartu zuen berria, ez zuen inongo samindurarik gorde anaiarekiko. Maitasunak berdin jarraitzen zuen. Aitzitik, ardura handiz hegoaldeko mugak zaintzen zituen, bere ahal guztiak baliatuz. Nérac eta Pauen artean bizi zoriontsua zeraman, gortearen inposatze-etatik urrun, tokiko jendearen erritmoan eta literaturaren gozamenean.

Margaritaren saloiko elkarrizketek fama handia zuten, bertan politikaz hitz egiten zen, baina literaturaz ere asko. Paristik liburuak heltzen ziren, Rabe-

laisen, De la Borderien, Marot-en lanak. Egonaldia hauetan, Margarita *Heptameron* idazten hasi zen eta inguru horretaz guztia ariko zen.

Elizak, kaperak, komentuak bisitatzen zituen, laguntzen, pobreak ere bisitatzen zituen, edozein aristokrataren ariketak ziren bereak. Herriz herri ibiltzen zen, eta berarekin soldaduak ere eramaten zituen, bideak ez baitziren beti seguruak, Mont-de-Marsan, Bigorra, Tarbe, Condom, Cauterets, herri horiek denak ziren bere senarraren lurretan. Han ibiltzea zuen gogoko. Tokiko jauntxoek etxeetan geldialdiak egiten zituzten, eta bestak antolatzen zizkioten.

Baina anaiak berriz ere deitu zuen gortera, eta Margaritak anaiari men egiten zionez, Parisko bidea hartu zuen. Berrogeita hamar urteak heldu ziren, gaztaroa joan zen eta bere tokia gortean ez zuen berdín sentitzen, anaiaren urte argitsuak joanak ziren.

Dena den, azken urte hauek lagunez inguratua iragan zituen Margaritak, senarra ere inguruan zuela, nahiz eta elkarren arteko harremanak ez ziren berdínak. Hau garrantzitsua zen Margaritaren bizitzan, ospea baino eguneroko lasaitasuna zuen gogoko. Botere eremua asko ezagutu zuen, horretatik urrun bizitzea ere eskertzen zuen.

Senarra gazteagoa zuen eta denborarekin beste emazteekin izan zituen harremanek minduta utzi zuten. *Heptameron*a, bere obra nagusia, idazten hasi zen garaia izan zen. Obra horretan senarra ere aipatu zuen, ezizena emanaz.

Boccacciok<sup>9</sup> idatzi zuen *Decameron*<sup>10</sup> irakurria zuen Margaritak, eta goiargi izan zen. Antoine Le Maçon lagunari horren itzulpena egitea eskatua zion, eta itzulpenak aurrera egiten zuen horretan bere narrazioak hasi zituen. Aurretik zalantzarik gabe idazten aritu zen, baina 1542tik goiti proiektua martxan ematea erabaki zuen eta 1546an aitzinsolasa idatzi zuen.

*Heptameron*a obran hamar bat pertsonaia daude, erreginaren ingurukoak denak, eta haien izaera agertzen da. Margaritak bere bizia laburtu zuen narrazio horietan eta pertsonaia bakoitzari bere begirada islatzen dio. Bere munduan anekdota askoren lekuko izan zen eta horiek ere aipatzen ditu. *Heptameron*, ordea, ez da gure lanaren erdigunea, utziko dugu, eta Margaritaren bidaiarekin jarraituko dugu. Ilunabarra heldu zen Margaritarentzat. Berriz ere, anaiak deitu zuen eta harengana joan zen.

<sup>9</sup> Florentziako Erdi Aroko idazle ospetsua (1313-1375).

<sup>10</sup> Boccacciok idatzi zituen ehun narrazio eta Margaritek frantsesera itzultzea eskatu zuena. Testu horiek 1349 eta 1353 artean idatzi zituen.

Italiako bederatzigarren gerla bukatzen ari zen. 1544. urtea zen. Cerisolesko garaipena<sup>11</sup> zeukan gogoan Margaritak. Parisko bidean Alençonen gelditu zen eta harrera bikaina eskaini zioten Parisa heltzean. Enperadorearen eta Frantzisko I.aren arteko gerla ez zen bukatzen. Margarita Parisa heltzen zelarik Saint-Dizier herria erregearen eskuetara itzuli zen eta enperadoreak Landrecies berreskuratu zuen. Bien arteko gerlak bukatzeko bidean zeuden, Frantziako erregearen indarrak ahultzen ari baitziren. Margaritak horrela aurkitu zuen anaia Parisa heltzean, ahulduta. Baina Crepy-ko ituna<sup>12</sup> izenpetzearekin, erresuma lasaitua gelditu zen. Alta, itun horretan ere Frantzisko I.ak ez zuen inongo urratsik egin Nafarroako egoera hobetzeko. Enperadorearekin izenpetu zuen itunean Frantziaren aldeko interesak babestu zituen eta Nafarroa ahantzia utzi zuen. Lehen lerroko diplomaziatik Nafarroa baztertzen zuten.

Gorteko bizitzak gero eta interes gutxiago zuen Margaritarentzat. Senarraren egoerarentzat, alegia bere ondasunen berreskuratzeko, esperantza urruntzen ari zen, eta osasun kontuetan ere ez ziren gehiago garairik hoberenak, alabari zihoakionez, Margaritak ez zuen ikusten Karlos V.aren semearekin ezkontzarik gauzaten. Nahiz eta 1545ean aita santuak Joana Albretakoaren ezkontza baliogabetu, Joanak eskatzen zuen bezala, ez baitzuen inoiz onartu bere osaba Frantziako erregeak, inposatu zion ezkontza, Nafarroa berreskuratzeko aukera gutxi zegoen.

Margaritak berria begi onez hartu zuen, ezkontzaren desegitearena alegia, baina Frantzisko I.ak ez zuen nahi Joana Karlos V.aren semearekin ezkon zedin. Albretarren indarra enperadorearen indarrekin lotzea, oraindik, arriskutsua ikusten zuen Frantziako Erresumarako. Beraz, Karlos V.ak ez zuen gehiago, 1545 urte haietara heldu eta, ezkontza hau onesten.

Henrike Albretekoa eta Margarita, 1546ko otsailean Nafarroara, albretarren eremuetara, itzuli ziren. Margarita pena handiz joan zen, baina gustuko zuen gortetik urrun bizitzea ere. Azken aldía zen anaia ikusten zuela. Hurrengo urtean hil zen.

Itzulera horretan senarraren proiektuak zutik jarraitzen zuen, tropak eta armak biltzen segitu zuen Nafarroa berreskuratu nahian.

<sup>11</sup> Cerisolesko gudua 1544ko apirilaren 11n gertatu zen Italiako bederatzigarren gerran, Cerisolesko herri piemontetarretik gertu. Frantses tropen garaipenarekin bukatu zen Milan herria hartzeko baliatu ez bazuten ere.

<sup>12</sup> Karlos V.ak berretsia, Frantzisko I.arekin adostu zen Crépy-en-ituna. Frantsesez idatzitako idazkiak, 1544ko irailaren 22an, Italiako bederatzigarren gerla amaitutzat eman zuen.

Senarra urruntzen ikusi ere zuen, eta alabaren geroari buruz kezka zituen. Frantziako Erresuman, errege aldaketak ez zuen deus aldatzen, Joana alabak ez zuen askatasun gehiago bere geroari begira, erregearen baimena behar baitzuen ezkontzeko, erregearen interesen arabera erabakiko zen, eta horretan Margaritak ez zion aurre egiten, otoitzean sartzen zen. Anaiaren heriotzak etsipen handia ekarri zion. Ez zuen aukerarik izan anaiaren azken egunak harekin igarotzeko, ez eta haren hil mezara eta otoitzetara joateko. Azken olerkietan bere mina azaldu zuen, eta bere dolua luzea izan zen.

Olerkietan adierazi zuen bere anaiaren galtzeak sortu zion oinazea, eta komedia bat ere idatzi zuen, *Comédie sur le trépas du roy*. Komedia ez zen erraz atzematen, argitalpen gutxi izan zituen. Bertan hiru pertsonaia nagusi daude: bera, bere senarra eta erregea, Pan deitzen dena<sup>13</sup>. Komedia horretan pertsonaia alegoriko bat etortzen da pena arintzera.

Anaia hil eta gero, Margarita ez zen gortera gehiago hurbiltzen. Bazekien diplomaziaz jokatu behar zuela errege berriarekin, Frantziako gortetik heldu baitzitzaizkion dirulaguntzarik handienak, eta ardua handiak zituen, pobreak, komentuak, bere gortea... Beraz, ilobarekiko harremana zaintzen zuen, baina Frantziako erregeak Joana ezkondu nahi zuen bere interesen arabera.

Joanaren ezkontza estatu gaia zen eta errege berriaren interes handikoa, nahiz eta Margaritak ez zuen erregearen bultzada gustuko. Ez zuen momentu batetik goiti ilobak igorri gonbita baztertzen ahal gehiago, eta erregea Italiatik bueltan zelarik, Lyon herrian elkartu ziren, udazkenean. 1548. urtea zen, eta Joanak hogeitun urte zituen.

Henrike Albretekoak ez zuen esperantza galtzen, enperadorearen semearekin ezkontza zuen oraindik gogoan, baina azkenean Antonio Borboikoarekin ezkontzea erabaki zen Parisen. Frantziako errege berriak, valoistarren etxeko Henrike II.ak irabazi zuen. Moulinsen, 1548ko urriaren 20an, ospatu zen ezkontza. Joana ezkontza horren alde agertu zen, eta hastapen hauetan harreman oso ona izan zen Joanaren eta Antonioren artean.

Margaritak ez zuen ezkontza begi onez hartu, eta berriz ere, bere iritziak ez zuen ondoriorik. Dena den, Joana ados zen Antonio Borboikoarekin ezkontzeko eta Joanak ordurako pertsonalitate azkarra zuen eta berea inposatzen bazekien. Zaila zen Margaritarentzat senarraren etsipena sumatzen baitzuen, baina alaba maite zuen, eta zoriontsu ikusten zuen. Ezkontzaren garaian, momentu batez, alabaren presentziaz gozatzeko aukera izan zuen. Bizitzaz gozatzeko

<sup>13</sup> J. BOWMANek, komedia horretaz azterketa sakona egin zuen 1974an, Winnipegeko Manitobako Unibertsitatean plazaratutako tesian.



Iturria: Wikipedia

gogoia heldu zitzaion Margaritari. 1549ko udaberrian Cauterets aldera joan zen Joanarekin, baina senarrarengandik urrun egoteak tristeagotzen zuen printzesa, horrenbestez ama utzi eta senarrarengana itzuli zen Joana. Gutun trukaketa utzi zuten bi printzesek. Margaritak Odoseko jauregian iragan zuen udazkena, Henrike Albreteko erregearekin zen, eta negua jauregian pasa zuen, idazten eta bere hurbilekoen heriotza gogoetatzen.

Abenduaren erditsuan, bere osasuna okertuz joan zen, eta 1549ko abenduaren 21ean zendu zen, goizeko hiruretan. Henrike berandu heldu zen, begiak hestean senarra ez zuen ondoan, bidean zen, alaba bezala.

Bestalde, Erreformaren ideien garapenean, Erresumaren barnean, aldaketa sakonak eragin zituen.

Margaritak ez zuen eragiteko aukera handia izan Erreformaren kontrako erasoaldian lagunen babesteko. Horien artean zen Etienne Dolet, poeta, humanista, inprimatzailea, eta 1546ko abuztuaren 3an erre zuten Parisko Maubert plazan. Beste hiru inprimatzaile ere erre zituzten plaza berean. Pena bizia gorde zuen bukaera arte.

Erreformako ideien alde agertu zen Margarita, konbertsiorik ez bazuen bururatu eta pena handiz ikusi zuen erregearen jarrera aldaketa.

## 2. ERREFORMAREN HASTAPENAK FRANTZIAKO ERRESUMAN

### 2.1 Erreformari arreta eskaini zion

Ibilbide itzela zeraman Margaritak, baina beste grina bat zeukan, Margaritak gaztetarik arreta jarri baitzion gogoeta espiritualari, inguruan zituen gidarien laguntzarekin. Oso goiz, pertsona batek markatu zuen Margaritaren bizia, aldi honetan alderdi mistikoan. Meaux herriko apezpikua, Guillaume Briçonnet (VEISSIERE)<sup>14</sup>, 1516tik Margaritaren zuzendari espirituala izan zen. Margaritak hogeit urte zituen eta Briçonnetek<sup>15</sup> bere bizia markatu zuen. Briçonnetek humanisten teologia hobesten zuen, eta teologia hau entzun zuen harengandik Margaritak. Ebanjelizazio nahiak bultzaturik, Bibliaren frantseseko itzulpena za-

<sup>14</sup> M. VEISSIERE, *L'évêque Guillaume Briçonnet (1479-1534)*. Réforme, Humanisme, Renaissance. 1986. 23.z. 72-78.o.

<sup>15</sup> Guillaume Briçonnet (1470-1534), Frantziako elizgizona zen, eta paper garrantzitsua izan zuen Frantzian Erreformaren hasieran. Jacques Lefèvre d'Étaplesekin batera, Meaux eskola edo zenakulua osatzen zuen, Meaux Elizaren hausnarketarako eta erreformarako etxea.



Iturria: Wikipedia

baldu zuen, bere lagun Jacques Lefèvre d'Étaplesek<sup>16</sup> itzuli zuena. Azken hori, itzulpena egin ondoren, erbesteratu zen. Erreformaren aurkako politikak gero eta zorrotzago bihurtu ziren. Luteroren testuak zirela eta, heresiaren kontrako mugimendua izan zen, baina Briçonnetek luzaz Margaritaren babesia izan zuen. Horri esker, Elizaren gatzigua saihestu zuen, beste batzuek jasan zituzten zigorrak, eta batzuek heriotza zigorra ere jaso zuten. Azken urteak Margaritaren babespean Néracen iragan zituen, 1536 arte, zendu zen urtera arte.

Gérard Roussel<sup>17</sup> izan zen beste pertsona garrantzitsu bat Margaritarentzat, eta hura ere Erreformako lehen urteetatik laguna zuen. Briçonnetek arazoak izan zituen Elizaren barnean, baina Elizaren barnean jarraitu nahi zuen. Margarita Erreformazaleak laguntzen saiatzen zen, ahal zuen neurrian, bere helburuak ez baitzituen beti lortzen. Etsai asko zituen eta anaiarekin zuen harremana, denborarekin ahulduz joan zenak, ez zion beti zigorra saihesteko aukera segurtatzen.

<sup>16</sup> Jacques Lefèvre d'Étaples, Jacobus Faber (Stapulensis) izenez ere ezaguna, frantses teologo eta humanista izan zen (Étaples, Pas-de-Calais, 1450 inguruan sortua), eta 1536an Nérac herrian zendu zen.

<sup>17</sup> Margaritaren kapilaua, eta hark babesturik, Oloroeko apezpiku izan zen, non ideia protestanteak sartu zituen. 1550ean Katixima bat argitaratu zuen, Sorbonak kondenatu zuena.



Haatik, mundu espiritual berean zeuden beste kide batzuk ekarri zituen bere ondora. *Cénacle de Meaux*<sup>18</sup>-en egin zituen lanak eta humanistekin elkartzeak bazterketara eta epaitegietara eraman zuten. Humanistek Elizari egiten zituzten kritikak partekatzen zituen, baina Rousselekin, bere ondora ekarri zuena, kalapitak sortu ziren. Briçonnet Margaritaren gida espiritualak zen, eta Meaux herriko bileretan Gérard Roussel ere ibili zen, baina Briçonnetek kanporatu zuen 1525ean, defendatzen zituen ideientatik. Erreformako lehen uneak zailak ziren, Luterok egin zuen mugimenduak ez zuen babes handirik, ideia berriei harrera ona egiten ziotenek ere kasu handiz ari ziren egiten zituzten urrats guztietan.

Dena den, arrisku handiko bidea bazen ere, Bibliaren itzulpenak gogoeta berriak ekarri zituen, perspektiba iraultzaileak fededunentzat, itzulpenak herriar gehiago testuen ulertzerara eramaten baitzituen. Hori begiratzen zen, hori hobesten zuten askok. Gizartean eragina bazuen.

Rousselek Margaritaren babesa zuen, bere konfessore bihurtu zen, eta erreginak *Oloroeko* apezpiku izendatu zuen (MIQUEL 1980: 1622). *Oloroen*, Erreformaren aldeko ideiak zabalduagoak ziren. Haatik, Nafarroako Erresuman ere Erreformak ez zituen bakarrik laguntzaileak atzeman. Baliteke Roussel Mauleko elizan hil izana, diotenez, bere ideien aurkariak prediku aulkitik bota omen zuten<sup>19</sup>.

Azken urteetan Margarita letretan murgildu zen, urteak aitzina joan ahala. *Heptameron*a izan zen bere obra nagusia, eta 1559an argitaratu zen. Baina beste obra asko ere utzi zituen Margaritak, eta batzuk hemen landuko ditugu. Rabelais idazlearen garaikoa, honek Likornaren damaren izenarekin aipatzen zuen (RAGON 1993: 54).

Margarita, Nafarroako erregina, Odosen (Bigorra) zendu zen 1549ko abenduaren 2Iean. Leskarre herrian chortzi zuten, Nafarroako errege-erreginen nekropolian.

Margarita bere idazkiengatik ezaguna da, eta, halaber, izan beharko luke, bere bilaketa espiritualagatik, Erreformaren aitzindariak laguntzeagatik, eta emakumearen eskubideak defendatzeagatik, berritasun bila ibiltzeagatik. Bere ausardia teologiko eta literarioagatik kezkatua, mehatxatua ere bai, Kalbinoren

<sup>18</sup> Meauxko zenakulua, Meauxko zirkulua ere deitua, 152Iean sortu zuen Guillaume Briçonnet Meauxeko apezpikuak bere bikario eta lagun Jacques Lefèvre Etaplesekoak eskatuta. Jakintsu humanista ugari biltzen zituen: Guillaume Farel, François Vatable, Gerard Roussel, Martial Mazurier, Michel d'Arande, Pierre Caroli, Jodocus Clichtove eta Jean Lecomte Lacroixkoa. Garai hartako bizi ziren idazle asko oso gertu zeuden mugimendu hartatik, hala nola François Rabelais edo Erasmo.

<sup>19</sup> *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, IIe série, tome 17, 1887-1888, 70.o.

idea erreformatzaileetatik hurbil baina Eliza katolikoari atxikia, Margarita Nafarroakoak XVI. mendetik aurrera emakumeen askatasunaren eta autonomiaren kontzientzia hastapenen aldeko aldarrikapenari bidea ireki zion.

Emakume aparta, erregearen aldeko diplomatikoa, bere garaian heretikoa, garai hartan eskandalu iturri zen idazlea, humanista erreformatzaileen babeslea, Margarita Nafarroakoaren eraginak iraun zuen bere alabarekin batera, Joana Albretetokoa, Nafarroako erreginarekin, eta bere biloba Henrike IV.a, Frantziako eta Nafarroako erregearekin.

Margarita Erreformaren lehen urratsak jarraitzen hasia zen, baztertzen ziren ideia berriei irekitzen, eta zenbait intelektual babestu zituen. Haatik, *placards* edo afixen afera gertatu zelarik, Frantzisko I.ak Erreformaren ideietatik urruntzea nahiago izan zuen, nahiz eta Europan zehar hedatzen ziren haize berrietara ireki zen bere erregetzaren hastapenetan, arreba babestuz.

*Placards* izeneko afera, 1534ko urriaren 18an Frantziako hainbat herritan, Parisen ere bai, paretetan hedatu zen aldarrikapen baten ondorioa zen. 1534ko urrian, mezaren aurkako afixak edo kartelak, gau batean banatu edo ezarri ziren Parisen eta probintzian, Orléansen eta Amboisen, non gortea bizi baitzen, baita Bloisko Frantzisko I.a erregearen gelako atearen aurrean ere. Afixa hauek bortxa handikoak ziren, mezako errituei sorginkeria deitzen zieten eta aita santuari, apezpikuei, apaizei eta fraideei gezurrak eta biraoak egozten zizkieten.

Afixa edo kartel horiek Neuchâtel-etik zetozen, non artzain batek, Antoine Marcourtek, inprimarazi baitzituen. Artzain hori, Gilen Farenen ondora joana, Suitzan, errefuxiatutako frantziar talde batekoa zen.

Erreformari lotutako testu antikatolikoa agertzen zen karteletan, historia-lariek behintzat horrela azaltzen dute. Testu hori erregearen logelaraino heldu zen<sup>20</sup>.

Ordu arte Frantziako erregeak eraman zituen kontziliazioak, Karlos V.aren nagusitasunaren kontra eraman nahi zuen kontziliazioa, alde batera utzi behar izan zuen eta errepresioa agindu zuen Erreformaren aldekoen kontra.

Afixen lehen kontu horrek eskandalua sortu zuen, erregea pertsonalki erasotu nahi zela ustea baitzen. Agintariak ohartu ziren protestanteak, lutera-noak, asko zirela eta antolatua zeudela. Berrehun eta hirurehun lagun artean atxilotu zituzten, eta batzuk bizirik erre zituzten. Kartelen egilea, Antoine Marcourt artzaina, ez zuten atxilotu, Neuchâtelen bizi baitzen, Suitzan.

Batzuek uste zuten Elizaren Erreforma instituzioarekiko hausturan bakarrik

<sup>20</sup> <https://www.museeprotessant.org/notice/laffaire-des-placards-1534/>

burutu zitekeela. Beste kristau batzuek, “Ebanjelikoak” zeritzunek bereziki, Eliza barrutik eraberritzen lan egin nahi zuten, Erromarekin hautsi gabe. Frantzisko I.ak babestu egiten zituen azken horiek, parlamentuak eta teologia fakultatekoek kondenatzen bazituzten ere. Gertakaria hilabete gutxiren buruan errepikatu zen, orduan erregearen agintea arriskutan ematen zela erabaki zen goi mailako eremuetan, erregearen inguruan. Ondorioz, Frantziako erregea Elizaren Erreformaren inguruko gaietan aldaketak egin behar zirela erabaki zuen, ordu arte izan zuen jarrera irekian.

Erregearen jarrera aldaketak hondatu zuen *Margaritak* bere anaiarekin zeukan harremana. Zenbait urtez, estatuko politikan ibili zen, baina ondoko urteetan, anaiarekin harremanak gero eta zailagoak ziren, Henrike II.aren eragina gortean ahulduz joan zenez, beste bide batzuk jorratzeko garaia zen, eta Margarita bere senarrarekin, Paristik urrundu zen.

Liburu santuak frantsesera itzultzea onartu eta ahalik eta gehien babestu zituen bere adiskide Erreformaren aldekoak. Hala ere, Etienne Dolet inprimatzaileak, ateismoz eta heresiaz susmaturik, su gainean amaitu zuen. Kalbino Néracen aterpetu zuen eta sentiberatasun erreformatzailea erakusten zuen, baina erregearen gogortasuna gaitzesten zuen, alta katolikoa izaten jarraitu zuen. Erregearen arrebak ezin zuen benetako haustura onartu, baina bere senarraren lurraldean, gortetik urrun egoteak independentzia handia eman zion.

Haren gutunek adierazten duten bezala, Margaritak egonaldi luzeak egiten zituen Mont-de-Marsan, Nérac, Paue edo Cauterets herrietan. Ardura handiak zituen herrialde desberdinetan, albetarrek lurralde zabalak zituzten, eta handik irabazi franko eskuratzen zituzten, baita gastu handiak obren egiteko ere. Bere bizian zehar intelektual askori lagundu zien, bere ondasunetan babestuz baita diruz ere. Mezenasgoa, bere ikuspuntutik ardura handia eta betebeharra zen. European zehar harreman asko zeuzkan eta Erreforma eta Kontrarreformaren garaian ideien mugimendu handi horretan egoerak erraz okertzen ziren, Margaritak babesle ardura izan zuen<sup>21</sup>.

---

<sup>21</sup> *Théâtre de femmes de l'Ancien Régime*. Tome I xvi<sup>e</sup> siècle Marguerite d'Angoulême, duchesse d'Alençon, reine de Navarre (1492-1549). Ed. Classiques Garnier. 2014. 33-36.

Espiritualitatea, gogoetarako bideak, erlijioa, Jainkoarengandiko urratsak, bere bizian toki handia izan zuten. Irakurketa santuak, otoitzak, pobreentzat zuen interesa asetu behar zituen, lurreko ekintza horiekin garaiko pentsalariekin elkarrizketak zituen. Gutun trukaketa inportantea izan zuen Lefèvre d'Étaples-ekin, Briçonnet-ekin, testu Santuen gainean zituen elkarrizketak agertuz. Humanista nagusi batzuk ere, Parisko parlamentuaren, agintearen jazarpenaren biktimak zirenak, bere ingurukoak ziren, hala nola Roussel, Marot, Rabelais, Des Périers eta Berquin (Luteroren itzultzailea). Idazle askok bere gortean babesa aurkitu zuten, han bizi intelektual aberatsa, ikerketa espirituala eramanez. Bizi intelektual horretan sortzaileei bere diruarekin laguntzen zien, mezenasgoa benetan eramateaz arduratzen zen eta horregatik idazleek eskertzen zioten, testuetan aipatuz.

Margaritak ez zuen inoiz Erromarekin hautsi, hau da errealitate zuzena. Kalbinorengandik independentzia atxiki zuela ere azpimarratzekoa da. Elizaren barneko hausturarik ez zuen hobesten, baina Erreformen beharra ikusten zuen. Borroka teologikoetan ez zen galtzen, espiritualitate pertsonala eraiki zuen eta horretara laguntzen zituen poeta, pentsalari eta pentsamenduarengatik erasotuak zirenak, babesten saiatzen zen. Briçonneten bidetik abiatu zen eta mistikarantz egin zuen urratsa. Santa Teresaren bizia ikasi zuen, Jainkoa maitatu nahi zuen, horrela adierazten du Mont-de-Marsanen emandako komedian.

Hala ere, azpimarratuko dugu, Margaritak Nicolas Bourbon (1503-1550), poeta erreformazalea hautatu zuela alaba Joana Albretekoa etxeko irakasle izateko, 1540an. Litekeena da hezkuntzarako ardua hori gogoan izatea alabarentzat, eta garai haietan hezienak, kultur handiena zutenak Erreformatik hurbilago egon zitezkeen. Izan ere, alfabetatzeak eta Erreformatik ibilbide berdintsua zeramaten garai horietan.

Meaux-ko taldea gogoetarako oinarritzko lekua izan zen Margaritarentzat. Ideia berriei buruzko informazioarena aurkitu zuen bertan. 1521ean Etaples-ko Jacques Lefèvre bikarioak sortu zuen, Guillaume Briçonnet apezpikuak eskaturik. Humanista asko elkartzten ziren bertan, eta garaiko idazle ezagunak ere bai, Rabelais eta Erasmo, besteak beste. Elizaren Erreformatik alde ari ziren lanean, Elizaren barnean kultura eskasarengatik kezkatuak. Briçonnet Margaritaren gida espirituala bihurtu zen eta ahalegin guztiak egin zituen printzesak taldea babesteko.

Sorbonako teologiako doktoreek taldea desagitea lortu zuten 1525ean. Elizako autoritateek ideia berrien aurrean jarrera ezkorra zuten, gelditu nahi

zituzten. Beraz, taldea desegitea lortu zuten, baina ideia berriak beste eremu batzuetara pasatu ziren. Bost urteren buruan erregetzaren irakurleak taldea sortu zuten, gaurko *Collège de France* instituzioaren jatorria.

Margaritak arazo asko izan zituen taldea onesten zuelako. Baina bere anaia Italian atxilotu zuten eta Espainiara eraman zuten. Gertakariak bere bizitza erabat baldintzatu zuen, Erreinua erregerik gabe gelditzen baitzen eta erregetzaren inguruan eragin taldeak ez ziren geldirik egon. Anaiaren agintaritza arriskutan jar zitekeen. Garai oso bortitza izan zen Margaritarentzat. Madrilgo bidaia garrantzitsua izan zen, baina anaia bertan utziz itzuli behar izan zuen Margaritak.

Jonathan A. Reid-en arabera (REID 2011: 415-437), Margaritak Madrilera egin zuen bidaia anaia Erreformaren ideietara eramateko baliatu zuen. Erregea preso zenetik, Frantziako gortean eta Luisa Savoiakoaren inguruan zurrumurrua hedatu zen erregea zigortua izan zela Erreformaren ideiei ireki zelako. Zurrumuru horiei erantzuteko nolazpait, Luisa Savoiakoa eta Antoine Duprat (1463-1535) bere kontseilariek jarrera bortitza hartu zuten, eta 1525eko udazkenean erreformisten kontrako errepresio gordina erabaki zuten.

Baina Margaritak jarraitu zuen anaiari esplikatzeko Jainkoak antolatutako purgatorio mota bat antolatu ziola, erregea errebertitzeko bide batera sar zedin.

Horrez gain, Margaritak irudi oso ona zabaldu zuen, bere anaiari ekarri zion osasunbidearengatik, erregearen salbatzaile gisa agertzen zen, eta bere ideia berriak ez ziren aipatzen erregeak osasuna berreskuratu ondotik. Horrela azaldu zuen Margaritarekin bidaia egin zuen Jean de Selvek<sup>22</sup>.

Madrildik itzultzean, Meaux-ko taldearekin harremanetan jarraitu zuen, Clément Marot poetaren defentsa hartu zuen. Clément Marot Margaritaren zerbitzuan zen 1413tik. 1525ean preso sartua izan zen, berantago askatu zuten, erregearen zerbitzuan egon zen ondoren eta idazten jarraitu zuen.

Izan ere, erregeak, bizitza itzultzeagatik, erreformisten kontrako auziak, Meauxko zirkuluan zeudenen aurkakoak, bertan behera uztea arrebari onartu zion. Horrez gain, bere inguruko erreformazaleen aldeko neurri batzuk lortu zituen, Michel d'Arande apezpiku izendatu zuten, bestalde Saint-Paul-Trois-Châteaux herrian, Lefèvre d'Étaples bilakatu zen erregearen haur gazteenen tutore, eta Gérard Rousselek, Clairac-eko abadia eskuratu zuen.

Haatik, 1530. urte arte erregearen bi semeek enperadorearen presondegietan

<sup>22</sup> Jean de Selve au Parlement de Paris, Tolède, 1<sup>er</sup> octobre 1525, Aimé Champollion-Figeac (éd.), *Captivité de François I<sup>er</sup>*, Paris, Imprimerie Royale, 1847, 158.z, 331-333.

jarraitu zuten. Ondorioz, erregeak ezin zuen bere burua gatazka irekian kokatu Elizarekiko, eta arrebak Erreformaren aldeko predikazioen baimentzea eskatu zuelarik, ez zion onartu.

Beste erreformista batzuen laguntzen egon zen Margarita, Erasmok berarekin harremanetan sartu nahi izan zuen, baina ez zion erantzunik eman.

Hala ere, Elizako autoritateek bere fedea eta Elizaren arauen haustea leporatzen zioten askotan Sorbonako teologoek bitartez.

Horrela, 1525etik 1531 arte Margaritaren idazlan guztiak erlijioarekin lotutakoak dira. Horietako asko ez ziren berandu arte argitaratu, baina lau poema luze argitaratu zituzten 1531n, *Le miroir de l'âme pécheresse*, *Une Oraison à N.S.J.C*, *Une oraison de l'âme fidèle*, *Discord de l'ame et de la chair*. Argitalpen horiek sekulako arazoak ekarri zituzten Margaritari, eta horrek konfliktua sortu zion Sorbonako agintariekin. Margaritaren eragina gortean, anaiarekiko hurbiltasunak, printzesa hunkiezina bihurtzen zuen. Bitartean, erregulari errepresioa erortzen zen Erreformaren aldekoen kontra horien artean, Louis de Berquin, legegizona, teologoa, hizkuntzalari, jakintsu handia, Maubert plazan hil zuten bere liburu guztiarekin erre zuten 1529an. Haren obraz ez da deus gelditzen, itzulpen soil batzuk bakarrik. Margarita Nafarroako erregearekin ezkondu zenetik Paristik urruntzen zen, ez zuen lortu Berquin salbatzea, eta horretaz damutzen zen.

Bere liburuak plazaratu ondoren, eraso jasan zuen Sorbonako agintariengandik Margaritak. Erasoak iraun zuen. Gainera aita santuaren babes ere lortu zuen.

Ondoren, bere anaiak erlijioarekin zerikusia zuten gaien ardura eman zion. Frantziako erregeak erreformazaleen kontra ez zuen oraindik jo nahi, izan ere, Erreformak eragin handia zuen Alemaniaren aldean, eta Alemaniaren sostengua behar zuen politikan. Ondorioz, erreformazaleak nahiko lasai aritzen ahal ziren, erregeak Kalbino eta Nicolas Copen kontrako neurriak hartu zituen, baina Kalbino Néracera joan zen babes bila eta Gerard Roussel heresiaz zuritu zuten Margaritari esker.

Ondoko hilabeteetan, Jean du Bellay diplomazialariaren laguntzaz, Margarita saiatu zen anaiaren politika aldatzen. Baina *placards* edo afitxen gertakariak heldu ziren, Eliza katolikoa salatzen zuten testuak ziren, eta meza eta doktrina katolikoaren kontrako aldarrikapen horiek erregearen gelaraino heldu ziren 1534ko urriaren 17ko gauean. Berehala erreformaren aldekoen atxiloketak eta exekuzioak hasi ziren.

Urte hauetan, gortearen barneko indar harreman itzela nabarmena zen.

Margarita gortearen barnean aitortzen zitzaion lekuaz baliatzen zen bere fedea eta bere doktrina berriaren defendatzeko, anaiaren aurrean zuen sinesgarritasunean oinarritzen zuen bere arerioei aurre egiteko gaitasuna. Baina Antoine Duprat kantzilerraren eta Montmorency dukearen eragina oso azkarra zen eta alde bakoitza aritzen zen bere urratsak egiten.

Nonbait Margaritaren diplomaziak, oso aitortua Europako enbaxadoreen artean, norabidea bazuen. Izan ere, Alemaniako eta Ingalaterrako erreformistekin aliantza bat sortzea bultzatu nahi zuen, Erreforma indartzeko European, eta enperadorea ahultzeko. Beraz, bazukeen interesa erregearentzat, eta, horrek esplikatu lezake erregeak zuen iritzi aldakorra Erreformaren aurrean. Horrek erakusten du era berean Margaritaren abilezia eta gaitasuna politikan aritzeko.

Urte horietan guztietan, borroka latza egon zen Margaritaren eta Montmorency dukearen artean, erregearengan zuten eragina indartzeko. Bakoitzak botere eremu horietan eragiteko nahikeria zuen. Interes politiko, ekonomiko eta balio desberdinak defendatzen zituzten, baina boterea zeukana erregea zen. Bi indar politiko desberdinak defendatzen zituzten, aurkariak ziren, bai barne erlijioari buruzko gaietan, bai nazioarteko politikan. Biek zuten erregearen belarria, biek sare zabalak zituzten. Margaritak herra itzela zuen dukearekiko, baina harremanetan jarraitu zuen dukearen bazterketa arte, haren beharra baitzuen, bere ingurukoak estatuaren ardura nagusietan kokatzeko. Eragina horrela irabazten zen. Gutun asko trukatzeko zituzten, nahiz eta elkarrenganako sentimenduak gogorrak izan.

Berrogeigarren urte haietan Margarita Estampes-eko dukesarekin erregearengan eragiten aritu zen, dukesa erregearen maitale ofiziala zelarik. Biak Erreformaren ideiak eta Alemaniarekiko loturak indartzen saiatu ziren, du Bellay anaien laguntzarekin.

Baina Italiako lurraldeen berreskuratzea lehentasun izaten jarraitzen zuen erregearentzat. Enperadorearekin borrokan zebilen Milango lurraldearen berreskuratzeke. Hemen bi ikuspuntu agertzen dira. Margaritaren helburua zen Alemaniako erreformistekin lotura indartzea, horretarako aliatu bat aurkitu zuen Clevesko dukea, enperadorearen etsaia zena. Jonathan A. Reid-ek dioenaren arabera, horretarako bultzatu zuen bere alaba Joanaren ezkontza Cleveseko dukearekin. Ezkontza horrek erregearen oniritzia zuen, Joanak berak sekula onartu ez zuena. Gero, Jourdanen arabera Joanaren burasoak ezkontza horren kontra zeuden. Nafarroako Henrikek, izan ere, ez zuen esperantza galdu alaba Karlos V.aren semearekin ezkontzea Nafarroako lurralde berreskuratzeke.

Haatik, Reidek erlijioa gauak ditu aitzinatzen ezkontza honen esplikatzeko. Egia da Margarita dilema latz baten aurrean jarri zukeela. Dena den, ezkontza gertatu zen. 1543an, alemanekiko lotura hautsi zen Clevesko dukearen porrot militarren ondotik<sup>23</sup>.

Urte bat berantago, Italiako gerla ez ziren bukatu. Enperadoreak, Crepyko ituna izenpetu eta gero, erregeak irabazi lurraldeak itzuli behar izan zituen eta erreformistak zapaldu. Kontzilio bat antolatu zen eta erregeak parte hartu zuen, trukean enperadoreak, bere ahaidearekiko Orléansko dukearen ezkontzaren kariatara, Milango lurraldea eman zuen dotean. Horrek guztiak Margarita porrot handi baten aurrean jarri zuen eta gortetik alde egin zuen.

Margaritak ezin zuen Parisen gelditu, Erreformaren aldeko defentsan aritu zen, Erreforma erregetzatik bultzatzeko politika baten alde agertu zen. Errepresioa bortitza zen. Herritar asko horren alde zen. Une oso gogorra zen, bere pertsona hunkitzera menturatu ez baziren ere. Alde egin behar zuen, senararekin hegoaldera abiatu zen.

Lehen aldian, 1540tik 1542ra, eta, bigarrenean, 1545etik 1547ra urrundu zen gortetik. Bigarren aldian ez zuen anaia gehiago ikusi, anaia hil baitzen Parisa itzultzeko denborarik izan gabe.

Erreformak bere bidea jarraitzen zuen, baina Margaritak gero eta eragin gutxiago zuen bere lagunak babesteko. Errepresio bortitza zen, eta jende asko joan zen kanpora. Ondoko urteak larriak izan ziren gatazka asko izan baitziren, eta Margarita bere etxearen babesa segurtatzen ari zen. Ardua handiak zituen eta behar material asko bere mundua babespean atxikitzeko. Gero eta gehiago idazten zuen, eta gortetik urrun igarotzen zuen denbora.

Erreformako pertsonarik ospetsuenekin elkartu zen Margarita, goi mailako politikan ibiltzen baitzen. Erasmo, Erreformako pertsona handia, erreginarekin harremanetan jarri zen. Hemen ekartzen dugu horren lekukotasuna. Gutuna latinez idatzia zen eta euskaratu dugu. Gutun horri erantzunik ez diogu aurkitu. Pentsa daiteke urte haietan, 1525ean, Margaritak ez zuela harreman zuzenik nahi Erreformako arduradun nagusiekin. Kalbinorekin desberdin jokatu zuen, harekin harreman hurbila izan zuen eta babesa ere ekarri zion.

## **2.2 Erasmoren gutuna Margarita erreginari**

<sup>23</sup> 1543ko irailaren 7an Venloko Itunak amaiera eman zien Guillaume de Clèves frantsesak Karlos Varen aurka zuzendutako Guellerko gerrei. Lurraldeak enperadoreari itzultzen dizkio, Frantziako erregeak enperadorea ahultzeko dukearekin sortu aliantza ahulduz.



Erasmok Europa osoko agintari guztiakin harremana zuen. Eragin handiko pentsalaria izan zen eta Europa osoan zabaldu zen Erreformaren oinarrietan aipatzen da. Margaritak ere harremanak zituen Erasmorekin, eta hona hemen Frantziako Liburutegi Nazionalen aurkitzen den gutun baten itzulpena, Karlos Otegi irakaslearen laguntzarekin egin dena.

ERASMO ROTTERDAMGOAK MARGARITA NAFARROAKO  
ERREGINARI AGUR<sup>24</sup>

Zure bertuteen miresleek adoretu naute beren eskutitzekin, behin baino gehiagotan, zoritxarren ekaitz honen erdian, kontsolamendu moduan, zure gorentasunari zerbait idatz niezaion. Horrela bada, nola gutun horiek erakusten dituenak, gizon jakintsu eta prestuak, aurreikuspen guztien aurka, bere burua Espainiara zuzenean abiatzeko eskainia duen, eta, beraz, hemendik berehala desagertzeko prest jarria den, nire baitan zalantza egin nuen ea zer izango ote zen hobe, erabat isilik gelditzea ala gutun labur eta lardaskatua zuri bidaltzea. Azkenean, zuri benetan dizudan afektu bereziak lotsa eta zalantza hauek garaitu ditu.

Aspaldidanik, zinez, miretsi eta maite izan ditut zuregan ageri diren Jainkoaren hainbeste dohain bikain: filosofo bati ere guztiz dagokion zuzentasuna, eratasuna, neurritasuna, errukia, espirituzko sendotasun hautsezina eta gauza iragankor guztiak nola nolabaiteko gutxiespen miragarria. Izan ere, nor ez legoke prest ederresteko Errege handiaren arrebarengan dohain hauek, apaizengan eta monjeengan ozta-ozta aurki litezkeenak? Gauza hauek ez nituzke inolaz ere nabarmenduko, ez banu ziurtzat edukiko zuk ez diezula horietako ezer zeure indarrei egozten, baizik eta laudorio osoa Jaunari, on guztien emaileari, bihurtzen diozula. Beraz, eginkizun hau gure gain hartzen dugu, kontsolatzeko baino zoriontzeko ahaleginaz. Aitortzen dut gaur egun kalamitatea sekulakoa dela, baina giza gorabeheretan ez dago ezer, lazgarriena izanda ere, Jesukristo den harkaitz mugigaitz hari egiazki atxikitako espiritua eroraraziko duenik.

Galdetuko bazenit nondik ezagutzen zaitudan inoiz ikusi ez zaitudalarik: irudikatutako zure gorentasunaren imajinaren bidez ezaguna zatzaizkie zu ikusteko aukerarik izan ez duten askori; eta gizon prestu eta jakintsuek, beren gutunetan, niri zure espiritua irudikatu didate era askozaz adierazgarriagoan edozein margolarik koloreen apaindurez zure gorputzaren

<sup>24</sup> Gutunaren datan, 1525ean, Margarita ez zen oraindik Nafarroako erregina. Alençongo dukesa baizik. Margarita 1527an bihurtu zen erregina, Henrike II.a Nafarroakoarekin ezkondu zenean. Gutunaren izenburu hau editorearena da, eta alde horretatik ez da zehatza.

irudia adierazi ahal izango zukeen baino. Ez dago inolako motiborik nire egiazko leialtasunaz zalantza egin dezazun; ezaguna izango bazintzaizkit bezala goratzen eta estimatzen zaitudan moduan, modu berean ere ez zaitut onesten preseski boteretsua izateagatik, elkarrekiko maitasuna besterik ez baitut lortu nahi. Duela asko jada, Errege txit kristaua ez soilik maitatu baizik eta elkarrekiko maitasunaz ere ordaintzen nuen, horrenbeste moduz elkar maitatzera bultzatu baitzuen. Halako dontzeila, halako andre heroia, ezin dut ez maitatu, agintzaile nagusi bat izanik ere.

Zesarri ez bakarrik adeitasuna, begirunea ere zor diot egiazki, eta hau ez arrazoi batengatik soilik: lehenik, haren eskumenaren pean jaioa naizelako; gero, duela urte batzuk jada, haren zinpeko kontseilari naizelako. Oxala lortu izan balu Turkoen gaineko garaipen hau! Handia izango zen munduaren zoriona munduko bi errege nagusiek, gogoz bat eginik, beren armak batu izan balituzte kristau gobernuaren etsaien aurka! Irrika suharrez desiratzen genuen hori, baina, nire iritziz, gizakien bekatuek egin zuten aurka Jainkoak guri mesede horrekin doha gintzan. Honenbestez, ezin izan dut zoriondu bihotz-bihotzez nire Zesar garaipenarengatik, bikaina izanik ere; baina bada itxaropenik uste izateko hemendik gutxira zorigaiztoko asaldura honengatik, berdin nondik sortuko den, zorionduko dugula ez gutxiago zuek eta zuen Galia Zesar baino. Bera da, gizakien gorabeherak ezkutuzko erabakiz gobernatzen dituen ekintzaile bat, eta ez gutxitan lurarren zoritxarrak, baita etsipenezko egoeretan ere, bat-batean irtenbide pozgarriak bihurtzen dituena. Itxaropen hau niri ematen didana da, aurrenik, uste dudanez gure aldeko jarri den Jainkoaren errukitasun eskuragarria; ondoren, alde batetik, Zesarren adimena, zeinen ontasunak fortunaren beraren handitasuna berdintzen edo gaingitzen duen; bestetik, Errege txit kristauaren trebetasun miragarria. Are gehiago, uste osoa dut dagoeneko euren artean adostasun sendo eta altzairua bezain hautsezinari abiarazi zaiola.

Espainiarako irteera prestatzen ari zen bitartean, zure gorentasunak Poloniako herritar ospetsu Joana Lascori bidalitako gutunek nire itxaropena bermatu dute. Hau, hain zuzen, nirekin bizi da, etxe berean, eta adiskidetasunaren kariaz, gauza guztiak harekin amankomunean ditut. Gutunek adierazten zuten, hain zuzen, ez bakarrik jasaten zenuela patuaren zoritxarra ezin hautsizko adorez, baizik eta, nahiz eta zantzu oneko zenbait hitzez, nire kezka ere berriztatzen zuten.

Hemen, barkamena eskatu beharko nuke bi arrazoiz: lehenbizi, ausartu naizelako horrelako andre ahaltsuari libreki idaztera; gero, itsumustuan egin dudalako, jatorri apaleko adiskideak adiskide bati hori egitea bere buruari

doi-doi barkatzen diona. Baina nahasmendu hau guztia nire espiritutik kanporatu badut, zure bihotzaren humanitate harrigarritik jaiotako uste onari esker izan da.

Goarde zaitzala Jesus Jaunak kalterik gabe, eta beragan mota guztietako ondasunez lora zaitzezela.

Basilean emana, Mikelen bezperan, 1525. urtean.

### 3. NAFARROAKO ERREGE-ERREGINAK NÉRAC HERRIAN

Pierre Felix Ducasse (1844-1904), kazetaria eta artzaina, errepublikanoa, politikan ibili ondoren, Nafarroako errege-erreginei buruzko liburua idatzi zuen eta han kontatzen zuen nolako bizia zeramaten Nérac-en (DUCASSE 1862).

Lehenik liburuaren idazlea bera nor den adieraztea ohargarria da. Izan ere, P. F. Ducasse, gaztaroan ideia ezkertiarrekin lotzen da, eta ideia horienatik preso egon zen behin baino gehiagotan. Baina, hogeitun urtetan, Teologiako ikasketak hasi zituen eta artzain bilakatu zen. Suitzian eta Belgikan ibili zen artzain. Nérac herriak eta bertan Nafarroako errege-erreginak egin zituzten egonaldiak interes berezia sortu zuten bere familiaren historiarenatik segurki. Izan ere, kazetari izan zenaren burasoak Nérac herrian bizi izan ziren, hor ezkondu ziren eta P. F. Ducassen aita ere artzain izan zen Néracen. Familia Erreformari atxikia zen. Idazlea politikari lotuta jarraitu zuen Genevan ere, baina Albret errege familiarentzat interes berezia izan zuen eta XIX. mendean Nafarroako familiari buruz idatzi zuen testuan informazio mota berri bat eskaini zuen. Zaila da segurtatzea informazio iturria, baina pentsa daiteke Nérac herrian Nafarroako familiaren memoria mantendu zela.

Testuaren lehen argitalpena *Le journal de Nérac* aldizkarian egin zen 1862an. Aldizkaria 1834. urtean agertu zen eta Frantziako Liburutegi Nazionaleko iturriaren arabera 1914an desagertu zen.

Hemen baliatzen dugun iturria da testuaren bigarren agerpena 1862koa ere, 1863. urtea ere agertzen da liburuaren hastapenean.

Bi argitalpen izen ziren beraz liburua irakurri zen, arrakastaren mentura sortzen du.



Iturria: Wikipedia

Kultura handiko gizona zen autorea, ikasia, borrokatua, bizi esperientzia zabalekoa, hautu politiko azkarrekoa, nahiz eta batzuetan herri desberdinetan, eta latzetan ibili zen.

Margaritaren bizitzaren aurkezpena egiten du, Frantziako gortean izan zituen ibilbideak aipatzeko. Mugarritzat du Ducassek *l'affaire des Placards*. Margaritak oreka galdua zuela Parisko gortean, anaiaren sostengurik ez zukeela eta ondorioz, bere eremuetara itzultzea erabaki zuela agertzen du.

Bestalde, Margaritaren bigarren ezkontza ez zela egokia izan dio, senar-emazteen arteko adin desberdintasuna azpimarratzen du, Margaritaren aldetik ez du maitasun ezkontza gisa aurkezten, onarpen gisa baino. Egia errateko maila horretako ezkontza ere ez zen usaiakoa garai hartan. Nafarroako Henrike bera gaztea, goxoa, bere herritarrentzat ona, gerlari fina eta tratuan leiala, hau da erregearen potreta, Ducassek Karlos Varen goresmenezko solasa ekartzen du: “Gizon bakarra ikusi dut Frantzian, hau da Nafarroako erregea!”. Ez zen solas makala Europako errege handienaren ahotik ateratzen baitzen. Errege-erreginak eremu oso zabala zuten haien agindupean, Frantzia hegoaldeko eremurik zabalena. Bestalde, Henrike Guienako gobernadore izendatu zuen Frantziako erregeak. Ardura inportantea baina gortetik urrundua. Hala ere, Henrikek zituen ardurentzat, gobernadore tituluak diru sartze ona zen.

Margarita eta Henrike Nérac herrian kokatu zirelarik bertako herritarrekin ekonomia garatu zuten, laborantza bultzatu, eremuak antolatu. Herritarrekin harremana ona zen, eta jauregia handitu zuten.

Bultzatu zituen ideien lerrotik jarraitu zuen Margaritak eta zazpi puntuko meza ematen hasi ziren. Zazpi puntu horien artean, apezek ezkontzeko eskubidea zeukatela agertzen zen. Nérac herrira Erreformarengatik arazoak zeuzkaten herritar asko hurbildu ziren, askotan eliteko jendea zen eta ahalmen ekonomikoak, ezagutzak bertaratu zituzten. Eskolak ireki zituzten eta kanpotik etorritako hainbat gaitako irakasleek jakitateak zabaldu zituzten. Parisen Margaritak errezibitzen zituen lagunak Nérac-era etortzen hasi ziren, Clément Marot<sup>25</sup> poeta lehena. *Egiazko Parnasse* gisa ezagutzen zen jauregia, herritarren artean. Margaritak Marot bere zerbitzarien artean hartu zuen, ordurako 1534an, Marot, polemika askotan sartzen baitzen publikoki, neurri gutxi hartuz, hitza apaldu gabe, hortaz Margaritak joan behar izan zuen arazotik ateratzera. Orduz geroztik Marotek *Aliantzako arreba* izena eman zion Margaritari. Marotekin batera beste idazle batzuen Margaritaren izena aipatu zuten haien lanetan, ematen zien laguntza eskertzeko, Des Perriers, satira egilea, Gruguet eta Desmoulins literatur egileak, Jean de La Hay eta askoz gehiago, izena utzi ez zutenak. Jakintsua zen Margarita, kultura handikoa, hizkuntza zaharrak ezagutzen zituen eta modernoak ere bai, ingelesa, italiara, gaztelera eta alemana.

Hemen, Ducassek Margaritaren inguruan sortu zen gorte txikiari buruzko hainbat argibide ekartzen digu. Izan ere, intelektual asko, poeta, idazle, aditu eta enpresari andana bildu zen erreginarengatik, eta horrek Margaritaren maila erakusten zuen, baita gaitasun ekonomikoa ere materialki asko lagundu baitzituen. Henrike errege txiki bihurtua zen, erresuma eskapatzen zitzaion, akordiorik ez zuen lortzen inorekin, zuen jatorria eta izena berreskuratzeko. Henrike senarrari esker erregina titulua lortu zuen Margaritak, jatorri zaharreko erregetza, baina ahalak galduak zituen. Aldiz, anaiari esker ahal handiak zituen Margaritak, baliatzen zituen bere ikusmoldea, eta ideiak bultzatzeko. Hori guztia ez zen, dirudienez, beti Henrikeren gustukoa, Margaritak itzal egin ziezaiokeen nobleziaren munduan eta hori kudeatzea zaila zitekeen. Marotek erreginarekin erakusten zuen hurbiltasuna jasanezina zitzaion erregeari.

---

<sup>25</sup> Clément Marot (Cahors, 1496 - Turin, 1544) frantses poeta izan zen. Pleiadearen aitzindaria, Frantzisko I.aren gorteko poeta garrantzitsua da. Margarita Nafarroakoaren babesa izan arren, erregearen arrebarena alegia, Erreformarekiko bere loturarengatik hainbat espetxeratze eta bi erbeseratze bizi behar izan zituen.

Philippe Melanchthon<sup>26</sup> ere, Luteroren laguna, Néraceraingo jautsi zen bi-daiatzeko zuelarik jauregiko lurraldeetan zehar, haren alde ere egin baitzuen ere Margaritak. Joan Kalbinok<sup>27</sup> berak egonaldia egin zuen Nérac-en, Margaritak aterpea eskaini zion hasi zuen ihesaldian. Han 1533. urtea iragan zuen. Herri-tarrak luzaroan oroitu ziren Kalbinoz, eta kontenplazten egoten zen guneari “Kalbinoren prediku aulkia” izena eman zioten. Etienne Dolet<sup>28</sup> egon zen eta Parisa itzuli zen. Ez zuen beste askok bezala zortirik izan eta heriotza zigorra jasan zuen, erre egin zuten.

Jacques Lefèvre d'Étaplesek, Erreformaren aldeko lehen dizipuluetako bat izan zenak, jazarpena jasan behar izan zuen, baina Margaritaren babesari esker, heriotza zigorra saihestu zuen. Liburuzaina zen Blois herrian, eta Margaritak Néracera etortzea proposatu zion, errepresioa gero eta bortitzagoa zelako Bloisen, eta han ez zuelako arriskutik kanpo ikusten. Horretarako, Montmorency<sup>29</sup> boteretsuari, erregearen laguntzaileari, Lefèvre d'Étaples bereganak ekartzea eskatu zion. Onartu zitzaion, eta teologoak azken urteak Néracen pasatu zituen, bertan hil zen 1536an. Nérac-en lurperatu zuten, baina erlijio gerlen garaian bere hilobia irekia, xehatua eta gorputza sakabanatua izan zen.

Erreformaren ideiak zabaltzen ari ziren eta erregearen erabakiak unean uneko interes politikoen arabera izaten ziren. Dena den, suak maizago izaten ziren, eta gero eta jende gehiagok ihes egiten zuen. Henrikek ez zuen bortizkeria guztia begiratzeko, ikusten zuena zen Erreformaren ideien zabaltzean erreginak parte hartzen zuela. Hori jasateko gero eta zailagoa zitzaion. Margarita inguratzen zuen gortearen aurrean oldartzen zen, horrenbeste maitasun erreginarekin inguruan<sup>26</sup> Teologian doktorea, unibertsitateko irakaslea, Martin Lutherren dizipulua, Melanchthon (1497-1560) ezaguna da batez ere, 1530ean *Augsburgoko Konfesioa* idatzi zuelako. Gainera, grekotik sortutako psikologia hitzaren sortzailea da.

<sup>27</sup> Jean Calvin, jaiotza-izenaz Jehan Cauvin (1509-1564), frantses teologoa izan zen, erreformazailerik garrantzitsua eta XVI. mendeko Erreforma protestantearen artzain adierazgarria, batez ere Erreformari kalbinismoa deritzon doktrinarekin egindako ekarpenagatik. Kalbinok Erromako Eliza katolikoarekin hautsi zuen 1530. urte inguruan. Gerora Frantzia “protestanteak” deituko diren kontrako jazarpenen ondorioz, Kalbino Suitzara babestu zen, eta han argitaratu zuen bere obra nagusiaren lehen edizioa, *Erljio kristauaren Instituzioa* 1536an.

<sup>28</sup> Étienne Dolet (1509, Orléans-1546, Paris) frantses idazlea, poeta, inprimatzailea, humanista eta filosofoa izan zen, Galien, Rabelais, Maroten testuak argitaratu zituen. Bazekien zer ondorio ekar zezakeen horrek.

<sup>29</sup> Montmorencyko etxea Frantziako nobleziaren familia bat da. Anne Montmorencykoa (1493-1567), Frantziako mariskal eta kondestablea (1537), Languedoc-eko gobernadorea, Italiako gerretan ilustratu zen, eta XVI. mendearen hasieran aginte lekuetan zegoen, erregearen fabore eta matxinada irekien artean nabigatuz. Frantzisko I.a erregearen lagun mina izan zen.



Iturria: <https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/merimee/PA65000011>

ez zuen gustuko. Horrez gain, Henrikek bere erresumaren berreskuratzeko gogoia bizirik zeukan, eta Erreformatik hurbil egotea ez zitzaion interesatzen. Ez zuen Eliza katolikoarekin gatazkarik nahi, izan ere gerla edo diplomazia erabiliz gero, Elizaren kontra joateak ez zion lagunduko bere helburua betetzen. Erreginarekin haserreak gero eta maizago gertatzen ziren. Pierre de Bourdeille, Brantôme ezizenez<sup>30</sup>, Margaritaren gortean haurtzaroa pasatu zuen idazlearen kontakizuna azaltzen du Ducassek. Brantôme dio, Ducassen arabera, Henrikek gaizki tratatzen zuela erregina, eta ez zela urrunago joan Frantziako erregeak berak agindu ziolako bere andrearen maila, bere arreba ohoratzea. Etxeko giroarekin jarraituz, anekdota bat kontatzen du, egun batez Erreformako ministro bat Margaritaren gelan zegoela jakin zuela Henrikek, eta haserre gorrian joan zen gelaraino, baina Margaritak denbora izan zuen ministroa ezkutatzeko. Henrikek bere haserrea erreginaren gainean erorarazi zuen eta zartako eman omen zion erranez: “Anderea, sobera jakin nahi duzu!”.

Erregeak gertakaria jakitean, berriz ere Henrikeren kontra jo zuen, eta

<sup>30</sup> Brantôme Bourdeillesen jaio zen 1537 inguruan. Pierre de Bourdeillen amonak, Ludeko Louis-ek, Frantzisko I.aren arrebaren gortean ohorezko dama gisa jardun zuen. Historialaritzat hartzen ez bada ere, Brantômen XVI. mendeko kronikek bere garaiko ikuspegi bizia ematen dute.

ondotik Henrikek Margarita bakean utzi zuen.

Erreformaren alde Margaritak egiten zuen lanak oihartzuna bazuen, ondorioz Frantziako erregeak, Sorbonako eraginpean, epaiketa antolatu zuen bere arre-baren kontra. Parisera arreba deitu zuen epaitua izateko. Epaiketan zeuden epai-leak aitzinetik ongi hautatu zituen erregeak, ahalik eta arrisku gutxien egon zedin. Epaiketa horretan Margarita katoliko zintzo gisa mintzatu zen eta Sorbonako erlijio katolikoaren epaileek ez zuten helburua lortu, alegia, Margarita zigortzea.

Epaiketa bukatu eta Margarita Nérac-era itzuli zen eta ordu arte egin zuen lanarekin jarraitu zuen.

1545ean, Frantzisko I.a, Frantziako erregea, hil zen, eritasunak eramanda. Margaritarentzat bihozmin handia izan zen. Ama galdua zuen eta gero anaia. “Trinitatea” urrun zegoen. Orduz gero, Margarita pena handiz bizi izan zen, eta lau urte berantago hil zen Odooseko jauregian.

## 4. AZKEN BIDAIA

### 4.1 Margaritaren azken hilabeteak

Felix Arthur Hermann Handlerecht Frank, goitizenez Felix Frank, frantses idazlea zen eta Margarita erreginaren azken bidaiari buruzko liburua idatzi zuen (FRANK 1897). Hortik dakigu erreginak azken bidaia egin zuela mendira eta Causeretseko bainuetara 1549ko udaberrian eta udan. Bidaia horretan bere alaba Joana berarekin egon zen, aste batzuk pasatu zituen berarekin. Joana orduan ezkonberria zen, 1548an, hilabete batzuk lehenago, Antonio Borboikoarekin ezkondu zen.

Joanak bidaia utzi zuen bere senarrarengana itzultzeko, eta horrek bere ama triste utzi zuen. Ondoren, gutun batzuk elkar trukatu zituzten biek, M. A. Lefrancek argitaratu zituenak.

Ezkontzaren inguruko ospakizunetan ez zuen asko gozatu, bere buruaren kontra joaten baitzen. Baina, denboraren poderioz, bere alabaren zorionak hunkitu zuen, ezkontza onartu zuen eta ezkontza horretatik sortuko ziren umeak goaitatzen zituen. Margaritak ama, anaia galdu zituen, ardura handiak zeuzkan oraindik, baina bere alabaren falta sumatzen zuen. Margarita triste gelditu zen. Sekula baino gehiago itzuli zen Jainkoarengana, kontsolamendu bila.





Iturria: <https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/merimee/PA65000011>

Segituan idatzi zion alabari, harenganako eta senarrarenganako maitasuna adieraziz. Gutxi bizi izan zen alabarekin, eta harremana ez zen beti erraza izan ama-alaben artean. Baina bereizketa horren ondotik amarekiko alde zuen errespetu handia erakusten dute Joanaren gutunek. Joanak azaldu zion maite zuen senarrarengana joana zela, baina senarra ez zuen berehala ikusi, erregeak bere ondoan nahi baitzuen. Izan ere, erregeak ingelesez kontrako ekintza bat abiatu nahi zuen Boulogne herria berriz hartzeko. Beraz, Joana Poitiers aldera abiatu zelarik horren berri izan zuen eta ondorioz aitarekin gelditu zen Pauen.

Azken hilabeteak gero eta korapilatsuagoak ziren, Henrike Albretakoa enperadorearen aurka zituen proiektuak ez ziren Frantziako erregearen gustukoak eta Boulogneco gudua ondotik erregeak hori adierazi zion Antonio Borboikoari. Ondoren, azken hau, Henrike II. arengandik urrundu zen.

Abuztuaren bukaeran, Margarita Pauera itzuli zen eta ondoren Bigorrako Odo herriko jauregira abiatu zen. Parean horrenbeste maite zituen Pirinioak ikusten zituen. Azken urteetan gustukoa zuen jauregian zendu zen 1549ko abenduaren 21ean. Bere ondoan, azken uneetan Gilles Caillau fraidea egon zen. Fraide katolikoa zen, baina Erreformaren ideiak zabalduak ziren inguru haietan. Denbora horretan Henrike Parisa joana zen, abendu erdialdean, eta ez zen tenorez heldu, ez zen Margaritaren ondoan egon azken uneetan. Ingurumen ederrean iragan zituen baina bihotza triste. Azken uneak alaba eta senarra urrun zeudelarik heldu ziren. Senarrak Leskarreko elizan hileta handiak antolatu zizkion 1550eko otsailaren 10ean.



## 4.2 Margaritaren eta Joanaren arteko azken gutunak, euskaratuak

Azken hilabete horiek nola iragan ziren lehenagotik ere aipatu izan da, Abel Lefranc-ek (1863-1952), erreginaren azken poesiak, Frantziako literatura historiaren elkar-teak argitaratutako liburuan<sup>31</sup> idatzi zuen aitzinsolasean, elkar-teko idazkari nagusi gisa. Guk liburua Frantziako Liburutegi Nazionalak sarean jartzen dituen dokumentuetan kontsultatu dugu. Société d'Histoire littéraire de la France argitaletxeak 1896an, azken une horiei buruz azalpenak emanez, Margarita erreginaren azken olerkiak plazaratu zituen. Ordu arte olerki horiek ez ziren inoiz argitaratu eta Margaritaren eta Joanaren arteko azken gutunak ditugu. Zazpi gutun dira, Cauterets utzi eta, amaren eta alabaren arteko gutun trukaketa. Bertan bi antzerki ere plazaratu ziren, hemen lantzen ditugunak, *Eria* eta *Erregearen beriotzaren komedia*.

Gutun horiek ez dute data zehatzik, Abel Lefranc-ek nolabaiteko erreginaren biografia egiten du eta gutun horiek plazaratzen ditu, hemen horien itzulpena eskaintzen dugu.

*Les dernières poésies de Marguerite* liburuan agertzen diren hurrenkera berean plazaratzen ditugu gutunak hemen.

Horrez gain, erran behar dugu liburuan amaren eta alabaren arteko zortzi gutun daudela dirudiela, baina lehen gutuna ez da agertzen. Ondorioz zazpi gutun baizik ez ditugu itzuli.

Gutun horiek Margarita eta Joanaren artekoak dira. Margaritarentzat une zail batean idatziak dira. Izan ere, Margarita bakarrik gelditu baitzen mendian. Bere alabarentzat aldiz garai ederra zen, berriki ezkondua, senarraz maitemindua.

Margaritak alabaren urruntzeak sortzen zion melankolia kontatzen zuen gutun horietan eta denbora berean ulertzen zuen alaba, alaba bere ondoan gordezko era bat ziren gutunak.

Alaba denbora gutxi bizi izan zen amarekin, eta hurbiltasun handia ez da gutunetan sumatzen, baina bien arteko atxikimenduaren lekuko dira, bakoitzak bere bizia eraman behar duelako, zereginetan murgildu behar duelako, bizi pertsonala alde batera utzi behar da. Penak idazten ahal dira neurri batean, eta horretan jarduten du Margaritak. Joanak bide latzagoa bizi izan zuen, baina amak zuen idazteko beharra ez zuen erakutsi, nahiz eta horretan ikasia izan.

Gutun hauek une berezi baten lekuko dira. Margaritarentzat azken hilabeteetako gogoeta baten emaitza, alabarekin lortzen duen elkarriketarena.

Lehen gutuna, liburuan bigarrena.

<sup>31</sup> M. de NAVARRE. *Les dernières poésies de Marguerite de Navarre*. Paris. Ed. Armand Colin & Cie. 1896. 572. or.

[I]

## NAFARROAKO ERREGINAREN GUTUNA PRINTZESA ANDEREARI<sup>32</sup>

Gure agurrarentzat, ez errana baina sentitua,  
 Zeruak ez du negar egitea onetsi,  
 Zeren oinaze estalia ikustean  
 Bere euria berotasunez estali du,  
 Negar egitera erori gabe euritu gabe,  
 Gure begiak negarrik gabe ikusi ahal izan dituen.  
 Baina orai gure begiak bere objektua (helburua) galdu duen  
 Negarretan erortzera eramanen ez zuena  
 Kotsolamendua ez duen bihotzak  
 Maitasunez betetako begiradaz,  
 Urriki handiz harritzera ekarria,  
 Hainbeste argitzera eta karraskan aritzera  
 Zerua, atsesa lehertua erakutsiz  
 Atean xahutua utzi ninduen.  
 Ortzantza nire garrasiekin bat etortzen da,  
 Nire hasperenen bitartez haizeak gerla egiten du denetan,  
 Eta nire eresiak eta auhena  
 Babazuza zirrara egitera behartu zuen.  
 Gutxiago arranguratzen eta nardatzen nauen gaizkia,  
 Euria ekartzen duen negarra.  
 Min guztietan negar egiteak baita txikiena,  
 Eta handiena da gorde nahi dena.  
 Negarrak bihotz alai eta sanoei min egiten die,  
 Baina sufritzen duenari ogitzat balio dio;  
 Zeren mina negarrekin ez bada arintzen,  
 Bederen eztitua da.  
 Alta, zeruak aitorpena egin du  
 Estali eta pasio zuzenaz  
 Partitze horretan sentitu dudana.  
 Zu ikustean, ez nuen sentsazioa,  
 Baina orai ez zaitudala ikusten,  
 Jainkoari erratera noa gainerakoa,  
 Otoizka noa denetan dena izan dadin zurean  
 Zati guztietan nire baitan sentitzen zaitudan bezala

<sup>32</sup> F<sup>o</sup> 58 eta ms.883, f<sup>o</sup> 32.

## [II]

## MADAME A LA ROYNE

Andereak erreginari<sup>33</sup>

Nire begiak, malko gehiegi isurtzea beldurturik  
 Nire ezpainetan abiatzera ederki menturatu dira,  
 Negarra eta agurra debekatuz,  
 Faltan botatua den lekuaz abiatzean.  
 Baina orai begia lasaitua delarik,  
 Erraza ez baita jakin ezazu  
 Eskuak atxiki nire bihotzean hobesteko,  
 Zeinek ezin duen gaizki horretaz kontentatu,  
 Agurrik eta prediku kartsurik gabe,  
 Eskuak nire hitza ordezkatu duen lekuan,  
 Oinazea sobera mingotsa adierazteko  
 Zer sentitzen du alabak ama agurtzean,  
 Osotasunaz hitz egitearen indarra galduz,  
 Hain tratatua horrenbeste nasaitasunaz  
 Negarrak, begietatik hurbil hurbilak ateratzeaz.  
 Zeini, tamalez, ezin nion onetsi,  
 Zure atsekabearen beldurrez,  
 Banatzearen agurra erranez.  
 Alta, erregutu egiten dizut atsegina izatea  
 Agur hau izan dadila mihian ezin eramana  
 Irakurtzen ahal izan dezazun eta ez entzun.  
 O zati gogorra dastatzen neketsua  
 Zuri eta niri! Amaren maitasuna,  
 Mugarik gabe hain krudela izanen zaidana,  
 Ezin du agur triste honen hitza jasan!  
 Ezin dizut, Anderea, deus eskaini:  
 Zurea naiz eta zure indarrean,  
 Segurtatua izan obedientzia hori,  
 Zor dizudana, ongi errespetatuko dudala  
 Nire eginbidea horretan beteko dudala  
Suplikatuz biziki umilki, Anderea,

<sup>33</sup> F<sup>o</sup> 58 v<sup>o</sup> eta ms.883, f<sup>o</sup> 32 v<sup>o</sup>.

Nire gorputzaren eta arimaren osasunarentzat,  
Zure grazia onean egotea;  
Zeren bertan toki ona ukaitea segurtatuz,  
Zoritxarrik ez eta gaizkiri ezin dut errezibitu,  
Ez bada daukadana zu ez ikusteagatik.  
Alta, entzun ezazu, Anderea, pairu handia  
Sentitzen dudana etxe honetan,  
Zeren bi amodio niretzat bakarra izan zena  
Bietan sentitzen dut, batek nardatzen nau  
Pazientzia presentatuz  
Plazer atsegina aginduz  
Eta senarra berriz ikustearen plazera.  
Baina zer! Nire bihotza oraindik sobera ezkondua  
Ezin du ez onartu,  
Zeren betebehar naturalaren maitasuna  
Azkar sentitzen dut, bestea onartzen badut  
Sekulan, bat batean baztertzen dut.  
Batean, nire begia negarrez sentitzen dut, gero irriz,  
Baina, martirio honen bukaera ez da  
Jarraituko du, bukatu gabe  
Artezia hartzen dudana arte  
Zuregana itzultzeko arduraz.  
Orduan, absentzia samurra ahantziz  
Poza eta plazerera jasoko ditut  
Eta nire desio perfektua izanen dut  
Elkarrekin aita, ama eta senarra ikustea.  
Orduan nire bihotza sufrimendurik gabe geratuko da.  
Beraz, egun zoriontsuaren esperoan  
Adorerik gabe inguratua  
Beti zu ikusteko irrikan egonik  
Jainkoari otoiz eginez zu bizirik begira zaitzan.

## [III]

AUTRE DE MADAME LA PRINCESSE A LA ROYNE<sup>34</sup>  
Erreginari Printzesa Anderearen beste gutuna

Goiz honetan, Anderea, errezibitu dut  
 Atsegin handiz zure gutuna ederki irakurria,  
 Baina agurra gogoratuz.  
 Enegu askori zinez bide egin dut,  
 Eta zerua euri egiteko luzatzen bada,  
 Begietan malkoak izaten ikusi aitzin,  
 Erranen dizut zergatik hori gertatu zen:  
 Agurtzean Jainkoa zain zaitzala<sup>35</sup> batez gogoratu nintzen  
 Nire negarrak ber sortu zituenak, baina hala ere  
 Nire bihotza ez pozik ez zuen ezabatu  
 Enegu gogor hori orai arranguratzen nauena  
 Gogoa beste nonbait atzematen zintuztedan bitartean,  
 Atzo gauean pleinitzen hasi nintzen;  
 Orduan Jainkoak nahi izan zituen argizagi eta zerua behartu  
 Zuri adierazi nire mina eramaten zaila;  
 Haizea bildu zuregana eramateko,  
 Nire dolu ezin eramana nire auhen altuak.  
 Hala nola izan nuen zerua lagungarri,  
 Haizea lasterra eta arina nahi izanik,  
 Nik baliatuz, zure mezulari izan,  
 Nire auhena zure belarrira helduz,  
 Paregabeko nire oinazea non atxikitzen nauen.  
 Alta, nire gutun luzearengatik beldurrez  
 Sentiaraziko dizula berriro  
 zure enegua, hain azkarra jasateko,

<sup>34</sup> F<sup>o</sup> 59 v<sup>o</sup> et ms. 883, f<sup>o</sup> 35. Cette lettre est évidemment la réponse à la lettre II.

<sup>35</sup> I48. orrialdean azpimarratzen den Jainkoak zain zaitzala (Dieu Gard) Marot poetak sortu forma bat da, iraun duena frantses poesian, Gard horrek E bat behar luke baina ez da zalantzan ematen subjunktiboa dela eta erran nahi duela “que Dieu garde”, “jainkoak zain zaitzala”, baina forma osoa batera erabiltzen da. <https://www.unicaen.fr/recherche/mrsh/laslar/7580>

Jainkoari otoiz egiten diot hark lasaitzen ahal baikaitu  
 Niri ikusarazi zure ehungarren urtea.  
 Egun zoriontsu horren esperoan,  
 «Jainko zaindari»k hainbeste irriaraziko nauela  
 Nola agur honek sortu nauen sufrimendu,  
 Errukitzen dizut nitaz pozik egotea  
 Eta ni obeditzaileena gisa ikustea  
 Alaba, izan zena eta sekulan izanen ez dena  
 Gorputz honetan arima egonen den bitartean.

## [IV]

RESPONSE DE LA ROYNE A MADAME<sup>36</sup> I  
 Erreginaren gutuna Andereari

Irakurri dudan zure lehen gutuna  
 Hautatuak nituen zatiak uztera eraman nau  
 Azkarki malkorik gabe agurrak eramatea;  
 Baina zure egiazko hitzak aditzean,  
 zeinak amodioaren lekuko leialak diren,  
 Enoatura ikustean, urrikia eta arta  
 Partitze horretan eramaten duzuna,  
 Zutaz izanik, ez nitaz, sentimendua,  
 Zure doluak negar egiten du eta zure aspertzeak haserretzen nau;  
 Zure damua denetan damutzen da  
 Zeren deusik ez dena badakizu  
 Berez ez du ez onik ez txarrik sentitzen ahal.  
 Baina zure baitan biziz, onartzen diot nire buruari  
 Zure mina sentitzen dudala aitortzea,  
 Eta zure ongiak ere pozten nau;  
 Hainbeste nire bihotzak ongiaz eta txarraz gozaten duen,  
 Zure baitan niregatik eramaten duzuna.  
 Alta, nire eromenaz paso ez egin  
 Poztu zaitez zeruak euria eginez.

Burrumbatu. harria botaz eta gure aspertzeak ikusi.

<sup>36</sup> F<sup>o</sup> 60. Cette lettre répond à la fois aux épîtres III et IV. Elle se trouve également dans le ms. fr. 883, f<sup>o</sup> 33v<sup>o</sup>.



Eta gau honetan lurrak azkarki dardaratu da  
Haren gainean horrelako mina bildua  
Alegia erranez, «Ezin nezake gehiago eraman».  
Baina gaur ni kontsolatzeko  
Hain ona den gutuna idatzi didazu  
Esperantza izenburuan hasten duzula  
Ni berriz ikustea, neurria uste dudala  
Nahikeria azkartzat balioko zaizula  
Toki horretan itzultzea,  
Edo ni neurririk gabe bideratu.  
Esperantza hori azkarki igurikatua  
Nire begiak xukatu ditu alaiki,  
Eta nire bihotzetik tristezia uxatu,  
Zu berriz ikustea nire buruari hitz ematean.  
Horrela esperantzan pozik biziko naiz,  
Agian zure esperoan etorria izatea:  
Maite behar duzuna berriz ikustea  
Nire nahieran ongi egiten badakizu.  
Eta zure begia eta haren begia bezain pronto  
Elkartuko diren, ez dut dolurik izanen,  
Zeren zuen bihotzetatik, hain bateratuak zaituztet,  
Egiazko maitasunaz eta bertutez ornitua,  
Bakarra dela; eta bi horiekin  
Nirea kokatu betirako nahi dut,  
Ez bat besteari hurbiltzea babesteko  
Baina lotura azkar eta maitea zerbitzatzeko  
Baldin badakit nire indarra horrelako ez izatea  
Betiereko maitasuna bilakatzea  
Ez eta handitzen edo hobetzen laguntzea  
Horregatik otoitz egin behar dut  
Jainkoari, egiazko maitasuna dena  
Zuen bi bihotzeko betirako egotea  
Orduan nirea nahigabeaz askatua izanen da  
Zurekin bere baitan betirako bizitzeko.

[V]

## AUTRE DE LADITE ROYNEI

Beste bat aipatutako erreginarena<sup>37</sup>

Zure hain deitoratutako bereizketa  
 Bortxaz nire aldetik onartu egin bada,  
 Berriz erakutsiz izanen zenuen ikustea  
 Zure senarraren esperantza  
 Zure poza uste nuen bitartean,  
 Nire aspertzearen sentimendua estaltzea;  
 Gero pentsatzen nuen zurekin zure aita  
 Bidaia jori hori bukatu zezakeela;  
 Baina orai aurkakoa ikusten dudala  
 Eta zu gabe eta ni gabe naizela,  
 Zu senarrik gabe, aita gabe eta gidarik gabe,  
 Ez dut ikusten ez arrazoirik ez botikarik,  
 Pleinitzea debekatzen nauenik.  
 Egiatzko maitasuna ez baitaki ongi itxura egiten.  
 Tamalez! Baina zer, nori zeri  
 Erakuts dezaket nire mina ez berdina?  
 Maitasun azkarra ezagutzen ez duena bada,  
 Nire egiatzko maitasuna ez lioke erranen gehiago  
 Maitasun txikia duena baldin da,  
 Nire egiatzko maitasuna entzutea ez du merezi.  
 Beraz ez dudanez inon neurriko beste maitasunik aurkitu  
 Zurea, seme-alaben maitasun intimoa,  
 Ezin naiz saihestu zuri idaztea  
 Nire purgatorio eta krudel martirio.  
 O esku zozoa, o ama hain zoro!  
 Horrela behar ote duzu alaba kontsolatu!  
 Zure pasio azkarra txikituz,  
 Atsekabea ematea nahi  
 Zure ahaltasunetik kendu behar diozuna.  
 Ez ote du hobe balio bakarrik gozatu  
 Partitze horren puska garratza,

<sup>37</sup> F<sup>o</sup> 6I eta ms. fr. 883, f<sup>o</sup> 36 v<sup>o</sup>.

Seguru partekatu hau uztea baino?  
Ez ote dakizu ongi bere dolua emendatzen bada?  
Bi aldiz gehiago ez zara kontent izanen?  
Ez ote dakizu bere dolua emendatuz,  
Ehun aldiz negar eraginen diozula begia;  
Eta, okerrago dena, zure malkoak ez eta zure oihuak  
Zure hitz hitsak ez eta zure idatzitako minak,  
Ez dute eginen egoera aldatuko dela  
Ez eta negarren bidez zure nahiera hurbiltzea.  
Eginen zenuke soilik larritzea,  
Dolua bihotzean eta gorputza sobera kargatzea.  
Tamalez, egia da, konfesatu behar dut,  
Gure tristeziak ez duela deus zerbitzatzen,  
Ez bada dena ahal duena iraintzea,  
Eta norentzat guretzat baino gehiago nahi dugun.  
Ikustean gure malkoak sukatu behar ditugu,  
Eta auhenak eta hitz hitsak gelditu behar dira,  
Konfesatuz ematen digun guztia.  
Oso ona da, berak bakarrik agintzen baitu.  
Otoiztea agindu badigu,  
Ez eta bere aurrean oihukatzea.  
Beraz zuretzat, nire alaba, eskatzen diot,  
Eta nire bihotzaren sakonetik oihu egiten diot,  
Erregutuz aita eta ama izatea,  
Senar, adiskide, eta denbora jorian,  
Asperduraz betetako hau aldatu nahi izatea,  
Eta egun argiz gure gau beltzak itzultzea,  
Nire begietara argia ekarriz.  
Eta nire lehen loriaren plazera,  
Nondik ama zoriontsuaren izena lortu nuen,  
Alaba bertutetsua niri emanez.  
Horrela nahi zaitu; edo izateko zu hila ikusi.  
Bestela izendatua baino.  
Bada bizi beraz eta bertute bizia zure baitan,  
Eta gu biak gure baitan Osoa bizi dadin,  
Nor hurbil eta urrun atxikiko gaituen.

Noiz harengandik bakarrik onura etorriko zaigun,  
 Eskatzen diot haren gurutzearen bitartez,  
 Nire alabari nire semean igor diezaion,  
 Eta biak osasuntsu pozez beteak,  
 Hil baino lehen bi begi horiek ikustea.

[VI]

MADAME A LA ROYNE

Andereak Erreginari<sup>38</sup>

Maitasunak ez dezake, berezkoaren araberan,  
 Biziki krudela baino agertu.  
 Ongi aipatzeko izan behar dut indarra  
 Gero hainbeste esperientzia egin dudan.  
 Bada, amultsutasuna erran nahi bada  
 Aita eta semearen artekoa pasiorik gabe,  
 Ezetz erraten dut; izan ere orai proba  
 Latz eta zorigaiztoko eta nardagarri aurkitu.  
 Izan ere agurra erratean neukan esperantza  
 Zu berriz ikustea epe eta leku hurbilean  
 Indartzen ninduen eta gezurra ezabatzen.  
 Amets egin dudala sinesten dudan bitartean,  
 Plazeraz frustratua izatean,  
 Nire desio nagusia horretan zelarik.  
 Zure begiei doakienez, ezinezkoa zaizu,  
 Baina zure bihotza maitasun horri sentikor  
 Nire penen lekukoa deitu nahi du.  
 Egunak luzeegiak eta gau zorigaiztokoak  
 Hain urrikitutako denborak sentiarazten dizkirate  
 Noiz nire aspertze guztia botatua zen.  
 Eta orainak aurpegi hitsa erakusten dit.  
 Non ez plazerik ez graziarik ez dakidan aurkitzen;  
 Zeren geroa, nondik zorionaren esperantza dudan;  
 Asetze hobea agintzen dit.

<sup>38</sup> F<sup>o</sup> 63 v<sup>o</sup>.

Baina zer! Atxikimendu gehiegiarengatik huts egiten dut,  
Zeren zure mina pasio handia baita;  
Ez du handitua izateko beharrik  
Gehienik arrangurak jana den Andereari.  
Zertaz behar duzun, edo esperantzaz,  
Edo segurtasunez, alegrantzia hartu.  
Zaharren atsotitzei badakizu  
Eguraldi euritsuaren ondotik erraten da maiz,  
Eguzki argia bere edertasunean agertzen dela.  
Eta beraz horrela ez da berrikuntza izanen,  
Gaizkien ondotik horrenbeste onura etortzen bada.  
Nire idatzi guztiak ez dira beti okerrak izan,  
Eta hau benetan egia izanen da,  
Nire ezin eramandako zoritxarra zerbitzatuz,  
Zein hain graziatsuagoa arranguratzen nauen,  
Esperantzak horrenbeste kontsolatzen eta kontent jartzen nauen.  
Tamalez! Antzina zaitez, poztasuna, zein  
Niretzat hain atsegina izanen da eta horrela  
Une batean ahantziko nauen  
Lota nahi izan nauen aspertze gogorra.  
Zuk oroimena galdu nahi duzuna  
Iraganeko minez, nire epaia atxiki:  
Edateko Lathes ibaiaren bila ez joan,  
Sobera urrun dago eta ura sobera beltza;  
Baina hilabete batez poztasun on batek  
Ehun mila urteko arrangura ahantzarazten du.  
Andere, goaita ezazu beraz, botika hori  
Halako sorospen eta halako laguntza,  
Nire mintzaira sinetsiz erranen duzula:  
«Benetan aholku eroa zinez zuhurra».

## [VII]

## LA ROYNE A MADAME LA PRINCESSEI

Erreginak Andere Printzesari<sup>39</sup>

Pentsatuz arratsean pausan lo egin,  
 Maitasunak heldu zait bat batean iratzartzera  
 Erranez: «Idatzi eta luma eskutan hartu,  
 Barkamenik eskatu gabe ez eta ondoko eguna goaitatu gabe.  
 Zure alabak ezin du pazientzia hartu  
 Horrelako isiltasun luze eta zorigaiztokoarentzat»  
 Abantzu lotan erantzuten diot:  
 «Horrenbeste idatzi dut ez dudala argudiorik  
 Ongi idazteko» Erantzuten nau: Ez utzi  
 Printzesa gaixoa heldu arte  
 Hainbeste desio duenarengana;  
 Orduan zure eskua idaztea geldituko da.  
 Baina bitartean zure alaba ez abandonatu  
 Eta idatziz idatzi batzuk eman  
 Altxatu nintzen berak bultzaturik,  
 Papera hartu eta nire luma zutitu dut,  
 Eta nire leihoaren ondoko pasabidean  
 Ibili nintzen, gustu gehiago izateko.  
 Gero jarri nintzen eta pentsatzen jarri  
 Nondik has nintekeen.  
 Pixka bat goaitatu nuen, noiz azantz bat entzun nuelarik  
 Haize batetik heldu eta hosto eta fruitu  
 Nire belarrira goxoki ekarri  
 Soinu hits bat mirari eman zidana.

Ibili nintzen eta alde batetik bestera  
 Hobeki ikusteko nondik heldu zen hori.  
 Baina ez nuen ez zuhaitzik, ez adarrik, ez historik ikusi,  
 Goxoki akordio batez sufritu duenik.  
 Eta soinu horri iturri txikiak  
 Pena berarekin erantzun diote,

<sup>39</sup> Lefrancek antolatutako liburuan zortzigarren gutuna dela erakusten da zenbakietan. Bat falta zaigu. Gutun honen erreferentzia da Frantziako Liburutegi nazionalan : F<sup>o</sup> 64 v<sup>o</sup>, eta ms. fr. 883, f<sup>o</sup> 35.

Haiekin erreKaren ahotsa,  
Eran hain goxoan altxatzen zena,  
Ongi entzuten dudala bere ahots maitemindua;  
Baina inongo hitzik ez zekikeen entzun.  
Nire txapela kentzeko prest  
Eta nire belarria ireki eta hurbildu  
Orduan hitz hits eta apala entzun nuen  
Ahots horietatik errepikatzen: «Tamalez!  
Tamalez! Tamalez! Bada, galdu dugu?  
Nekatua! Gainera ez diogu begirada biratzen gehiago  
Edertasuna hori eder egiten gaituena,  
Bertute hori pozten gintuena,  
Goxotasun hori gure fruituak goxatzen zituena;  
Bada, bera gabe denak deseginak ote gara»  
Izaitte guztietatik sentitu banu  
Horrelako damurik, sinets ezazu nire izaerak  
Ezin duela jasan azken hatsa entzutea.  
Baina nire gelara itzultzen naiz lasterka,  
Haiekin oihuka: «Tamalez! Ene Jainkoa  
Itzuli dena toki atsekabe honetara  
Zeruak eta lurrak horrenbeste falta sumatzen dutena,  
Eta berehala berriz ikustea nahi dena».

NAFARROAKO ERREGINA  
ANTZERKIAREN BIDEAN

**III**





## 1. ANTZERKIA XVI. MENDEAN

Erran ohi den bezala, frantsesezko antzerkia XII. mendearen amaieran jaio zen *Adamen Jokoarekin*<sup>1</sup> eta, beraz, tradizioan txertatu zen, jadanik latinez, erlijio-teatroa existitzen baitzen. Antzerki horiek ez ziren ez mirakulu ez misterio. Hau da orokorki frantses antzerkigintza begiratzen delarik historialarien artean onartzen dena. Berrikuntza hizkuntzaren aldetik abiatu zen, herriak hitz egiten zuen hizkuntzan, alegia frantsesez hitz egiten zen eremuan, antzerkia frantsesez sortzen hasi ziren, antzerkia frantsesez ematen hasi ziren. Horrela, beste tresna batzuk martxan jarri ziren, erregearen erabakiekin adibidez, eta frantsesari lehentasuna eman zitzaion estatuaren bultzadarekin, frantses hizkuntza hedatzeko nahikeria politikoa baitzen, eta, besteak beste, antzerkia ere horren zerbitzurako tresna izan zen.

Bestalde, antzerkiak erlijiozko espazio soila utzi, eta XIII. mendeko antzerki profanoaren izpiritua errekuperatzen joan zen. *Le Jeu d'Adam* drama bezalako testuak gelditu dira, Rutebeuf eta Jean Bodel bezalako autoreen izenak, baina baliteke beste idazle batzuek ere antzerki laburrak idatzi zituztela. Haatik, frantsesezko antzerki forma berri horrek ez zuen horregatik drama erlijiosoa uxatzen. Antzerki erlijiosoa eta profanoa, mendean zehar, elkar hartuta garatu ziren, nolabait elkar elikatzen joan ziren. Adibide bat emateko aipa dezagun fartsa, XV. mendeko asmakizun bat, denbora-drama erlijioso handietan obra zatika antolatua baitzen, fartsak obra tartekatzeke balio zuen. Fartsa horietako batzuk obra bihurtu ziren eta haien oihartzuna gelditu da, denbora zeharkatu dute, Anthelio *maisuaeren fartsa*-k kasu. Hauek izan ziren komedia iragarri zutenak. Fartsak, tragediarekin batera, XVI. mendeko bihurgunetik aurrera garatu ziren, teatro berriaren oinarriak eratu zituzten, Erdi Aroko misterioen teatroaren heriotza ekarriz. Haatik, Euskal Herriari doakionez, misterio horien aztarna modu bat ezagutzen dugu oraindik, pastoralei esker.

Erdi Aro bukaeran, Pizkunde garaian, euskarazko antzerkigintzarik ba ote zen jakitea oso zaila da, dokumenturik ez baita oraindik. Beste hizkuntzetan antzerkia garatu bazen, arrisku gutxi hartzen da pentsatzean Euskal Herrian ere antzerkia bazela, misterio, fartsa eta beste ikusgarriak barne. Dena den, Frantzia gertatzen zenari jarraituz, ideia bat ukan dezakegu Euskal Herrian egiten zenaz.

<sup>1</sup> *Adamen Jokoa*, eskuizkribu bakarreko *Ordo representationis Ade* izeneko jatorriz, 1150 eta 1170 artean idazle anonimo batek, Henrike II.a Plantagenetekoaren gortearen inguruan, konposatu zuen drama liturgikoa da. Pieza hau Itun Zaharreko antzerki-interpretazio bat da. Frantses hizkuntzaz idatzitako lehen testu dramatikoa izanik, eskuizkribu honek garrantzi handia du literaturaren historian.

## 1.1 Ahozkotik hasiz

Erdi Aroko antzerkiari buruzko gure azalpena, Darwin Smith<sup>2</sup> ikerlariak 2012an plazaratutako artikulu batekin<sup>3</sup> hasiko dugu. Izan ere, gaian aditua den Darin Smithek zalantzan ematen du antzerkiaren sortzea XIX. mendean gertatu zela erraten duen hipotesia, luzaz errepikatu eta idatzia izan zena. Zalantzan ematen du antzerkia bat-batekotasunean sortu zitekeela; haren ustez, frantsesez sortzen zen antzerkia agian XII. eta XIII. mendean abiatu zitekeen. Nahiz eta hastapeneko teatro testu horiek, eta hemen antzerki osoa kontuan hartuz, misterioak barne, Europa guztian obra nagusi gisa ezagutzen direnak, idatziak izan baino lehen, beste metodologia erabili zituzketela, ahozkotik hasi zirenak, eta antolaketa handia eskatzen zutenak ere. D. Smithek uste du testu horiek aurrekariak zituzketela eta horiek ahozkotik heldu zirela. Idatzia baino lehen, ikusgarriak antolatu ziren, ahozkoan oinarrituz, eta ahoz zabalduak zirelarik.

Horrez gain, Smithek gogoratzen du antzerkiaren aurrepausoa Elizarengandik nolabait urruntzearekin, beste gai batzuk Elizari lotuak ez zirenak plazaratzearekin aitzinatu eta modernizatu zela. Jainkoaren misterioaren antzezpenean sortuak, latindar joko liturgikoak Elizako korutik atarira pasatu ziren. Ondoren, misterioa plazara abiatu zen eta bertan latina erabiltzetik tokiko hizkuntza erabiltzera pasa zen. Horrela, beste ohitura kultural batzuk jokoan sartu zituzten, eta beste ekintza mota batzuk ere bai. Hau da antzerkiaren hasierak azaltzeko zabaldu den ideia nagusia.

Haatik, Darwin Smithek oroitu nahi du agian antzerkia teatro testuekin nahasi dela, antzerkia antzerkiarentzat idazten den testua baino gehiago dela, eta idatzi baino lehen ere antzerkia egin zela. XIX. mendean, Europako historia nazionalak idatzi zirelarik, horien artean frantses estatuarena, nolabait erabaki zen herriek historia eta literatura zuketela literatura eta historia horien monumentuak idatziak baldin baziren, alegia idatzia lehenetsiz, idatzia frogatzat hartuz. Horrela deliberatu zen, nolabait errateko, antzerkia abiatu zela testu idatzia, teatro testua agertu zen momentutik. Ahozkotik pasatu ziren literaturara eta kulturei ez zitzaien balorerik eman, horiek bigarren mailako kultura gisa gelditu ziren. Hori da, behintzat, ikerlari honen ikuspuntua.

Bestalde, Darwin Smithentzat ezin da kontrajarri kultura ikasia (latinari

<sup>2</sup> D. SMITH. Paris I Panthéon-Sorbonne Unibertsitateko irakaslea, Parisko LAMOP (UMR 8589) laborategiko kidea, Erdi Aroko antzerkiaren aditua.

<sup>3</sup> D. SMITH. 2012. *La place de l'écrit dans la tradition dramatique*. (PDF). *La place de l'écrit dans la tradition dramatique en France (13e-16e siècles)*.pdf | Darwin Smith - Academia.edu.

lotua) eta tokiko kultura, kultura latinoak beste kultura nazional guztiak elikatu baititu, obra performatiboak zein eraikitzaileak edo komikoak, edozein generotakoak izanda ere. Horrela, antzerkiaren historia teatro testuen arabera idatzia izan da, irizpide literarioak jarraituz. XIX. mendeko edizioei egiten zitzairen ohar nagusia zen fartsak, misterioak, jokoak, bukatu gabeko obrak zirela, planorik gabekoak, metrikarik gabekoak. Alta, asmatu daiteke kultura latinoak tokiko kulturetatik ere elikatu zela, nahiz eta tokikoa gutxietsia egon gehienetan ahozko kultura zelako.

Gaur egun, onartzen da ahozko kulturak daudela, herriek idatzirik ez dutelarik ere badutela historia, literatura eta antzerkia.

Ondorioz, pentsa daiteke Erdi Aroko antzerkiak garai bat ezagutu zuela noiz antzerkientzat ez zegoen testurik, ez zen deus idazten, baina antzerki horiek, joko horiek, plazetan ematen zirela.

Darwin Smithentzat tokiko hizkuntzan antolatzen zen ekintza dramatikoak, hau da, frantsesez antzerkia ematen hasteko, testu zati batzuetan oinarritzen zen, ordu arte Erdi Aroko antzerkia nagusiki ahozko ekintzak zirelako, tokian tokiko hizkuntza erabiliz XII. mendea baino lehen. Ahozko lana zen nagusiki. Ondoren, XII. mendetik goiti, antolaketa testu batekin laguntzen zen, memorizazioa behartzeko agian, edo antolaketa errazteko, eta ez ziren agian testu osoak landuak, zubi gisa ikus daiteke prozesu hori denboran, alegia, ahozkotasunetik tokiko hizkuntza baliatuz idatzitako testu osora pasatze bat, hizkuntzaren aldetik ere batasun bati buruz joanez. *Hizkuntz* hitza erabiltzen dugularik frantses hizkuntza izendatzen dugu, noski, estatu osoan frantsesa hedatzeko helburua baitzen. Teoria honek laguntzen du ulertzen zergatik atzemandako testu batzuk ez ziren hain zorrotzak, hain osatuak. Pixkanaka, obrak konplexuagoak bihurtu ziren heinean, teatro testuak ere osatuagoak bilakatzen joan ziren, elkarrizketak zirelarik testuaren oinarria, didaskaliak gehituz.

Hiru elementu garrantzitsu azpimarratzen dizkigu Darwin Smithen, 1450. urtea baino lehenagoko antzerkigintzari buruz. Hau da, publiko aurrean, testurik gabe ematen zen teatro jokoaren denbora beraren eta idatzian oinarritutako antzerkia sortu zen garaien artean denbora luzea egon zitekeela. XV. mendearen erditsua arte, non antzerki bat sortzen zen momentuan idatzia leku garrantzitsua izanen zuen tartean, hamarkada osoak pasa ziren.

Antzerki testuentzat gureganaino heltzeko bidea ere oso luzea izan da. Erran nahi baitu Erdi Aroko obra batek, gaur egun irakurgarria izateko, oztopo askotarikoak eta itzelak pasa behar izan dituela. Baldintza bereziak behar izan

dira gureganaino heltzeko. Kofradiek misterio erraldoiak antolatzen zituzten, antolatzaileak fededun handiak zitezkeen, ikasiak eta herritarrengandik hurbilak, herritarrei hitz egin nahi baitzieten eta testamentu zaharreko osagai asko ezagutarazi.

Lekukotasunak utzi dituzten misterioak, gorde direnak, indar handiko obrak izan behar ziren. Hasteko, pentsa dezakegu obraren sorlekua garrantzitsua zitekeela, zalantzarik gabe pisuzko komunitate baten barnean, eginkizun nagusi bat, instituzio batek bultzatzen zezakeela sorkuntza. Ondotik, martxan ekintza nagusia zen horretarako eman zituzketela horretarako tresnak, sorkuntzari transmisiorako aukera emateko une horretan esanahi handiko ikusgarria zitezkeen, bultzada kulturala denboran irauteko gisan.

Bestalde, irauteko, aztarna uzteko, gero eta errazago, idatzia zen tresna egokia, idatzia gelditzeko, horretarako antolaketa beharrezkoa zen. Borondate nagusi bat egon behar zen ahoz hedatzen zen hura idatzi bihurtzeko, eta ondotik, testu horien kopiatzeko. Idatzia sortzeko, ikusgarria hasi baino lehen egin zitezkeen eta ere ikusgarria erakutsi ondoren idazten ahal zen. Joan-jinak egon zitezkeen. Kopiatzen zirelarik aldaketak ere egonen ziren, pertsona desberdinek kopiatzen baitzituzketen. Testu hautatuak izan behar ziren, eta borondatea egonen zen testu horiek gordetzeko.

1450. urtetik goiti, eskuizkribuak emendatzen hasi ziren. Alde batetik, idatzia garatzen baitzen, idatzeko gaitasuna hedatu zen herritar gehiago hunkituz. Bestetik, inprimategiaren asmakuntzak misterioen, fartsen, komedien, moralitateen hedapena hobesten hasi ziren.

XV. mendean, antzerki munduan, berrikuntzen garaia heldu zen. Antzerkia ez zen gehiago soilik eremu zehatz batean emateko pentsatua, baizik eta ezaguna ez zen zirkuluetan plazaratzeko eta hedatzeko, auzoetan, elizetatik urrun ziren plazetan, herri txikietan ere. Taldeak mugitzen ziren, ezagunak ziren teatro jokoak hedatzen ziren ikusgarriak zabalduz, ahal bezain bat herritar gurutzatzekeo gisan, lurraldeak zaharkatuz.

Beste oztopo batzuk ere gainditu behar ziren, antzerkiak egokitzen ziren, tokien arabera testuak aldatzen zituzten tokiko zentsurari erantzuteko adibidez, eta, beraz, testuek beste bizitza bat ere ukan zezaketen, hasieran pentsa ez zitekeena. Berriz ere, testuaren inguruan antolaketa erraldoiak behar eta egon zitezkeen, baina horri buruz informazioa mugatuagoa gelditzen da. Alta, jakina da, antolaketa aipatzen delarik, testua baino beste tresna batzuk, beste arte eszeniko eta eszena toki batzuk eraikitzekeo taldeak ere baliatzen zirela ikusgarrien

sortzeko, dantza eta kantua ere joko eta antzezpen askoren parte izan zirela.

Antzerkigintzaren historian murgiltzen hasteko ohar horiek interesgarriak iruditu zaizkigu, testuinguruan kokatzeko.

T. Kuroiwa, X. Eleroux eta D. Smith ikerlariak ere, talde lana, idatziaren tokia, antolaketaren funtzioa aztertzen dute eta antzerkiaren aurrerapausoak konplexuak izan zirela esplikatu eta gauza asko dagoela aurkitzeko, aztertzeko azaltzen digute<sup>4</sup>.

XIII. mendean dagoeneko antzerki testuak zeudela badakigu, haatik heme-retzigarren mendean antzerki historia nazionala idatzi zuen Frantziak. Ikerlariak heme-retzigarren mendean idatzi zen antzerkigintzaren historia, hobetu behar dela uste dute, konplexua dela, eta hori urtero ikerlari berriek erakusten digute, elementu eta azterketa gehiago plazaratuz. Narrazioa sortu zen baina historia erreala handiagoa da.

Teatroaren ahozkotasuna alde batera utzi behar dugu interesatzen zaigun garaierako elementu faltan, baina ez dugu gutxietsiko garai haietan eta lehenago herritarrek artearentzat, antzerkiarentzat zuten interesa, nahiz eta estalia gelditu ahozko ekintza zelako.

## 1.2 Pizkundan, antzerki munduaren berrikuntzak

Antzerkiaren historiari buruz gero eta lan gehiago plazaratu dira azken hamarkadan. Euskarazko antzerkiaren historiari buruzkoak ere bai. Lan asko gelditzen da egiteko, noski, bereziki emazteek idatzitako obren inguruan, nola antzerki munduan, lan eta ekarpen ugari egin dituztenei buruz. Hala ere, Erdi Aroaren bukaeraren eta Pizkundearen garaian antzerkiaren munduan bizi izan ziren aldaketen itzulia egiten saiatuko gara.

Frantzian antolatzen ziren antzerki lanen inguruan aipamen orokor bat egitea beharrezkoa iruditu zaigu hunkitzen gaituen garaian, XVI. mendean alegia, antzerki mundua oso aberatsa izan baitzen eta berrikuntza nabarmenak egon baitziren. Hasteko? Elizak herritarren bizitzaren ardatz nagusia, zutabea zela gogoratu behar da. Gainera? Erreforma eta Kontrarreforma garaia denez, mugimendu handiko urteak izan ziren, gizartean ondorio bortitzak izan zituztenak. Noski, Elizak antzerkiarekin harreman gazi-gozo asko izan

<sup>4</sup> T. KUROIWA, X. ELEROUX, D. SMITH. « De l'oral à l'oral : réflexions sur la transmission écrite des textes dramatiques au Moyen Âge », *Médiévales* [En ligne], 59 | automne 2010, mis en ligne le 20 mars 2013, consulté le 01 octobre 2016. URL : <http://medievales.revues.org/6056> ; DOI : 10.4000/medievales.6056

zituela azpimarratzekoa da, antzerkiak debekatzerraino —beherago aipatuko duguna— zein doktrina hedatzeko erabiltzeraino. Erreformak ere zailtasunak izan zituen antzerkiari buruz iritzi bat finkatzeko. Dena den, baliatu izan zuen Elizaren kontraesanak azaltzeko.

Egiten duten ikerketa batean, Marie Bouhaïk-Girones eta Veronique Dominguezek<sup>5</sup> XV. mendeko antzerkigintzaren itzuli bat proposatzen dute, ohar orokor batzuk azpimarratuz. Agertzen da, hasteko, Erdi Aroko antzerkigintzaren eremua oso zabala dela, teatro testu kantitatea handiarekin, testuetatik kanpo ikertzeko gelditzen den eremua oso handia izanik. Oraindik, antzerkiaren inguruko ikerlariak ez dute gaia sakondu, liburuzaleak eta filologoak dute arreta jarri antzerkia lantzeko unean. Horrez gain, antzerkiaren eta literaturaren arteko harremana berezia baldin bada, Erdi Aroko antzerkigintzan, garai zabala kontuan hartuz, Pizkundean zabaldu zen antzerkia begiratuz, zailtasuna areagotzen da. Erdi Aroko performantzia gizarte mailako antolaketa zen, idatziari lotua baina hau baino zabalagoa, eraikitzailea, non hitzak eta jokoak komunikazio sakona, aberatsa eskaintzen zuten. Hain zuzen, testua baino lehen, baliteke jokia egotea, baliteke testua eraikitako guztiaren gaintik etortzea, jokia borobiltzeko gisan.

Antzerkia kultur ariketa berezia da, eremu kolektiboan kokatzen den ekintza estetikoa, ingurumenak eraikia, hau da luzaz ikerlariak deskribatzen zutena. Baina orokortasunen definitzeko zalantzak azpimarratzen zituzten, generoen zehazteko, orokortasunak emateko eta sailkapenak egiteko. Askotan, testuak kopiatuak izan ziren, batzuetan izenburuak aldatuak, testuen barnean testu batetik bestera aldaketak egin ziren. Ikertzeko unean, testuak denboran jarraitzeko oztupoak zeuden, aldatuak baitziren. Bestalde, batzuetan izenburuen arabera sailkatu dira teatro testuak eta horrek ere ez du beti laguntzen generoen definitzeko. Horrela adierazten zuen Gustave Cohenek, Sorbonan eman zituen klaseetan 1940an, XV. eta XVI. mendeko antzerki komikoa aipatzean.

Beren aldetik, Graham Runnallsek (RUNALLS 2003: 309) antzerki erlijio-soarentzat eta Michel Rousseek (BORDIER eta ROUSSE 2004: 503-504; 2008: 539-546) antzerki komikoarentzat, praktika sozial eta teknikoaren historia bat martxan emana izan dela diote. Bi ikerlari horiek eskuizkribuetatik abiatzen baitziren, inprimategiak erreleboa hartu baitzuten ikerketarako lanabes asko utziz, haien lan eremua bihurtuz. Informazio asko dago biltzeko kopiatutako

<sup>5</sup> M. BOUHAÏK-GIRONES, V. DOMINGUEZ. Genèse et constitution du savoir académique sur le théâtre médiéval. [https://www.academia.edu/2041225/Introduction\\_genèse\\_et\\_constitution\\_du\\_savoir\\_académique\\_sur\\_le\\_théâtre\\_médiéval\\_avec\\_Véronique\\_Dominguez\\_](https://www.academia.edu/2041225/Introduction_genèse_et_constitution_du_savoir_académique_sur_le_théâtre_médiéval_avec_Véronique_Dominguez_)

teatro testu horien inguruan, testu idatzietatik abiatuz antzerkiaren historia zehazteko informazioa biltzeko aukera dagoela uste dute ikerlariek. Hauen lan eremua da.

Beste bide batetik, dagoeneko XV. mendean aldaketak abian ziren, eta misterioak erlijiosoak eta latinez baldin baziren, frantsesa erabiltzen hasi ziren. Argi gelditzen da baita ere misterioen inguruan beste joko mota batzuk agertzen hasiak zirela.

Misterioak ez ziren beti erlijiosoak, teatro profanoa ere hor zen, sotia, fartsa eta moralitateekin. Hiru “genero” horiek zeuden, hiru definizio, sailkapena zaila izanik ere, eta batzuetan ezegokia, norabideak definitzeko eta elkar ulertzeko tresnak dira hala ere. Misterioen artean ezberdintasunak abian ziren.

Pixkanaka, latina baztertuz, Erdi Aroko antzerkia frantsesez eraikitzen hasi zen, hori da orain arte aipatu duguna. Bestelakoa ere bazegoen: bretoieraz egiten zena da ezagunena, gaztelaniaz egiten zena ere bai, noski, baina besterik ere bazegoen, bereziki Okzitania.

Dena den, eman dezagun orokorki antzerkiaz proposatzen den sailkapenak onartzen ditugula, zalantzak daudela kontuan hartuz, testu bakoitza mundu bat baita.

### 1.3 Misterioak

Lehenik mirariak edo mirakuluak<sup>6</sup> ziren. Bertsotan idatzitako lanak ziren, 800 eta 1.300 bertso arteko lanak, gehienbat XIII. eta XIV. mendeko literaturari lotzen direnak. Gai zabalak lantzen ziren antzezlan horietan eta gizarteko hainbat eremu hunkitzen zituzten, gaiak ere profanoak zirelarik (DUBECH 1931: 9-50).

Ondoren, misterioak heldu ziren, eta Itun Zaharrea, Itun Berria edo santuen bizitzetan oinarritutako gaiak erabiltzen zituzten. Kristautasunak, arimez erabat jabetu nahi zuenak, beren premia intelektual guztiak bete behar zituen, eta paganismotik heldu ziren tradizioak berrikusten ahalegindu zen. Horrela elizgizonak ez ziren plazetako ikuskizunak suntsitzen saiatu, baina beste norabide bat eman zieten.

Elizkizunen ondotik, jai nagusietan, katedralen atarian, ospatzen ziren misterioak fededunen begietara antzezteko balio izan zuten, eta zeremonien osagarri izaten jarraitu zuten. Apaizek, urgazleek, ikasleek, langileek, ikuski-

<sup>6</sup> Mirakuluak, oro har dramatikoak, narratiboak izan daitezke batzuetan; mirakulu narratiboen bildumarik ospetsuena 1236an hil zen Gauthier Coincyrena da, 30.000 bertso barne hartzen dituena.



zunetan parte hartzen zuten. Irudipen dramatikoak modu erregularrean ezarri ziren Parisen.

Denborarekin, jende askoren aurrean dramak aurkezteko, herrietatik kanpo ere eramaten zituzten antzeztokiak, batzuetan milaka jenderen aurrean.

Antzerkigintzaren historia egitean, kronologikoki, mirakuluak jartzen dira lehenago, Ehun Urteetako Gerlaren garaian (1337-1453), eta bereziki ondoren, mirakuluetako pertsonaien artean, Jesu Kristoren presentzia agertzen da eta Ama Birjina ere. Pertsonaiak finkatzen joan ziren eta gorde diren mirakuluetan Jesu Kristoren eta Mariaren mitoak indartuz joan ziren mirakuluetan<sup>7</sup> Albert Ponceletek 1783 mirakulu zenbatu zituen non Maria agertzen zen<sup>8</sup>. Erdi Aroak benetako miresmena debozioa zion Ama Birjinari. Fenomeno handia izan zen, ordu arte, gehienetan santuen inguruan eraikitzen baitziren mirakuluak, Mariaren mirakuluak hedatu ziren.

Mirakuluen hastapena aipatzeko, erreferentzia nagusi gisa, Rutebeufekin hasi zirela kontuan hartzen da. Rutebeufen (1230-1285) lanek gorte-poesiaren tradizioarekin hausten dute eta oso dibertsifikatuak dira: hagiografiak (Helysabelen bizitza), antzerkia (Teofiloren miraria), poema polemikoak eta garaiko boteretsuei buruzko lan satirikoak. Aldaketaren abiapuntua litzateke, beste batzuek jarraitu zutena. Beste autore bat ere aipatuko dugu, Gauthier de Coincyren<sup>9</sup> *Miracles de Notre Dame* obrarekin, eragin handia izan zuena beste autoreen lanetan. Erljioari lotu antzerki hori nahiko inportantea izan zen. Ehun Urteetako Gerlaren ondotik, gerla itzelaren ondorik, ikusgarrientzat interesa handia zen. Erdi Aroko bukaeran mirakuluek garrantzia zuten eta horien berri badugu, horien artean Parisen emandako *Les miracles de Notre-Dame*, arrakasta handia izan zuena. Mirakuluen testuak badaude eta horiek informazioak jasotzen dituzte, garai hartako ikusgarrien inguruan xehetasunak

---

<sup>7</sup> BENOIT J.-L. eta J. ROOTEK bildua *Les Miracles de Notre-Dame du Moyen Âge à nos jours*. Lyon, Jacques André éditeur, 2020, 349.

<sup>8</sup> PONCELET, A., « Index miraculorum Beatae Virginis Mariae », *Analecta Bollandiana*, XXI, 1902. 261-360.o.

<sup>9</sup> Beneditar fraidea eta frantses trobadorea. Oil hizkuntzako Erdi Aroko poeta musikari handienetako bat da.

ukaiteko, ikusgarrien moldaketa, pertsonaien tokia ulertzeko. Pertsonaia inportanteen artean Robert Le Diable dugu.

Misterioa berantago heldu zen, arrakasta handiarekin, historia saindua kontatzeko. Herritarrek ezin zituzten testu sakratuak irakurri, gehienetan latinez idatziak zirelako. Beraz, helburu pedagogikoa ere bazegoen misterioen oinarrian. Horretaz Eliza jabetu zen, alegia, aukera zitekeela doktrina ezagutarazteko, hedatzeko. Elizaren eta antzerki munduaren artean gorabeherak bazeuden, baina XVI. mendera heltzean misterioen garaia heldu zen, Elizaren ustez doktrinaren onerako. Izan ere, misterioetan testu zaharren azalpen publikoa egiten baitzen. Herri guztiaren aurrean ematen ziren, beti eta jende gehiago bilduz. Horrez gain, publikoa zabala zen, baina ekintzaileak ere asko ziren, herritarrek parte hartzen zuten emanaldietan, ikusgarri handiak ziren, jende ainitz behar zen ikusgarrien osatzeko. Ikusgarrietan, misterioetan parte hartzeko ez zen hitz egin behar derrigorrez, partaideak atzeman behar ziren taula gainean agertzeko, bestenaz ez zen ikusgarririk.

Testuak luzeak ziren, 30.000-60.000 bertso artekoak batzuetan, denbora luzean ematen zirenak, egun bat baino gehiagotan, hilabete osoan batzuetan; segidan ematen ziren, Eguberri, Pazko eta Mendekosteren inguruan, pertsonaia askorekin.

Denbora mugarik ez zen ikusgarrian, gertakarien kronologia ere ez zen beti jarraitzen. Taula desberdinak egin zitezkeen denbora berean, ikusleek eszena desberdinak begiratzen ahal zituzten. *Les Actes des Apotres*<sup>10</sup>, 60.000 bertsoekin, harresien aurrean emana izan zen, herritar eta nobleak ere bildu ziren (1450) ikusteko, 90 urtez emana izan zen. *La Passion* obra, Arnould Greban<sup>11</sup> autorearena, lau egunetan eman zen. Europa guztian eman ziren misterioak, misterio batzuek ospea lortu zuten, Espainia aldean jai giroan ematen ziren, musika eta dantzak gehigarri izan ziren, beste lurraldeetan gabe ematen baziren ere.

<sup>10</sup> Misterioa René Anjoukoa erregeak agindu zuen, Simon Grébani. Lana 1460-1470ean idatzia izango zen. Erdi Aroko drama frantses guztien artean oparoena da. XVI. mendean antzezpen integral edo partzial ugari egin ziren. Garrantzitsuenak Bourgesenak izan ziren (1536ko apirila eta abuztua). Parisen inprimatu zen 1538an eta 1540an.

<sup>11</sup> P. CHAMPION. "Arnoul Gréban, l'auteur du Mystère de la Passion", *Histoire poétique du XVI<sup>e</sup> siècle*, Paris, 1923.

Arnoul Gréban, 1420a baino lehen Le Mansen jaioa, 1485 inguruan Parisko Notre-Dame Katedraleko organo-jotzailea, Pasioko Misterio baten egilea. Frantzian eta Italian bizi izan zen.

Misterio horien sortzeko, Parisen komediante talde iraunkor gutxi zeuden. Beste leku askotan bezala, kofradiek edo elkarteek zituzten misterioak erakitzen, eta partaideak amateurak izaten ziren gehienetan. Hala ere, baziren hiru aktore-elkarte, “erdi-profesionalak” defini zitezkeenak: la Confrérie de la Passion, Charles VI.ak baimendu zuena eta aterpe ofiziala izan zuena, la Basoche et les Enfants-Sans-Souci. Horiek funtzio ofizialagoa zuten, agintearekin harreman zuzenagoa baliatzen zuten. Aginteak haiengana joko zukeen gai bat plazaratzeko beharra zuketelarik. Dibertsiorako tresna gisa balia zezaketen eta baita ere beste helburu batzuekin, behar izanez gero. Haatik, XVI. mendearen erditsu arte misterioak ere amateurren eskutik antolatzen ziren.

Horrela, taldeak sortzen ziren haien lanak erakusteko. Herritar askok parte hartzen zuten misterioetan, antzezle asko behar baitziren oso luzeak ziren emanaldietan, aste osokoak, batzuetan. Aktore guztiak ez zuten hitz egiten, baina partaide asko behar ziren plazako ikusgarria osatzeko. Bestalde, lan kolektiboa zen, herritarren eta ikusgarria osatzen zutenen arteko harremana handia zen, familiarrak, lagunak, ezagunak hurbiltzen ziren. Joko horiek, gizarte mailan, eraginkorrak ziren; izan ere, emanaldi luzeak ziren, aktore askokoak, hitz egiten zutenak eta besteak, eta horiez gain, apainketaz arduratzen zirenak, jantziak josten zituztenak, eta inguruan, janari eta edari kontuez arduratzen zirenak. Proiektu erraldoiak ziren, Elizari lotutako kideek, apezek edo fraideek, Elizaren ordezkariak zirenek zituzten proiektuaren lehen urratsak markatzen eta ardurak banatzen. Arduradun horien aurrean erantzukizunak eskatzen ziren. Ez zen huts egin behar, zigorrak izpiritualak gerta zitezkeelako. Misterioa hasi aitzin, ibilbidea zen ikusgarriaren bezperan, tronpeta, zaldun eta jantzi ederrez jantziriko aktoreekin. Ontsalaz, sarrera pagaratzen zen, misterioak milaka ikusleren aurrean ematen ziren. Bitartekari eta osagai askoren kudeaketa eskatzen zuen. Herritarren gogoan luzaz gelditzen ziren proiektuak ziren.

Mende amaiera arte gutxienez iraun zuten misterioek. Gehiago ere bai, Paristik kanpo iraun baitzuten, beste herrialdeetara hedatuz, debekuak jasan behar bazituzten ere.

Misterioak plazaratzen baziren XVI. mende hasieran Parisen, besterik sortzen hasi zen, eta misterioak hiri nagusitik ateratzen eta hedatzen joan ziren. Misterioekiko atxikimenduak iraun zuen, herriari lotuak ziren eta herriak asko prezatzen zituen.

XVI. mendearen hasieran, Frantziako antzerki mundua tradizioaldi luze batetik irteten ari zen. Antzerkiak, XV. mendean zehar, garapen nabarmena ezagutu zuen; bestalde, Italiatik heldu ziren ideia berriak zirela eta, ordu ar-

te plazaratutakoa gibelean uzteko nahia agertu zen. Humanistak antzinako literatura-lan greko eta latinoetara itzultzen hasi ziren, izpiritu landuak atzerriko eraginetara irekitzen hasi ziren. Kulturzaleek Italiarako bidaia egin zuten, bertan berrikuntzak zeudela deskubritu eta italianismoz amorraturik itzuli ziren. Artista frantsesak, auzokideak imitatuz, antzinako ereduak berreskuratzen hasi ziren. Errenazimentua Parisko intelektual mundura heldu zen.

Antzokiak ez zion ihes egiten berritze orokor horri. Baina gaur egun “teatroa” deitzen dugunak ikuskizun mota ezberdinak estaltzen zituen XVI. mendean. Antzerkiaren kontzeptua nahiko zabala zen, oinarrizko elementu hauek besterik ez zituztelarik komunean, alegia, antzezleak eta publiko bat begira eta entzuten. Beste guztiari dagokionez (piezak, mintzairak, dekoratuak, jantziak, taularatzea, publikoaren eta aktoreen kalitatea, etab.), aniztasun handia zegoen formetan. Izan ere, garai hartan ikuskizunaren zaleak bi motatako olgetak aukeratzen zituen: lehena, herrikoia, Erdi Aroko tradizioak gordetzen zituen, plazan ematen zena, eta bigarrena, finagoa, aitzineko aroaren imitazioan italiar eredu jarraitzen zuena. Horrelako banaketa defini daiteke.

Talde bat gailentzen zen, Les Confréries de la Passion. XVI. mendearen hasieran, misterioen irudikapenen monopolioa izan zuten hiriburuan, Parisen. Les Confréries de la Passion taldeak antzezlan serioak, edo ofizialak, plazaratzen zituen. Talde honek zuen horren ardura eta luzaz horrela joan zen, gainerako taldeek oihartzun gutxiago izan zutenek ikuskizunak plazaratzen zituztelarik, misterioak barne.

Pasioko Kofradia izan zen antolatu zen lehen taldea. 1398. urtean agertzen hasi ziren, eta Karlos V.ak 1404an onespene berezi bat eman zien, misterioak antolatzeke baimena, 1518an Frantzisko I.ak berretsi zuena. Lehen aldia zen talde osatu batek egitura iraunkorra sortu nahi zuela. 1541a arte kofradiak xutik iraun zuen, herritarren artean arrakastarekin.

Testuinguru horretan sortzen ziren antzezlanak, gehienetan bertsoetan idatzitakoak, oso luzeak izaten ziren, eta zenbait ordu iraun zezaketen. Antzeztokia, eskerga, hainbat konpartimentutan antolatuta zegoen, eta konpartimentu bakoitzak dekorazio bana gordetzen zuen. Aktoreak batetik bestera mugitzen ziren, ekintzak aurrera egin ahala. Erdi Aroan, antzezpen horiek maiz egiten ziren aire zabalean.

Aitzineko erregeak eman zien emanaldiak antolatzeke lehentasuna, pribilegio gisa, eta erregea aldatzean babes hori behar zutenek, Les Confréries de la Passion taldeak legebiltzarrari berritzea eskatu zion, eta honek halaxe egin zuen.

Haien pribilegioak 1518an berritu ziren, eta, ondorioz, Kofradiatik kanpo inork ezin zituen benetako antzezlanak antolatu; horrela, Parisko antzezpen guztien gaineko monopolioa zeukaten edo bederen horren irudia eman zen. Denborarekin aldaketak heldu ziren, 1548an, Parisko Parlamentuak Kofradia delakoari misterioen plazaratzea debekatzeko bozka egin zuen. Ondorioz, antzerkiak eremu hetsietan antolatzen hasi ziren (RUNNALLS 2004: 135-201).

Teorian, elkarte honek misterioen antolatzeko pribilegioa zukeela erratea interpretazioa izan daiteke. Runnallsek zalantzan ematen du baieztapena hau. Misterio handien antolatzeko zitekeela pentsatzen du, eta erregeak beste taldeei, ikusgarrien eta unearen arabera, baimena emateko aukera gorde zukeela. Errealitatea zitekeen funtsean erregeak zuela baimenen emateko eskubidea eta horren inguruan ibiltzen zirela eskubideak.

Horrez gain, Erreformaren aurrean Eliza misterioen debekua lortzen ahalgindu zen. 1548ko debekuak<sup>12</sup> Paris eta inguruak hunkitzen zituen soilik eta antolaketa erraldoien ondotik hartutako erabakia zitekeen. Izan ere, Runnallsek dio misterio sinpleak iragan zirela, Parisen, erabakiaren ondorik. Dena den, erran behar dugu XVI. mendeak ez zuela misterioekin hautsi, mendearen erditsuan ere ematen baitziren.

Herritarrak misterioari atxikiak izaten jarraitu zuten, baina XVI. mende honen hasieran, gizarteko gainerako eremuetan bezala, aldaketak eta aukerak ere ugairitu ziren.

Haatik, beste elementu batzuk ere kontuan hartu behar dira, alegia, Pizkundearen hastapen honetan beste lerro batzuk irekitzen hasi zirela antzerki munduan. Mendearen erdialdera, jendearen gustua aldatuz joan zen pixkanaka, eta ikusleak La Confrérie de la Passion elkarteko emanaldiak uzten joan ziren, edo elkarteak bestelako ikusgarriak ere eskaintzen hasi zen. XVI. mendean, Confrérie de la Passion elkarteak, talde erregularra osatzen baitzuten, bestelako egoitza bat bilatu zuen, eta nahiago izan zuen areto batean jokatu. Misterioak apur bat galdu zuen orduan jai herrikoi izaera, edo zehatzagoa izateko, antzerki talde hau misterio serioetatik urruntzen joan zen, gaur egun ulertzen dugun antzerkira gehiago hurbiltzeko. Ikuskizuna jasoagoa zen, antzeztokia zainduagoa, makineriaren efektuak burutu zitezkeen.

---

<sup>12</sup> G. RUNNALLS, « La confrérie de la Passion et les mystères. Recueil de documents relatifs à l'histoire jusqu'au milieu du XVIe siècle », *Romania*, 122, 2004, 135-202. or, 6 U. Floris, Teorici, Teologi e Istrioni. Per e contro il teatro nella Francia del cinque .

Hala ere, misterioa herrikoia zen, misterioak jarraitu ziren ematen, nahiz eta gorabehera asko izan, debekuak izan arte zenbait urtez, XVI. mende osoan. Igeltsero edo arotzak izan zitezkeen aktore, edo bestelako herritarrak ere, amateurak antzezteko grina gorde zutenak. Hurrengo urteetan, ordea, misterioek elizgizonengandik gero eta eraso handiagoa izan zuten, eta hauek gai erlijiosoekin hartutako askatasunak defendatu zituzten. Elkarteari leporatu zitzaion antzerkiei gai apokrifoak gehitzea eta beren sorkuntzetan itxura eta pantomima zitalak sartzea. Euren lehen aretoa utzita, eskandalu hauen ondorioz, Confrérie de la Passion elkarteak antzoki berri bat eraiki zuen, 1548an amaitua. Urte berean, ordea, erlijio-antzerkiak egitea debekatu zitzairen.

Erljio katolikoari hain lotua zen antzerkiarentzat erlijioen arteko gerlak astintze gogorra izan ziren. Krisi ekonomikoak, hasteko, antolaketa erraldoientzat zailtasun nabarmena izan zen. Eliza katolikoari lotuak zein Erreformaren aldekoak ez zituzten gustukoak ikusgarri horiek, arazo asko ikusten zizkieten. Beraz, 1548ko debekua ongi heldu zen. Katolikoek heresia arriskua ikusten zioten eta Erreformaren aldekoek ez zioten interesik erakutsi. Bestalde, Pizkundeak eta erregeak arreta Italiatik heldu zen uhin kulturalari eskaini zioten. Mundua aldatzen ari zen.

Misterioen antolaketak, Parisen, gero eta arazo gehiago sortzen zituen, baina beste herrialdeetan ematen ziren.

#### 1.4 Debekuaren inguruan<sup>13</sup>

Gorago erran dugun bezala, antzerkiak harreman zailak izan ditu Elizarekin, baina ez Elizarekin bakarrik. Erregeak ere debekua erabili zuen antzerkiak plazaratzen zituztenen kontra.

Luzaz, ikerlariak garrantzia eman badiote misterioen debekatze horri, alegia Parisko Parlamentuak 1548an hartu zuen erabakiari, Jolle Koopmansek bere aldetik beste irakurketa bat egiten du, bereziki baieztapen horren aurrean, errealitatea konplexuagoa zitekeela proposatuz.

Izan ere, debeku batek irakurketa asko izaten ahal lituzke, eta debekua erabaki bazen, ez du honek erran nahi sistematikoki debekua gauzatu zenik, gogoeta desberdinak egin baitzitezkeen legeari lotutako erabakiaren inguruan. Bestalde, debekua izan bazen antzerkia ez zen emanen agian, ondorioz horrek bigarren mailako lotura zukeen antzerkiaren historian. Zergatik zuzenki soka

<sup>13</sup> J. KOOPMANS. L'effectivité de la législation sur le théâtre. *Cahiers de recherches médiévales et humanistes* 23. 2012. Paris.

jarri antzerkiaren eta debekuaeren artean? Segurki indar harreman handia egon zen erabaki horren inguruan, aztertua izan ez dena, izan ez zena Parisko Parlamentuan<sup>14</sup>.

Noski, debekuaeren ondorioa misterioa ez plazaratzea zitekeen. Baina ondoko urteek erakusten dute, eta horretan Koopmansek frogak ekartzen ditu, misterioak eman zirela luzaz, erregeen baimenarekin. Bestalde, badakigu lehenago ere misterioak debekatu zirela; adibidez, 1519an Aux maitres de la Passion taldeari, *Mystère de la Passion*, misterioa ematea debekatu zion gorteak izurritearengatik. Hasten gara ulertzen, Parlamentuak polizia ahalmena zuen heinean erabakiak hartzen zituela, baita zabaldu zen eritasunarengatik ere. Alegia, Parlamentuak egoera desberdinengatik hartzen zituela erabakiak.

1539an, erregea eta bere gortea *Sacrifice d'Abraham*, *Viel Testament*-eko zatiaren ikusgarri joan ziren. Hemen ikusten dugu erregeak XVI. mendearen erdialdean misterioen ikustera joateko ez zuela arazorik, nolabait misterioak babesten zituela. Horrez gain, Erdi Aro luzean kokatzen gara, Pizkunde garaia abiatua baitzen dagoeneko. Horrela iragan zen XVI. mendea, debeku eta onarpenen artean.

Bestalde, erregea eta Parlamentua ez ziren beti adostasunera heltzen, horrela 1541ean *Confrérie de la Passion*-eko elkarteak, Testamentu Zaharreko misterioa plazaratu nahi zuen, eta Parlamentua kontra agertu zen, baina erregeak baimena eman zion. Horretan iritzi eta erabaki kontrajarriak zeuden, erregearena neurri bateraino gailendu zitekeen eta ondorioz, ikusgarri erraldoi horiek antolatzen ziren.

Beste adibide batzuk badaude, Amiens herrian gertatutakoa, besteak beste. 1542an Testamentu Zaharreko testuak antzezteko baimena eman zen Amiens herrian, alegia, tokiko erabaki gisa tokiko autoritateak interesatzen zitzaion erabakia har zezakeela beste tokietan beste zerbait erabakitzen bazen ere.

Baina beste elementu bat behar zaio lotu debekuen artean ospetsuena den 1548ko debekuari. Izan ere, debekua Parisko Parlamentutik zetorren, baina baimenak toki desberdinetan ere eskatzen ziren. Noski, Parisko Parlamentuak itzal handia zuen, baina herrialdeek beren instituzioak zituzten eta horiei atxikiak ziren. Beraz, ikusgarriak antolatzeko, haien mende zeuden eremuetan eta

---

<sup>14</sup> Parisko Parlamentuak bere lehen araudi orokorra jasotzen du 1278ko agindu batekin. XV. mendetik aurrera, beste hamahiru parlamentu ezarri ziren, batzuk *ex nihilo*, baina beste batzuk, berriz, tokiko instituzioetatik, batzuetan askoz ere ospetsuagoak zirenak hala nola Normandiako Xake taula, edo askoz zaharragoak, Proventzako estatuak bezala. Hala ere, Parisko Parlamentua, Erregearen Justizia Gortea, azken gorenena eta, beraz, azken errekursoarena, nagusi bihurtu zen eta maiz "Parlamentua" besterik ez zen izendatzen.

herritarren elkartzeko ekintzentzat, baimena edo debekua emateko ahalmena erabil zezaketela pentsa daiteke.

1548ko Parlamentuko erabakia Testamentu Zaharreko misterioei lotua zegoenez, misterio profanoak hortik landa onartzen zirela ematen du.

Erreformaren garaia zela eta, Erreformak zalantzan ematen zituen sinesmenak, eta uste berriek beren ondorioak zituzketen, nola Elizaren barnean nola Parlamentuaren erabakietan. Erregearen jarrera ere ez dugu ahortzi behar, polemika erraz sor zezakeelako erabaki okerrak, gertakari inportantea zen festa erraldoiaren karietara.

Bordeleko Parlamentuak ere bere berezitasuna bazuen, hau Euskal Herria hunkitzen zuen gorrea izanik. Badakigu Bordeleko Parlamentua Erreformaren kontra agertu zela hastapenetik. Horrela, 1556an hasi zen misterioak debekatzeko, C. Longeonek egin ikerketaren arabera. Alegia, kristau fedea, sainduen adorazioa eta Elizaren instituzio sainduak aipatzen zituzten misterioak debekatzeko hasi zen. Baina sinodoak ere plazako ekintzen inguruan aginduak hartzen zituztela dio, Figeac herriko sinodoak agintzen baitu Bibliako liburuak ez direla ikusgarrientzat erabiliko. Hemen ere erabaki zorrotza agertzen da, baina zenbatetaraino jarraitua izan zenari buruzko beste informaziorik ez da lortu. Dena den, bi erlijio nagusiek ikusgarriari buruz ikuspuntu hurbila zutela ematen du.

Bretainiako Parlamentua, 1570ean, misterio eta gainerako jokoak debekatzeko hasi zela dio Jolle Koopmansek. Haatik, Koopmansek frantsesetik ematen ziren ikusgarriak lantzen ditu, nahiz orduan bretoieraz ere ematen ziren. Bestalde, Britainia Frantziari lotu zen 1532an, Bretainiako Parlamentuaren baimenarekin, nahiz hau lehenago kontra agertu. Vannesko itunak finkatu zuen Frantziari lotzea, baina Frantzisko I.ak dirutan lagundu zuen Parlamentuko onarpena. Erresuma zabal baten eraikuntzan ari zen erregea, eta ez zen hau beti errazki egiten. Pentsa daiteke esteka berri horiek plazetan ere aipatu zirela, baina horretaz Koopmansek ez du aipamenik egiten. Bestalde, Yves le Berrek garaiko bretoierazko antzerkia landu du, eta ikusi du beste antzerki mota bat zegoela Bretainian, Erdi Aroko antzerkiari lot daitekeena, XVI. mendean ematen zena, beste ikerketa lerro bat irekitzen duena, testuetatik aparte antzerkiaren historia egiteko unean toki osoa merezi duena. Frantziako antzerkiaren historia lantzen delarik, ikerlariak ere bazterrean uzten dute, frantsesaz gain beste hizkuntza batzuk egonik ere orduan batu nahi zen estatu horren barnean.



Testamentu Zaharrak eragin handia zuen ikusgarrien antolatzeke garaian, baina antzerki profanoak bazeuden, besteak debekutzen hasi baziren. Dena ez baitzen instituzioen erabakietan gelditzen.

Tantaka, XVI. mendean zehar, beste debeku batzuk egon zirela erakusten digu Koopmanesek, baina debekuen inguruan ez da ikerketa sistematikorik egon jakiteko politika orokor zehatz bat egon ote zen debekuen erabakietan, edo Parisko 1548ko erabakitik at, tokika hartzen ziren erabakiak zertan oinarritzen ziren, eta ezezkoei nola aurre egiten zitzairen, aukera baldin bazen. Erabakien alderdi juridikoak badu garrantzia, baina, horrez gain, badaude beste urrats batzuk kontuan hartu behar direnak, hauek osatzen baitzuten antzezipena, hala nola antzerkilarien erantzunak, zehar-aldaketak eta herrian horrek zuen ondorioa, misterio batek herri osoa hunkitzen baitzuen. Horretaz ikerketa zorrotzak beharrezkoak dira, espazio zabala irekia da.

## 1.5 Antzerki berria

Pizkunde garaiko antzerkiak aitzineko antzerkitik eta beste herrialdeetako antzerkitik hartu zuen inspirazio eta eredu. Nobleen eta eskolatuen lagunartean antzerki berri bat garatu zen, inguru horrek babestu zuen antzerki berria. Iturri nagusia Antzinaroa izan zen. Antzinaroen tragedia eta komediek berriro ohoratu zituzten. Tragedia landu zen lehenik latinez eta, gerora, frantsesez konposatua, Greziako tragedia nagusitzen hasi zen, eskolako ariketa bat besterik ez zen izan. Ikastetxeetan jaio zen, humanisten artean, elite batentzat. Baina laster zabaldu zen hizki ederren zaletasuna goi-gizartean, eta afizionatuen zirkulu txiki batzuk landu eta antzeztu zituzten obra berri haietako batzuk. Itzulpengintza loratzen hasi zen eta lanen itzulpenak hizkuntzaren inguruko gaiak zorrotzen joan ziren.

Beste eredu batzuk ere jarraitu ziren. Misterioaren ondoan pastorala<sup>15</sup> aipa daiteke, antzerki mota honek Pizkundean arrakasta izan baitzuen. XVI. mendean Italiatik Frantziara ekarri zuten pastorala eta Espainian ere hedatu zen. XVII. mendean gehiago zabaldu zen.

Antzinarotik heldu zen generoa, Virgilio<sup>16</sup> poetaren gustukoa zena. Landako mundua erakusten zuen, ingurumen bukoliko eta idilikoa plazaratuz. Artzainen

<sup>15</sup> Lan literario, artistiko edo musikala, baserritik inspirazioa hartzen duena, artzainak pertsonaiatzat dituen.

<sup>16</sup> Antzinateko pastoral lanik ospetsuena, dudarik gabe, *Les Bucoliques* da, Virgilioren eredu hain perfektuak, sentimendu zorrotzak aipatzeko, baina gehienetan poesia pastorala hartu zuen politika,

munduaz idazten zen, artzainak beren ardiekin, gai metafisikoez hitz egiten, hizkuntza hautatu batean eta gehienetan publiko hautatu baten aurrean.

Jean Vauquelin de La Fresnaye (La Fresnaye-au-Sauvage, 1536-Caen, 1607) frantses poeta izan zen, XVI. mendeko poesia pastoraleko idazle nagusia, landa mundua azaltzeko poeta nabarmena izan zen, Ronsard baino gehiago.

Pizkundean, Erdi Arotik heldu ziren irri egiteko antzerki formak ere baziren, fartsak, sotiak, moralitate eta beste antzerki joko guztiak. Irri egiteko antzerki forma berri bat bilatu zuten, irudi altxatuago bat nahi zuten inguru intelektualetan. Komedia hitza erabiliko zen gehiago eta antzerki profanoari lotuko.

Antzerki profanoa hasi zen Ehun Urteetako Gerlaren<sup>17</sup> ondotik. Misterioen ondoan, emanaldiak luzeak zirenez, pausaldiak egiten ziren, eta, tarte horietan, beste agerraldi laburragoak, irriaren sortzeko nahiarekin itsasten ziren misterio handiari. Pixkanaka joko horiek bide egin zuten eta horrela antzerki profanoa benetako izaera lortzen hasi zen. Noski, antzerki profanoa bizi izan zen lehenago, Kristautasunaren presentzia nabarmena izan baino lehenago, Grezian, Erroman, egon zen antzerki profanoa, antzinako antzerkia dei daitkeena, baina Ehun Urteetako Gerlaren ondotik, misterioetatik abiatuta, antzerki profanoa berpiztu zen, loraldi berri bat ezagutu zuen.

Orduan, antzezlan komikoak gehiago ematen hasi ziren, libreagoak zirenak, Elizaren kezka sortuz. Horrek ospea berritu zien, baina, aldi berean, erlijio agintarien mesfidantza eta etsaitasuna sortu zuen, mende erdian, puzten ari zen erlijioari lotu gatazka.

Horrela sortu zen fartsa. *Les clercs de la Basoche* deitzen ziren fartsak idazten zituzten zuzenbide ikasleak. Horiek nabarmendu ziren, horiek gelditu ziren memorian. Jostatzeko antzerkiak ziren, publiko mugatuaren aurrean ematen zirenak. Bazterreko jokoak ziren. Antzerki bat baino gehiago plazaratzen ziren, bakarrizketa izan zitekeen, moralitatea, laburrak, bertsotan edo ez, zati bakarrekoak.

Fartsak misterioen artekoak ziren. Txantxa satirikoa onartzen zen, baina zentsurari ihes egiten ziona, jendeari barre eragiten baitzion. 250 pieza labur gorde dira.

Pertsonaia bakoitza indibidualizatua zen, izena ere bazuen, eta beste per-  
erlijio, interes, atxikimendu eta abarrei buruzko era guztietako ideiak ezartzeko, zeren han ez baita ageri soroetako bizimoduaren pinturarik, ez eta artzainen ohiturarik ere.

<sup>17</sup> 1337-1453 Ehun Urteetako Gerra plantagenetarren eta valoistarren artekoa izan zen, eta haien bidez, Ingalaterra eta Frantziako erresumen arteko gatazka.

tsonaiei lotua zen Erdi Aroko ipuin laburretan bezala; pertsonaien zereginak oso zehatzak ziren: dirua, janaria, maitasuna eta abar aurkitzea. Tranpazko mundua da, emakume ahula garaile izaten zen gehienetan, fraideak harroputz eta lizunkeriatan ibiltzen ziren pertsonaiak, engainatzaile engainatuaren tokian jartzen zen. Parodiak, satirak, karikaturak, handikien salaketak, pertsonaien bitartez, herriak bizi zituen egoerak plazaratzen ziren, salatzen ziren.

Dekoratua sinplea izaten zen, eta edozein lekutan jokatzeko aukera ematen zuen. Agertokia misterioetako agertokiaren ondoan kokatzen zuten. Askotan bikoteen arteko harreman zaila kontatzen zen. Batean, gaia zen amaginarrebak eta andreak senarra salatzen zutela etxeko lanetan parte hartzen ez zuelako. Memorian gelditu den *La farce du Cuvier* deitu antzerki honetan, senarrak etxean lan zama handia izaten du. Egoera horretatik ateratzeko, senarrak tranpa egiten dio andreaki eta emaztea putzu batean erortzen da. Salbatua izateko, putzutik ateratzen badu, andreak senarrari agintzen dio bera izanen dela etxeko nagusia. Antzerki komikoak, sinpleak, emazteak forma ezkorrean margotzen zituztenak izaten ziren askotan. Hau famatuen artean gelditu da eta eskoletan aurkeztu ohi da. *La farce de Monsieur Pathelin* 1456 eta 1469 bitartean idatzia, gaur egun oraindik ematen dena, beste adibide horietako bat da. Tranpa jarri nahi zuena tranpan erortzen denaren eskema klasikoa eskaintzen digu.

Fartsari buruz irudi sinplea eta kaskarra zabaldu izan da (KOOPMANS 2016: I47-I68). Fartsak edozein pertsonaia zuen hizpide, kritika edozeini buruz egin zezakeen, apez, noble, aberats, gotzain, ez zen inor eskapatzen, ezinegona sor zezakeen, handien kontrako trufa nahi zuen, arte librea zen, zentsurarik ez zuen, teoriarik bederen. Ofizioen edo lanbideen satira zen. Lanbide bakoitzari akats tradizionalak egozten zitzaizkion: elizgizon txepelak, maitale gehienak apaizak izaten ziren, soldadu beldurtiak eta fanfarroiak, merkatari maltzurak, abokatu makurrak, eskola-maisu inozoak, mediku harroputzak, noble harroputzak, neskame interesatuak, hori zen giroa.

Arte arriskutsua zen nolabait, ordrearen alde ziren munduan, zerbait galtzeko zutenentzat. Kritika soziala egiten zen, plazan.

XVI. mende hastapenean humanistek ez zuten fartsari buruz iritzi onik, oso kritikoak ziren arte horri buruz. Noski, hasteko kritika sozialari buruz tresna ona izaten zen, sexua aipatzeko ere. Haatik, Humanistek ideia berriak ekarri nahi zituzten Erdi Arotik atera nahian, fartsa aurreko garaian lotu nahi izaten zen. Alta, gorde diren fartsa gehienak XVI. mendean idatziak izan ziren. Horrek kontraesan zerbait ekartzen dio baztertu nahi horri. Antzerki berri bati buruz joan nahi izan zen. Misterioak baztertzen ziren, joko berri bat

bilatzen zen, baina ezin zen fartsa izan.

Horrela, *L'Eugène*<sup>18</sup>, Jodelle poetarena, ideia horretan jartzen da. Bost ekitaldiak kontuan hartzen ditu eta hiru unitateak errespetatzen ditu, tokia, denbora eta ekintza; elementu hauek guztiak dira antzerki klasikoak jarraituko duen bidea. Idazten du bere lehen komedia erregular gisa aipatu zena. Antzerki hau fartsa bat da, egitura bat eskaintzen duena eta nolabait antzinako antzerkia gogoratzen duena, garai horretan erreferentea zen antzerki kultuari lotuz, hau kultuzat emana baitzen garaiko intelektuaren artean, Antzinaroko eredia ontzat emana zen. Horiek ziren Parisko inguru kultuetan intelektualek defendatzen zituzten ereduak. Haatik, haustura zorrotzik ez zegoen, aitzineko ereduak hor jarraitzen zuten. Lehen komediak ere fartsak erabiltzen zituzten gaiak erabiltzen zituzten (LAZARD 1997: 65-78). Kultur munduak ez zituen fartsak nahi, fartsak ez baitzuten antolaketa aberatsik behar, herrikoiak ziren, herritar guztiengana heltzeko ikusgarriak ziren. Idatzien aldetik ere eredu finkorik ez zuten, beraz ez ziren kultu gisa ikusten.

Etienne Jodellek idatziaren antolaketa berri bat proposatzen zuen. *Eugène* eta *Cléopâtre captive* antzezlanekin, proposatzen zuen fartsa berrirako, ereduaren barnean, bost agerraldi, bost zati, hiru unitateak, denbora, tokia eta sinesgarritasuna. Garaiko literatur duintasunak eskatzen zuena jarraitu zuen bere lanetan, eremu kultuetan hobesten zen eredia, alegia. Pleiade elkarteako kidea zen, haien helburua zen elite baten kultura bat lantzea eta horretan lotzen zen Jodelle. *Eugène* eta *Cléopâtre captive* lanekin Antzinaroko eredia itzultzen ari dela ilustratzen du. Horaziok bere *Arte Poetikoan* egindako zatiketa errespetatuz idazten du bere antzezlanak, joko aurrerapen argi eta orekatua eraginez. Virgilio, Ovidio edo Senekaren lanak izan zituen eredutzat. Jodellek bultzatzen duen estiloak zorrotzasuna aldarrikatzen du, hitzen lanketa, denboraren antolaketa, pertsonaien psikologiaren lanak, edertasun-sentimendua bilatzea eta ikuslearen zirrara sorraraztea.

Hots, Jodellek Erdi Aroko lanekiko, antzerkiarekiko, distantzia bat aldarrikatzen zuen, horrela agertu zuen bere lanaren aitzinsolasean. Berrikuntza altxagarria nahi zuten zirkulu intelektualak konbentzitu zituen bere idatziekin.

Arlo politikoan, erregea norabide berria ari zen finkatzen Frantzian erabili behar zen hizkuntzari buruz, frantses hizkuntza hedatu nahi zuen erresuma

<sup>18</sup> *L'Eugène*, Etienne Jodellearen komedia humanista bat da, 1553an lehen aldiz irudikatua. Txantxetako lehen komedia da. Antza denez, 1553ko otsailaren 9an irudikatu zuten, lehenik Henrike II.a erregearen aurrean. Lehen komedia humanista da, zenbait idazlerendako frantses antzerki klasikoari bidea ireki zuena.

osoan eta erabaki bat hartu zuen horretarako.

1539ko abuztuan, Frantzisko I.ak Villers-Cotterêseko ordenantza finkatu zuen, Guillaume Poyet kantzilerrak idatzia. Herri hau valoistarren herrialdearen erditsuan kokatua zen, Frantziako errege zen Frantzisko I.aren lurraldean. Testua 1539ko irailaren 6an erregistratu zen Parisko Parlamentuan. Justiziaren erabakiak ulergarriagoak egitea zen agindu horren helburua. 192 artikulua ditu, eta horien artean, frantsesa Frantziako hizkuntza ofizial bihurtu zuten IIO. eta III. artikulua. Erabaki horrek zioen frantsesa zela administrazioaren hizkuntza, hori agintzen zuen, latina bigarren mailara pasatzeko helburuarekin, justizia ulergarriagoa egiteko gisan.

La Pléiadeko idazleek ere hizkuntza frantsesaren aldeko urrats horiek bultzatu nahi zituzten. Testuinguru horretan, poeten anbizioa zen antzerki nazional modernoaren sortzea. La Pléiade<sup>19</sup> osatzen zuten idazleen artean antzerkia ez zen letretan alderdi nagusia, olerkigintzak zuen lehentasuna. Haatik, ez zuten antzerkia bere bidetik, beste bide batetik, joatea nahi eta antzerkiaren inguruan ere eragiten aritu ziren. Horretarako aitzineko tragedia eta komediak hartu zituzten eredutzat. Horrekin batera, hizkuntza zaindua eskatzen zuten. Hori zen berrikuntzaren alde zegoen nahikeria, literatura eta poesiaren berritzearen alde, antzerkia arte poetikoetan kokatzen zutelarik. Ekitalditan eta agerralditan banatutako komediak nahi zituzten, duintasuna berreskuratuz, moralitateetan eta fartsetan ikusten ez zutena. Hori zen Ronsard eta De Bellay poeten kredoa. Jodelle eta Grévin izan ziren, besteak beste, ezagunen artean, lan horiek eskaini zituzten lehen idazleak.

Alta, fartsa antzerki herrikoia izan zen XVI. mende osoan, 500 bertso inguruko ekitaldi bakarrarekin eta, gehienik, lau aktoreekin. Antolaketa gutxi, askotan publikoa zutik izaten zen eta ikusgarriaren sartzea oso merkea izaten zen.

Haustura bilatzen da XVI. mendearen erditsu horretan, eta Jodellek lehen komedia arruntarekin, sar-hitzan fartsa finki salatuz, haustura hori gauzatu nahi du. Haatik, mende osoan fartsak idazten eta plazaratzen jarraitu zuten, libertate maila bat aldarrikatzen baitzen fartsan. Tokiko sorkuntza gisa ere defendatzen zen. Arte herrikoia zen, baina errege, noble eta aberatsen aurrean ere ematen ziren.

---

<sup>19</sup> La Pléiade, XVI. mendeko zortzi poeta frantsesek osatutako taldea da: Pierre de Ronsard, Joachim Du Bellay, Jean-Antoine de Baif, Étienne Jodelle, Rémy Belleau, Jean Dorat, Jacques Peletier eta Pontus de Tyard dira poeta horiek. Beren literatur lan eta testu teorikoen bidez, frantses hizkuntza berritu eta hobetu nahi zuten, garai hartan latina bezalako beste hizkuntza “nobleago” batzuegandik independizatzeko. Helburu politikoa zen Frantzia frantsesaren bidez bateratzen parte hartzea.

La Pléiadeko kritika zorrotzaren aurrean gogoratu behar da fartsaren artea; irria sortzeko testuak ez dira testu errazak izaten, ez eta taularatze lana oztoporik gabekoa. Izan ere, testu komikoak idazleari eta aktoreari gizakiaren psikologiaren ezagutza handia eskatzen dio, eta baita ere hizkuntzarena, publikoarekiko komunikazio zuzena eta eraginkorra lortzeko, publikoa irriraino eramateko.

Erdi Aro luzeko antzerkigintza lan kolektiboaren emaitza izaten zen. Bertan elkartzen ziren profesionalen jakintza, helburu didaktikoak, transmisioaren grina, pedagogiaren praktikak eta hori guztia besta giroan, herriari lotu ekintza batean, herritarrek nahi zutena eta gozatzen zutena. Hori dena ideien trukatzeko zabal baten erdian. Hizkuntzak dantzan jartzen zituzten, tokiko hizkuntzak gero eta gehiago kontutan hartzen baitziren idazteko unean, antzezteko unean. Testu idazleak zeuden, erretorika ezagutzen zutenak, antzerki munduko adituak, juristak testuak legearen arabera neurtzen zituztenak. Parean, ikusleak zeuden, antzerkia ezagutzen zutenak, bertako kodeetan adituak zirenak. Horiiek ikusgarrien inguruan elkartzen ziren, hitza, ahozotasuna, ahozko ekintza, *performancea* hobesten ziren garaian. Ikusgarria onartua eta antzeztua bazen, ematen zen denboran, ekintzaile askoren elkartzea gertatzen zen, proiektu erraldoiaren inguruan sorkuntza ikaragarri handia izaten zen. Gaztetatik herrietan guneak, denborak eraikitzen eta ezagutzen zituzten. Herri-tarrak formatzen ziren eta hizkuntza baten inguruan, gertakari baten inguruan federatzen ziren herritarrak.

La Pléiadeko poetek komiko elegante bat, barre zakarretik urrun zegoena, antzerki-plazeraren nolakotasun berri bat, azpijokoen komediaren plazer intelektual bat, gaien eta hizkuntzaren arrunkeari uko eginez ere bada, hau zen bilatzen zutena. Fartsa ez zen horretan kokatzen. Horrela hasten zen komedia nazionalaren bidea.

Beste forma komiko batzuk ere baziren, sotiak, besteak beste. Bufoiak ziren eta ihauteri formako ikusgarriak antolatzen zituzten, handien, boteretsuen kritikarako tresna modukoak.

Moralitateak, antzerki didaktikoak, heriotzaren pertsonalizazioa, maitasunaren gauzatzearekin, itxura irrigarria hartzen zutenak, kritika sozialak egiteko. Bakarrizketak ere izaten ziren, antzinako sermoiak bezalakoak. Antzezleak bakarrik gorpuzten zituen hainbat pertsonaia estereotipatu. Erdi Aroaren amaierako lau genero komiko handietako bat da sotiarekin, sermoi alaiarekin eta fartsarekin.

Autore batzuek Erdi Arotik heldu zen antzerkiari buruz ikuspuntu berezia agertzen dute, antzerki frantses nazionalista gisa aipatzen dute XVI. mendeko antzerkia. Étienne Pasquier, La Croix du Maine, Du Verdier kultura munduko kideek nazionalismo kulturala bilatzen zutela diote, frantses literatura goratzeko beste bide gisa (KOOPMANS eta SMITH 2010: 59). Europa guztian XVIII. mendean agertu zen ildo berdintsua, lehenago agertu zena.

Antzerki-aretorik ez zegoen Paris inguruan, han baitziren Frantziako ikusgarri nagusiak sortzen. Antzerki talde ofizialik gutxi zeuden ere Frantzian XVI. mendean. Parisen, antzerki zale talde bakarra zegoen, Les Confréries de la Passion elkartea. Hauek antzoki bat lortzen saiatu ziren. Besteak, berriz, aire zabalean ari ziren. Tragediak, komediak eta pastoralak, publiko hautatu baten aurrean jokatuak, gaztelu bateko saloi edo patioan antzeztzen ziren. Hala ere, antzeppen bakar baterako erabilitako baliabideak garrantzitsuak ziren. Soinu efektuak erabiltzen ziren, trumoiaren hotsa entzuten zen, gaur egun ere egiten den bezala, txapak joz edo zurezko zorueta harri handiak bilduz. Argi efektuak lortzen ziren lanpararen aurrean jarritako kolorezko edalontziei esker. Eszenan atondutako tranpek lurretik irteten bide ziren pertsonaiak agerrarazten zituzten, soka eta poleen “makinek” airean hegan egiten zuten bitartean.

Poliki-poliki, eta hasieran probintzian, gela erregularrak agertu ziren. Garai hartako lekukoek erakusten digute bazela, batez ere Meaux hirian, ikusleentzako hiru galeria zituen antzoki bat, makineria batez hornitutako eszena bat. Gogoratzen gara Margaritak Meaux herriarekin zuen harreman handiaz.

Lehen tropa antolatua ere probintzian eratu ziren. Dudarik gabe, hiriburuaren afizionatuen gizarteen aniztasuna eta kopurua aski ziren paristarren gustua asetzeko. Aitzitik, horrelako tradizioz ez zuten hiri txikiek, eta tropa edo antzerkilari eskasia zegoen herrialde eta herri desberdinetan. Probintzietan, antzezleek hiriz hiri ibili behar zuten, eta horrek ez zien beste lanbiderik uzten. Beraz, “profesional” bihurtu ziren, eta gero eta tropa gehiago eratu ziren. Hauek ez zeuden genero bakar batean espezializatuak, Parisko gizartean bezala. Gutun ederrez maitemindutako jaun baten gaztelutik igarotzen zirenean, tragedia edo komedia zahar bat antzeztu behar izaten zuten. Aitzitik, hiri txiki bateko plazan eraikitzen baldin bazituzten, txantxa edo moraltasuna irudikatu behar zuten, jende ona pozik uzteko. Horrela, benetako errepertorioak zituzten. Aktore bakoitzak bere lana zuen, eta talde bakoitzak berarekin paseatzen zuen bere egilea, obra berriak idazteko arduraduna. Ulertzekoa da, beraz, zergatik bihurtu zen antzerkia probintzietan benetako lanbide.

Mende aberats eta irakin hartan, antzerki modernoaren osagai nagusiak sortu ziren. Mendean zehar aukera berriak heldu ziren, proiektu berriak, antzezlanak, antzezlanak antzezteko ideia berriak zeuden, komediantek taldeak agertzeko eskaera zegoen. Erdi Aroko herri-ikuskizunak eta Italiako eta antzinateko genero berriak urtu eta aberastu egin ziren, XVII. mendeko tragedia eta komedia klasikoen altxorretara iristeko.

## 2. EMAZTEAK ETA XVI. MENDEKO ANTZERKIA

Frantziako antzerkiaren historia aztertzen hasten bagara, segurki liburu nagusietan eta autore nagusien iritziak irakurriz azpimarratuko dugu autore horiek diotela Erdi Aroko antzerkian emazteen presentziarik ez zegoela. Hori azpimarratzen dute Catherine Croizy-Naquet, Stéphanie Le Briz-Orgeur et Jean-René Valette ikerlariak (CROIZY-NAQUET, LE BRIZ-ORGEUR eta VALETTE 2017: 590). Louis Petit de Jullevillek 1883an argitaratu ikerketan baieztatzen zuena urtez urte errepikatu izan zela diote, beste azterketa sakonik egin gabe. Izan ere, Petit de Julleville Erdi Aroko antzerkiaren azterketak eta frantses literaturaren historiografiak plazaratu zituen autore erreferentea zen, irakasleen artean ere. Noski, ez zion begirada sobera zorrotza bota emazteek antzerki munduan izan zuten lekuari. Ikerlari gazteak azterketa sakonago bat egitera abiatu dira mende bat eta gehiago berantago, eta dokumentu, didaskalia eta kontu liburuak beste angelu batetik begiratzen hasi dira.

Ikerketa taldeak antzinako dokumentuak aztertu dituzte emazteen arrastoen bila, historialariak antzerki idazleez ikertu zutena landu dute, eta antzerkiaz aritu zirenek hautatu zuten ikuspuntua begiratzen hasi dira, emazteak baztertuak izan zirela frogatua ote zen jakiteko.

Horrela, artxiiboetan zeuden dokumentuen artean, erabiltzen duten zaharrena 1333koa da, emazteen parte hartzea frogatzen duena eta Toulon herrian emandako misterio bat aipatzen duena: *Nativité Notre-Dame*. Emazte baten izena ere ematen du, Louison Amilhaurena, Mariaren papera eramaten duenarena. 1468an, Metz herrian beste emazte batek paper inportante bat dauka *Sainte Catherine* misterioan: 2.300 bertso ikasi behar ditu, Catherinen papera du eta 18 urte ditu (HESSOM 1870: 103).

Auzitegiatiko artxiiboetan ere frogak daude. Izan ere, ikusgarrien antolatzeke profesionalen laguntza behar izaten zen eta kontratuak eta fakturak zeuden. Kontratuarekin edo lanarekin arazoak agertzen zirelarik, batzuetan gatazkak



epaitegian konpontzen ziren. Epaiaketen txostenak epaitegietan gordetuak ziren, ondorioz langile edo nagusi gisa, auzietako txostenetan, emazteak ere agertzen ziren. Auzietako erabaki horiek utzi dituzte misterioetan emazteen parte hartzeaz.

Parte hartzea ez zen soilik aktore gisa izaten. Parte hartzea bestelakoa izaten ahal zen. Izan ere, goi mailako aristokratek ikusgarriak manatzen zituzten, eta horien artean emazteak zeuden. Jakina da Anjouko Yolandak (1428-1483), René erregearen amak, ikusgarriak prezatzen zituela, eskatzen zituela eta kontu liburuetan horren frogak aurkitu dituzte. Anjou leinuko etxean ohitura zegoen antzerkiko jendea ordaintzeko ikusgarriengatik.

Beste ikerlari batek, Aurore Evainek ere ikertu ditu XVI. mendeko antzerki laguntzaileak (EVAIN 2007: 59-99). Fartsak izaten ziren askotan, irri egiteko, baina malabaristak ere joko desberdinetako ekintzaileak ziren. Aurore Evainek ordainketa horien frogak aurkitu eta aipatzen ditu, emazteen izenak agertuz.

Horrez gain, emazteen parte hartzea estalia gelditzen zen, ikerketek azpimarratzen dutenaren arabera, jantzientzat, apainketentzat, nahiz eta emazteak hor egon, gehienetan familiako buruaren, gizonaren izena agertzen zela. Kasu bat zegoen, non emaztearen lana agerian egoten zen: enpresako nagusia zendua zelarik eta bere andrearen eskuetara pasatua zelarik. Orduan, andrea alarguntzen zelarik, etxeko enpresarekin jarraituz, emaztearen izena agertzen zen enpresak eramaten zituen obretan.

Kofradiak ere bazeuden Erdi Arotik, eta kofradia edo elkarte horietako batzuen buru emazteak ziren.

Kofradia edo elkarteek misterioak antolatzen zituztelarik, kofradiaren burua emazte bat izaten ahal bazen, misterioetan aritzeko ere emazteak zitezkeela pentsa daiteke: berriz ere beste argumentu bat ondorioztatzeko XVI.eko antzerkigintzan emazteek ere beren tokia atzematen zutela. Emakumeen antzerkiak<sup>20</sup> tradizio luzea du, Errenazimentutik datorrena eta genero anitzetan garatu dena, askotan arrakasta handia lortuz.

Emazteen parte hartzeari buruz, Jolle Koopmansek bere iritzia ere plazaratzen du Erdi Arotik heldu zen antzerkiari buruz. Harentzat antzerkian emazteek izan duten tokia urrunagotik heldu da oraindik. XII. mendetik emazteen komentuetan liturgiari buruzko dramak antolatzen zirela dio. Produktzioetan ere bazeudela (KOOPMANS eta SMITH 2010: 59).

<sup>20</sup> Evain (Aurore), Gethner (Perry), Goldwyn (Henriette), *Théâtre de femmes de l'Ancien Régime*. I.Tomoa, xvie siècle, Ed. Classiques Garnier. Paris, 2014.

Margarita Nafarroakoa erregina, Louise Labé poeta<sup>21</sup>, eta Catherine Des Roches poitoutar areto ospetsu bateko animatzailea... XVI. mendeko antzerki harrigarriara garamatzate haien obrek, garai hartan itxuragabetasun eta mutazio betean zirenak. Frantzisko I.aren arreba tradizionalki hain maskulinoa zen eremu hartara oldartu zen lehenik; Erreformaren ideiekiko sentibera, kontzientzia askatasunaren aldekoa, pieza originalak bezain ausartak egin zituen. Louise Labé jakintsua, bere aldetik, antzinako antzerkiari, italiar genero “modernoei” eta garaiko filosofei buruzko eztabaidetan sartu zen; haren komedia lotsagabeak etorkizun luzea izan behar zuen. Catherine Des Roches pastoralean, tragikomedian, elkarrizketa dramatikoetan. “Aro klasiko”aren aurreko antzerkiaren inprobisazioa, aberastasuna eta aniztasuna ilustratuz, hiru aitzindari haiek, gainera, emakumeen ahotsa entzunarazteko gogoz elkartzen ziren.

Ahokotasunari garrantzia ematen jarraitzen badugu, erran genezake frantsesez ari zen mundu hori guztia ari zelarik, euskaraz ere beste antzerki mundu bat zitekeela, aztarnarik utzi ez zuena. XVII. mende arte ez baitugu eskuizkriburik horren aztarna utzi duenik. Baina ez dugu baieztatu ez zegoela. Antzerkia Frantzian XII. mendean sortu zela erraten delarik, ahokotasuna ezabatzen da, antzerkia testua baino gehiago baita eta bat-batekotasuna urrunagotik heldu dela ezin baitugu ahantzi. Dena den, ikerketak falta dira oraindik, baina denborak gehiago erakutsiko digu, dudarik gabe.

### 3. ANTZERKIA, MARGARITAREN GENERO PREZIATUA

Genero guztiak gustukoak zituen Margaritak. Horrez gain, gorteko jokoetan egoteak ere plazera ekartzen zion. Horretarako, benetako antolakuntza bat bizi zen bera egoten zen jauregietan, dibertitzeko ikusgarriak sortzeko. Antzerki testuak idazten zituen, laburrak zein luzeak, gogoetarako zein jostatzeko, eta jokalariai ekartzen zituen idatzitakoa publikoaren aurrean eskaintzeko, inguruan zituen lagunak dibertitzeko.

---

<sup>21</sup> Mireille Huchonen hipotesiak Marc Fumarolliren onarpena lortu zuen *Le Monde* egunkariko artikulu batean, 2006ko maiatzaren 12an. Marc Fumarolli, humanista, historialaria, kritikoa, XVII. mendeko aditua da.

### 3.1 Testuingurua

Pizkundearekin, ahantziak ziren idatziak berriz plazaratzen hasi ziren, antzerkigintzari lotuak zirenak ere. Beste autore askoren artean, Tertulianoren testuak, kristautasuneko teologoarenak, Elizaren erreferentearenak berriz plazaratu ziren.

Quintus Septimius Florens Tertullianus (160-220), Tertuliano<sup>22</sup> goitizenez ezaguna, Cartagena herrian sortua 150. eta 160. urtearen bitartean, eta 220 inguruan zendua, Cartagenako teologo ezagunena izan zen. Latinez idazten zuen, eta testu berezi bat plazaratu zuen, hau da, *Des spectaculis* (*Les spectacles*). Testu honetan<sup>23</sup> Tertulianoren kezka, II. eta III. mendeen artean, orduko kristauen munduko ikuspuntuak daude. Tertulianok testua idatzi zuen garai hartan publikoak ziren ikusgarrien kritikatzeko, kristautasunarekin ez zutela deus ikustekorik errateko. Tertulianorentzat kristauak ez zuten horretan interesik ikusi behar, eremu horietatik urrundu behar ziren. Antzerki ikusgarriak aipatzen zituen, baita ere gladiatoreen borrokak, kirol lehiaketak eta zaldi lasterketak. Idolatria eta moral gabekia ikusten zituen antolaketa horietan.

Pizkundeak testu hori berpiztu zuen, iraganarekiko sortu zen interes handia, eta horien artean lehen teologoaren testuak begirada berriarekin hartzen ziren. Horien itzulpenak ere egin ziren. Testu honek eta horren zabaltzeak bazukeen garaian toki eta eraginik, kontuan hartu behar baita, Elizak, apezten bitartez, eguneroko herritarren bizitzan eragiteko ahal handia zuela, herritarrak iritzi horien beldur bizi baitziren.

Platonen ere antzerkiaren kontra idatzi zuen. Laburki aipatuko dugu gaia, hemen horren aurkezpen xumea egiten dugu, polemika asko izan direla aspalditik antzerkiaren inguruan gogoratzeko. Platonentzat antzerkia txarra zen, alde batetik aktoreak pertsonaien sentimenduen perbertsioaz jabetzera behartuak baitziren, eta bestaldetik, ikusleak, moralik gabeko gaien eta eskandaluen aurrean jartzen baitziren<sup>24</sup>.

XVI. mendean zehar, polemikak biderkatu ziren, mundua elizen inguruan

<sup>22</sup> Latinezko idazlea, familia elebidun eta pagano batekoa. Kristautasunera bihurtu zen II. mendean amaieran eta Kartagoko teologo gailena bihurtu zen. Autore emankorra, haren eragina handia izan zen mendebalde kristauean. Izan ere, bera izan zen Hirutasun terminoa erabili zuen lehen egile latindarra, zeinaren teologia zehatz bat garatzen duen. Honela, bere garaiko teologo kristau handientzat jotzen da. Era berean, kultura paganoei aurre egiten dien polemista da.

<sup>23</sup> TERTULIANO. *Les spectacles (De spectaculis)*. Introduction, textique critiques, traduction et commentaires de Marie Turcane. Paris. Ed. du Cerf. 1986.

<sup>24</sup> J. L. NANCY. 2001, «Le partage des voix», dans Platon, *Ion*, trad. J. F. Pradeau. Ellipses, III-138.

antolatzen zen eta predikuetan gero eta gehiago aipatzen ziren antzerki ikusgarriak. Zoritxarrez, horretaz aztarna gutxi gelditu zen. Gelditu dena izan da salaketa bat, 1541ekoa, misterio baten kontra, Parisko Parlamentuak jarri zuena. Auzi horretan hainbat mailatako argudioak erabili ziren: moralak, erlijioari lotutakoak, sozialak, ekonomikoak eta politikoak. Baina nagusiki azpimarratu zirenak moralak ziren; herritarrek asko edaten baitzuten ikusgarrien inguruan, alferkeria bultzatzen zela salatzen zen, erlijioa baztertuz. Aldiz, Erreformaren garaian, Erreformaren aldeko argudioak emateko aukera bat zen antzerkia, publiko berria bereganatzeko. Alegia, agintariek eta Elizak uste zuten, ikusgarrien bitartez, Elizaren helburuetatik herritarrak urundu zitezkeela, bereziki ikusgarriak elizen inguruko plazetan antolatzen zirelarik, besta eta lizunkeria sortuz, Erreformaren aldeko Elizari oro har leporatzen ziotena. Hasieran arazoak misterioen inguruan abiatu ziren, Erromako Elizari kolpe handia ematen baitzioten misterioek, misterioentzat herritarrek dirua ematen zutelako eta hori Elizaren kalterako zelako, diru hori Elizaren eskeko kutxan sartzen ez zenez. Maila askotariko kezka eta arrangurak ziren agintarientzat, herritarren heziketan gaindituak izateko arriskua ikusten zuten, eta misterio batzuk erraldoiak bihurtu baitziren, agintariek urratsak egin behar zituzten, beren autoritatea berreskuratu.

Ez zen lehen salaketa izan. Marie Bouhaik-Gironesek (BOUHAIK-GIRONES 2003: 117-134), CNRSko ikerlari eta Erdi Aroko antzerkian adituak uste du, bereziki ikusgarrien historian, 2003an plazaratu zuen Dijon herrian, fartsa baten kontrako salaketa bat ere izan zela 1447an, baina auziaren aztarnarik ez denez gelditzen, auzirik ez zela izan, salaketa baztertu zuketela. Salaketa egin zen erranez fartsa iraingarria zela erregearentzat. Prokuradoreak eraman behar zuen gaia.

Mende bat berantago gertatu zen salaketa, antzerkia bera jarri zen auzitan eta jatorri nahiko zaharra zuen. Izan ere, arazoaren hastapena 1402an kokatzen da, orduko errege Karlos VII.ak Pasioko Kofradiari Parisen misterioak antolatzeke eskubidea eman baitzion. Eskubide honek kofradiari ekarpen ekonomikoa eskaintzen zion, elizaren inguruan antolatzen zenarekin diru sartze bat izaten baitzen, Elizaren kutxara joaten ez zena.

Horrez gain, misterioen inguruko antolaketa urtez urte handitzen joaten zen. Diru inbertsioak emendatzen ziren. Gero eta iraupen luzeagoa zuten misterioek eta herritarren parte hartze handiagoa. Pixkanaka antolatzaileek diru gehiago eskatu zioten erregeari, antolaketak diruz hornitzeko eskatuz.

Horrekin batera ikusgarrien mundua nolabaiteko instituzionalizatzea alda-

rrikatzen hasi zen, antzoki baten eraikitzea eskatuz erregeari. *Ballade* testuan, *Mystères des Actes des Apotres*-eko gehigarrian, aldarrikapen hori agertzen da (RUNNALS 2004: 135-201).

Parisko Parlamentuak misterioak debekatu zituen 1548an, antolatzaileen prekaritatea erakutsiz. Ondotik, kofradia Borgoinako hotela alokatzen hasi zen bere ikusgarrien antolatzeko. Ordu arte eraikin honetan espektakuluak antolatzen ohi ziren eta 1548tik aurrera antzerkirako leku tradizionala bihurtu zen, ondoko mendea arte, non Parisko antzoki nagusia bihurtu zen. Bertan XVII. mendean, Racinen antzezlanak aurkeztu ziren.

Erran bezala, antzerkia denentzat kritikagarria zen, Erreformaren aldekoentzat, Elizaren helburuek itxura galtzen baitzuten besta giro horretan, eliza otoitzerako eta testuen lantzeko eremua ontsalaz zelarik. Eliza katolikoarentzat ere kaltegarria bihurtzen zen. Nahiz eta gai erlijiosoak antolatu, Elizak ez zuen beti bere tokia ikusten ikusgarrietan, herritarren parte hartzea handia baitzen, apezna desagertzen baitzen eta testua ere herritarrek sortzen baitzuten.

Haatik, Erreformaren aldekoek antzerkia baliatu zuten beren ideien zabalatzeko. Bereziki Luteroren inguruan, Philippe Schwartzerde, ezizenez Mélanchthon zenak, irakaskuntzarako antzerkia bultzatu zuen. Mélanchthon Luteroren lagun mina zen, teologian doktore, eta Erreformaren une garrantzitsuetan partaide izan zen. *Augsburgeko konfesioak* idatzi zituen. Konfesioak Karlos V.ari aurkeztu zizkioten 1530ean. Erreformaren oinarrizko testuetan kokatzen da, alegia, Erreformako pertsona garrantzitsuetan kokatzen da Melanchthon.

Hezkuntzarako ere interes berezia zuen eta erakusteko tresnetan antzerkia egokia zitzaion. Bibliako testuetan, antzerkiaren bidez, egoera testu sakratuak herritartzeko, erakusteko aukera zegoen. Fedea hedatzeko, herritarren eta haurrengana hurbiltzeko bidea zen (MONREAL PÉREZ 2017).

Horrela, mende berean, jesuitek ere antzerkia aipatzen zuten eremu didaktikoan, eskoletan arimen irabazteko, Kontrarreforma bultzatzeko tresna gisa (VALENTIN 2001).

Gogoratu behar da antzerkiak, hala ere, arte gisa legearen mehatxupean ibili behar izan zuela, debeku eta baimenen artean (KOOPMANS 2012: 141-150).

Hau zen Margaritaren garaian antzerkiaren inguruan zegoen giroa. Margarita Parisen biziz eta literaturaren inguruan zeukan interesa izanik, ulergarria da pentsatzea fartsak, antzerkiak idaztea naturala izan zela harentzat. Gortean biziz, bere idatziak, bere gogoetak pertsonaien bitartez taularatu zituen.

### 3.2 Margarita eta antzerkia

XVI. mendeko idazle gisa Margaritaren obra inportantea izan zela oso zabaldua da. Frantziako eremu akademikoetan toki nagusia onartzen zaio bere obrari, agregaziorako autore hautatuetan kokatua izan da azken urteetan. Noski, aitoren beranta izan da, baina egina da, eta gero eta ikerlari gehiago interesatzen ari da bere lanaz. Margherita Romengok, Louvaingo Unibertsitateko doktoreak, idazlearen eraikitzea nola urratsez urrats eraman izan zuen kontatzen du, nola eraiki zuen Margaritak autorearen figura, autorea izatearena, bere obrak izan zuen ibilbidea (ROMENGO 2016).

Baina lan zehatz honetan antzerkigintza ez da aztertzen. Izan ere, Margaritaren lana aipatzen delarik, *Heptameron*a edo poesiagintza aipatzen dira, antzerkiari eman zion arreta ahantzia izaten da. Hau da hemen begiratuko duguna.

Antzerki munduari buruz, gero eta ikerketa gehiago plazaratzen dira. XVI. mendeko antzerki erlijiosoak zuen eremu zabala hartuz ere, begiratu behar da ikerlariak luzaz egin zutela bereizketa Margaritak idatzi zituen gai erlijioso eta profanoen artean, polemikak sortuz (BOUHAÏK-GIRONES, KOOPMANS eta LA-VEANT 2008: 214).

Noski hemen bereizketa hori jarraituko dugu, antzerki guztiak ez baititugu itzultzen; profanoak hautatu ditugu, eta, haatik, erran behar dugu ikerlari batzuk bereizketa zorrotz hori, erlijiosoaren eta profanoaren arteko hori, zailtzan ematen ari direla.

Hots, antzerkigintza askotan literaturaren bazter batean gelditzen da, antzerkia testua baino askotarikoagoa baita, osagai askoz egina, eta antzerkia aipatu behar delarik osagai guztiak aipatu beharko lirakeke. Ondorioz, lan horiek luzaz sakondu gabe gelditu izan dira. Margaritaren kasuan horrela zen gertatu ere. Izan ere, antzerki profanoak ez ziren argitaratu 1946a arte. XX. mendea arte Margaritaren lanak ez ziren literaturgile nagusien artean kokatu, adituek ez zuten frantses literaturako nagusien artean sailkatzen.

Autore gisa, urratsez urrats sortu baldin bazen, bera hil ondoren gisa berean hedatu ziren bere lanak. *Heptameron*a gelditzen da bere obraren erdigunean. Antzerkiak gureganaino heldu ziren, baina antzerki profanoek lan gehiago izan zuten mundu akademikoa hunkitzeko.

Jacques Pannier ikerlariak egiten duen Kalbinori buruzko ikerketan (PANNIER 1923: 297-323), Erreformen garrantzia handiko eragilearen konbertsioa nola egin zen esplikatzeko saiakeran, Margaritaren lanak agertzen dira. Izan ere, 1533ko urriaren lehenean, Nafarroako erregearen kontrako komedia

satiriko bat iragan zela Parisen kontatzen du. Ondoren, Margaritaren *Miroir de l'ame pécheresse* justiziaren esku utzia izan zela eta erregearen babesaren lortu zuela. Antzerki lanak berantagokoak dira, baina erreginaren ospearen isla dugu hemen alde batetik eta bestetik satirak goi mailako arduradunak ere hunkitzen zituenaren frogak.

Margaritaren antzerki profanoak Verdun L. Saulnier-ek<sup>25</sup> argitaratu zituen, 1946an, Lyongo Unibertsitateko Lettres-etako irakasle zelarik, Parisen argitaratu zen lana. Eskaintza Pierre Jourda-ri (1898-1978) egin zion, historialari horrek Margarita erreginari buruz lan asko utzi baitzituen. Sarreran zioen Bibliari buruzko antzezlan asko idatzi zituela Margaritak, zazpi antzerki profanoen ondoan. Florimond de Raemond-en hitzak agertzen zituen. Florimond de Raemond (1540-1601) lege gizona zen, historialaria, kontrarreformista eta Bordeleko Parlamentuko kidea<sup>26</sup>. Gogorarazi nahi dugu garai horretan, XVI. mendean, Bordeleko Parlamentuak garapen handia ezagutu zuela. Parlamentu hori Justiziako gortea zen; XV. mendean sortu zenean hehezortzi kide zituen, eta 1543an berrogeita hamabost. Parlamentuko karguak familietan transmititzen ziren eta horrela dinastiak sortu ziren. Michel de Montaigne idazlea, adibidez, horietako familia batetik heldu zen. Bordeleko Parlamentua Eliza katolikoaren alde jarri zen, Erreformaren lehen mugimenduetatik. Baina arazo larri batzuei ere aurre egin behar izan zion, bereziki Frantzisko I.ak zerga berriak sortu zituelarik, 1548an. Kari horretara erregeak Parlamentuari agintea kendu zion, urte horretan gertatu ziren matxinadengatik. Parlamentuari ahulezia leporatu zion. Ondoko erregeak amnistia erabaki eta agintea itzuli zion Parlamentuari. Heresiaren kontra ekin zion XVI. mendean Parlamentuak. Oroitarazi nahi dugu Nafarroako erregeari, Margaritaren senar Henrikeri, Frantzisko I.ak eman ziola Guienako gobernadore kargua. Horrela esplikatu daitezke Henrikek Erreformarekiko zituen zalantzak, alde batetik, bere kargua eramateko onartu zuen ardura, eta, bestalde, erresuma berreskuratzeko Elizarekiko harremanen zaintzeko zituzkeen kezkak, alegia.

Beraz, Florimond de Raemond-ek zioen (RAEMOND 1610: 849) Margaritak

<sup>25</sup> Verdun-Leon Saulnier, (Erroma, 1917ko urtarrilaren 1a - Bron, 1980ko irailaren 29a) frantses unibertsitari bat izan zen, erromanistikan aditua eta bereziki François Rabelais eta Clément Maroten lanetan espezialista.

<sup>26</sup> Florimond de Raemond (Agen, 1540 - Bordeaux, 1601eko azaroaren 17a) frantses abokatua, Kontrarreformaren aldekoa eta historialaria izan zen, Bordeleko Parlamentuko kidea. Frantziaren historia baten egilea da, hainbat liburukitan, ikuspegi katolikoaren arabera idatzia. Bere idatzen bidez, XVI. mendean erdialdeko erlijio-gatazketan parte hartzen du aktiboki. Bere obra nagusia, *Mende bonetako heresiaren jaiotza, aurrerabide eta gainbebera* da.

Testamentu Berri ia-ia osoaren itzulpen tragikomikoa idatzi zuela. Antzezlan horiek bere senarraren aurrean ematen zirela, eta Italiako aktore hoberenak ekartzen zituela idatzi zuen. Henrikek Margaritaren lanak ezagutzen zituen, bere ingurukoek bezala. Kontra jartzea zaila izanen zitzaion Margaritak zuen pisu politikoarengatik, baina ezin da erran Henrikek bat egiten zuenik Margaritak zeraman bidearekin.

Horrez gain, erreginak berak kontaktzen zion d'Izernay jaunari, 1543ko gutunean, denbora pasatzen zuela "momeris" eta fartsak idazten eta ematen<sup>27</sup>. Brantômek ere horren berri ematen zuen *Vie des dames illustres* lanean (BOURDEILLES 1655).

Antzerkiak bere inguruko andereek ematen zituztela idazten zuen, eta Italiatik aktoreak etortzen baziren, gure aldetik, pentsatzen dugu erraten ahal dela, alde batetik, Margaritak berak garrantzia ematen ziola sortzen zuen lanari, eta bestaldetik, Italian ere horren berri zuketela, alegia, balorazio bat ere egiten zela antzerkiaren munduan erreginak egiten zuen lanaz.

Antzezlan horiek, hemen aipatuko ditugun antzerki profanoek, ez dute aktore asko eskatzen. Hiru erlijioari buruzko satirak dira: *Le Malade, l'Inquisiteur* eta *Trop Prou*, (Eria, Inkisidorea, Sobera nahiko); bi libertimendu amodioaren gaiari buruzkoak *Comédie à dix personnages*, eta *Comédie du Parfait amant* (Komedia hamar pertsonaiaarekin eta Maitale perfektuaren komedia), eta bi meditazio edo gogoeta lirikoak, *Le trépas du roy* eta *Mont de Marsan* (Erregearen heriotza eta *Mont-de-Marsan*).

Verdun L. Saulnierek azaltzen duen bezala, narrazioa intriga baino azkarra- goa izaten da, antolaketa urrikoa, eliza berri baten aldeko aldarria ikusten da, eta askotan umiltasunaren grazia eta goratzea, umiltasuna handikeria baino goragokoa dela plazaratu nahi zuen. Antzerki hauetan autoreak zioen neska umilak erakusten ziola andere handiari eta zerbitzariak nagusiari. Jende xumeari aitortza dugu hemen, Eliza gehienetan aberats eta handien alde jarria zegoen garai horietan, eta horregatik kritiken pean zegoenez, beste bide bat erakusten zuen Margaritak. Bestalde, Margaritak bazekien egoerak oso aldakorrak zirela. Bera bazterreko aristokrazia xume batetik zetorren, eta lehen lerroa eramana izan zen anaiaren bilakaerarengatik, garaiak horrela erabaki baitzuen hura errege bihurtu zelarik. Horrez gain, bere ibilbide aurrerakoiarengatik, bizi espiritual aberatsarengatik, ideien trukaketa bukaezina bizi zuen sortu zen gortean. Kontzientzia handiko autorea izan zen eta gogoeta horiez guztiez jantzia, eta antzerkien bitartez, bere

<sup>27</sup> 1543ko gutuna, Jourda, Répertoire, 1930, 926 z. 205.o.



ideiak argira ekartzen zituen, herriarengana hedatzen. Bere barneko elkarrizketak hor daude agerian, pertsonaien bitartez. Askotan esan ohi izan da herritar xumeen artea zela antzerkia, pastoralak bezala, baina hemen kultura gehien zuen autore baten sorkuntza dugu, kultura baten parte, ez bazterrekoa.

### 3.3 Hiru antzerki nagusi

Margaritaren antzerki lanetatik hiru antzerki profano hautatu ditugu: *Le Malade*, *La Comédie du Parfait amant* eta *Le Trepas du roi*.

Margaritaren obra guztiak ez dira gureganaino heldu, baina gure helburua izan da Margaritaren obraren zati adierazgarri bat erakustea. Horretarako, gelditu diren eskuizkribu bakarretatik heldutako obrak hautatu ditugu. Alegia, eskuizkribu horiek Frantziako Liburutegi Nazionalean utzitakoak dira, horiek izan ziren Verdun L. Saulnierrek erabili zituenak 1946an Margaritaren antzerki profanoari buruz argitaratu zuen liburuan argitaratzeko. Gure iturria beraz liburu hau dugu, eta horretatik egin ditugu hemen plazaratzen ditugun itzulpenak. Argitalpen honentzat ortografia egokitua izan da zenbait kasutan, baina oso kasu bakarretan, eta testuaren barnean kontraesanak agertzen zirelarik, liburuaren autoreak zioenez.

#### a) Eria

Antzerki hau fartsa bat da, antzerki lan komiko-satirikoa.

Eri batek, bere andreak ematen dizkion botikekin asperturik, medikuaren jakitateak lagunduko duelakoan, haren bila igortzen du.

Andrea joana den bitartean, zerbitzaria hurbiltzen zaio erranez medikuaren lanak ez duela balio, sendatzeko bidean Jainkoak bakarrik laguntzen ahal duela.

Medikua heldu da, eria aztertzen du eta bazter batera doa bere botiken errezeta idazteko. Bitartean, zerbitzariak eriarekin jarraitzen du, eta konbentzitzen du Jainkoaren baitan duela garaipena. Bat-bateko sendatzea gertatzen da orduan.

Medikua harrিতua da, gertatzen dena ez du sinesten eta eria zerbitzatzaren jarraituko duela dio.

Antzerkia eriaaren esker onarekin eta fedearen goraipamenarekin bukatzen da.

Testuaren helburua da erakustea arimaren sendatzeko Jainkoarekin sortzen den harreman zuzena aski dela, bitartekaririk gabe.

Verdun L. Saulnierrek 1535 eta 1536an kokatzen zuen obraren sortzea,

erlijio tradizionalaren eta berriaren artean zubiak eraiki nahi zituen garaian. Bestalde, beste elementu batek ere laguntzen zuen datazio baten alde, izan ere, Languedoc herrialdea aipatzen zuen testuan eta garai horretan ibili zen inguru haietan erregina, eta antzerkia emana izan zen bertan.

Verdun L. Saulnierrek *Eria* obra beste obra batekin lotzen zuen, gai bera lantzen baitzen: obra hori *Moralité de la maladie de Chrestienté* izeneko zen, hamabi pertsonaia zituen, Erreformaren aldekoa zen eta Mathieu Malingrek<sup>28</sup> idatzi eta Neuchatel herrian eman zen 1533an. Urte hartan inprimatu zen. Margaritaren obra ondotikakoa dela erraten zuen Verdunek, baina urte hurbilak dira, ez du beste frogarik ekartzen, baina Margaritaren lanari itzal zerbait ematen diola erran genezake.

Medikuntzaren parabola Guillaume Briçonnet (1470-1534) Meaux-eko apezpikuaren parabola maitatua zen. Erreformaren hastapeneko bultzatzaile honek Nafarroako Kolegioan egin zituen ikasketak, Parisen. Kolegio<sup>29</sup> hau, Nafarroako Joana I.a<sup>30</sup>, 1304an sortu zen Filipe Ederraren andrearen borondatez. Briçonneten eta Margaritaren arteko gutunerian medikuntzaren gaia aipatua izaten zen. Elizan zeuden autoritateak ez ziren Erreformaren aldekoentzat egokienak eta jakintsuenak herritarren eta fededunen salbatzeko.

Antzerki honetan eriak bere gorputza bakarrik ikusten du, bere andreak sendagaia sorginen sendabelarretan ikusten du eta medikuak bere zientzian. Hirurak ari dira beren gaia aitzinatzen, dena neurtzen eta kalkulatzeko. Zerbitzaria, aldiz, dena da fede, konfiantza; bat da gorputza, bestea burua, zerbitzaria aldiz, bihotza.

XVI. mendean medikuntza zientzietan benetako aurreratzeak izan ziren, eta hemen medikuak erakusten ditu XVI. mendearen medikuntzako topikoak: adibidez, odol ateratzeak. Belarren ezagutza handia zen, eta baita sinesteak ere, muskerraren larrua tumoreen kontra ona zela, adibidez.

Ondoko mendeetan ere antzerkiak idatzi ziren medikuntza eta sendabelarren

<sup>28</sup> Erreformaren aldeko predikari. Antzerki-lanen egilea. Olivetango Bibliarentzat testu bat idatzi zuen, 1535ean argitaratutako jatorrizko testuetatik (hebreeraz eta grezieraz) frantsesera itzultitako lehen Biblia.

<sup>29</sup> Nafarroako Ikastetxea (*Collège de Navarre*), Joana I.a Nafarroakoaren testamentuari esker, 1309an Parisen sortutako ikastetxea izan zen. Ikastetxea egin zedin, Joanak bere *Hôtel de Navarre*, garai hartan Parisen zegoen etxandi ederrenetako bat utzi zuen oinordetzan. Oso prestigio handiko ikastetgia izan zen, XVI. mendean Sorbonarekin lehiatzen iritsi zena. 1793an, Frantziako Iraultzaren ondoren, itxi egin zen. 1805ean bertan kokatu zuen Napoleonek Parisko Ikastetxe Politeknikoa.

<sup>30</sup> Joana I.a (Bar-sur-Seine, 1273ko urtarrilaren 14a - Vincennes, 1305eko apirilaren 2a), Champagneko eta Brieko kondesa, 1274-1305 bitartean Nafarroako erregina.

inguruan.

Intentzio sinbolikoa nabarmena da hemen, alegia, Jainkoaren errekurtsio zuzena, inongo zientziarik gabe, nahikoa da eri den arima sendatzeko.

Parabola honetan Briçonneten ideia garatzen du, alegia, Elizako jakintsuak, Elizak hautatutako buruzagiak ez direla hoberenak sinestedunen salbatzeko.

Lau pertsonaiek arimaren lau izaera posible ordezkatzan dituzte munduaren eta Jainkoaren artean.

Eria, pertsonaia nagusia, arima gaizki duena horrenbeste bekaturen ondoren, bere andreak sekulako tresnak erabiltzen dituen, eraginik gabeko erremedioak, zientziarekin ezer ikustekorik ez dutenak. Hauek sineskeriak baizik ez dira, baina andrearen sinesmenetan sartzen dira, honek debozioak praktikatzan baititu, Elizak erraten duena jarraitzen du. Ez du honek beste argirik ikusten, itsutua da, Elizaren alderdi txarrak ez ditu ikusten. Medikiak, jakintsu, ez du onartzen botikarik gabe senda daitekeenik, berak daki zer sendabide egoki behar duen eriak. Eliza tradizionalaren bozeramailea da hemen, Eskritura Sainduaren errespetuan, eta autoritatearen beharra azpimarratuz. Sendabiderik ez dago tratamendurik gabe, ondorioz odola ateratzea agintzen du. Gelazainarentzat sendabidea bestelakoa da, zientziarekin ez du deus ikustekorik. Fedea da salbatzen duena, Jainkoarenganako maitasun garbia.

Eriak bere gorputza baizik ez du ikusten, bere minak, haren andreak Elizak banatzen dituen irudiak eta erosten dituen otoitzak, medikuak zientzian du sinisten, hiruak kalkuluan daude, ganbarazainak aldiz, fedearen baitan sinisten du, fedearen baitan du konfiantza. Bat organismo bat da, bestea eskua, bestea oraindik burua, ganbarazaina, aldiz, bihotza da.

Ohartzen gara medikuak malgutasun zerbait erakusten duela. Ez badu fedearen terapiarengan erabat sinisten, onartzen du, hala ere, eria sendatu dela bere laguntzarik gabe. Bere pazientei atxikia da, ez du itsuki bere zientzian sinisten, onartzen du beste zerbait gertatu dela kasu horretan. Hala ere, bitartekariaren beharra ikusten du eritasunetik ateratzeko. Margaritak aurpegi ona ematen dio medikuari, giro orokorraren baketzearen baitan sinetsi nahi du, nahiz eta ondoko garaiek ez duten hori erakutsiko.

Andrearen burugabekeria ikus daiteke, eria andreak baita. Alta, garai horretan tramankulu asko erabiltzen ziren, ordaintzen ziren erien sendatzeko, eta joko horretan Eliza sartzen zen, muskerren larrua baliatzen zen orduan tumoreen kontra, adibidez. Eta horrela, asko, eta debate asko zientzialarien artean ere medikuntzako lehen urrats hauetan, erregeek ere trenkatu behar izaten

zituzten zientzialarien arteko gerlak.

Eskuizkribuaren azpтитulua fartsa da. Pizkundean fartsaren definizioa lotzen da gehiago dibertitzeko elkarrizketa gisa, satira alderdi bat gehituz.

Gai horiek guztiek gizartearen hitzetan aurkitzen ziren, eta hain garrantzitsua zen fedea, ezen une horretan galdera asko pausatzen baitzituen. Fedea, Eliza katolikoa ziren herritarren bizitza kudeatzen zuten tresnak. Horretatik kanpo ez zen salbaziorik.

Erritmoaren aldetik oktosilabikoak dira, Erdi Arotik heldu da hori, Ron-sardek ere erabiltzen zuen poesian, malgutasun handia uzten dio olerkariari, erreginak bere komedietan gehien erabili duen erritmoa da.

Itzulpena egiteko ez ditugu ez errimak ez eta lerroen neurriak kontuan hartu, zeren eta euskarazko itzulpenean ez dira jatorrizko oktosilaboak edo zortzi silabako lerroak gorde, testuaren esanahia lehenetsi dugu.

*ERIA* (Fartsa I535)

Pertsonaiak:

Eria, Anderea (eriaren emaztea), Ganbarazaina, Medikua.

[I. LEHEN AGERRALDIA]

ERIA

Andere enea, zein eri naizen!  
Bazterrean min handia sentitzen dut.  
Gustu kiratsa dut, bihotza geza.

ANDEREA

Zure koloreek erakusten dute:  
Baina otoi umore onez har ezazu  
eta indarra egin jateko.

ERIA

Jan, dastamenik ez duenak?  
Biziki errabiarazten nauzu  
Jan! Segurtatzen dizut nirea  
Ez dudala ez gusturik ez apetiturik  
Eta inongo puskarik ez nekike

Irentsi, nahiz txikia izan.

ANDEREA

Orduan ohera sartu behar duzu  
gusturago egonen zara.

ERIA

Deusetan ez dudanez gusturik hartzen  
Hobeki nago horrela, ongi ez bazaizu ere.

ANDEREA

Non daukazu zure mina?  
Eskuineko saihetsean, bular azpian,  
Oinazea sumatzen dut,  
sekulan bezalakoa.

ANDEREA

Basurde hortz zuria eta ederra  
Emanen dizut, nire usaia da:  
Eta belar bat, badakit zein,  
Eginen dizut kataplasma.

ERIA

Bihotza, ez da horretarik  
nondik artatzea komeni zaidan  
Zoaz laster, luzatu gabe,  
Mediku on baten bila.

ANDEREA

Beti haiengana lasterka joan nahi duzu  
Baina haien aztaparra arriskutsuegia da.  
Beste egunean hilarazi zuten  
Prokuradorearen alaba  
Gure artean, gaixo emazte euli,  
esperientzia zerbait daukagu,  
Eta belarrak ezagutzen ditugu,  
Haiek bezala, nire kontzientzian,  
Uste al duzu heien zientzia handiak

Gauza guztiak jakin ditzakeela?

ERIA

Ai, pazientzia galtzen dut!  
Zoaz, eginbidea bete.

ANDEREA

Beraz argi ikusten dut,  
Haren baitan bakarrik sinetsi nahi baituzu,  
Ongi nahi bainuen, Jondoniren izenean,  
Zure oroimenetik kanpo balitz:  
Zeren soilik edan nahi bazenu  
Bost gorringo soil  
Historia aldatzen ikusiko zenuke  
Eta segurki sendatua zinateke,  
Zu pozik uzteko beraz noa  
Eta behar bada lasterka.

## [II. BIGARREN AGERRALDIA]

ERIA

Zoritxarrez! Jainkoa maitea, ez dakit zer egin  
Uste dut azkenean hilko naizela,  
Hau ez nezake gehiago jasan.  
Nire mina beti emendatzen baita.  
Munduan ez nezake egon.  
Zer diozu, nire zerbitzari?

GANBARAZAINA

Egia erraten menturatzen banintz  
Eta hartzea onartzen bazenu,  
Martiritik kanpo zinateke,  
Medikuaren zain egon gabe.

ERIA

Ez daki zer saindurengana jo:  
Baina denei lotzen naiz.

GANBARAZAINA

Bakarra da defenda daitekeena  
Laudatzea merezi duena.

ERIA

Zein da kentzen ahal dituen  
Erraten duzun bezala, min horiek guztiak?

GANBARAZAINA

Bakarra da, estimatzen ahal baduzu  
Zure minak baloratzen ahal lituzkeena,  
Eta ez zinateke gehiago joanen  
mediku faltsuengana, konfiantza eginez:  
Baina eritasun eta eraso  
Harekin fidagaitz joanen zinateke.

ERIA

Zein da saildu hori? Zein izan daiteke?  
Otoi, haren izena emadazu.

GANBARAZAINA

Sainduen saildua da, maisu handia  
Aita Saildu eta erregeak saildu egiten dituen  
Jainkoa da, nork benetan sinesten duena  
Zure min guztiak kenduko dizkizuna  
Noiz fede segurtatu batez  
Zure bihotza hor geldituko dena.  
Ba al da mediku prestuagorik  
Jainkoa baino, edo hobe, edo goxoago  
Gizaki leinua hainbeste maite duena,  
Hain indartsu entzuten al nauzu?  
Horrenbeste kolpe sufritu duenik  
Heriotza, zu sanoagoa bihurtzeko,  
Zure arima otsoen atzaparretatik libratzeko  
Bere baitan emateko?  
Harengana zuzenean joaten bazara,  
Zure gai tristeak kontatzera  
Eta zintzoki hitz egiten baduzu

Kristau onak egin behar duen bezala,  
 Bat-batean prest sentituko zara  
 Lotura egiteko sufritzen duzunarengatik  
 eta, ez bazaio plazer egiten horrela egitea  
 Harengatik sufritzea eskaintzen duzu.  
 Zure merituei begiratzen badiezu  
 Eta zure bekatuak ongi argiki  
 Zure oinazeak txikiak aurkituko  
 Zure epaiari atxikia  
 Jar ezazu zure ulermenean  
 Deusenaz ez zarela jabe  
 Pena, oinazea, eta grinak  
 Eta bekatuak gaizkian atxikitzen zaitu.  
 Baina, bekatu hori begiratu  
 Eta pena onartuz  
 Bat-batean zinateke askatua  
 Goren grazia batengandik  
 Infernu sakon batetik gibelerat ekartzen du  
 Umiliatua izan den arima  
 Argia bilakatu, ederra eta sana  
 Eta Bekatu guztiei askatua.  
 Nire maisua jarri dena deusetan  
 Zure desioa eta borondatea.

ERIA

Fede onean pentsatzen dut  
 Jainkoarengandik osasuna datorrela:  
 Nire bihotza indar handiz poztu da  
 Zu hartaz hitz egiten entzutea.  
 Kezkatu nauen oinazea  
 Bat-batean joaten sentitu dut  
 Horregatik hitz atsegin horiekin  
 Pausatzeko tenorea heldu da.

[III. HIRUGARREN AGERRALDIA]

ANDEREA (Medikuari)



Zoritxarrez, Jauna, nire senar onak  
Nire bitartez bere oinazea adierazten dizu.  
Hain gaizki den erraten ez dela menturatzen:  
Atsegin bazaizu ikustera etortzea.

MEDIKUA

(Otoi, errazu gauza  
Erantzuten jakin dezadan)  
Nire atsoak jakin nahi luke  
Zer oinaze duen.

ANDEREA

Bularraren azpian

MEDIKUA

Noiz heldu zaio?

ANDEREA

Atzo arratsean izan zen  
Baina goizean bakarrik pleinitu da.  
Ene Jauna nahiz eta latinez  
Zientzia handia duzun  
Atzo arratsean Cathin handiak jakinarazi zidan  
Esperientzia aski ona:  
Jauna, uso zuri baten  
kakatik, erraten dit edari ona  
Egin dezadan txanpon bat bazik balio duena  
Eta hondatzerik egiten ez duena.

MEDIKUA

Alafede ez zara prestua  
Eta zure atsoa ere ez,  
Izan ere edari mota hau  
Languedoc guztian debekatua baita.  
Bada, bidean naizenez,  
Laster botika emanen diot,  
Baina lehenik ikusi behar dut,

Gero bere kasuaz aginduko dut.  
Baina zu edo beste batzuk zainduko ditut  
Sudurra sar ez dezazuen  
Edo oporraldia eskatuko,  
Gatua xingarrera joan dadin.

[IV. LAUGARREN AGERRALDIA]

ANDEREA

Hemen duzu gure etxeko atea.  
Eta zer egiten du, ganbarazaina?

GANBARAZAINA

Luzaz lo egin du  
Inongo manieraz pleinitu gabe.

ANDEREA

Osatze osoa litzateke  
Horrela pausatzen balitz.

MEDIKUA

Hemen aipatzeak ez du balio.  
Sar gaitezen pultsua har diezaiodan.

[V. BOSGARREN AGERRALDIA]

(Hemen pultsua hartzen dio, eta eria iratzartzen da)

ERIA

Nor da hau?

MEDIKUA

Ni naiz, laguna  
Osasuna ematera datorrena

ERIA

Ez zintudan ikusten, aita:  
 Agian barkatuko nauzu.  
 Zoritxarrez, nire oinazea itzultzen sentitzen dut  
 Loa kendu zidana,  
 Leku berean ez naiteke egon.  
 Izerdia bota eta intzirika ari behar.

MEDIKUA

Nire laguna, sendatuko zaitugu.  
 Ez dugu lan handirik ja izango.  
 Kuiak jan al dituzu  
 Hartuak burdin edo metalarekin?  
 Zure zaldia ez al da sobera gogorra?  
 Hotz hartu al duzu edo busti?  
 Hau, ekar ezazu pixatoki hau  
 Bere pixa begira dezadan.  
 (Begiratzen du eta gero erraten du)  
 Benetan, askoz hobeto gaude,  
 Laguna, pentsatzen nuena baino,  
 Gure pixa ona da, eta gure begiak  
 Ongi argiak. Bada, frantsesez hitz egiteko,  
 Odol hustu beharko duzu, baita  
 Beste botika bat hartu,  
 Zeren, bestela hasten bagara  
 Medikua ahalkegarri litzateke.

ERIA

Zoritxarrez, odol hustu horri beldur hain handia diodan,  
 Eta horrela nire odola hedatzen ikusi  
 Nire larrua erabat estalia da  
 Izerdiz. Ezin dut onartu.

MEDIKUA

Erabakia hartu behar duzu.  
 Zer! Espiritu hain ona duzun,  
 Eta haur goxo bat bezala egiten duzu  
 Beldur hutsez hiltzen den!

ANDEREA, medikuari

Jauna, odolustu gabe, ikusi ditut  
Arras ongi sendatu direnak,  
Edari bat edan ondotik  
Soilik lo belar zukuez.

MEDIKUA

Ulermena nahasten didazu.  
Isil zaitez, mentsa zarella.  
Hemendik Epai handia arte  
Ez luke zure diagnostikoak mugarik  
Ez dut inoiz eritasunik ikusten  
Hain zaila bada ere artatzea,  
Zeintzat zenbat emazte txoriburuk  
Ez duela mila erremedio ekartzen:  
Eta abenturaz gertatzen bada,  
Horretaz norbait sendatzea  
Ehun mila (haien natura jakin gabe)  
Belar horretaz hilko dira.  
Bada ongi botikariarekin  
Zure kasua aginduko dut  
Egitea ongi heldu zaizun  
Zure onera bat batean berrezartzeko.

ANDEREA

Jauna, ez gehiago luzatzeko,  
Argitu iezadazu zure errezeta.  
Eria ez izutzeko  
Ez mugitu bere presentzian.

MEDIKUA

Ez duzu ulertzen ez goma ez belar:  
Zertaz nahi dituzu izendatu.

ANDEREA

Erran zaharrak ongi irakurri baditut  
Eta Itsasoaren gaindiko bidaiak.  
Ondoren ez dituzu gaitzetsi behar

Gure diagnostikoak eta gure obra bideak,  
 Baina ongi estimatu behar,  
 Buhameengandik heldu baitira.  
 Beraz poliki idatz ezazu  
 Gustukoa duzun nire senarrak egin behar duena:  
 Osoki egingen du  
 Zeren sobera zaude bere grazian.  
 Horrela ez naiz aspertuko entzuten  
 Erran nahiko didazun guztia.  
 Beraz, otoi, toki honetan  
 Bere arazoaz idatz ezazu.

## GANBARAZAINA

Nire jauna, zure bihotzak zer erraten dizu?  
 Gizonen artean zer atzeman duzu?  
 Medikua garaile al da  
 Sentitu duzun oinaze horretaz?

## ERIA

Ez baina arras ongi onartu dut  
 Pazientziarekin oinazea ihesi doala,  
 Laster atzeman dut,  
 Konfiantza ezarriz zientziaren baitan.

## GANBARAZAINA

Beraz, dakizuenez  
 Ongia nondik heltzen ahal zaizun,  
 Utz ezazu erremedio faltsu guztiak  
 Bakarrak eta egiazkoei lotzeko.  
 Fedeak atxikiko zaitu  
 Eta sano eta alai denbora guztian.  
 Hori lortzen baduzu  
 Loriosen mailakoa izanen zara.  
 Pentsatzen ahal baduzu  
 Jainkoa zure bide bakarra dela  
 Ez duzu hornitu beharko  
 Ez eta lapurtu dezakezuela beldurtu,  
 Ez duzu ez desiorik ez gutiziarik izanen

Ez eritasunik ez osasunik.  
 Bizitza hau ez da desbideratzen  
 Gorputza astindua baldin bada ere.  
 Beti grinak jana izanen zara,  
 Zure gorputza bakarrik begiratu.  
 Inoiz ez zara aseko  
 Hilen mailan ez zaren bitartean,  
 Baina orduan atsedena izanen duzu  
 Zuri doakionez hila izanen zara  
 Orduan adostezintasunak bakean izanen dira  
 Akordio goxo eta berri batez.  
 Arima umiliatuarentzat  
 Bere ezdeusa ezagutuz,  
 Bere gorputzetik askatua  
 Deus baino gutxiago estimatzen duena,  
 Bat-batean bere ontasunez betea  
 Izanen da, eta Jainkoaren baitan bildua  
 Bere loturei hain lotua  
 Deabruak ez duela tokirik izanen.  
 Beraz, hustua izanen zarelarik  
 Deabruaz, eta bere kezkez,  
 Zure mina, bekatutik heldu dena,  
 Bere jantziez biluztua,  
 Ikusiko duzu, eta bere instrumentu guztiak  
 Erretzen karitatearen sutean:  
 Tenorez jakinen duzun gezurretan naizenez,  
 Zeren benetan saildua izanen zara.

ERIA

Zure errana onartzen dut,  
 Ez da posible kontra egitea:  
 Sinesten dut eta sentitzen dut,  
 Nire martirio osoa galtzen badut.  
 O Jainkoa, egia errateko  
 Zure semea igorri diguzu  
 Zoriontsu nahi zaituena  
 Eta zure baitan bihotza jarri duena!

MEDIKUA

Hemen idatziz zure kasua.  
Bihar arte banoa.  
Bada, gainera emadazu dirua.

ANDEREA

Hemen dituzu, luzatu eskua.

ERIA

Jauna, odoluste anker hori  
Deusendako ez dut jasan nahi.

MEDIKUA

Bai egunen duzu.

ERIA

Jauna, sanoa naiz:  
Oinaze handia ezin du betirako iraun.

MEDIKUA

Goiz pluratiko bat sendatzen bada  
Leku huste handirik gabe  
Ez dut ikusi nire praktikan.  
Ez al duzu pasio gehiagorik?

ERIA

Ez baina kontsolamendua  
Aski badut zuri saltzeko.

MEDIKUA

Zure errana fikzioa baizik ez da,  
Odolustea beharrezkoa baituzu.

ERIA

Nire pultsua har ezazu, nire lagun ona;  
Ikus ezazu zer estatutan naizen.

MEDIKUA

Ez da agertzen zaidan sukarririk:  
Hau ezin dut entzun.  
Gauza bat  
Oinazez nintzenez penatua  
Ate horiek ditut soilik pasatu  
Eta aurkitzen zaitut dena sendatua.  
Belar batzuk eman dizkiozu  
Errazu, ez ezazu gorde.

ANDEREA

Benetan ez naiz neurri horretakoa  
Nahi dut mentsa dei nazazun

MEDIKUA

Zer egin duzu, adiskide, hitz egin!

ERIA

Deus oroitzen naizen:  
Baina nire min guztiak joan dira  
Soilik fermuki sinesteko.

MEDIKUA

Ha, Jainkoa, xarma bada,  
Edo hitzak, edo idatziak

ERIA

EZ, ez adierazpen fermua da,  
Belar eta ogi baino gehiago balio duena

MEDIKUA

Ganbarazaina, kasu berri horiek  
Ez al dira zure entseguez heldu?

ERIA

Lagun, ez; bereak ederrak dira  
Inongo xarmari gelditzen ez dena.  
(ganbarazaina irriz)



MEDIKUA

Ikusten al duzu itxurazko aurpegi hori,  
Atzean mutur dena?  
Ha, jokatu nuke saindu baten bati  
Eskaini dela, emaztea eskaintzen den bezala.  
Nire lau behatz bere matelaren gainean  
Ez al litezke ongi heldu?

GANBARAZAINA

Jauna, medikua laudatzen da,  
Sendatzen duelarik: ez al da horrela?

MEDIKUA

Beraz sendatu duzu, gaizto,  
Zure sorginkeria ederraren bidez?

GANBARAZAINA

Sendatua da, seguru nago,  
Baina ez dakit zerez eta nola.

ANDEREA

Sendatua da, baina errazu benetan  
Zer eman diozu?

GANBARAZAINA

Deus, ez bada irakaspen bat,  
Jainkoak agindu duen bezala.

ANDEREA

Erran nahi baita otoitz bat  
Edo mezak kantatzeko?

GANBARAZAINA

Errezeta urrunago doa,  
Tristura guztiak uxatzen ahal baititu.

ANDEREA

Zer?

## GANBARAZAINA

Aginduez fidatu  
Sekulan gezurretan aritzen ez denaz

## MEDIKUA

Handitasun horiek nork erakutsi dizkizu  
Eta mintzaira noble hori?  
Enkantagarri hitzak dira  
Alegien bitartez hitz egitea horrela  
Mediku zintzoak ditugu  
Eskoletan ibili direnak  
Protokoloak ufatzen dizkigutenak  
Horiek entzun behar ditugu.

## GANBARAZAINA

Baina hitz eroak erraten badituzte  
Emazteek zalantzan egotea gaizki egiten dute?

## MEDIKUA

Begira nola erantzuten duen!  
Zoaz, zoaz zure antzara-kumeen alhatzera  
Eta oiloak erruten duen ikustera:  
Egon behar dun tokia dun  
Soka edo lakioz urkatu  
Behar zaitugu

## GANBARAZAINA

Baina harritzen naiz  
Nola irri egiten dutenak nagusia  
sano ikusten dutelarik zuregandik hain gorrotatuak.

## MEDIKUA

Bada San Anton sua berandutzen da  
Hi baino alaiagoa naiz.

## ANDEREA

Jauna, utz ezazu zozo hau  
Baina galdetzen dizut, errazu,

Fedearen bidez gizon bat posible al du  
Erremediorik hartu gabe sendatu?

## MEDIKUA

Bai benetan, uste baitut  
Jainkoak mirakuluak eta keinuak egiten dituela.  
Jesu Kristoren garaian zen  
Den-denak sendatzen zituela;  
Baina gutaz dio Espiritu Sainduak  
Medikua, edozein izanik ere  
Ohoratu behar dela. Atsekabetzen ez du  
Salomon, noren ahoarengandik  
Jainkoaren egia heldu den.  
Gure ohorea ez du inork hunkitzen.  
Jainkoak, ikusiz bere izakia  
Eritasunik gabe ez litzatekeela bizi  
Naturaren laguntza eman zigun  
Gaitzarengandik askatua:  
Eta zientzia hau liburu askotan  
Gure medikuek utzi digute,  
Hain jakintsu gizona ongi edana dela  
Nork nahi duen horrelako autoreak hedatu.  
Erabiltzen dituzun eritasunen diagnostikoak  
Onak dira, guregandik heldu dira.  
Hala ere, bortxatzen duzu,  
Zeren denei eman nahi diezu  
Bakarrarentzat egina dena, entzuten duzu.  
Alta atxiki edozein tresna  
Edari, kirats edo gazi-gozo,  
Ez eman gure aholkua gabe  
Eta zu, ganbarazain ederra  
hemen eliza zulo egiten duzuna  
Eta heldu zara gibeletik  
Zure otoitz elizatiarra goraiatzera,  
Xarma bat da, ohartzen naiz  
Zure nagusia hartu badu, hilko da

ERIA

Bere gloria zozoa ez badu uzten  
Ezjakin handi bat geldituko da.

MEDIKUA

Lagun, gaitza itzultzen bada,  
EZ atxiki gehiago begiak tapatuak  
Irakurri idatzi hau, gordetzen duena  
Zure osasuna, bada entzun ezazu.  
Nahiko duzularik, deitzen banauzu  
Etortzeko arduratsu izanen naiz.  
Osasuna duzu, omen diozula  
Eta nik dirua eramaten dut.

ERIA

Benetan, ongi lan egin du  
Bizidun bat berpiztea.

ANDEREA

Txanpona irabazi badu  
Gizon jakintsu gisa idazteagatik.

ERIA

Maitea, haizea baizik ez da  
Giza iritzi guztietan  
Gehiago ez du nahi begirale izan baino  
Ongia, Fedeak egiten du  
Nire andrea, ez al duzu ikusten  
Gizonak nahi duela adoratua izan  
Eta nola neurritz hitz egiten den  
Ohoratzen den medikua?  
Baina bi eskuak urreztatzen badizkiogu  
Askotan itzuliko da toki honetara:  
Baina uste dut oraindik nahi lukeela  
Bere baitan sinis dezagun  
Jainko baten baitan bezala.  
Baina izan ere, medio batere gabe

Jainkoak arriskutik kanpo jarri nauen,  
 Bera bakarrik (non datzan nire ongia)  
 Hemendik goiti lerrokatu nahi dut  
 Nire hitza inoiz aldatu gabe  
 Kristau guztiei otoitz eginez  
 Haren baitan, nondik ez dudan mugitu nahi  
 Eduki Fedea nik dudan bezalakoa.

### *MAITALE PERFEKTUAREN KOMEDIA (1549)*

Antzerki hau gortearen eta haren inguruan zeudenentzat idatzia izan zen. Lehen aldiz 1926an argitaratua izan zen, Frantziako Liburutegi Nazionaleko liburutik hartutako eskuizkribu batetik. Frantses funtsetatik, 883. zenbakitik, P. Jourdak, erreginaren bizia gehien aztertu zuen idazleak, argitaratu zuen, komedia argitaragabe gisa, erreginaren beste lan batzuekin batera.

Antzerki hau ez zen *Marguerites* obran argitaratu, hau 1547an plazaratu zelaririk. Ondorioz, pentsa daiteke berantagokoa dela antzezlan. Garai haietan Margaritaren kezka Joana alabaren ezkontza zen. Nafarroako erregearekin Nafarroako Erresuma berreskuratzeko bidea zitekeen Karlos V.aren semearekin ezkonduko bazen. Baina Frantziako errege berriak, Henrike II.ak, Joana Antonio Borboikoa Vendômekeo dukearekin ezkontzea agindu zuen. Horrek ezabatu zituen, Frantziaren laguntzarekin, Nafarroa berreskuratzeko amets guztiak.

Pentsa daiteke ere alabaren ezkontzaren karietara idatzi zuela antzezlan hori Margaritak. Verdun L. Saulnierrek 1549an kokatzen du, erreginaren azken urtean.

Antzerki honetan, adin handiko (mila urte inguru ditu) andere bat munduan zehar dabil maitale perfektuaren bila. Buru gainean daraman koroa harentzat izanen da. Bidean hiru emazte gurutzatzen ditu, eta bakoitzak kontatzen dio nolako maitasuna bizi izan duen.

Lehenak urte batez zintzoki maitatu du bere bikotekidea, baina hiru hilabete kanpoan egon eta aski izan da ordezkatua izateko. Bigarrenak bi urte daramatza bikotearekin, bi urte horietan sei hilabete pasa dituzte elkarrekin egon gabe eta ez da engainurik izan. Haatik, andereak dio engainua izan balitz berak berdin erantzunen ziokeela. Txapela ez da heientzat izanen. Heldu da orduan, aitzitik, bikote bat froga guztiak gainditzen dituena. Biek diote txapela ez dutela merezi, baina bikotekidearentzat eskatzen dute bikotekidea bertutez

betea ikusten baitute. Txapela horietako batentzat izanen da. Jainkoei, saioko buru den printze bikoteari, doakie erabakia hartzea.

Debatea ezaguna da, oso modan izan zena Erdi Aroan. Beste testu batzuek ere oihartzun handia izan zuten, Auverniako Martialen *Arrêts d'amour* bezala. Margaritaren obran ere, hemen plazaratzen dugun *Comédie du Parfait amant*-en, beste testu batekin duen hurbiltasuna ageri da, *Comédie à dix personnages* testuarekin, alegia. *Heptameron*aren Lehen Eguneko hemeretzigarren historiaren bukaeran aurkitzen duguna bera, maitale perfektua aipatzeko.

Tinkotasuna da egiazko maitasuna segurtatzeko oinarria. Benetako maitasunak debozio osoa eskatzen du maitatua denarekiko, maitaleak bere burua ahantzi behar du maitasunaren kezka horretan murgiltzeko. Erreginaren maitasunarekiko erretorika aurkitzen dugu hemen.

Engainatua izan den emazteak betebeharra badu, senarrarekiko leialtasuna errespetatu behar du, idatzia ez den legea inposatua zaio. Leialtasun horrek bi zentzutan egon behar luke, eta hemen hori eskatzen duela ematen du hirugarren kasuan.

Azkenean bikote bat aurkitzen du, zailtasun guztiak gainditu dituen eta maitasuna berdin gorde duena. Ez bata ez besteak ez du koroarik nahi, erranez ez duela merezi; aldiz, biek koroa eskatzen dute maite dutenarentzat bere bertute eta leialtasunarengatik. Txapela horietako batentzat izanen da, printzeen erabakia izanen da.

Hemen, maitale perfektua da leiala, maitasunarentzat atxikimendua eskatzen duena. Norbera ezabatzen da maite duenari garrantzia emateko, lehenesteko eta berari arimaren goratasuna eskaintzeko eta bestea goratzeko. Betebeharra da nagusi bestearrekiko. Horrez gain, benetako maitasuna nolakoa den du aipagai hemen, ezkonberria zen alabaren gustukoa zitekeen gaia.

Erritmoaren aldetik, Margaritak erabili duen sistema sinpleena da. Eraikuntza klasikoko bi hamarkunekin hasten da ABABBCCDCD (I-2I) eta hortik goiti errima arruntak dira, eta testu guztia hamar silabako bertso-lerroetan egina da.

Ondoan zuen alaba azken hilabeteetan, baina berriz ere bakarrik gelditu zen, Joana senarrarengana itzuli baitzen. 1549ko abenduaren 21ean Bigorako Odoseko jauregian zendu zen Margarita, bere inguruan bizi ziren laguntzaileekin, senarra eta alaba urrun zituelarik.

*MAITALE PERFEKTUAREN KOMEDIA* (Testua)

Anderea, lau neskak, gizona.

[I. LEHEN AGERRALDIA]

ANDEREA

Mila urte erromes naizela  
Leialtasuna ematen didan inor atzeman gabe  
Dagoeneko ehun aldiz munduaren itzulia egina dut  
Denetan bilatu artarekin  
Oi aldakortasunaz (jarraikitasunik ezaz), eta gaitzez betetako mundua  
Oraindik ere sentitu behar baldin badut  
Eta horrenbeste lasterka ibili atzematen ahal dudala  
Bat adiskidetasunean erabat perfektua  
Sobera zaila da aurkitzen  
Nire denbora eta nire pena galtzen ari naiz izan ere.

LEHEN NESKA

Atsegin bazitzaizun, andere prestu eta zuzena  
Guri azaltzea zein den aukera  
Zure doluaz, eskatuko genizuke  
Pasio hain azkarra ez hestea:  
Agian lortuko zenuke kontsolamendu  
Bilatzen duzuna? Baina errazu nola  
Jasaten duzun hain zorigaiztoko arrangura  
Eta nahi genuke horrenbeste indar izan  
Zu laguntzeko baita ere bat-batean  
Nahikeria ona bezala atxikipena emateko

ANDEREA

Diskurtso hori entzun nahi duzunez,  
Horrenbeste urte daude, aste eta egun  
Txapel hori eramaten dudana hemendik eta handik  
Hau eta bestea sentitzeko  
Nor amodioz bertutetsu eta zintzoa  
Garaipen aski duina egina izanen duena:  
Baina hainbeste arintasun atzeman dudan  
Nire gorputza ez dela inongo lekutan gelditu.

LEHEN NESKA

Hau ohore handia gertatu zaidana  
Inon ez baita ezaguna izanen  
Buruzagi (edo buru) koroa duin hori eramateko  
Ez bada nirea

ANDEREA

Ez, ez. Ez ematen  
Hain erraz: zeren jakin behar dut  
Zure betebeharrak osoa eginga duzun.

NESKA

Bai benetan, maitasun batez maite baitut  
Non garbitasun eta bertute egonaldi egiten duten,  
Bat hain perfektua parekorik aurkitzen ez duen.  
Anderea beraz, nire aholkua jarraituz,  
Emadazu.

ANDEREA

Ez dut egingen, laguna.  
Baina errazu eta ez iezadazu gorde  
Noiztik zure adiskidetasunak irauten duen.

NESKA

Badu urtea gaitza hau jasaten dudala.

ANDEREA

Ez da aski, arrangura izan al duzu  
Zuregandik sobera luzaz aldentzeagatik?

NESKA

Anderea, bai, pena asko sufritu ditut  
Aste batez ez ikusteagatik.

ANDEREA

Hiru hilabetez baino gehiago falta izan al da noizbait?

NESKA

Bai, hiru hilabete, andere, noski.



ANDEREA

Denbora horretan ahaztu al duzu?  
Eta maitasun hori bihotz arinak batere  
Egiten ez dituen a aldatu al da zerbait  
Edo zu beste batekin ezkondu nahi izan?

NESKA

Erabat egia da hiru hilabete hauetan  
Behin baino gehiagotan ikusi izan ditudala  
Maite ditudana: baina ez maitasun beraz  
Nire lagunari printzipalena dena.

ANDEREA

Oi bihotz arina, hiru hilabeteko eskasia  
Jakin dutelako izan zure maitasunean indarra  
Eta nahasi dion horrelako arintasuna!  
Nire txapel hau ez duzu merezi!

BIGARREN NESKA

Anderea, ez; baina ni, noren maitasunak  
Aldatu ez duen inoiz, ezta aldatuko ere  
Zeren maitatu eta maitatzen eta maitatuko,  
Eta faltsukeriarik sekulan ez dut egingen.

ANDEREA

Ez al duzu biziki perfektu maitalea?

BIGARREN NESKA

Perfektuena ortzi azpian.

ANDEREA

Ez du deus maite zu baino gehiago, errazu?

BIGARREN NESKA

Anderea, ez: bere fedea tinko atxikitzen du.

ANDEREA

Eta zergatik beraz ez zenuke ongi maitatuko,  
Horrenbeste zurea berea baino gehiago baldin bada?

Zuregandik faltan izan al da inoiz?  
Errazu benetan zure bihotzak sentitzen duena.

BIGARREN NESKA

Anderea, ez. Baina bi urtez ikusi dut  
Inoiz huts egin gabe eta leial ezagutu.

ANDEREA

Baina falta delarik hain urrun balitz  
Hainbeste maitatuko zenuke presentzian bezala?

BIGARREN NESKA

Andere, oi, zeren maitasun suharrak  
Arina eta motela izateaz babestuko ninduke.

ANDEREA

Ez duzu beraz deus sentitu?  
Oraindik bilatzen nuena atzemana bada.

BIGARREN NESKA

Ene besterik gabe enea baita.

ANDEREA

Nahi duenak, oraindik ez dauka.  
Arrangura guztiak ez ditudalako sentitu  
Horrela poztasuna egin duzu.  
Koroa ez duzulako irabazi  
Maitasun faltak horrela agintzen dizu.

HIRUGARREN NESKA

Hemengo bi hauek ez dute merezi  
Baina nik bai hainbeste arrangurak jana naizelako.

ANDEREA

Bada, beraz errazu, neska, zure amodioa.

HIRUGARREN NESKA

Bada bi urte egunez eta gauez maite dudala  
Hain perfektua horrelakorik ez dela gehiago aurkitzen

Nigandik badu eta ekintza eta froga egin nau  
Maite nau eta nik ere bera  
Nire ontasuna da eta pausa eta euskarri  
Sei hilabetez falta izan zen, baina falta hori  
ez zuen maitasunaren gainean ezta nire bihotzaren gainean indarririk  
Anderea, beraz, desberdina izan gabe aurkeztua.

ANDEREA

Laguna, zaude! Soberakinaz huts egiten duzu.  
Zu baino beste bat maitatu nahi balu  
Marruskatuko al zenuke puska hau hain mikatza?

HIRUGARREN NESKA

Ni baino beste bat, zoritxarrez horrenbeste maitatu duena  
Inor baino gehiago ohoratu, estimatu?  
Utziko nuen, ni horrela utzi eta  
Edo hartaz nekatuko nintzen.

ANDEREA

Eta horrela: mendekua erabiltzeko  
Zer egingen zenuke?

HIRUGARREN NESKA

Zer? Lotura berria!

ANDEREA

Hemen da nire jendea! Ikusi aitzin  
Gaizki etorria, bere eginbidea bertan uzten du  
Amodioaren lege zuzena begiratu gabe:  
Zeren behin bertan hartzen badu aterpe  
Inoiz ez da joan behar arimarekin ez bada.  
Zoaz hemendik, emazte sobera arina,  
Txapel hau ez baituzu merezi:  
Espiritua sobera lasterra eta berria daukazu!  
Gizon bat ikusten dut, pasabide horretan  
Ongi erakusten duena triste eta pentsakor dela  
Jainko indartsuak bururaino eramaten ditu

Zure desioak ematen dizkizu berehala!  
Ez al zenuke txapel hau eraman  
Hartaz aski duin aurkitu ez dudan.

GIZONA

Andrea, zergatik? Eta zein da bere bertutea?

ANDEREA

Horretaz jantzia izanen dena  
Maitasun leial gorako bihotza izanen da.

GIZONA

Anderea, niretzat ez da, zin dagizut!  
Baina begira ezazu nahiko urrun den pentze horretan  
Nire-nire kezka eta axola dena?  
Maitasun leial eta bertutetsuz  
Koroa zoriontsu izaten ahal bada  
Bera besterik gabe libratuko zaitu.

ANDEREA

Goazen harengana, zer dioen ikustera.

## [II. BIGARREN AGERRALDIA]

GIZONA

Jainkoak Gaiztotik babes dezala hainbeste leialtasun daukana!

NESKA

Tinkotasun babesle zaitu jainkoak.

GIZONA

Ikusten al duzu andere hau etortzen?  
Urrundik zuregana dator  
Entzun baitu fama (arin  
bertutez handia aipatzen zaituena) femeninoa  
Irmoa, leiala, eta konstantea maitasunean.

ANDEREA

Zorionsua garaia, eta hilabetea, eta eguna  
Atzeman zaitudala, askatzen ahal banauzu  
Txapel horretaz, zeren nire afera  
Kontatuko dizut: zeren ez da inorena  
Leialtasunari atxikia ez bada maitasunean.

NESKA

Anderea, gehiago nekatu gabe,  
Nahi ezazu, ez niri eman  
Zeren hartaz horrenbeste esperientzia egin dudan  
Ezinezkoa dela bere konstantea kontatzea.

GIZONA

Anderea, zoritxarrez! Baina maitatu nau  
Berarengandik estimatua izatea merezi gabe.  
Eta horrela izan da presentzian eta faltan  
Beti dena bat.

ANDEREA

Oi harreman zorionsua!

NESKA

Baina, Anderea, begira leialtasuna  
Zuzentasunaz ere lagundua!  
Bihotz umil bat, bihozbera, gaitzik gabea,  
Martziala deitu behar ez dena  
Baina bere ekintzez eta bere fama zabalaz  
Marte izena izan behar du.  
Utzi du, berri handia dena  
Toki askotan sekulako edertasunak  
Eta hautatu nau, grazia adeitsurik ez daukat ni  
Berea atsegina dena hobesteko.

GIZONA

Anderea, zer, nire etxeak eta ene absentziak  
Horrenbeste urtetan ez dute inongo indarrik izan.

## ANDEREA

Bada, ikusten dut zuetarik batek izanen du  
Baina ez dakit bietatik zein izanen den  
Eta nire lana eta nire pena bukatzeko  
Erregutzen zaituztet biak eramaten zaituztedala  
Jupiterrengana eta bere Juno prestuarengana  
Eta entzunaraziko diet bidaia luzea  
Ibili dudana, eta erranen diet nola  
Panaz eta arranguraz sufritu dudan  
Zuetarikoari erranen dutena  
Eta txapel hori aginduko dute  
Kontra joan gabe utziko dut.

## NESKA

Fede onez, anderea, ez dut izanen.

## GIZONA

Nik ere ez, kalte eginen nizukeelako.  
Bada goazen ba, eta indar handiz  
bidera gaitzala gure bidaia onera  
Mundua deusetik sortu duenak.  
Zuri, Jainko, eta zuri ere, andere,  
Babes itzazue zuen bihotzak gaizki eta kezka guztietatik  
Eta berarengandik soilik heldu zaizun ezagutza  
Ongi entzun duzue, pentsatzen dudan bezala  
Maitasunak erran duena, ondorioztatu, gelditu:  
Bada zuengandik nire bidea gelditua izan dadin  
Txapel hori eman nahi dizuedana  
Bietako batek buruan jar dezala.

*ERREGEAREN HERIOTZARI BURUZKO KOMEDIA (1548)*

*Erregearen Heriotzari buruzko komediarekin* Margarita erlijioaren lirismora itzuli zen. Bizitzaren bukaerara heldu zen Margarita, inguruan maite zituen asko joanak ziren dagoeneko, samin itzela bizi zuen anaia galdu zuenetik. Komedia honetan samin horretaz hitz egin nahi zuen, indarrak zituen oraindik idazteko. Azken urteetako gogoetak pausatu zituen idatzi honetan. Anaiak eskatu zuen guztia bete zuen, hor egon zen harentzat, bere proiektu politikoan laguntzeko, erregearen semeen zaintzeko, batzuetan heriotzaraino, Frantzisko erregegaia pozoitu baitzuten 18 urtetan, eta Charles Foresmontiers zendu egin baitzen 23 urterekin. Bere semea ere galdu zuen umea zelarik.

Erreformaren alde egin izan zuen, ideia berriak bultzatu zituztenekin harreman hurbila izan zuen eta asko lagundu zituen. Garai horietan Erreformaren aldekoek errepresio gogorra sufritzen hasiak ziren 1546an; Etienne Dolet, idazle, poeta, inprimatzaile eta lagun mina zintzurretik itorik hil eta erre zuten Parisen, Maubert plazan.

Pena horiek guztiak bihotzean zeramatzan Margaritak. Horrez gain, ez zen anaiaren ondoan egon azken hilabeteetan, zendu zen unean ere urrun zegoen, ez zen tenorez heldu. Baina harengandik hurbil edo urrun egon, beti harremana atxikitzen zuen, idazten zion, elkarri opariak igortzen zizkioten. Hori dena bukatua zen. Amildegi baten ondoan sentitzen zen. Senarrarekiko harremana gero eta hotzagoa zen, alabaren ezkontzak ez zituen Nafarroako interesak zaindu, eta Henrike askotan beste konpainia batzuetan, beste lagunarte batzuetan egoten ohitu zen. Alabak ezkondu eta senarraren ondoan egotea nahiago zuen, lehen urte horietan bikote gaztea maitasunean murgildua baitzen. Nahiko bakarrik sentitzen zen Margarita.

Poitou aldera joana zen anaiarengana hurbiltzeko, baina bere osasunak ere okerrera egin zuen, eta Tussongo monasterioan gelditu behar izan zuen, esutasunaz beterik iragan zituen egunak. Egun horietan gaitzaldi moral batek hunkiturik ez zen anaiaren ondora heldu, eta bitartean erregea zendu zen. 1537ko martxoaren 31ko gauean anaia amets batean agertu zitzaion, oren batzuk soilik zirela anaia zendu zela. Hamabost egunez ingurukoek berri latza gorde zioten, baina kasualitatez, adineko serora baten oihuak entzunez, haren ahotik jakin zuen anaiaren heriotza. Lau hilabete pasatu zituen monasterioan, idazten, poemak eta hemen aipatzen dugun komedia. A. Lefrancek dio Mont-de-Marsan herrian eman zutela komedia. Baina, Lefrancek eta Jourdanek ez dute segurtatzen komedia zein lekutan idatzi zen. Hilabete horietan idatzia izan dela bai, hori agertzen zuten.

Auhen erretorikoa dugu antzerki honetan. Artzain bat, Amarissime ize-nekoa, neska, Pan Artzain handiaren heriotzarengatik negarrez ari da. Bere senar Securusek kontsolatu nahi du, arrazoitzera eraman nahiz, baina bere oinazea arintzea ez du lortzen. Arrakasta gutxi du ere Agapy artzain lagunarekin. Harentzat ere mina gaindiezina da. Orduan, Jainkoaren mezulari bat da, Paraclesis, heldu da kontatzera Pan mundutik joana dela, presentzia fisikoa desagertu dela, baina uros bizi dela paradisuan, harengatik sufritzea debekatzen duela. Erretorika handiko auhena dugu hemen, hats ebanjelikoak bultzatua, komedia hau bukolikoa dela erran daiteke baina Saulnierrek ez zion egloga izena jarri nahi<sup>31</sup>.

Ebanjelismoaren eragina agertzen da testuan, gorputzaren heriotzak negarrik ez du merezi, benetako zorionaren atea baita. Horrez gain Artzain Onaren figura, Ebanjelioak zabaltzen duena, bultzatu zuen Margaritak bizi guztian, eta Briçonnetekin trukatu zituen gutunak gogoan zituen oraindik testua idaztean, Briçonnetek laguntza handia ekarri baitzion, gaztea zelarik eta Frantziako Klaudia zendu zelarik.

Pertsonaietan, nagusiak Jainkoa eta Frantzisko I.a erregea ditugu, Pan erregearen figuran. Amarissime, negar batean, Margarita dugu; Securus, arrazoitari bidea egiten lagundu nahi diona, Henrike Albretetako dugu; Agapy errege berria da, eta Paraclesis kontsolatzailea dugu, Paraclat Jainkoaren, Ebanjelioaren, mezularia bezala.

Familia tragediarik ez dugu aurkitzen; erreferentzia historikorik ez baita, auhen soila dugu.

### *ERREGEAREN HERIOTZARI BURUZKO KOMEDIA* (Testua)

Lau pertsonaia, alegia Amarissime, Securus, Agapy, Artzainak, eta Paraclesis.

#### [I. LEHEN AGERRALDIA]

AMARISSIME hasten da

Baina egia ote da, gauza segurua ote da?

Pan kendu digutela behereko leku hauetatik?

Oi berdin neurrigabeko oinazea!

Baina egia ote da zerura eramana dela?

Egia da. Oi ene begi itsutuek,

<sup>31</sup> M. de NAVARRE. V. L. SAULNIERREK plazaratua. *Théâtre profane*. Paris. Ed. Librairie Droz. 1946.



Mundu honetan deus ikusi nahi izanik gehiago,  
Erakuts ezazu atsekabetua tormenta bekaiztia,  
Eta negarrari lotuz zure eginbeharra egizu.  
Bada, gutarik da, artzainongandik,  
Denetik kendua ongia eta plazera,  
Gaitzetik eta arriskuez babesten gintuenak,  
Agian otsoarengandik inongo momentutan harrapatzen ez dakiena  
Ardirik ere ez, zeren ez baitzuen beste nahirik  
Bere parkea eta bere artaldea gordetzea baino,  
Eta askotan nahiago izan du gaizki hautatu  
Haien haragi eta larrua menturatzen ikustea baino.  
Zeren Jainko hau hain maitagarria  
Ezin dut gehiago ikusi nire dolu handiaren osatzeko.  
Leku bakarti bat hautatu behar dut,  
Non nire oinazea, hitzik isildu gabe,  
Kanta dezakeen eta guziaz dibertitu.  
Plazer guziez, arduraz eta zainketa oroz,  
Zeren, dena galdurik, ez baitut deusen eginkizunik,  
Eta nire doluak malkoak baizik ez baititu behar.  
Leku bakarti hau ene negarrentzat hautatu dut,  
Artzainak bazterturik.  
Gorroto ditut basoak, berdetasunak eta loreak,  
Pentze eta erreka, jauregi, hiri eta dorre.  
Heriotzak jukutria hain krudelak egiten baititu.  
Artzain-burua ez gupidestean,  
Beltza hartuko du, soineko ederren orde,  
Ez hain beltza, esposatua bainaiz.  
Ez esperantzarik izan kontsolatuko nauzula  
Inongo urretxindor, txoka, hegatxabal;  
Nire dolua kontsolamendurik gabe eraman nahi dut,  
Ene gorputza errauts bihurtu arte.  
Oi erreka garbiak, ez entzunarazi gehiago  
Zuen azantz goxoa, nire loa ekarriz,  
Ez baitut atsedean hain goxorik hartzen ahal  
Nire zoritxarra kontatu eta intzirika aritzea baizik.  
Oi, ahots ahula, musika guztietarik urrun,

Oihukatu itzazue goraki ene oinazeak bakarrik :  
 “Dolua eta maitasuna” izan dadila zuen erreterika.  
 Saminez soilik osatutako neurtitzak kanta itzazue,  
 Konposatzen duenak adimenik gabea  
 Heriotzaraino nahasia den espiritu batengandik.  
 Zeru guziari sentiarazi ezazue.  
 Hari eta zuri heriotzak kalte handia eragin duela.

*“Gozamena emanen dizut” kanta abesten du.*  
*Hain naiz dobakabea,*  
*Nire zoritxarra ezin dela erran*  
*Ez bada esperantzarik gabea dela;*  
*Etsipena atean da jada*  
*Putzuaren zolan ni goaitatzeko.*  
*Nondik ateratzeko menturik ez den.*

## [II. BIGARREN AGERRALDIA]

SECURUS

Oi Pan, oi Pan, ene maisu eta adiskide,  
 Gure begietatik erauzirik zarenez,  
 Eta zure gorputza lur azpian lotan dagoela...  
 Eta zurekin gure ongi guzia gordea,  
 Zer egingo du ene bihotz hits eta hunkituak  
 Ez bada negar egitea, bozkario guzia baztertuz?  
 Zergatik dut ene emokadura zumeari lotu.  
 Haren armonia sekulan ukan gabe.

MARISSIMEk kantatzen du :

*Ene begiak hainbeste malkok barrandatzen dituzte,*  
*Lurra ez eta zerua ez dituztela ikusten,*  
*Hainbesten den beren negarraren ugaritasuna.*  
*Ene aboa kexatzen da leku orotan,*  
*Ene bihotzetik ezin da hobeto irten,*  
*Inongo menpekotasunik gabeko hasperenak baino.*

SECURUS

Baina ez ote dut entzun ahots ahula  
 Dolugarri eta triste Amarissemengandik,  
 Norengana urrats handiz noan?  
 Zeren kasik hilik entzunez estimatzen baitut,  
 Doluzko lautada oinetatik gailurreraino.  
 Etsipenez aditzen dut haren kantua:  
 Arrazoi du, dela prosaz edo errimaz,  
 Auhenska aritzea, dena galdu baitu.

AMARISSIMEk *kantatzen du:*

*Tristura bere abalegin handiekin  
 Ene gorputza hain abul bilakatuz,  
 Ez duela bertuterik ez abalmenik.  
 Hildakoetako bat bezalako da.  
 Hainbeste eta kanpotik ikustean.  
 Haren ezagutza galtzen dela.*

SECURUS

Utzi kanta eta auhen negar egingarri horiek.  
 Gorputzari ez gogoari baliagarria ez dena,  
 Oso perfektua eta ene adiskide hain maitatua.

AMARISSIME

O Securus, hain egia eta karitatezkoa,  
 Hain da muturrekoa nire dolua, eta ezin eramana  
 Kontsolatzeko ez nintzatekeela gai.

SECURUS

Zoritxarrez! Badakit arrazoia duzula.  
 Leku eta aro guztietan izan dut.  
 Galera hain handi baten deitoratzea,  
 Biok edan dugu pozoi tristea;  
 Horregatik, zatoz ene etxera?  
 Non gure kexuak jainkoei eskaintza egingen diegu.

AMARISSIME

Adiskide, utz ezazu utzia,  
Heriotzak hiltzeraino behehitu duela,  
Pan kenduz non bere ontasun guzia zegoen.  
Zeren aspergarria hain biziki hunkitua bainaiz,  
Zure etxea oso gaizki egongo da.  
Nik ez dut ezeren axolarik.

SECURUS

Utz dezakezu, ene adiskide maitea,  
Gure artaldea mendian noraezean ibiltzen,  
Otsoaren baita ere hartzaren arrisku handian?

AMARISSIME

Baina zenbat malkoz ene bisaia bustitzen dudan:  
Oraino uste dut aski irabazten dudala,  
Zeren hil eta sobera trikimailu arraroak egin baitizkit.

SECURUS

Ez dut egiten zure malkoak geldiarazteko,  
Zeren zu bezala muga berean naiz:  
Baina elkarrekin negar egin dezagun da.

AMARISSIME

Adiskide, zuregatik tinko maitasun handia dut.  
Hemendik alde egingo dut, baieztatzen dizut  
Hilak soilik gure bihotzak bereizten dira.

SECURUS

Kontsola zaitetz, Amarissime maitea  
Altxa ezazu pixka bat zure bisaia hila eta tristeia.  
Zeren, zu hiltzean, ene bizitzari amaiera emanen diot.

AMARISSIME

Zuretzat biziko naiz bizitza samin honetan.  
Baina kantatu dezagun beraz ameskeria hau  
Hilak du guregandik gure alaitasun pozgarria.

SECURUS eta AMARISSIME, *kantuaren gainean kantatzen:*

*“Mesedez, begira nola  
maitasunean gaizki tratatua naizen”.*  
*Abots tristea besterik ez dut.*  
*Nondik oibuka ene burua ikusten dut:*  
*Absentzia gogorra deitoratuz.*  
*Zoritxarrez, bainbeste maite nuena,*  
*Hain bibotz onez zerbitzatzen nuena,*  
*Zorioneko presentzia galdu dut!*

### [III. HIRUGARREN AGERRALDIA]

AGAPY, *bigarren artzaina.*

Galdua dut egiazko kontsolatzailea.  
Ene adimenetik, artzain guztien artetik, nagusia.  
Galdua dut artzain prestuena.  
Eta izate apal honetan izan zen eztiena.  
Horrela arras ongi zaintzen eta alhatzen jartzen zuen  
Bere artalde handia, zeinen maitalea zen,  
Hura defendatuz eta bere trebeziaz begiratzuz.  
Zoritxarrez nire onaren egilea galdu dut.  
Ene begien aurrean, heriotzak kendu dit.  
Lotu zuen azken haria!

Oi hau agurra eta zein garesti kostatu zaidan!  
Hitz egin ezin, hor gelditu behar naiz.  
Berak edozein baino hobeki hitz egin zuen,  
Gorputza garaitua, espiritua garaile  
Beldurrez eta heriotzaz, zerura zuzenki hegaldatu zen  
Horren bihozminez ia ia suminduta nago.

AMARISSIME

*Segur nago bere espiritua*  
*Jesu Kristo bere buruzagiarekin errege dela,*  
*Jainkoaren esentziari begira.*  
*Bere gorputza iraganekoa bada,*  
*Espiritu Santuaren promesak*  
*Zeruan bizi arazten du, zalantzarik gabe.*

*Bizirik eta indartsu zegoela,  
 Fedea bere kontsolamendua zen:  
 Haren Jainkoak sinesmenagatik jabea zen;  
 Fede bizi horretan zendu da,  
 Nork eraman du trezatu portu borretara:  
 Non Jainkoaren gozamina daukan.*

AGAPY

*Zer soinu, zer kantu entzuten dut urrunean?  
 Horrenbeste, zentzua eta hitza galtzen ditudala?  
 Emakume ahotsa da, behar handia duena,  
 Nire ustez, norbaitek kontsola dezan.  
 Oi zu, txori, arinago hegan doana,  
 Zoaz aholkatzera ahotsa alegiazkoa ez dena,  
 Arin edo ero bezala sufritzen ez duena,  
 Baina dolu handian bat batean bere auhena erraten duena.*

AMARISSIME

*Baina tamalez, nire gorputza baztertua da  
 Harengandik, harekin bat egin baitzuen.  
 Gure haurtzarotik!  
 Nire izpiritua ere zigortua da.  
 Biluztua delarik  
 Bereaz zientzia guztiez betea.*

*Espiritu eta gorputz doluz beteak dira,  
 Horrenbeste dena laua dela  
 Negar egitea da ene itxura atxikitzeko.  
 Oihuka ari naiz oihanez eta zelaiaz.  
 Zerua eta lurra lagun ditut;  
 Nire doluari baino ez dut deus pentsatzen besterik.*

AGAPY

*Ahots horrek harengana eramaten nau,  
 Zeren enea bezalakoa baita;  
 Eta oinaze bat sentitzen dut ene baitan.  
 Harena bezalakoxea.*

Bere abestia zaharra dela iruditzen zait.  
 Bederatzi obraren hitzak badira;  
 Ahotsa edozein tokitik datorren ere,  
 Lengoia ezin dut kontuan ez hartu.

## AMARISSIME

*Heriotzak hain kolpe txarra egin didan  
 Ene indarra eta ene dorrea eraistea.  
 Ene babesleku eta ene defentsa osoa,  
 Ez du nire maitasuna bondatzen jakin.  
 Gau eta egun hazten sentitzen dudana,  
 Ene oinazea hazten eta aitzinatzen dena.  
 Nire gaitza ezin da azaldu.  
 Ene mina ezin da azaldu.*

*Eta hain gogorra zait irenstea,  
 Pazientzia guzia galtzen dudala.  
 Ez dut beraz gehiago aipatu behar,  
 Bin pentsatu ongi joatea  
 Non Jainkoak ezarri duen bere urrikariaz.*

## AGAPY

O Amarissime, zu al zara?  
 Zu zara zure kantuarekin erakusten duena  
 Egiazko maitasuna eta fede segurua.  
 Denboraren poderioz ez doala laxatzen.  
 Tamalez, ekintza gaiztoarengatik negarretan zara  
 Heriotzarena, salatzen duzuna.  
 Horregatik ibiliz zure aldera noa,  
 Zurekin bakea eramateko.

## SECURUSEK kantatzen du kantuaren gainean:

*“Tamalez! Nabi ote duzu norbaitek kanta dezala  
 Noren bihotza hasperenka soilik ari dena”.*  
 Ene ahots tristeak dolua baizik ez du kantatzen.  
 Horrela ene gaitza gaiztotu baizik ez da egiten.  
 Deus ere ez dut ikusten ene gogoa kontentatzen duenik

Eta ezin du ene bihotzak hasperenka aritu baizik;  
 Gaitzak ez nau beldurtzen, ongirik desiratu  
 Ezin dut baina negar eginarazi iezadazu, ene Musa.  
 Atsekaberik batere ez ateratzeko,  
 Zeregin hau estakururik gabe egin nahi dut.

## AMARISSIME

Geldi zaitetz, Securus, entzuten baitut  
 Artzain baten oroitzapen bat egiten didan ahotsak,  
 Hain indartsua ere zalantzarik ukan gabe,  
 Agapy da, sostengatu nahi dut.  
 Jakingo banu non egon nahi duen,  
 Hari igorriko nioke ene artxipote esklaboa.  
 Eta otoiztuko nioke honaino etortzea,  
 Hilari azpian jarritako Pan faltan sentitzeko.

AGAPYk *abesten du.*

*“Erregutzen dizuet, ikus ezazue nola  
 Maitasunean gaizki tratatzen naute”.*  
 Ene oinazea, handiegia ene baitan

Bihotzetik ezin du atera  
 Zeren hamar gertakari sentitzen ditudan,  
 Tristeziak, ahaleginak egiten dituela  
 Ene buruaren eta gorputzaren kontra,  
 Hainbeste zorabiatzen ari naizela,  
 Eta hilen lerroa desiratuz  
 Ene bizitik atera nahi dut.

## AMARISSIME

Agapy da: bere ahots goxoa ezagutzen dut.  
 Tamalez, bera da, irudipen ona dut.  
 Haren kantu hitsak auhenka aritzera bultzatzen nau,  
 Zeren nik bezala sumindura baizik ez baitu.  
 Ozenki oihukatu ezazu, Securus, pentsatzen baitut  
 Hain hurbil dela entzunen zaituela oihuka.



SECURUS

(O) Agapy, eskatzen zaitut, aitzina ezazu  
Zure urrats motela, zatoz laster enegana.

AGAPY

Artzain adiskide han gainetik oihuka ari dena  
Ni deituz, baina esadazu zer behar duzun.  
Ezagutzen nauzu baina esadazu nor zaren?

SECURUS

Securus naiz, alaitasuna falta zaiona  
Zuri bezala, hona jauzi bat egin ezazu arren,  
Karitatezko ausardia betez.

AGAPY

Tamalez, Securus, zure mintzoa ongi entzuten dut,  
Baina zer bide hartuko dut joateko,  
Goizago zuregana. Erakutsi behar didazu.

SECURUS

Bide zuzena ez dizut gorde nahi:  
Gurutze handikoa deitzen diote  
Mendi altuko bidea da.

AGAPY

Gurutze handikoa. Bide hori badakit,  
Zeren maiz entsegu latza egin baitut,  
Begietatik ikusten dut eta bihotzean daramat.

SECURUS

Zurekin honaino pasa nintzen,  
Gurutze handiaren ondoan utzi zintudan,  
Non hila baino gehiago zen pertsona ematen zenuen.

AGAPY

Artzain handiak beregain hartu zuena  
Ardien parte bat arrazoiaren gainetik  
Zure bihotzari poztasun perfektua ematen dio.

## SECURUS

Ongi etorria izan zaitez ene etxean,  
Txikia eta pobrea sasoi hotzean:  
Alta alaiki errezibitzen zaitut  
Esnea ausarkian badut  
Eta egur puska handi bat  
Gure berogailuarentzat  
Intxaur, gaztaina, sagar,  
Gasna kantitatean,  
Eta belardi oso ona.  
Baina ez ezazu estimatu  
Berehala atzematea  
Panen bizitegi txikia,  
Hain ederra zena.  
Hau ez da horrela,  
Baina pobre eta ezdeusa,  
Baina arras seguru eta garbia  
Da ene etxetxo.  
Arriskurik gabea, ez eta harrabotsik  
Etxean hartuko zaitut  
Horrez gain emanen dizut  
Ene fruiturik hoberena.  
Lasaitasunean bizi naiz  
Otsoen arriskurik gabe  
Nahikoa izanik  
Eta orenen buru  
Poz handiagoan  
Ugaritasunean bizi direnak baino.  
Baina, Amarissime, gelditu  
Enekin, zeren eskatzen baitizut  
Nirekin batera, horregatik erregutzen dizut  
Haren aitzinean negar egin ez dezazun,  
Tristeegia baita eta penatua.

## AGAPY

Kasu ni ikustean ez duen oihukatzen,  
Zeren bere begiak dolua erakusten badu

Arrangurako anaia gisa  
Ene dolua ezagutuko du bere begitik.

SECURUS

Agapy, agindu zidan.  
Zure aitzinean prestuarena eginen duela.

AMARISSIME

Zaila da adiskideen artean  
Sentimenduak disimulatzea.  
Agapy ikusten dut, zer eginen dut?  
Haren dolua sentitzen dut eta hark enea,  
Ene adorea behartuko ote dut.  
Ene baitan ez goibeltzeko berea.

SECURUS

Hitz emanetan huts egiten didate,  
Amarissime, eta hau harrera!

AMARISSIME

Tristura tristurarekin  
Ezin du disimulatu bere dolua.

SECURUS

Agapy hau da harrera  
Egin behar duzuna damurik gabe?

AGAPY

Tamalez! Hilkutxan ikusi dut  
Gure alaitasuna eta gure kontsolamendua.

SECURUS

Ez al zara konturatzen gizona jaio zela  
Goiz edo berandu egun batez hiltzeko?

AMARISSIME

Heriotzak hainbeste gogaitu nau,  
Ez nauela inork sokorritu.

SECURUS

Inork ezin du hiltzera lasterka joan  
Egun zehaztuan ez bada.

AGAPY

Lurrean usteltzen ikusi behar ote da.  
Maitasun oro merezi duen gizona!

SECURUS

Beraz egizu zure baitan arrazoiak egin dezan  
Denborak azkenean egingen duena.

AMARISSIME

Kexatzen banaiz, badakit zergatik:  
Denborak ene dolua ez du deseginen.

SECURUS

Tamalez, zure gorputza ez da gogobeteko  
Atsekabe hori luzaz eramaten.

AMARISSIME

Ene dolua, adiskide, ez da pasako  
Ene zainetan taupadek jotzen duten bitartean.

SECURUS

Gizakiak bertutez gainditu behar du  
Bere dolua, zentzuduna dela erakutsiz.

AGAPY

Arrazoimenak eraitsi nau  
Maitasunak indartsu eta aldaezin egin nauen bezain bat

SECURUS

Baina non da bertute laudagarria  
Aitzinakoena eta iraunkortasuna?

AGAPY

Iraunkortasuna! Baina bihotz aldakorra  
Maitasunari ihardukitzen diona.

SECURUS

Zentzuak hemen ez du balio  
Zure baitan amorrua baizik ez dut ikusten.

AMARISSIME

Damua, basamortu idorra  
Damuak saminez betetzen du.

SECURUS

Bertutea non dago? Balioa  
Gizakiaren, horren gainean garaipena duena?

AMARISSIME

Hain zentzuzkoa den nire zoritxarra,  
Ahanzteak ez duela omenik nahi.

SECURUS

Arrazoimenak, filosofiak, etsenpluak  
Hemen ez du deusetan balio.

AMARISSIME

Ene nahigabeari gehiago begirutzen diot,  
Gehiago sentitzen ditut loturak hazten.

SECURUS

Laster hondarretan atzeman daiteke;  
Ez dezagun beraz gure heriotza eragin.

AGAPY

Ona, desiratuak diren ontasun guztientzat,  
Portura heltzea da.

SECURUS

Alta, gauza bat eskatzen dizut:  
Zure ahotsa askatua izatea  
Auhentzaren hitsak laguntzean.

AGAPY

Gogo onez eremuka erakusten dut  
Ene samina.

AMARISSIME

Ene buruari proposatzen diot  
Zerua eta lurra horretaz betetzea.  
*Elkarrekin kantatzen dute.*  
Horrenbeste atsekabe eta erosotasun falta,  
Hain mingarri, erdiragarri eta gogorra den ene dolua!  
Oi, esperantza soilik banu  
Ene mina laster heriotzarekin garaitua izatea  
Eta arintze handia eginen lidake!

## [IV. LAUGARREN AGERRALDIA]

PARACLESIS *Hasten da.*

Horrenbeste, horrenbeste sobera da, eta sobera ez da iraunkorra.  
Sobera da, sobera da, sobera pleinitua da.  
Artalde lagungarriaren Artzain handiak  
Ongi tormentatu duen bihotzera igortzen dit  
Eta alderdi guztietatik saiatu minaren bidez  
Baina azkenean bere ardi az urrikia hartzen du  
Noren bihotza ez den inoiz ongi kontentatua  
Adiskidetasunez osatutako doluaz betea ez bada.

AMARISSIME

Baina nor ote zara agintzeko  
Gure bihotzari penak txikitzea?

PARACLESIS

Artzain Handiarengandik aginduak dakartzat  
Haren mezularia naiz.  
Nahiz eta tristurak nire kontra atear hesten dituen  
Zuen bihotz guztietatik, edozer erran edo egin  
Bertan sartuko naiz, zeren bota dezaket  
Ontasunaren bidez mesede egin nahi dizuna.

AGAPY

Mesede aitor dezagun ematen ahal ligukeela  
Gure agintaria iturri bihur dadin.

PARACLESIS

Dolu hau utzi behar baduzu  
Goiko indarrari obeditzeko  
Zeren segur izan zaitez eremu ederrean  
Eliseo Zelai atsegingarrietan gelditu dela  
Zure Pan ezia, min eta penatik kanpo  
Bere omena negarretan egotea nahi ez duena.

AMARISSIME

Zalantzarik ez ukan bizi sailduaren ondotik  
Gure Pan izan duena, itxurakeriarik gabe jarri izatea  
Pausa segur batean, fermuki sinesten dut.

PARACLESIS

Zergatik negar egitera behartua ote zara?  
Ez al zara pozik ikustea bere bizi saildua  
Benetan errege koroaz hornitua?

AMARISSIME

Ez, baina pleinitzen naiz horrela galdu dudala  
Edo heriotzak ez duela nire gorputza etzan  
Berearekin, ekintza perfektua bilakatuz.

PARACLESIS

Ene mintzoa entzun bazenu,  
Laster zure aitzinean izanen zen  
Benetan estimatzen zenuen Pan.

SECURUS

Azalpen hau entzutea zaila zait  
Heriotzak hartu duenaren ongia nahi izatea:  
Bere izaeraren aurkako efektua da.

PARACLESIS

Hemen bakarrik ikasten ahal duzu:  
Gizona errautsa baino gutxiago egin duenak  
Hilobitik bizirik ateratzen ahal du.

AGAPY

Izanen ote da artaldeen artzaina  
Dei orokorrak eginen dituelarik  
Akerrak ardietatik bereiziz?

AMARISSIME

Bitartean, ardi, behi eta txahal,  
Denek sufrutuko dute, puska onak utziz  
Eta beren ogi zuria ogi beltza jateko.

PARACLESIS

Pan ez da zendu, baina sekula baino gehiago bizi da  
Moises eta Jacob eta Davidekin,  
Eta zeruan daude arditegiez hitz egiten.

SECURUS

Pan bizi da! Horrelako egoera ez zen ikusi!  
Lapurtu digun heriotza honek  
Bizirik jarri duela. O! Zoramendua da.

PARACLESIS

Pan bizi da, oraindik erraten dizut,  
Pentze ederretan eta paradisu atsegingarrietan,  
Non gelditu gabe bere lirarekin abesten duen.

AGAPY

Erran horiek entzutean harritzen naiz.  
Eta nire mina lasaitzen da.  
Paraclesis, uste dut loriatzen nauzula.

PARACLESIS

Zure Pan ezta bere benetako pausan dago  
Ikusi eta andrea senarrarengana doan bezala  
Artzain handiarengana bere benetako izaerara bilakatua.



AGAPY

Gogoratzen naiz utzi gintuelarik  
Begi eta mintzo goxo batez eskatzen ziola  
Artzain handiari bere eskuaren laguntza.

PARACLESIS

Artzain handiak onartu zion eskaera,  
Bere eskua prest baita bereak laguntzeko:  
Bere besoen artean Pan besarkatzen eta atxikitzen du.

AMARISSIME

Garaipen zintzo horretaz harritzen naiz  
Baina pleinitzen naiz bere ondotik gelditzen naiz  
Hain luzaz, eta min hori heldu zait.

PARACLESIS

Ahaltsuenenak horrela nahi du ukan,  
Nori egokitu behar den zure nahia  
Eta poztu, Pan gustura baita.

AMARISSIME

Zoritxarrez! Zoritxarrez ezin dut gehiago ikusi  
Bere jakitatea entzuteaz poztu,  
Eta bera ikusi gabe ez dut gustuko ezer ikusten.

PARACLESIS

Hamar urtez ez ote zinen ase,  
Bere ospea denetan emendatua ikustean,  
Ez izatea, jakinez pozik dela?

AMARISSIME

Segur bai, egia arrangurak jana izatea  
Arazo guztiez, alde guztietatik tentatua,  
Zeren ongi dela jakiteak berdin utziko nindukeen.

PARACLESIS

Eta haatik dakizu lurraren gainean  
Gizonak ezin duela bizi minik edo gerlarik gabe,

(Ongi guztiak gaizkiekin nahasiak baitira),  
Haizeen, eurien eta trumoiien pean;  
Eta gero, izpiritua, ignorantziagatik noraezean dabilena  
Bihotzean mila eta mila lan sortzen ditu.  
Ontasun gehiago duenak,  
    Ahal gehiago du,  
    Kezka eta sendabide.  
Ohore gehiago duenak,  
    Beldur gutxiago du  
    Eta gehien erdiesten du.  
Plazer gehiago duenak,  
Desio gehiago du  
Beti horren emendatzea.  
Hots munduko edozein ongi ere  
Pasatzen da bat-batean  
Agertu den bezala.  
A Pan, Jainkoari esker  
Ongi dago kezkarik gabe.  
Beti irauten duen ongia,  
Lanik gabeko egiazko ohorea,  
Eta gloria segurua,  
Lotsarik jasaten ez duenak.  
Beldurrik gabeko plazer goxoa,  
Poztasuna, alegiazkoa ez dena,  
    Sekula bukatu gabea  
    Eta zoriona  
    Premiak  
    Higatu ez lezakeena.  
Pan da edozer erran eta ere,  
Sano, eritasunik gabe,  
Bizi eta hilezina,  
Pozik, satisfos:  
    (izpiritu perfektua bezala)  
Sinets ezazue horrelakoa dela,  
Alta, pozik izan zaitezte,  
Zeren luzatu baino lehen  
Harekin izanen zara.

Baina oraindik pixka bat  
 Urez eta suez  
     Behera horietan pasako zara.  
 Pazientzia har ezazu  
 Jainkoaren baitan konfiantza har ezazu  
 Loriatuz  
 Zure laguna ikustea  
 Artzain indartsuaren  
     Beso lokartuetan  
 Lan egiten duzularik  
 Iratzartzen duzu  
 Zure pasioekin:  
 Utz ezazu lo egiten,  
 Egin gabe intziri eta  
 Auhena.

## SECURUS

Paraclesis, alafede zure erranak segurtatzen nau  
 Zeren niretzat mezulari biziki segurua zara;  
 Eta fede honek nire bihotza azkarki kontsolatzen du.

## AGAPY

Bada, bere egoitza ederrean denez,  
 Eta tenore honetan bizi dela sinesten dugunez,  
 Harritzen naiz zure mintzo sailduaz.

## AMARISSIME

Fedea agintzen dit tenplu eder honetan dagoela,  
 Non zoriontasun zabala eskuratzen duen;  
 Kontenplazten dut,  
 Eta gogoan argiki ikusten dut.  
 Maitasunak ahantzarazten dit bere legearekin  
 Ni naizela  
 Bere baitan bizi; haatik bizi baita  
 Bizirik lehenago baino sobera hobeki naiz,  
 Ez haize horretatik  
 Bizi honetan bizi izan dudana,

Baina hura bizirik ni hila pozten naiz.  
 Beraz ez dut gogorik,  
 Beste desiorik ez dut berea baino,  
 Enea osorik ahantzirik,  
 Karitatearen lokarriaren bitartez  
     Batzen gaituena,  
 Biei komuna zaigun ongi bakar bat dagoen bitartean.

## PARACLESIS

Bakoitzak Artzain handia onartzen duenez  
 Haren bitartez haragi nahikeriari uko egiten dionez,  
 Haren bitartez ongi handiago bat iragartzen dizu,  
 Zuen bihotzen mamia ezagutzen baitu:  
 Agintzen dizut eta zin egiten eta baieztatzen,  
 Harentzat abnegazioa egiten baituzu  
 Zure bihotz, gorputz, nahikeria, intentzioaz,  
 Eta bakoitzetik osorik fidatzen den,  
 Izanen zaizula leial eta artzain ona,  
 Gaizkiez eta lanjerrez zu babestuz,  
 Pribatu eta kanpoko etsaiez,  
 Eta leku guztietan zure babeslea izanen dela.  
 Eta gero, ongi irudituko zaiolarik,  
 Panekin, horrenbeste estimatzen duzuna,  
 Artzain eta haur maitagarri bezala,  
 Denak batera bilduko zaituzte.

## SECURUS

Adierazpen hau bitxi bezain gozagarria da:  
 Horregatik kantuarien bitartez ona litzatekeela uste dut  
 Goraipamen xume bat Artzain handiari egitea,  
 Eskaintza bihoztuna eskertuz.

## AGAPY

Tamalez! Ene boz ahula ez dut gupidetsi nahi  
 Gorputza, izpiritua eta boz osoa,  
 Eta uzten diodana  
 Laudatzeko gaia daukagu.

AMARISSIME

Ene boz tristeak lagunduko zaitu  
Loria horretan, tristezian bezala.  
Baina haatik ene begia bustiko da,  
Jainkoaren bozkarioa ene baitan sentituz.  
Adimena gutxi da ene nagusi,  
Baina Ahaltsua, dena egiten duena eta manatzen  
Gogoko duenak, gidatzen gaitu eta bideratzen.  
Benetan guretzat ordaintzen eskatzen duena.

PARACLESIS

Bada, kanta dezagun, beraz, denak batera,  
Pan bizi baita, ez da hila.

*Kantatzen dute:*

Si bona suscepimus de manu Domini, mala autem  
quare non sustineamus, sicut Domino placuit ? Ita factum  
est. Sit nomen Dei benedictum.

## Azken hitza

Margarita Nafarroakoa nobleziako bigarren mailako familia batean sortu zen. Heziketa ona izan zuen, bere anaiak izan zuen bera. Hizkuntza ugari ezagutzen zituen eta Frantziako jauregi ederrenetan zeuden biblioteki esker kultura handiko emaztea bilakatu zen. XVI. mendean, bere mailako emazteentzat, helburu nagusia senarra izatea zen eta hori, diplomaziaren arabera erdiesten zen.

Baina Margaritak bestelako bizia izan zuen, Europa osoko diplomatikoen errespetua lortu zuen, espero ez zen gertaera jaso baitzen: bere anaia orduko erresuma indartsuenaren errege izendatu zuten. Bi aldiz ezkondu zen; lehen senarra hil eta alargun gelditu zenean, garaiko emazteentzat estatus sozial ona lortu zuen, askatasun ekonomikoa eta ondasunen jabe izateko eskubidea bermatua izan baitzuen.

Diplomaziaren zerbitzuan egon zen, batik bat anaia laguntzeko, eta arrakasta handia izan zuen nahiz eta horretarako lana beltz egin behar izan zuen.

Bestelako kezkak ere izan zituen, intimoagoak-edo eta horiek denak idatzietan aipatu zituen. Idatzi horiengatik epaitua izan zen; hala ere, ez zion sekula idazteari utzi.

*Heptameron* lanean Margaritak bere bizia kontatzen du, bere antzerkiek bere aldarrikapenak eta bere penak plazaratzen dituzte. Lasaitasuna, otoitz egitea, bakardadea preziatzen bazituen ere, bere garaiko gizartean behar ziren aldaketen beharrak partekatu nahi zituen eta huraxe zen bere antzerkiarekin helbururik behinena.

Hain zuen gogoko antzerkia, bere lanen antzezteko Italiatik aktore onenak ekartzen zituela.

Maitasuna eta umiltasuna predikatu zituen eta horren lekuko bere alabari idatzitako azken gutuna.

Handikien artean bizi izan zen, boteredun emaztea izan zen, erreferentziazko literatur lanak idatzi zituen, eta maiz Elizaren aurka aritu izan zen; baina, tamalez, hogeita batgarren mendera arte, bost mendez, itzalpean atxikia izan da.

Nafarroako erregina, XVI. mendeko idazle handienetarikoa, bere lanak irakurtzen baditugu bere kezkek eta ideiak gaurkotasuna izaten jarraitzen dutela konturatuko gara.

## Angulemako Margarita, Nafarroako erregina

Agregaziorako 2005-2006ko oposizioetan Nicole Cazauran (Paris IV Unibertsitatea) eta Isabelle Garnier-Mathez (Lyon 3 Unibertsitatea) irakasleek erakia, plazaratu zen bibliografia, Margarita erreginaren obra lantzeko oso proposamen interesgarri eta zabala da. Gurea eraikitzeko laguntza izan da, hala nola Gary Ferguson (University of Virginia), Véronique Montagne (Université Côte d'Azur), Marie-Claire Thomine (Université de Lille) 2021eko agregaziorako prestatu zuten bibliografia.

Baina bi erreferentzia nagusi horiek, Margaritaren obraren inguruan ikerketa aitzina doala erakusten diguna, erreginaren lanaren erdigunea dena alegia *Heptameron*, dela gehien sakontzen den testua.

Hemen, gure lan honetan, proposatutako bi bibliografiak oso aberats eta lagungarri izan, antzerki obra dugunez aipatzen, gure lana osatzeko beste iturriak beharrezkoak izan ditugu.





## Bibliografia

### Margarita Nafarroakoaren poesia lan batzuk

- *Pater Noster et Petit Œuvre dévot*, ed. Sabine Lardon, *Œuvres complètes*, I, Nicole Cazauran-en zuzendaritza pean, Paris, Champion, 2001.
- *Le Miroir de l'ame pecheresse*, ed. R. Salminen, Helsinki, Suomaleinen Tiedea katemia, 1979.
- *La Complainte pour un détenu prisonnier. Chansons spirituelles*, ed. Michèle Clément, *Œuvres complètes*, IX, Nicole Cazauranen zuzendaritza pean, Paris, Champion, 2001.
- *La Coche*, ed. R. Marichal, Genève, Droz, 1971.
- *Les Prisons*, ed. S. de Reyff, Genève, Droz, 1978.

### Bibliografia orokorra

- ADOT LERGA, Alvaro (1493-1517). «Navarra en el pensamiento y actuación de los reyes Juan III y Catalina» Iruñea (sarean).
- AEBISCHER, Paul, « Une chanson de mal mariée dans un manuscrit du XVe siècle », *Romania*, t. 54, n° 215-216, 1928, p. 492-503.
- AUDISIO, Gabriel (Provence, 1533). « Un inquisiteur accusé : le poids des témoignages », in L. Faggion et L. Verdon (dir.), *Quête de soi, quête de vérité, du Moyen âge à l'époque moderne*, 2007: 45-58. Aix-en-Provence, Presses universitaires de Provence.
- AZCONA, T. (2013). *Las bulas del papa Julio II como justificación de la conquista de Navarra en 1512*. Gobierno de Navarra. Pamplona/ Iruña.
- BABELON, Pierre (1982). *Henri IV*. Paris: Fayard.
- BALMAS, Enea, (1995). « Fatalité et liberté du chrétien dans le Théâtre profane », in M. Tetel (dir.), *Les Visages et les voix de Marguerite de Navarre: 149-168*. Paris, Klincksieck.

- BAURMEISTER, Ursula et Laffitte (1992). *Marie-Pierre, Des Livres et des Rois. La bibliothèque royale de Blois*. Paris: Quai Voltaire/Bibliothèque nationale.
- BAUTIER, Robert-Henri (1987). « Guillaume Briçonnet, évêque de Meaux, et la haute administration du royaume », *Journal des savants*: 779-88.
- BAUX, Émile, BOURRILLY, Victor-Louis et MABILLY, Philippe (1904). « Le voyage des reines et de François Ier en Provence et dans la vallée du Rhône (décembre 1515-février 1516) », *Annales du Midi : revue archéologique, historique et philologique de la France méridionale*, tome I6, n° 61: 31-64.
- BEDOUELLE, Guy (1976). *Lefèvre d'Étaples et l'intelligence des Écritures*. Genève: Droz.
- BELLENGER, Yvonne (1999). « Sur la poésie amoureuse de Ronsard avant les Amours, et sur les personnages de Janne et de Cassandre », *Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance*, 61. t., 2.z.: 399-414.
- BELY, L., POUMARÈDE, G. (2009). *L'Incident diplomatique (XVIe-XVIIIe siècle)*. Paris: A. Pedone.
- BENASSAR, Bartolomé (2013). « I-Le Madrid des Habsbourg », B. Benassar (dir.), *Histoire de Madrid*: 33-82. Paris: Perrin.
- BENOIT J.-L. et J. ROOTEK bildua *Les Miracles de Notre-Dame du Moyen Âge à nos jours*. Lyon, ed. Jcques André , 349 pp.
- BERNETEIX, Pierre (2008). *Marguerite d'Angoulême, reine de Navarre. La Marguerite des Marguerites : sa vie et son œuvre*. Monein: Éditions des régionalismes.
- BERTHOUD, Gabrielle (1973). *Antoine Marcourt : réformateur et pamphlétaire, du Livre des Marchands aux placards de 1534*. Genève: Droz.
- BERTRAND DANIEL, A. (1986). « Marie Turcan, Tertullien, Les spectacles(De spectaculis), Introduction, texte critique , traduction et commentaires de Marie Turcane », *Revue d'Histoire et de Philosophie religieuses*, 1988: 358-359. Paris: ed. Du Cerf.
- BERRIOT SALBATORE, E. (1990). *Les Femmes Dans la Societe Française de la Renaissance*. Ed. Droz.
- BLANC, Liliane (2008). *Une histoire des créatrices: l'Antiquité, le Moyen Âge, la Renaissance*. Montréal: Ed. Sisyphé.
- BIDEAUX, Michel, MARCZUK-SWED (1993). « Barbara, L'inspiration biblique dans l'œuvre de Marguerite de Navarre », *Bulletin de l'Association d'étude sur l'humanisme, la réforme et la renaissance*, 37.z.: 83-86.
- BLANCHARD, Joël (2020). *La Fin du Moyen âge*. Paris: Perrin.
- BOCCACE (Boccaccio, Giovanni), *Le Décaméron*, frantses itzulpen osoa A. Le Maçon : *Le Decameron de messire Iehan Bocace Florentin, Nouvellement traduit d'italien en Francoys par maistre Anthoine Le macon conseiller du Roy & tresorier del'extraordinaire de ses guerres*. Paris.
- BOCCACE, *Le Décaméron*, (2009) préface de Pierre Laurens, traduction de Giovanni Clerico, Paris, Gallimard, Folio classique.

- BOISSON, Didier et DAUSSY, Hugues (2006). *Les Protestants dans la France moderne*. Paris: Belin.
- BOISSONADE, P. (1983). *Histoire de la réunion de la Navarre à la Castille, essai sur les relations des princes de Foix-Albret avec la France et l'Espagne*. Paris: A. Picard.
- BONNET, Charlotte, Louise DE SAVOIE et François DEMOULINS DE ROCHEFORT (2015). in *Louise de Savoie (1476-1531)*: 253-262. Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- BOUCHET, Jean (1525,1557) *Les Annalles d'Aquictaine*. Poitiers: E. de Marnef.
- BOURBON, Nicolas (2008). *Nugæ – Bagatelles (1533)*, S. Laigneau-Fontaine (éd.). Genève: Droz.
- BOURDEILLES, P. De (1655). *Brantome, "Vie des dames illustres"*. Paris: ed. Garnier frères.
- BOUHAÏK-GIRONES, M. (2003). « Le Proces des farceurs de Dijon (1447) », *European Medieval Drama*, 7.z.: 117-134.
- BOUHAÏK-GIRONES, M., V. DOMINGUEZ, V., Genèse et constitution du savoir académique sur le théâtre médiéval. [https://www.academia.edu/2041225/Introduction\\_genèse\\_et\\_constitu-tion\\_du\\_savoir\\_académique\\_sur\\_le\\_théâtre\\_médiéval\\_avec\\_Véronique\\_Dominguez\\_](https://www.academia.edu/2041225/Introduction_genèse_et_constitu-tion_du_savoir_académique_sur_le_théâtre_médiéval_avec_Véronique_Dominguez_)
- BOUHAÏK-GIRONES, M, KOOPMANS J., LAVEANT, K. (2008). *Le Théâtre polémique français, 1450-1550*: 214. Rennes: ed. Presses Universitaires de Rennes.
- BOUHAÏK-GIRONES, M. (2010). « Comment faire l'histoire de l'acteur au Moyen Âge? », *Open Edition Journals, Medievales*, 59.z.: 107-125.
- BOUHAÏK-GIRONES, M., KOOPMANS, J., LAVEANT, K. (zuz.) (2008). *Le Théâtre polémique français 1450-1550*. Rennes: Ed. Presses Universitaires de Rennes.
- BRANTÔME, Pierre de Bourdeilles, seigneur de (1823). *Œuvres complètes*. Paris: Foucault, 5.t., (Vies des dames illustres)
- (1859). *Œuvres complètes*. Paris: Pagnère, t. 3.
- (1875). *Œuvres*, t. 8, Paris, L. Lalanne, « Recueil des Dames ».
- (1956), *Vie des Dames galantes*. Paris: Le Club français du livre.
- (2017) « Extraits », in *Marguerite de Navarre, Heptaméron*, Anatole de Montaiglon et Antoine Croizy-Naquet, C., Le Briz-Orgeur, S., Valette, J-R., "Théâtre et révélation", ed. H. Champion, Paris.
- Leroux de Lincy (éd.), Paris, Etudes, 1880, rééd. Genève, Slatkine, 1969, t. I (p. 131-148). Guillaume Briçonnet et Marguerite d'Angoulême. *Correspondance (1521-1524)*, Venard Marc, *Revue d'histoire de l'Église de France*, Année 1976, 169.z, 381-384.
- Guillaume Briçonnet et Marguerite d'Angoulême, *Correspondance*. Tome I (1521-1522), C. Martineau et M. Vessière (éd.), Genève, Droz, « THR », 1975.
- BRENZ, Johannes (ms., 1527 ?). *L'initiatore instruction en la religion chrestienne pour les enffans*. Paris, Bibliothèque de l'Arsenal : Ms. 5096.

- BRIAN, Isabelle et LE GALL, Jean-Marie (1999). *La Vie religieuse en France, XVIe-XVIIIe siècles*. Paris: Sedes.
- BRIOIST, Pascal, FAGNART, Laure et MICHON, Cédric (dir.) (2015). *Louise de Savoie (1476-1531)*, Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- BUDÉ, Guillaume (1993). *Le Passage de l'hellénisme au christianisme (De Transitu Hellenismi ad Christianismum)*, trad. fr. M.-M. de la Garanderie, Paris, Les Belles Lettres.
- BURKE, Peter, (2000). *La Renaissance européenne*, traduit de l'anglais par Paul Chemla, Paris, Points Seuil, 2002 [The European Renaissance, Centres and Peripheries, 2000].
- CALVIN, Jean (1544). *Traité des reliques, suivi de l'Excuse à Messieurs les Nicodémites sur la complainte qu'ilz font de sa trop grand'rigueur*, A. Autin (éd.). Paris: Bossard, 1921.
- CAZAURAN, Nicole (2003). « Marguerite de Navarre : le deuil en dialogues », in J. Céard et al. (dir.), *Cité des hommes, cité de Dieu. Travaux sur la littérature de la Renaissance en l'honneur de Daniel Ménager*, 342-357. Genève: Droz.
- (2001). « Boaistuau et Gruget éditeurs de l'Heptaméron », in F. Bessire (dir.), *Travaux de littérature publiés par l'ADIREL, L'Écrivain éditeur, 1-Du Moyen âge à la fin du XVIIIe siècle*, 149-167. Genève: Droz.
- (1995). « Sur l'élaboration de l'Heptaméron », in M. Tetel (dir.), *Les Visages et les voix de Marguerite de Navarre*: 19-39. Paris: Klincksieck.
- CAZAURAN, Nicole et DAUPHINÉ, James (dir.) (1995). *Marguerite de Navarre, 1492-1499*. Mont-de-Marsan: Éd. InterUniversitaires, 1995.
- CEREIA, Daniela, « De fille de cadet à mère de roi », in P. Brioist et al. (dir.), *Louise de Savoie (1476-1531)*: 39-46. Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- CERATI, Marie (1981). *Marguerite de Navarre*. Paris: Éditions du Sorbier.
- CERTEAU, Michel de (1990). *L'Invention du quotidien, 1. Arts de faire*. Paris: Gallimard, Folio essais.
- CAMILLOCCI, Daniela, « “Mieulx vault ensuyvre la verité en petit nombre...” Choisir le bon côté et définir les adversaires dans l'Epistre très utile de Marie Dentière », in M.-C. Pitassi et D. Solfaroli.
- CARPI, O. (2012). *Les guerres de religion. 1559-1598. Un conflit franco-français : 720*. Paris: Ed.
- CHAMPION, P., “Arnoul Gréban, l'auteur du Mystère de la Passion”, *Histoire poétique du XV<sup>e</sup> siècle*, Paris, 1923. Ellipses.
- CHAMPOLLION-FIGEAC, Aimé (éd.) (1847). *Captivité du roi François Ier*, Paris, Collection de documents inédits de l'histoire de France: BnF/Gallica.—, [François Ier], *Poésies du roi François Ier, de Louise de Savoie, de Marguerite, reine de Navarre et Correspondance intime du roi avec Diane de Poitiers et plusieurs autres dames de la cour*. Genève: Statkine reprints, 1970 : BnF/Gallica.
- CHAPY (ou David-Chapy), Aubrée (2014). « Louise de Savoie, régente et mère du roi : l'investissement symbolique de l'espace curial », *Réforme, Humanisme, Renaissance*, n° 79: 65-84.

- CHASTEL, André (1984). *Le Sac de Rome, 1527. Du premier maniérisme à la Contre-Réforme*. Paris: Gallimard.
- CHATENET, Monique, (2015). « Les funérailles de Louise de Savoie », in P. Briost et al. (dir.), *Louise de Savoie (1476-1531)*: 155-163. Tours, Presses universitaires François-Rabelais.
- (2002). *La cour de France au XVI<sup>e</sup> siècle. Vie sociale et architecture*. Paris: Picard.
- CLÉMENT, Michèle (2019). « Voix de femmes dans L'Adolescence clémentine (1538) », *Babel*, Hors série Agrégation: 85-101.
- CHEVALIER, Bernard (2005). *Guillaume Briçonnet I (v. 1445-1514), un cardinal-ministre au début de la Renaissance*. Rennes, PUR.
- CLEMENT, M., VIENNOT, E., *La France, les femmes et le pouvoir. L'invention de la loi salique (V<sup>e</sup>-XIV<sup>e</sup> m.)*, RHR.2008.67.z.
- COHEN, Paul (2003a). « Illustration du français et persistance des langues régionales », in G. Defaux (zuz.), *Lyon et l'illustration de la langue française*: 116-134. Paris: ENS Editions.
- CUZACQ, R., La pêche à Saint-Jean-de-Luz, *Revue géographique des Pyrénées et du Sud-Ouest*, 4.t., 1933. 287-296.
- (2003) « L'imaginaire d'une langue nationale : l'État, les langues et l'invention du mythe de l'ordonnance de Villers-Cotterêts à l'époque moderne en France », *Histoire, épistémologie, langage* 25/1: 19-69.
- DUFOURNAUD, N., *Rôles et pouvoirs des femmes au XVI<sup>e</sup> siècle dans la France de l'Ouest*, *Genre & Histoire* [sarean], 2007ko udazkena.: <http://journals.openedition.org/genrehistoire/208>
- COOPER, Richard (1997). *Litteræ in tempore belli. Études sur les relations littéraires italo-françaises pendant les guerres d'Italie*. Genève: Droz.
- CORROZET, Gilles (1557). *Propos memorables*. Paris: G. Corrozet.
- COTTRET, Bernard (2016). *Histoire de la France protestante*. Paris: Perrin.
- CROUZET, Denis (1999). *La Genèse de la Réforme française, 1520-1562*. Paris: Sedes.
- CROUZET, D., "Charles Quint. Empereur d'une fin des temps". O. Jacob. 2016. 670.
- CONTAMINE, Philippe, (1964). « L'artillerie royale française à la veille des guerres d'Italie », *Annales de Bretagne*, 7.t 2.z.: 221-261.
- CUZACQ, R. (1933). « La pêche à Saint-Jean-de-Luz », in *Revue géographique des Pyrénées et du Sud-Ouest*, 4.t. 287-296
- DAUSSY, H., (2014). *Le parti Huguenot: chronique d'une désillusion.(1557-1572)*: 888. Genève: Ed. Droz.
- DAVANT, Jean-Louis (2009). "Xiberoko azken bizkontea" in *Nabarralde*, 2009-08-10.

- DEBBAGI BARANOVA, Tatiana (2019). « Avertir le peuple : les premiers imprimés en français contre Luther et les luthériens (France, années 1520-1530) », dossier « Luther en France », *Seizième Siècle*, 15.z.: 223-235.
- DÉJEAN, Jean-Luc (1987). *Marguerite de Navarre*. Paris: Fayard.
- DELUMEAU, J. (1999). *Une histoire de la Renaissance*. Paris: Perrin.
- DELVALLÉE, Ellen, « Le Recueil Jehan Marot : un manuscrit inachevé et perdu édité par Clément ? », *AdHoc* 6.z. (2017ko abendua) (sarean).
- DES CARS, Jean (2018). *Les Châteaux de la Loire*. Paris: Perrin.
- DES PÉRIERS, Bonaventure (1544). *Recueil des Œuvres de feu Bonaventure Des Périers*. Lyon: Jean de Tournes.
- DE RUBLE, Alphonse (1877). *Le Mariage de Jeanne d'Albret*. Paris: A. Labitte.
- DE Tournes, Jean (éd.) (1992). *Il Petrarca (1545)*. Lyon: BnF/Gallica.
- DOMECQ J. P. (2017). *La vie municipale à Salies-de-Béarn*. Ed. L'Esvelhadou. Orthez: 334.
- DOUCET, Roger (1913). « La mort de François Ier », *Revue Historique*, t. 113, Fascicule 2: 309-316.
- DU BELLAY, Joachim (1919). « Tombeau de Marguerite Royné de Navarre » (104 quatrains français transposant les 104 distiques latins des sœurs Seymour) [1551], *Œuvres poétiques, t. IV (Recueils lyriques)*: 55-84. H. Chamard (ed.), STFM. Paris: Hachette. 55-84.
- DUBECH, L. (1931). *Histoire générale illustrée du théâtre*. 9-50. Paris: Librairie de France.
- DUCASSE, P. F. (1862). *Les rois de Navarre à Nérac*. Nérac: Ed. J. Boucher.
- DUHL, Olga Anna (2008). « La polémique religieuse dans le théâtre de Marguerite de Navarre », in M. Bouhaïk-Gironès et al. (zuz.), *Le Théâtre polémique français (1450-1550)*: 189-210 Rennes, PUR.
- DUMONT, Jonathan, LILIA Florent (2013). *L'Imaginaire politique et social à la cour de France durant les Premières Guerres d'Italie (1494-1525)*. L. Vissière-ren hitzaurrea. Paris: Champion.
- (zuz.) (2015). *Le Pouvoir par les armes, le pouvoir par les idées*. Louvain-la-Neuve.
- et al. (dir.) (2012). *Femmes de pouvoir, femmes politiques durant les derniers siècles du Moyen âge et au cours de la Première Renaissance*. Louvain-la-Neuve, De Boeck.
- DUPERRAY, Ève (1997). *L'Or des mots. Une lecture de Pétrarque et du mythe littéraire de Vaucluse des origines à l'orée du XXe siècle. Histoire du pétrarquisme en France*. Paris: Publications de la Sorbonne, 1997.
- DUVAL, Y-M. (1988). *Tertullien, Les spectacles (De spectaculis)*, Introduction, texte critique, traduction et commentaires de Marie Turcane (1986), *Revue des Etudes Anciennes*, 90, 1-2: 227.
- DUVAL, Frédéric (2007). *Lectures françaises de la fin du Moyen âge*. Genève: Droz.

- EICHEL-LOJKINE, Patricia (2021). *Marguerite de Navarre*. Paris: Ed. Perrin.
- EL KENZ D., GANTET C. (2003). *Guerres et paix de religion en Europe aux 16ème-17ème siècle*. 182. Paris: Armand Colin.
- ESARTE MUNIAIN, Pedro (2001). *Navarra, 1512-1530*. Iruñea: Pamiela.
- ÉRASME (1713). *La Manière de prier Dieu* [1524]. Paris: Jean de Nully.
- ESCAMILLA, M., CHAUNU, P. (2020). *Charles Quint : 1184*. Paris: Ed. Tallandier.
- EVAIN, A. (2006). *Théâtre de femmes de l'Ancien Régime*. Ed. Pu Saint Etienne.
- (2007). *Les reines et princesses de France, mécènes, patronnes et protectrices du théâtre au XVIème siècle : 59-99*. Saint Etienne: Ed. K. Wilson-Chevalier.
- FAGNART, Laure, « Louise de Savoie et la chambre des Bucoliques », in P. Briost *et al.* (zuz.), *Louise de Savoie (1476-1531) : 205-218*. Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- GARAI, Koldo J. (2001). « *Epaiqueta eta Endogamia Nafarroako Margaritaren Le Miroir de l'âme pécheresse-n* », *Lapurdum* 6: 119-193.
- KANE, J. E. (éd.) (1984). *François Ier: (Œuvres poétiques, J. E. Kane (éd.)*. Genève: Slatkine.
- FRANK, Felix (1897). *Dernier voyage de la reine de Navarre Marguerite d'Angoulême*. Ed. Toulouse: Ed. Privat.
- GADOFFRE, Gilbert (1997). *La Révolution culturelle dans la France des humanistes*. Genève: Droz.
- GALLAND-HALLUYN, Perrine (2001). *Halluyn, Fernand, "Poétiques de la Renaissance", (4. kapitulu bereziki)*. Genève: Droz.
- GARNIER, Isabelle (2012). « Poésie funèbre et tombeaux à cour de François Ier : Marot, Brodeau, Héroët, Saint-Gelais, Salel, entre tradition et rénovation évangélique », in J.-E. Girot (zuz.), *La Poésie à la cour de François Ier : 191-214*. Paris: PUPS.
- GAUTIER, Jean-Jacques (1805). *Histoire d'Alençon : 130-134*. Alençon: Poulet-Malassis.
- GIACONE, Franco (1995). « Le premier ouvrage de Marguerite de Navarre : Dialogue en forme de vision nocturne ou Pater Noster ? », in N. Cazauran et J. Dauphiné (zuz.), *Marguerite de Navarre, 1492-1992 : 261-290*. Mont-de-Marsan: Ed. InterUniversitaires.
- (zuz.) (1999). *Histoires d'Écritures. La Bible et la théologie de Marguerite de Navarre à Agrippa d'Aubigné*, Rome, Edizioni di Storia e Letteratura, Quaderni di cultura francese.
- GIESEY, Ralph E. (1987). *Le Roi ne meurt jamais. Les funérailles royales au temps de la Renaissance* (itzulp.) [1960]. Paris: Flammarion.
- GIROT, Jean-Eudes (dir.) (2012). *La Poésie à la cour de François Ier*. Paris: PUPS.
- GARRISON, J. (2002). *Royauté, renaissance et réforme, 1483-1559 : 301*. Points. 2
- GUAY, G. (2013). *La représentation des maladies féminines en France au XVIIe siècle*. Quebec: Université de Sherbrooke.



- GUILLEMINOT-CHRÉTIEN, Geneviève (2008). « La diffusion de l'ordonnance de Villers-Cotterêts (1539-1542) », in Roseline Claerr et Olivier Poncet, *La Prise de décision en France (1525-1559)* : 149-160. Paris: École nationale des Chartes.
- HAMON, Philippe (2009). *Les Renaissances, 1453-1559*. Paris: Belin.
- HARI, Robert (1957). « Les Placards de 1534 », in G. Berthoud et al. (zuz.), *Aspects de la propagande religieuse*. Genève: Droz.
- HEERS, Jacques (2009). *L'histoire oubliée des guerres d'Italie : 206*. Via Romana.
- HIGMAN, Francis (1992) *La Diffusion de la Réforme en France, 1520-1565*. Genève: Labor et Fides.
- (1998). *Lire et découvrir. La circulation des idées au temps de la Réforme*. Genève: Droz,
- HUCHON, Mireille (2006). “‘Louise Labe’: une créature de papier”. Genève: Droz.
- IMBART DE LA TOUR, Pierre (1914). « Les débuts de la Réforme française (1521-1525) », *Revue d'histoire de l'Église de France*, 5.t., 26: 145-181. InterUniversitaires, 1995, 15-24.
- JIMENO JURIO, J. M. (2006). *La Navarra Medieval*. Iruñea: Ed. Pamiela.
- JOUANNA, Arlette (1997). *La France du XVIe siècle. 1483-1598*. Paris: PUF.
- JOURDA, Pierre (1930). *Répertoire analytique et chronologique de la correspondance de Marguerite d'Angoulême*. Paris: Champion.
- (1930). *Marguerite d'Angoulême, duchesse d'Alençon, reine de Navarre (1492-1549). Étude biographique et littéraire*. Paris: Champion.
- (1932). *Une Princesse de la Renaissance, Marguerite d'Angoulême, reine de Navarre (1492-1549)*. Paris: Desclée de Brouwer et Cie.
- (1928). « Marguerite de Navarre, Lettres inédites », *Revue du Seizième Siècle*, 15.t.: 100-133.
- KRUMENACKER, Yves (2012). « Jean Calvin étudiant à Orléans et à Bourges », in J. Varet zuz., *Calvin : Naissance d'une pensée* : 23-36. Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- KOOPMANS, J. (2012). « L'effectivité de la législation sur le théâtre » *Cahiers de Recherches Médiévales et humanistes*, 23: 141-150. Paris.
- KOOPMANS, J. (2016). « La farce, genre noble en prises avec les facéties? » *Cahiers de Recherches Médiévales et humanistes*, 32: 147-168.
- KOOPMANS, J., SMITH, D. (2010). « Un théâtre français du Moyen Age? » in *Médiévales*: 59: 5-10.
- KUPERTY-TSUR, Nadine (2015). « Le Journal de Louise de Savoie : nature et visées », in P. Brioist et al. (zuz.), *Louise de Savoie (1476-1531)* : 263-276. Presses universitaires François Rabelais.
- KUROIWA, T., LEROUX, E., X. SMITH, D. (2010) « De l'oral à l'oral : réflexions sur la transmission écrite des textes dramatiques au Moyen Âge », *Médiévales* [sarean], 59.z.

- LABAYEN, A. M. (1973). *Teatrogintza eta Yakintza*. Zarautz: Ed. Itxaropena.
- LA CHARITÉ, Claude, « Marguerite de Navarre et la lettre de confession », *Tangence*, 84.z., « Postures et impostures de l'individualisme humaniste », 2007, 11-30.
- LAFOURCADE, M. (2011). *La société traditionnelle basque* : 175 Elkarlanean. 2011.
- LAJARTE, Philippe de (1995). « Autour d'un paradoxe : les Nouvelles de Marguerite de Navarre et sa correspondance avec Briçonnet », in N. Cazauran et J. Dauphiné (dir.), *Marguerite de Navarre, 1492-1992* : 593-634. Mont-de-Marsan: ed. InterUniversitaires.
- LALANNE, Ludovic (éd.) (1854). *Journal d'un bourgeois de Paris sous le règne de François Ier, 1515-1536*. Paris: Société de l'histoire de France : BnF/Gallica.
- LAUNE, Alfred, (1895). « Lefèvre d'Étaples et la traduction française de la Bible », *Revue de l'histoire des religions*, vol. 32: 56-72.
- LAVIALLE, C., *Les réformateurs protestants, la pensée de Calvin et l'émancipation de l'économie*.<https://books.openedition.org/puf/fr/7779?lang=>.
- LAVOCAT, Françoise (2005). *La Syrinx au bûcher. Pan et les satyres à la Renaissance et à l'âge baroque*. Genève: Droz.
- LAZARD, M. (2001). « *Les avenues de Fémynie, Les femmes et la Renaissance* : 437. Paris: Arthème Fayard.
- LAZARD, M. (1997). *Du théâtre médiéval à la comédie du XVIème siècle, continuité et rupture* », *Réforme, Humanisme, Renaissance*, 44: 65-78.
- BEAULIEU J.-P., DESROSNIERS-BONIN, D. "Les études sur les femmes écrivains du XVI ème siècle français". Université de Montréal et Mc Gill University. 2011. *French Studies*, LXX. t., 3.z. , 370-375.
- LECOINTE, Jean (2002). « Le devis des larmes : polémique anti-stoïcienne et dialogicité dans La Navire de Marguerite de Navarre », in J. Lecoïnte et al. (zuz.), *Devis d'amitié. Mélanges en l'honneur de Nicole Cazauran*, : 369-384. Paris: Champion.
- LECOQ, Anne-Marie (1987). *François Ier imaginaire : Symbolique et politique à l'aube de la Renaissance française*. Paris: Macula.
- LEFÈVRE D'ÉTAPLES, Jacques (trad.) (2005). *Le Nouveau Testament* (Nice 1525). Nice: Serre Editeur.
- (1979) *Quincuplex psalterium*. Genève: Droz.
- LEFRANC, Abel (1897). « Marguerite de Navarre et le platonisme de la Renaissance », *Bibliothèque de l'école des chartes*, 58 : 259-292.
- LE GALL, J. M. (2015). *L'Honneur perdu de François I<sup>er</sup>: Pavie, 1525*. Paris: Ed. Payot.
- LE GLAY, M., *Négociations diplomatiques entre la France et l'Autriche durant les trente premières années du XVIème siècle., 1845*, Paris, Imprimerie royale, II.t., 635-636.o.<https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k54074935/f20.item.texteImage#>

- LE FUR, Didier (2018). *François Ier*. Paris: Perrin.
- LE FUR, D. (2018) *Une autre histoire de la Renaissance* : 250. Paris: Perrin.
- LE ROUX, Nicolas (2015). *1515. L'Invention de la Renaissance*. Paris: Armand Colin.
- LESEUR Guillaume, COURTEAULT Henri (1893). *Histoire de Gaston IV, comte de Foix* par Guillaume Leseur - Chronique française inédite du XV<sup>e</sup> siècle". Ed. Librairie Renouard, 1893. I eta 2.t.,
- MAROT, Jean (1999). *Les Deux Recueils*, G. DEFAUX et Th. MANTOVANI (éd.). Genève: Droz.
- MATHIEU-CASTELLANI, Gisèle (1992). *La Conversation conteuse. Les Nouvelles de Marguerite de Navarre*, Paris, PUF.
- MAZOUER, CH. (1998). *Le Théâtre français du Moyen Âge*, Paris, SEDES.
- MELLINGHOFF-BOURGERIE, Viviane (1995). « L'échange épistolaire entre Marguerite d'Angoulême et Guillaume Briçonnet : discours mystique ou direction spirituelle », in N. Cazauran et J. Dauphiné (zuz.), *Marguerite de Navarre, 1492-1992: 135-158*. Mont-de-Marsan: ed. InterUniversitaires.
- MICHON, Cédric (2015). *François Ier. Les femmes, le pouvoir et la guerre*. Paris: Belin.
- MONTEANO SORBET, Peio J. (2021). *La conquista de Hondarrabia*. Ed. Mintzoa. Pamplona (Navarra). 2021.
- (2010), *La guerra de Navarra (1512-1529). Cronica de la conquista española*. Iruñea: Pamiela.
- MONTER, William, « Les exécutés pour hérésie par arrêt du Parlement de Paris (1523-1560) », Orth, Myra D., « Manuscrits pour Marguerite », Marguerite de Navarre, 1492-1992, Mont-deMarsan, Éd. InterUniversitaires, 1995, 85-105.
- NANCY, J.-L., (1982). *Le partage des voix*. Paris: ed. Galilée.
- NAVAGERO, A., *Bayonne et le Pays Basque en 1528* : (extrait du voyage d'un Ambassadeur vénitien en France et en Espagne) M. H. O'Shea. Itzultzaile 1886. Iturria gallica.bnf.fr /
- NAVAUD, G. (2019). *La théâtrophobie impériale(II-IVs) entre platonisme et christianisme* : 98: 13-28. Presses universitaires du Midi.
- OLIVIER-MARTIN, François (1932). « La réunion de la Basse-Navarre à la couronne de France », *Anuario de historia del derecho español*, 9: 249-289.
- ORDOKI URDAZI, Luis (2022). *Dos vasconias*. Pamplona-Navarra: ed. Mintzoa.
- PANNIER, J. (1923). « Recherche sur l'évolution religieuse de Calvin jusqu'à sa conversion », *Revue d'Histoire et de Philosophie religieuse*, 3.urtea, 4.z., Uztail-Abuztua 1923: 297-323.
- ORPUSTAN, J.-B. (2008). « *La Basse-Navarre dans la guerre de Navarre (1512-1530), récit historique, d'après Navarra, 1512-1530... de Pedro ESARTE MUNIAIN*. Ière partie » *Revue Les amis de la vieille Navarre*: 17.

- PETIT DE JULEVILLE, L. (1880). *Histoire du Théâtre en France. Les mystères Paris*. Hachette.
- (1889). *Le Théâtre en France, histoire de la littérature dramatique depuis ses origines jusqu'à nos jours*, Ed. Armand Collin et co. Paris: BNF. Gallica.
- Pierre, BENOIST (2015). « La religion de Louise de Savoie », in P. Brioist et al. (dir.), *Louise de Savoie (1476-1531)*: 117-141. Tours: Presses universitaires François Rabelais, 2015 (p. 117-141).
- POIRION, Daniel, (1983). *Précis de littérature française du Moyen âge*. Paris: PUF.
- PONCELET, A., « Index miraculorum Beatæ Virginis Mariæ », *Analecta Bollandiana*, XXI, 1902. 261-360.o.
- QUENIARD J. (1984). « De l'oral à l'écrit », *Histoire de l'Éducation*, 21 : 11-35. Rabelais, François; GARGANTUA, G., DEMERSON (éd.), Paris, Seuil, 1996 [1973].
- (2011). « Marguerite de Navarre, la sœur fidèle (1492-1549) » et « Henri d'Albret, roi de Navarre (1502-1555) », in C. Michon (dir.), *Les Conseillers de François Ier* : 415-437; 439-442. Rennes, PUR.
- RAEMON, F. De (1610). *Histoire de la naissance et des progrès de l'hérésie* : VII, 849. Paris, ed Vefve Guillaume de la Nove.
- RENTET, Thierry (2011). « Anne de Montmorency (1493-1567). Le conseiller médiocre », in C. Michon (zuz.), *Les Conseillers de François Ier* : 279-309. Rennes, PUR.
- (2008). « Le pouvoir des lettres. L'année 1530 et la libération des fils de France à travers la correspondance de Montmorency », in R. Claerr et O. Poncet, *La Prise de décision en France (1525-1559)* : 123-148. Paris: École nationale des Chartes.
- RIPART, Laurent (1995). « Les mariages de Marguerite », in N. Cazauran et J. Dauphiné (zuz.), *Marguerite de Navarre, 1492-1992*: 59-83. Mont-de-Marsan, Ed. InterUniversitaires.
- RITTER, Raymond (1953). « Les Solitudes de la reine de Navarre ». Paris: Champion.
- ROMENGO, M. (2016). *L'image éditoriale de Marguerite de Navarre au XVIème siècle ou la construction d'une figure d'auteur: conditions, modalités, enjeux*. Louvain-La-Neuve.
- RONSARD, Pierre de, (1549) *Epithalame d'Antoine de Bourbon et Janne de Navarre*, par Pierre de Ronsard. Paris, Michel de Vascosan : BnF.
- (1923). *Œuvres complètes, Les Odes*, Hugues Vaganay, t 3. (éd.). Paris: Garnier.
- ROQUE, Atance Félix (1976). « Les comédies profanes de Marguerite de Navarre : aspects de la satire religieuse en France au XVIe siècle », *Revue d'histoire et de philosophie religieuses*, 56.urtea, 3: 289-313.
- RUNNALLS, G. A. (2003). *Les mystères dans les provinces françaises (en Savoie et en Poitou, à Amiens et à Reims)*. Paris: ed. Champion.
- RUNNALLS, G. A. (2004) « La confrérie de la Passion et les mystères. Recueil de documents relatifs à l'histoire de la confrérie de la Passion depuis la fin du XIVème jusqu'au milieu du XVIème siècle », *Romania*: 485-486.z.: 135-201.

- SAINTE-MARTHE, Charles de (1550) *Oraison funebre de l'incomparable Marguerite, royne de Navarre, Duchesse d'Alençon. Composée en latin par Charles de Sainte-Marthe : Et traduite par luy, en langue françoise. Plus Epitaphes de ladite Dame : par aucuns Poetes François. Icy est le mirouer des Princesses.* Paris, Regnault et Claude Chaudière. Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance, vol. II, I. z., 1949, 7–27.
- (1974) « Marguerite de Navarre en ses derniers temps : Sur des lettres de 1547-1549 », *Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance*, vol. 36, n° 3: 533-573.
- SCHRENCK, GILBERT. (zuz.) (2019). *Héroïsme féminin et femmes illustres* Schrenck, Gilbert. (zuz.), « Hères (XVIe-XVIIe siècles). Une représentation sans fiction ». Paris: Classiques Garnier.
- SEIDEL MENCHI, Silvana (1996). *Érasme hérétique*. Gallimard: Le Seuil.
- SERRANO IZKO, Bixente (2006). *Nafarroa. Historiaren baria*. Iruñea: Euskal Kultur Elkargoa.
- SEYSSEL, Claude de, (1508) *Les Louenges du Roy Louys XII*, P. Eichel-Lojkine et L. Vissière (ed.). Genève: Droz.
- SIMONETTA, Elisabetta (2019). « La contrainte de l'héroïsme », in G. Schrenck *et al.* (zuz.), *Héroïsme féminin et femmes illustres (XVIe-XVIIe siècles). Une représentation sans fiction : 77-89*. Paris: Classiques Garnier.
- SMITH, D. (2012). *La place de l'écrit dans la tradition dramatique*. (sarean) La place de l'écrit dans la tradition dramatique en France (13e-16e siècles).sarean | Darwin Smith – Academia.edu. Colloque Théâtre et Théâtralité.
- SMITH, Marc H. (1988). « Familiarité française et politesse italienne au XVIe siècle. Les diplomates italiens juges des manières de la cour des Valois », *Revue d'Histoire diplomatique*, 3-4.zk.: 193-232 (sarean Cour de France.fr).
- STEIN, H. (1918). « Arnoul Gréan, poète et musicien », in *Bibliothèque de l'École de Chartres*, 79.t. : 142-146.
- STRUBEL, A. (2003). *Le Théâtre au Moyen Âge*. Paris: Bréal.
- TELLE, Émile V. (1954), *Érasme de Rotterdam et le septième sacrement. Étude sur l'évangélisme matrimonial au XVIe siècle et contribution à la biographie intellectuelle d'Érasme*. Genève: Droz.
- TERTULIANO. *Les spectacles (De spectaculis)*. Introduction, textique critiques, traduction et commentaires de Marie Turcane. Paris. Ed. du Cerf. 1986.
- TETEL, Marcel (dir.) (1995). *Les Visages et les voix de Marguerite de Navarre*. Paris: Klincksieck.
- VALENTIN, J. M. (2001). *Les Jésuites et le Théâtre (1554-1680). Contribution à l'histoire culturelle du monde catholique dans le Saint Empire romain germanique: 752*. Paris: Desjonquères.
- VEISSIERE, Michel. *L'évêque Guillaume Briçonnet (1479-1534)*. Réforme, Humanisme, Renaissance. 1986. 23.z. 72-78.o.
- WEISS, Nathanaël. *La Chambre ardente. Étude sur la liberté de conscience en France sous François Ier et Henri II (1540-1550)*. Genève: Slatkine reprints, 1970 [1889].

- WINN, Colette (2002). « Témoignage de l'actualité médicale du temps : “ Le Mallade ” de Marguerite de Navarre (1535) », *Renaissance and Reformation*, dossier “Quêtes spirituelles et actualité contemporaine dans le théâtre de Marguerite de Navarre”, vol. 26, 4.zk.: 91-111.
- WINN, Mary Beth et WILSON-CHEVALIER, Kathleen (2015). « Louise de Savoie, ses livres, sa bibliothèque », in P. Briost et al. (dir.), *Louise de Savoie (1476-1531) : 235-252*. Tours: Presses universitaires François Rabelais.
- ZELLER, J. (1880). *La Diplomatie Française Vers le Milieu du XVIe Siècle: D'Après la Correspondance de Guillaume Pellicier Évêque de Montpellier, Ambassadeur de François Ier A Venise, 1539-1542*. Paris: Ed. Hachette.
- ZEMON DAVIS, N. (1975). *Society and Culture in Early Modern France: Eight Essays*, Stanford, Californie: Stanford University Press, 1975, itzul. Marie Noëlle Bourguet, Paris, Aubier, 1977.
- ZEMON DAVIS, Natalie (1988). *Pour sauver sa vie. Les récits de pardon au XVIe siècle-* itzul. C. Cler. Paris, Seuil.

## Gunegrafia

- DAVANT, J. L., <https://www.enbata.info/articles/ledit-dunion-de-1620>
- DUFOURNAUD, N., « Rôles et pouvoirs des femmes au XVIe siècle dans la France de l'Ouest », *Genre & Histoire* [sarean], 2007ko udazkena:  
<http://journals.openedition.org/genrehistoire/208>  
<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/31730.pdf>  
[https://ikerzaleak.org/ikerzaleak\\_soule\\_histoire/soule\\_francaise/](https://ikerzaleak.org/ikerzaleak_soule_histoire/soule_francaise/)  
<https://lehoinabarra.blogspot.com/2019/06/el-euskera-del-ducado-de-baskonia.htm>
- « UtpicturaI8 », Stéphane Lojkineen eskutik (Heptamérons illustrés) :
- « Oratoire du Louvre » (Histoire de l'Oratoire) gunea :  
<https://oratoiredulouvre.fr/patrimoine/visites/histoire-du-protestantisme-parisien-et-de-loratoire>
- « Ménestrel » (Médiévistes sur le net) gunea:  
<http://www.menestrel.fr>
- « Les derniers Valois » gunea:  
<http://derniersvalois.canalblog.com/archives/2009/12/23/16261026.html>
- « Art, Faith and History » gunea:  
<https://www.artfaithhistory.org/vittoria-colonna-her-correspondents-marguerite-de-navarre-michelangelo>

Nabarlur gunea

<http://nabarlur.blogspot.com/p/la-conquista.html>

Nabarralde gunea

<https://nabarralde.eus/es/la-conquista-de-navarra/>

Real Congregación

<https://www.sanfermindelosnavarros.org/1512-la-incorporacion-del-reino-de-navarra-a-la-corona-de-castilla/>

Blog Historia Moderna España sobre Carlos I gunea

<https://blogs.ua.es/carloshabsburgo/2010/12/27/la-conquista-de-navarra/>

Margarita Nafarroakoari buruz.

La Société Marguerite de Navarre gunea

<https://margueritedenavarresociety.com/>

[http://blog.ac-versailles.fr/lelu/public/Femmes/documents\\_pour\\_une\\_hist.\\_des\\_femmes.pdf](http://blog.ac-versailles.fr/lelu/public/Femmes/documents_pour_une_hist._des_femmes.pdf)

<https://www.enssib.fr/bibliotheque-numerique/documents/64684-le-regard-porteur-sur-les-femmes-par-le-franciscain-jean-benedicti-a-travers-son-manuel-de-confession-la-somme-des-pechez-et-le-remede-d-icevx-1595-reed.pdf>

Marignan et Pavie, deux batailles chevaleresques à la Renaissance.[https://multimedia ext. bnf.fr/pdf/FP\\_Marignan.pdf](https://multimedia.ext.bnf.fr/pdf/FP_Marignan.pdf)

<https://www.museeprotestant.org/notice/laffaire-des-placards-1534/>





